

TENE MUJIKA *EMAKUMEA*

Pizkundetik ahanzturara

XXI. mendetik ateratako postargazkiak

NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE



Nekane Goikoetxea Agirre (Deba, 1970)

Euskal kultur ikasketen eremu zabalean formatu eta lan egin du. Euskal filologia (DU-1994) ikasketak egin ostean, pedagogian (EHU-2006) doktoratu zen, hezkuntza arloko eleaniztasunari buruzko tesi batekin. Horrez gain, humanitateetan –arte, literatura eta kultura garaikidea– unibertsitate masterra egin du (UOC-2019). Euskara teknikari lanetan aritu izan da nola eremu publikoan (Debako udala, 1998; Andoaingo udala, 2009), hala kooperatiboan (Emun, 1999). 2009. urtetik irakasle-ikerlari dihardu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, Mondragon Unibertsitatean. Bere ikerlerroak euskal kulturgintzaren transmisioa eta soziolinguistika dira. Arlo horietan hainbat argitalpen eta proiektu garatu ditu. Irakasle gisa hezkuntza graduetan dihardu nagusiki, etorkizuneko irakasleen bidelagun.



TENE MUJIK *EMAKUMEA*

Pizkundetik ahanzturara
XXI. mendetik ateratako postargazkiak



NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
<<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>>.

Argitaraldia: 1.a, 2022ko abendua

Ale-kopurua: 400 ale

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta
maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea: PRINTHAUS, S.L.

ISBN: 978-84-457-3675-3

Legezko Gordailua: G 838-2022



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0
Nazioartekoa Baimen baten mende dago. Iturriaren
aipamena horrela egingo da: Kultura eta Hizkuntza
Politika Saila (Eusko Jaurlaritza)

Aurkibidea

Hitzaurrea. Bigen Zupiria Gorostidi, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua 7

TENE MUJIKA *EMAKUMEA* Pizkundetik ahanzturara

TENERI	13
1. SARRERA	17
1.1. TENE MUJIKA BIDEGILEA	20
1.2. HELBURUAK	23
1.3. OHAR METODOLOGIKOAK	24
2. AURREKARIAK: XIX. MENDEKO AJEAK SORTUA	29
■ Debako euskararen historia soziala	36
3. XX. MENDEKO ABERTZALETASUNAREN HAZIA	39
■ Espania failed	39
■ Darwinismo soziala eta abertzaletasunaren aurrekariak	41
■ Erljioaren auzia	43
■ 17 urteko euskaldunberria	46
■ Libe edo emakumeen artean salbuespena den euskal emakume arketipoa	50
■ Kizkitzaren aukera: Teneren lehen lanak	53
3.1. 1914-1920 LANEN AZTERKETA	58
4. ABERTZALETASUNAREN EKINTZAILTZA	73
■ Egituraketa: CNV, SOV, EAB, Euzko Gaztedi	73
■ Emakumeen partehartze gatazkatsua	77
■ EAJren eszisia eta Primo de Riveraren diktadura	79
■ Ezkerreko inteligentsiaren hizkuntz ideologia	82

■ Aitzolen hizkuntz ideologia	86
4.1. 1921-1926 LANEN AZTERKETA	88
5. II. ERREPUBLIKAREN INGURUMARIA	109
■ Lizardiren genero-ideologia eta EAB	110
■ Sufragioa eta EAB	116
■ EABren egintzak	121
■ Elizgizonen pisua: Mateo Mujika, Polikarpo Larrañaga (Don Poli), Aita Onandia (Egizale), Jose Ariztimuño (Aitzol), Nemesio Etxaniz, Joseba Mirena Markiegi	125
■ Euskaltzaleak, Pizkundera eta aitortzak	128
5.1. 1930-1936 LANEN AZTERKETA	130
6. GERRA ETA ONDORENA	139
■ Aztu ezindako oroigarriak	139
■ Erbesteko giro intelektualean	157
■ Malerrekako Donamarian erbesteratua	161
7. AZKEN TENE	163
■ Itzulera ostekoak	163
■ Elizgizonak katebegi	177
■ Nemesio Etxanizen erredua	185
■ Tene belaunaldi arteko katebegi	192
■ Gure hirurogeiak	199
7.1. 1954-1981 AZKEN LAN ARGITARATUEN AZTERKETA	202
■ Azkenak	214
8. ONDORIOAK	219
9. BIBLIOGRAFIA	227
10. ERANSKINAK	233
10.1. TENE MUJIKAREN LANAK	233
10.2. INFORMATZAILEEN PROFILAK	241
10.3. TENE MUJIKAREN ARTXIBO PERTSONALAREN ERREGISTROA	244

Hitzaurrea

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

GENERO BERDINTASUN politikek eta hizkuntza normalizazio politikek elkarrengandik ikasi eta elkar sendotzeko beharra bagenuela aitortu genion elkarri, halako gertuko garai batean, 2018an, zeharkako politikak txirikordatuz sor zitekeen hura sendoa eta iraunkorra izan zitekeela irudikatuta.

Bi politiken arteko gurutzaketak, berdintasunak, ezberdintasunak, bakoitzaren narratibak, ajeak eta aleak... jira eta biran ziren hartan ekin genion saileko berdintasun planean hizkuntza normalizazioa berdintasunetik nola ulertu eta gara zitekeen pentsatzeari. Barnetik kanpora lehenik, eta kanpoarekin harremanetan, ondoren.

Aurrera-atzera horien emaitza bat izan zen galdera bat: zer berri jakin genezake hizkuntza normalizazioaren politikez generoaren ardatzetik irakurketa eginda? Eta galdera hark erantzun ezberdinak sortu zituen, eta galdera berriak, behar berriak txirikorda hartan gertatzen zenaz jabetzeko. Ezagutza eta egiten jakite berriak sortu eta zabaltzeko beharra sortu zitzaigun. Ordu hartan.

Ordutik ondu zaizkigu galdera haiei erantzun asmo zizkien hainbat ekimen. Berdintasun batzordea Hizkuntza Politika Sailburuordetzan eta *Euskara eta feminismoa* jardunaldiak, beste batzuen artean.

Esku artean dugun ikerketa-lan honen ikerketa beka deialdia ere bai. BERDINTZEN bekak jaio ziren orain bi urte eta haxe da ordu hartan sortutako jakin-min handi baten emaitza bat. Euskararen biziberritzean emakumeek izan duten paperari buruzko ikerketa lana aurkeztu zuen Nekane Goikoetxea Agirre ikerlari eta irakasleak: *Tene Mujika, emakumea*.

Ordutik hona egindako lanaren emaitza jaso eta zabaltzeko asmoz argitaratu dugu. Izan dadin galdera zaharren erantzun berria eta izan dadin galdera berrien abiapuntu berritua. Tene Mujikaren biografia genero ikuspegitik ezagutu eta bere ibilbide politiko nahiz profesionala toki esanguratsuago batetik ulertzeko aukera ematen digu ikerketa-lan honek. Zer berri dakigu Tene Mujikaren garaiaz, emakume moduan hartu zituen erabakiez eta bere praktikez? Ondu berri den kontakizun asko ekarri dira lan honetara.

Esker onak eman nahi dizkiot Nekane Goikoetxeari BERDINTZEN beken-gan jarritako konfiantza eta asmo onari. Ezagutza berritzea ezinbesteko zaigu etorkizunari begira jartzeko, eta lan honek horretarako aukera paregabea ematen digu.

TENE MUJIKA *EMAKUMEA*

Pizkundetik ahanzturara
XXI. mendetik ateratako postargazkiak



Mari bandera guztiei

TENERI

Gustatzen zitzaizun esatea itxas-mendarte batu bateko alaba zinela, *maite maite detan Debakoa*, hain zuzen ere. Eta euskal kostaldeko itsasontzien zaindari proposatzen zenuen Itziariko ama. Euskal lurrak izendatzen jarraitzeko tradizio luzeari jarraitu zenion, emakume kristau baten moduan egin ere. Garai baten argazki-bilduma oparoa laga zenigun, guk postargazki moduan baino ezin duguna begiratu, *egia* eta *errealitatea* bezalako hitzak mehetu egin baitira, asko, gaur egun. Gehienez ere irudi batzuk proposatuko ditugu, ez izan zinenaren eta egin zenuenaren dokumentu moduan, baizik eta irudi batzuk elkarjarriz gaur egungo debateetarako proposamen gisa.

Tene, utzidazu kontatzen (zuk Miren Itziarri nola) zure ibilbidea nola ikusten dugun XXI. mendearen 20. hamarkadatik. Badira 40 urte hil zinenetik eta geroztik gauza asko gertatu dira. Euskarak gizartean izan behar duen lekua argitu gabe jarraitzen dugu oraindik, nahiz eta zuk ezagutu zenituen egunik beltzenak atzean utzi ditugun. Hurrengo belaunaldiak, Txillardegik eta lagunek, zuen lekukoa jaso zuten eta zentzuz hedatu *euskara dela euskaldun egiten gaituena*. Aitortza gutxi egin dizuete, ordea, gerraurrean hori berori defendatu zenuten emakumeoi.

Emakumeok gaur egun ere erronka artean bizi ditugu gure pausoak baina sen komunitarioa indartzen joan da eta gaur egun gizarte mugimendu indartsuenetakoa izatera iritsi da berdintasunaren aldarriarena. Gero eta emakume gehiagok igartzen dituzte endekapenerako mekanismoak eta andra asko inguru hurbila eraldatzen ari da.

Gustura bilduko ginатеke zure denda ostera zurekin solastera baina ezinezkoa denez, hemen zirriboratu ditugu geure lanez eta irudimenez zutaz eraiki dugun kontaketa, postargazki modura eraiki ere. Guretzat da zuretzat baino gehiago edo, agian, gaur 18 urte bete ditzakeen balizko Miren Itziarrentzat. Frankismo berantiarrean jaiotako euskaltzaleok ez ditugu ezagutu zu moduko emakume

1936 - 2036

Tene'k

Eun urte...
Nere bizitzaldj onentzat, ezin bat aña.
Egutegi onen irautearentzat, egun bat beste.

Nork esan dit, Egutegi onen iyeki bat edo bestek, edo... askok, idazitegiren bateko apalan, edo ganbara kutxetan egun bat bestean, eunki oso bateko loa egingo ez dutenik?

Iñork ez.
Guztiz errex gerta litekena; ziur-ziur gertatuko dana.

Orra ba zerk, 1936'ko idazle au, 2036'ko irakurlearen begietan jartzen nabari Onek, eta euzkerak sendo iraungo duan itxaropenak.

...

Zuretzat ba, 2036'ko irakurle orrentzat nere au.

Norbait izandakoa naiz zuretzat; norbait izango zerana zera neretzat.

Gerora etorriko dan aldikoa zu neretzat; aspaldi igaro zan aldikoa ni zuretzat.

Alaero Egutegi oni eskerrak, aldi bateko edozein idazle-irakurle bestean gera zu ta ni gogoz aurrez-aurre elkar mintzatzen eta aituko gera.

Ez da ba esango dizudan au, ez «lenagoko» ez «oraingo»; ez nere «uste», ez beste ren Jaungoikoa ta Aberria esateko ditudanak Jaungoikoa betiko da Aberria iudian dan arteko Biak zuretzat eta neretzat berdin «lengo» ta «oraingo».

...

Jaungoiko ta Aberri'tzaz oldozten, ames dagit... 2036'ko zure Euzkad'i z ames ere.

On, eder, azke iduri det. Jaungoiko zale ta euzkeldun Au gabe bestea ezin ba.

Jaungoiko gabe ezin errien zorionik; ontasun eta edertasunik. Beren zeingi gabe, ezta izaterik edo azkatasunik ere. Gurearen zeingirik bereziena euzkera; euzkera gabe Euzkadirik ez.

Baña... esan det: ames dagit. 2036'ko zure Euzkad'i, on, eder, azke, da.

Euzkotar guziak euzkeldun, euzkotar guziak Jaungoikoaren. Goimaitasuna Euzkadin pake bide; zintzotasuna bere altxor; euzkera ezaungarri Maitasun goikoagan, gogo ona bekoagan.

Ontasun guzi au. gure aberriak beti bere izan du; izan dezan lan dagit; izango duala ames dagit.

Entzun, 2036'ko nere irakurle orrek: ¿ames dagidana egiztu da?...

Irakurten banazu; bai: euzkera bizi dala-ko da-ta. Ta euzkera bizi ba'da, baita euzkotarren sinistea ere. Zure Euzkad'i, on, eder, azke da...

...

Zuretzat, 2036'ko irakurle orrentzat nere au.

Zuk nere au irakurri dajzun ez da asko «Argiaren Egutegi iyeki onen irautea. Bearreko euzkerak irautea. Euzkeraz, aberriak bizirik iraungo du; baita bere zintzitateak ere. Orrela zu ta ni elez ta gogoz aituko gera.

Au hizteko gaur lan dagit... Zuretzat idazten det...

TENE

Sofitekoen urbanak (manixak) oazurak qartitzen, eta beste dozein etxeko jakintza ikatza ikasi nai baaituzu A RGIA igandero artzazu.

erreferenteak: nekez azaldu zarete eskolako curriculumetan, erreportaje gutxi egin dira zuen inguruan, alderdiek ez zaituztete loriatu, ahanzturan erori da zuen memoria. Ez diogu gauza bera opa hurrengo belaunaldiari.

Mujika sendian jaio zinen eta zure gurasoek zein patuak nahi izan zuten Robustiana izena eramatea. *Tene* zen zure idazle izena, *Robus* zinen etxean. Zure arrastoak errebeldia zantzuak ditu eta ikusi duguna da generoak baduela orain arte azpimarratu ez den besteko eraginik zure biografian: Mutil artean sortua, jendaurreko negozio batean hazia, gaixotasun batek idazle lanetara jarria, inor gutxik idazten zuenean idazle, komunikabideetako lehenengoetako kolaboratzaile, apaiz abertzaleen lagun, senar eta umerik gabea, exilioan bakartua, herrira itzultzetik zigortua, Nafarroan babestua, herrira itzultzean zure baitara bildua, Euskerazaintzakoa.

Zure lanaren gaineko analisia literatura kostunbristara eta literatura didaktikora errenditua izan da baina gaude zure lanaren bestelako azterketa bat egin litekeela extraliterarioak diren aldagaiak erabilita. Horretan saiatuko gara. Ea zer dakarren zuk begiz jo zenuen 2036ak, biok itxarongo diogu. Norbait izandakoa zara niretzat, *izan* hitzaren zentzu sakonean.

1. SARRERA

Orotariko Hiztegiaren arabera *emakume* hitza XVII. mendean dokumentatu zen lehen aldiz Lapurdin, mende bat beranduago Gipuzkoan eta XIX. mendean Bizkaian. Hitz arrunt horrek, ordea, zentzu ezberdina hartu zuen azken lurralde horretan XX. mendearen hasieran, *EMAKUMEAK* abertzaletasunaren baitan ezaugarri zehatzak zituen kolektibo egituratu bezala sortu zenean. Eusko Emakume Abertzale Batza izan zen taldetasun horri izena eman ziona duela mende bat. 25.000 afiliatu izatera iritsi zen (Retolaza, 2012; Urkiza, 2013; Larrañaga, 1978).

Ugaldek (1993) talde horren genesisia eta garapena ikertu zituenean azpimarratu zuen emakume horien jokoera Sabino Aranaren (1865-1903) ikuspegiaren arabera zela lehen begiratuan, hots, menpeko rolerik eta funtzioek mugatua. Ikerlariaren azterketa sakonari esker ikusi ahal izan zen, ordea, emakumeen partehartze politikoak emantzipazio zantzu interesgarriak ezkututzen zituela. Gogoratu behar genuke Aranaren emakumearekiko bisioa gizonarekiko menpekotasunak ezaugarritzen zuela garaiko ikuspegi nagusiarekin bat eginez. Emakume horien partehartze politikoa ez zen gatazkarik gabea izan, jakina.

Emakume Abertzale Batzari aitzindari izatea aitortzen zaion arren, oraindik orain asko dira ikertzeko geratzen diren gaiak. Zein interes izan dezake gaur egun duela ehun urteko aurrendariei begira jartzeak?

Llonak, esate baterako (2002), Bizkaiko hiritartze eta klase sozialak nola gertatu ziren azaldu zuen genero-sistemaren aldagaia erdigunera ekarrita. Modernitatea ikergai duen historiografia horrek hausnarketa interesgarriak egin ditu gaur egungo gizarteak iraganaren ahozko memoria ariketen bitartez aurkitzen dituen erantzunen inguruan. XX. mende hasierako modernitate urbanoen gaineko hausnarketak laguntzen digu gaur egungo gizarteaz ditugun konfigurazioak hobeto ulertzen. *Baina* bat jartzekotan aldagai soziolinguistikoaren falta aipatuko genuke.

Antropologiak arreta handiagoa jarri dio gizarte garaikideen aldaketa sozio-linguistikoari. Hernandezek (2007), adibidez, tokiko giza-komunitate baten desegituratze eta berregituratze prozesuetan hizkuntzaren aldagaia aztertu du euskaltasunaren gaineko marko epistemologikoari ekarpena eginez. Gaurko euskal komunitateak ezinbesteko du aldagai ezberdinen inguruko ikerketa multidiziplinarra. Erronka epistemologiko handiak dakartzki eskatzen baitu tresna metodologiko ezberdinak zorroztea, galdera berriei leku egitea, norberaren eta besteen erresistentziei begietara begiratzea (Agirre *et al.*, 2019). Zentzu horretan aitzindariak, *Emakume* taldekoak kasu, nola jokatu zuten ikertzeak badu interesa gaur egundik begiratuta.

Eusko Jaurlaritzaren *Berdintzen* bekek hizkuntza-politikan generoaren aldagaia txertatzeko asmoa dute. Horretarako guztiz interesgarria ikusten dugu 60. hamarkada baino lehenagoko gizarteak izan dituen aitzindariak egungo ikuspegitik begiratzeak, hor arazten baitira egungo genealogiak. Polixene Trabuduaren inguruko Llonaren lanak (2000) edota Alvarezek Katalina Eleizegiri buruz egindakoak (2011) arrastoaren gainean jartzen gaituzte.

Bidegileak bildumak *Emakume* hauetako batzuen biografia laburrak plazaratu ditu. Hori da, beste batzuen artean, Tene Mujikaren kasua. Guk dakigula hau da hari eskainitako lan monografiko bakarra. Bere biografia (Dorronsoro, 2004) eta haren lanaren inguruko balorazioa genero-sistema gehiegi kontuan hartu gabe egin izan dira, ordea, euskal ikasketetatik, naturalizatuz bide batez genero-asimetriak. Gorago aipatutako Ugaldere lanak, berriz, hamaika orri eskaintzen dizkio 1888an jaiotako idazle eta politikariari. Emakumeen taldearen lehenburu kokatzen du Mujika eta bere bitartez mugimenduaren ezaugarritzea egiten du historiografia feminista liberalaren ikuspegitik abertzaletasun sabindarraren mugak azaleratuz bide batez. Uste dugu soziolinguistikaren zein generoaren aldagaiak elkarreraginean erabilia haratago eraman dezakegula Mujikari buruzko analisisia.

Bekara aurkeztu genuen proiektua, beraz, Mujikaren lanaren analisi gaurkotua da. Autore horrek baditu ezaugarri batzuk esploratuak izan litezkeenak euskaltzaletasunaren eta genero-sistemaren perspektibetatik:

Mujikaren praktika linguistikoa kolektiboko beste emakumeena ez bezalakoa da euskara erabiltzen baitu bere lan idatzi ia guztietan. Are gehiago, hizkuntza

horren hautua bere bizitza osoan mantendu zuen. Bizitza luzea izan zuen, ia mende batekoa, eta garaiko gertakari guztien gainetik (apurketa politikoak, gerra, exilioa, belaunaldi ideologiko ezberdinekiko interakzioak) tinko eusten dio euskararen erabilerari. Deigarria egiten da datua ze bere bizilekua den herriaren bilakaera soziolinguistikoa (Ramirez de Okariz *et al.*, 2017) oso bestelakoa da. Mujikaren jokaera erabat politikoa da, euskararen aldeko hizkuntz politika jakin baten eragile baita bere eragin esparru guztietan.

Larrinagak (2006) bikain deskribatu du Arana anaien ideologia soziolinguistikoa. Uste dugu Mujikaren analisiak baduela interesik zentzu horretan ze bere praktika linguistikoarekin erakusten du arrazan oinarritutako euskaltasunarekiko fuga bat. Abertzaletasunaren baitan kokatzen den emakumeen politizatze ekintzaren baitan Aranaren genero-ideologiarekiko men egite bat azpimarratu izan da Emakume Abertzale Batzako kideen praktikak aztertzerakoan baina gaude errealitatea, konplexuagoa eta aberatsagoa dela eta Mujikaren kasuan baduela aldagai soziolinguistikoa zer ikusirik horretan gainera.

Idazlan honek NOR diren emakumeen elisioari erantzun nahi dio horretarako beren testuinguruan kokatuz eta beren kontraesanetan sakonduz. Esan dezagun aurkezpen hau bukatzeko debarra bere testuinguru konkretuan kokatzen ahaleginduko garela. Izan ere, gaurko Deba herriak zer ikusi gutxi du mende hasierako Debarekin. Herri horretako historia sozialak Mujikaren euskaltasuna kokatzeko zantzu interesgarriak eskaintzen ditu. Horrela, beste lanen batean argudiatu dugun moduan (Ramirez de Okariz, *op. cit.*), bere jardueraren ekonomikoek (Gaztelarekin lotzen zuen merkataritza fluxu nagusi batean kokatzeak eta XIX. mendean hasiko den turismo modernoarekiko dependentsia ekonomikoak) definitu baitute, jazarpen glotofagikoaz haratago (Irujo & Urrutia, 2014; Torrealday, 2018; Anaut, 2013), euskararen galera bortitza XX. mendean eta, halaber, horren erantzun bezala Deban sortu zen euskaltasun urbanoa. Tene Mujika katebegi argia da prozesu horretan. Herri txiki bateko historia sozialak baditu badituenez euskal ikasketei begirako irakaspenik eta debatarren ahozko memoriak gidatuko gaitu irakaspen horien bila.

1.1. TENE MUJIK A BIDE GILEA

Lukax Dorronsorok (2004) idatzi zuen Teneren biografia *Bidegileak* bildumarako. Bertan jasotzen dira hari buruzko datu nagusiak. Hiru etapa daude bere bizitza luzean:

1. Gerraurreko Tene. XX. mendean sartzerako, 12 urteko neska koskorra zen. Ikerlariak azpimarratu duten moduan (Llona, 2002) gerraurrean helduaroko esperientziak bizitzeko aukera izan zuten emakumeek gerra garaian gazte izandakoek baino aukera gehiago izan zituzten. Lehen horixe da, Mujikaren kasua. XX. mendeko modernitatea ezagutu zuen eta gerraurrean jokatu zuen bizitza publikoan. Emakume batentzat ez-ohikoak diren jardueretan aurkituko dugu Tene:
 - Hedabideetako kolaborazio ugaritan Euzkadin, Euzko Deian, Jainko-zalen, Euskal Esnalean, Gure Herrian, Euskerean, El Dían, Argian e.a.
 - Emakume Abertzale Batzako kide esanguratsuen aurrendari ideologo eta arduradun legez. Deban, (3600 biztanle inguru artean), 260 bazkide izan zituen Batzak. Gipuzkoako EABko Federazioaren lehendakaria izan zen.
 - Literaturgile, batez ere antzerkigintzan eta olerkigintzan: Idazkiak eta Olerkiak (1923), Gogo-onaizeak (1934), Gabon (1935), Juan Jose (argitaratugabea).
 - Ikastolen mugimenduan eragile. Elvira Zipitriak Emakume Abertzale Batzakoengan aurkitu zituen lehen kolaboratzaileak eta berak itzal handia zuen garai hartan erakundean. Ez zen, ordea, irakaskuntzan murgildu EABko emakume asko bezala, bere arloa kultur sorkuntza izan zen, idazletza nagusiki. Crespok eta Ciordiak (2020-108) diote gerraurreko idazleek belaunaldi literarioa osatu zutela, gerraurreko idazleen belaunaldia. Autoreek izen batzuk nabarmendu zituzten belaunaldi horretan: Madalen Jaurregiberri, Julene Azpeitia, Tene Mujika, Katalina Eleizegi, Mayi Ariztia, Errose Bustinza, Sorne Unzueta, Julia Gabilondo. Maistra-lanetan aritu ez ziren bakarrak Ariztia, Gabilondo, Mujika eta Bustinza izan ziren.
2. Gerra garaiko Tene. 48 urteko emakumea zela ihes egin behar izan zuen giza eskubideen zapalketaren eta errepresioaren ondorioz. Iheslari lehenik eta deserriratzeko agindu baten ondorioz Nafarroara erbesteratua ondoren

(Arizabaleta, 2019). Ez dakigu zehazki zenbat urte eman zituen bere herri-
tik kanpo. Ez dakigu, era berean, euskal exilio antolatuak lagundu ote zion.
Ez dakigu Emakume Abertzale Batzako harremanek (Nafarroako taldeak
zehazki) lagundu ote zioten. Dakigun apurra familiak kontatutakoa da.


3. 50. hamarkadatik aurrerako Tene. Debara itzulita euskalgintza klandesti-
noan aritu zen lanean. Plaza abertzalea izandako herriak (Markiegi alkatea
fusilatua izan zen Dueson) ezkutuan eta euskal kulturako adierazpideen
atzean garatuko du erresistentzia politikoa. Jarduera kulturaletan aurkituko
dugu baina badakigu erresistentzia leku izango direla berauek Frankis-
moaren baldintzapean. Xalotasuna ageri bada ere bere hainbat ekarpenetan
(festetako programan argitaratutako idazlanak, Ondarroako Lore Jokoetan
irabazle 1964an e.a.), gerora etorriko den euskaltzaletasun garaikidea pres-
tatzen hasia zen eta kate-begi argia da. Herriko dinamiketan murgilduko da
adineko emakumea izanik baina azal dezagun euskaltzaletasun urbano ba-
tekin ardatzen duela Debako euskalgintza. Adibide moduan aipatuko ditugu
honakoak: Euskal Herriko diktadurapeko lehen euskal jaiak Deban gertatu
ziren 1964, 1965, 1966an; ikastola goiztiarra sortu zen bertan 1962an; Jorge
Oteizak bere eskola esperimental garrantzitsua bertan abiatu zuen 1969an
Ostolazatar mezenasgoaren abaroan. Hori guztia posible egin zuen gazte
belaunaldiaren aurrekoa da Tene, hauen eta gerra galdutako belaunaldia-
ren arteko zubia. Nemesio Etxaniz, Anes Arrinda, Manuel Lekuona izan
zituen lagun zubigintza horretan. Euskal ikasketetan funtsezko diren 50.
eta 60. hamarkadetan horien ondoan jokatu zuen partida klandestinitatean
Tenek Kardaberaz Bazkuneko lagunaren babesean. 70. hamarkada etxera bil-
duta egin zuen, nahiz herriko gazteekin harremanetan izan zen. Harreman
horiek gazi-gozaok izan ziren ikusiko dugunez.

Herriaz gaindi ikastolen mugimenduarekiko interesatuta irudikatzen dugu.
Ikastolen eraketaren inguruko azterketetan (Iza, 2011) mugimendu honen
genesia aztertzerakoan ikus genezake Euskal Herri mailako hito guztiak ger-
tatzaren direla Debako kasuan ere (Agirre, 2012): aurrekari moduan har geni-
tzakeen euskalduntze klaseak, elizaren abaroan sortutako lehen ekimenak
Acción Catolicako Oargui talde kulturalaren lana, ikastola izango zenaren
lehen antolaketa gurasoen aldetik, ikastolen legeztatzearen inguruko eztabai-
dak, erlijioak izan behar zuen lekuaren inguruko gatazkak e.a. 1968an editatu

zuen *Cuadernos de vascuence hablado* izeneko azkenetako lana eta hartzaile moduan begiz jota zituen euskaraz ez zekiten ikastoletako gurasoak, ikasketarik gabeko amak hain zuzen ere.

Bukatzeko 1975ean Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain izendatu zuenean Julene Azpeitia eta Madalen Jauregiberrirekin batera, uko egin zion euskara batua erabiltzeari sari banaketan. Gabriel Arestiren ekimenez eman zitzaien sari hura hiru emakumeoi baina, bilbotarra zendu berria zenez, Aita Villasantek egin zuen omen egiteko hitzartzea. Emakumeek euskararen sustapenari ekiteko gune aproposena etxea zela defenditu zuen hark eta Garibai zein Azkueren amak jarri zituen eredu gisa euskalarien lanaren itzalean zeuden emakumeak aintzatetsiz (Alvarez, 2005-58). Amatasuna loriatzen bazen ere, ez Mujika, ez Jauregiberri ez ziren ez ezkondu ez eta amak izan ere; Azpeitiak seme bakarra izan zuen. Amatasunaren aipamena, beraz, behartua zen (eta gizonen deserotasunaren zantzua ziurrenik).

Julene Azpeitia eta Tene Mujika lagun handiak ziren eta lehenak egonaldiak egiten zituen Deban Tenerekin (Granja, 1988-57). Emakume abertzaleen saretzea erakusten digu horrek. Izen hauek ezin baititugu modu isolatuan ikusi, baizik eta mugimendu sozial zabalago baten ikono moduan.



Anes Arrindaren eskaintza.
[Iturria: Tene Mujikaren artxibo
personala. Argazkia: N. Goikoetxea]

Azken urteetan Tene Euskerazaintzan babestu zela dio Dorronsorok (2004), euskaltzain gazte ikasiei akademia hizkera handinahiaren ohoretan herri hizkera baztertze joera ikusten zielako. Herriko apaiz, Anes Arrinda, izan zuen lagun, *Elementos para una religión prehistórica de los vascos* izeneko lanarekin Erroman doktoratu zen Euskerazaintzako burua. 1981ean eman zuen azken hatsa bere ohean, 93 urterekin.

Kontraesanez betetako pertsona moduan agertzen zaigu idazlea. Emakume izatea identitate nazionalaren asmopean kokatu zuen, bere indarra (ethos borrokalaria) Larramendik irudikatutako emakumetasunaren bidetik doa

(Altonaga, 2015) baina, nolahi ere, nekez kabitzen da Mujika XX. mendeko emakume AMA sozialaren rolean soilik (Llona, 2000). Ereku publiko eta pribatua berrantolatzen hasia zen mende hasieran eta Tene ereku publikoan ageriko zaigu indartsu, lehenik prentsan nahiz emakumeen antolaketa politikoan, jeltokideen ondoan gero, exilioko komunitatearen barruan hurrena, eta diktadurako kultur klandestinitatearen inguruan, hirugarrenik, bere herriko janari-denda nuklearraren arduretan jendaurre zein dendaostean konplizitateak josten. Jakin badakigu emakumeek (Sagastizabal *et al.*, 2016) partehartze politikorako zirrikituak aurkitu behar izan dituztela historian zehar.

1.2. HELBURUAK

Ikerketaren helburu nagusia izan da Tene Mujikaren azterketan sakontzea. Alde batetik, gainditu egin nahiko genuke 60. hamarkadaz geroztikako paradigmatic egindako irakurketa murriztaileak. Gaude, Mujika bere garaian kokatuta eta haren soziobiografia aintzat hartuta bere ekarpena berbaloriza genezakeela. Gure susmoa da errazegi eta azkarregi desestimatzen direla mende hasierako euskaltzaleen ekarpenak gaur egungo begiradatik eta begirada horiek murriztaileagoak direla ekarpen egileak emakumeak badira.

Beste alde batetik, beraz, genero ikuspegia txertatu nahiko genuke Mujikaren azterketan. Izan ere, euskal ikasketen kanpotik etorri dira Mujika bezalakoek ekarpenak berrirakurtzeko ahaleginak (Bermúdez *et al.* 2018; Ugalde, *op. cit.*). Guk bi prozesuak, euskaltzaletasunari dagokiona eta generoari dagokiona, osotasun batera ekarri nahiko genituzke. Alegia, aztergai izan nahiko genuke zertan eragiten duen bere praktika *protofeminista* bere euskaltzaletasun ereduak eta zertan eragiten duen bere praktika euskaltzalean emakume izateak.

Mujikaren euskaltzaletasun ereduaren Sabino Aranaren eraginpean garatuko da ezinbestez. Euskaldun izatearen politizazioak hiri giroetan hartuko du lur abertzaletasunaren eskutik pasa den mende hasieran eta euskaltzaletasun garaikide bat hasiko da garatzen modernitatearen abarotan. Ikerlan honetan xehe-tasunez aztertu nahiko genuke oraindik orain euskararen gaineko ikuspegiaren eragina duen ikuspegi sabindarrarekiko (ikus, Zalbide, 2015, eta Azurmendi, 1979a) non kokatzen den Mujika. Bereziki interesatzen zaigu arakatzea eus-

kararen funtzio sozialarekiko zein ikuspegi duen. Badakigu abertzaletasun katolikoaren ikuspegi kanonikoa jarraituko duela baina ñabardurak interesatzen zaizkigu bere bizitzaren etapa ezberdinetan nola garatzen den bere ikuspegi euskaltzalea eta nola gurutzatzen den ikuspegiaren garapena genero-sistema-rekin.

Bizitza-ibilbide horretako jarduera horietan guztietan Tene Mujika Egañaren ahotsa aztertu nahiko genuke, bere ahotsa entzun eta gurutzatu honako alderdiekin: eremu publikoan egoteko moduak, bere rola-rekiko pertzepzioak, euskaltzaletasunarekiko adjetibazioa, bere harreman-sareko gizon-emakumeekiko harremanak, klase ezberdineko pertsonetikiko iritziak, jorratutako gaien unibertsoa, e.a.

1.3. OHAR METODOLOGIKOAK

Hurbilpen metodologiko kualitatiboa erabili dugu xehetasunez aztertzeko Mujikaren ekarpena. Zehazki ikuspegi hermeneutikoa eta etnografikoa erabili ditugu nolabait elkarren osagarri. Mujikak, nagusiki prentsan, argitaratutako 500 bat lanek osatu dute lagina eta horrez gain 9 elkarrizketa sakon erdi-egituratu egin ditugu Mujika ezagutu zuten debarren ahozko memoria biltzeko asmoz.

Alde batetik, Diskurtsoaren Analisi Kritikoa (DAK aurrerantzean) erabili dugu Mujikaren obra guztia aztertzeko. DAK (Van Dijk, 2000; Jäger, 2001) testuak aztertzeko erabiltzen den metodo bat da, egileari agente jakin baten ikuspegi filosofikoa edo ideologikoa azalera-zea ahalbidetzen diona. Metodo hau erabilgarria da testuen ideologia-aurreiritzien zantzuak aurkitzeko.

Mujikaren testuak ardatz kronologikoan kokatu eta aldagai ezberdinak erabiltuta egin dugu diskurtso analisia:

- Lehen lanak (1914-1920)
- Bigarren hamarkada (1921-1926)
- II. Errepublikaren ingurumaria (1930-1936)
- Azken Tene: Itzulera ostekoak (1936-1981)

Diskurtsoaren analisi kritikoak aukera ematen digu Tene Mujikak eraikitako diskurtsoaren parte diren enuntziatioak aztertzeko. Mujikak, abertzaletasunaren aktore nagusietako bat den heinean, eraikitzen dituen ertzak interesatzen zaizkigu sozialki esanguratsuak direlako eta gizarteko gatazkekin loturik daudelako, bai genero-sistemari dagokionez, bai naziogintzari dagokionez ere. Hizkuntzaz eraikitzen diren enuntziatioak erreferentzia nagusi eta ezinbesteko dira, horrenbestez, gizarte baten pentsamolde, errepresentazio eta ezagutzak eraikitzeko.

Prentsaren bidez gizarteratzen diren ideia abertzaleak praktika sozial, diskurtso-praktika eta testu-praktika bezala errepresentatzen dira (Fairclough, 1992). Hiru esparruek argitzen digute zein den diskurtsoaren zeregina transmisio diskurtsiboan eta ideia, balio eta ezagutzen legitimazioan. Teneren lanak autorizatutako lanak dira, abertzaletasunak ontzat emandakoak agerkari ofizialetan atera zirenez (ikus 10.1. eranskina) eta autorizazioak dakarrena da testu horiek eragin erreala izan zutela abertzaletasunaren hedapenean eta konfigurazioan.

Abertzaleen eta ez abertzaleen inguruko forma eta erabilera linguistikoek, batzuen eta besteen zereginak eta bizimoduek irudi bat sortzen dute hartzaileengan, eraiki egiten dute errealtate sozial berria XX. mendearen hasieran. Eraikuntza horiek aztertzeak interesa dauka gaur egun ditugun elkarbitza arazoei aurre egiteko, arazoak baititugu XXI. mendearen hasiera honetan ere emakumeek eta euskarak izan behar duten toki sozialarekin.

Aztertu ditugun idazlanek lagunduko digute hausnartzen diskurtsoaren antolaketa sozialaz, hau da, irudikatzen diren talde sozialen botere harremanez eta horien ondorioez eta baita ere errepresentazio sozialaren eraikuntza diskurtsiboaz. Hain zuzen ere, abertzaletasunaren legitimazioa bilatzen duten idatziak gatazka baten parte moduan irudikatu ditugu, abertzaletasunaren kapital sinbolikoa handitzeko ahalegin betean. Kontuan hartuko ditugu horretarako hainbat ideia: euskal abertzaletasunaren testuinguru politikoa, darwinismo sozialaren aterki diskurtsiboa, identitate kolektiboen eraikuntzan erlijioetasunak duen rola, emakume abertzaleen arketipoa eta funtzioa, Aranaren hizkuntz proiektua eta haren paradoja diskurtsiboak.

Irakurleak Mujikaren lanak aldi soziohistorikoen arabera egituratuta ikusiko ditu ikerketan. Idazlanen analisiaren aurretik, ordea, une soziohistorikoa

testuinguratzeko informazioa aurkituko du. Idazlanak marko teoriko batean kokatzen saiatu gara aztergai ditugun ardatzak kontuan hartuta. Horrela, eza-gutza-arlo ezberdinetako ekarpen teorikoak puzzle bateko piezak balira legez erabili ditugu Teneren idazlanak kontestualizatzeko asmoz. Soziologia, historia politikoa, euskal eta kultur ikasketak, soziolinguistika... iturri askotatik edan dugu bibliografian ikus litekeen moduan.

Hausnarketarako marko horrez gain analisirako errekurtso eta tresnak erabili ditugu erabilera linguistikoen kontzientzia kritikoa sustatze aldera gorago esan dugun bezala. Hizkuntz baliabide eta diskurtso estrategien bidez ikusiko dugu nolakoa den enuntziatzailearen presentzia, Mujikaren ikuspegia, balio eta iritziak, eta idatziarekin bilatzen dituen helburuak.

Bigarrenik, hurbilpen etnografikoari dagokionez, hainbat elkarrizketa egin ditugu, aurreratu dugun bezala. Tene Mujikaren biografiaren alderdiren bat eza-gutzen duten hainbat herrikide elkarrizketatu ditugu. Elkarrizketon bitartez lortu nahi izan duguna da haren biografia osatzen ahalegintzea. Izan ere, Teneren azken etapan bere idazkiak urritu egiten dira baina, aldiz, lekukotza ugari biltzeko moduan gara oraindik. Elkarrizketatuen ahozko memoria izan da iturria, alegia, bakoitzarekin aztergai izan dugun gaiaren inguruan non eta nola oroitzen duten Tene Mujika eta bere ingurua. Guztira 9 elkarrizketa sakon egin ditugu. 10.2. eranskinean zehaztu ditugu informante horien profila eta Mujikarekin izan zuten hartu-emanak.

Aurreikusi gabeko hirugarren informazio-iturria ere izan dugu ikerketa-prozesuan. Alde batetik, guk gutxi espero genuenean Teneren paper pertsonalak azaldu ziren herritar baten etxean eta eskuzabaltasunez horiek arakatzeko aukera izan dugu. Bertan daude objektu pertsonal, gutun, testu orijinal eta hamaika kontu (ikus 10.3. eranskina). Beste alde batetik, Teneren familiarekin harremanetan jartzeko aukera izan dugu eta haien eskutik jaso dugu testu baten bitartez izeko Robusen berri. Testuan zehar emango ditugu xehetasun guztiak.

Bukatzeko, irakurleari ohar bat edo beste egin nahiko genioke sarrera honetan testu honen izaeraz eta irakurtzeko proposatzen diogun maneraz:

Uko egin diogu testu akademiko kanonikoari eta ekin diogu argazkien diaporama moduko bat egiteari. Ez dugu osotasuna bilatu baizik eta aukeraketa

nahiko librea. Postargazkiaren parametroak erabiliz (Fontcuberta, 2010), gai hauetan ibili izana da irakurleari eskaintzen dioguna, esanguratsuak egin zaizkigun irakurgaiak erakutsiz, irakurleak berak bere bidea libreki egin dezan. Erpurutxoren apurrak dira argazkiok, tranpak ere bai.

Postargazkiaren kontzeptuak badu mamirik. Bizitzan gauza askorekin gertatzen den bezala kasualitatez egin nuen topo postargazkiaren ideiarekin. Bannenbilen nire bidean, euskararen teknikari gisa *hautsi da anphora 2.0*. sentsazioaz gogaituta: Badakizu, irakurle, 70. hamarkadako kulturgintzak ukatu egin zuen 30. hamarkadako *ezpatadantzarien* mundua, orduko praktiken egiantzekotasunak puzkatu egin ziren hamaika zatitan. Agian XXI. eko 20. hamarkada honetan ere, berrogeita hamar urteren buruan, 70. hamarkadaren angelu itsuez pentsatu beharrean gara. Kontziente naiz euskararen gaia fokatzeko 70. hamarkadan oinarritzen den gure moduak baduela angelu itsu nabarmena, gazteekin harremanean senti litekeen zerbait da. *Hautsi da anphora* esaldiak balio digu gaur egun ere gaurko amildegiak gogoan erabiltzeko.

Horretan nintzela Fontcuberta gurutzatu zitzaidan, eta harekin postargazkiaren ideia. Hitzaren ertzean aurkitu nuen irudia.


Argazkigintzak irudiak sortzen ditu. Hasierako argazkigintzak, XIX. mendean, errealitatea bildu nahi zuen, erreala atxiki. Historikoki egiaren zerbitzura egon den teknologia izan da argazkigintza, ustez gezurrik esaten ez duena, klik egin eta atxiki. XXI. mendeko argazkigintza birtualak, ordea, ez du argazkilariaren (edo ikuslearen) eraikuntza, manipulazioa, ezkututzen. Gaur egun onartuak dira filtroak, photoshopak eta iraupen txikiko efektu bisualak. Postargazkiak laguntzen digu pentsatzen irudiaren atzean latentzian dagoen zerbaitetan eta agerian jartzen digu gizarte-aldi bakoitzak dituen egi-erregimenak, botere-teknikak.

Euskararen borroka latente dagoen izaera baten irudia da, metonimia bat. Egoera soziolinguistiko ezberdinetan komunikazio tresna izaeraren materialtasuna galtzen joan da, nekez da gaur beharrezko bizitza sozialerako, zerbait izatekotan autoafirmazio-irudia da gaur, hautua. Hizkuntza izatetik irudi izatera igaro da nolabait. Bere adierazpen potentziala desio eta esperantzarekin dago lotuta, irudimenarekin. Argazkigintzak bezala euskara fokatzeko gure modua osotasunaren errepresentazioa galtzen ari da, gero eta fragmentatuagoa

den giza-esperientziaren zerbitzura. Absurdora garamatza joanak diren gizarte moduen egi-erregimenetan tematzeak, amets tekno-zientifikoa, linguistikoa kasu honetan, motz geratzen da postlinguistikoa den gizarte batean. Euskarari buruz ditugun ikuspegiak birpentsatu behar ditugu arteen bitartez. Nork kontrolatzen eta zelatatzen ditu irudiak? Postargazkiak behatzailearen lekuan kokatzen gaitu.

Irakurle behatzailea izatea eskatzen dizugu, irakurle. Demagun testu honen irakurketa erakusketa baten ikuslearen roletik egitea proposatzen dizugula: Paratu gorputza postargazki bakoitzaren aurrean, egin loturak horien artean, eraiki irakurketa, sentitu. Tene Mujikaren inguruko zure irudia eraikiko duzu, i(ra)ku(s)/(r)le.

2. AURREKARIAK: XIX. MENDEKO AJEAK SORTUA



I(ra)ku(s)/(r)lea atal honetan orientatzeko gezi-galderak:

Nolako zen Tene Mujika sortu zeneko euskal gizartea? Zer esan genezake Debako euskararen historia sozialaz?

Gerra karlisten ajea nabarmena zen Tene Mujika jaio zenean, 1888an. Espainiako agenda politiko gatazkatsuek bere modalitatea izan zuen euskal lurretan. Foruen galera izan zen ondorio behinena eta, horrenbestez, *status quo* nabarmen aldatu zen Deba bezalako herrietan ere. Gogora dezagun foruen galerak (1876) ekarri zuela euskal sistemari antzinatek usadiozkoak zitzaizkion egitura politiko-administratiboak aldatzea. Karlistaden aurrekariak dira frantses iraultza eta espainiar iraultza liberala. Batak zein besteak eragin handia izan zuten euskal gizartearen garapen moldean. Egitura politiko berria sortu zen, estatua, eta horren baitan hizkuntza bakarraren aldeko apustu argia.

Historiako liburuetara iragazten diren gertakizunak, gorago aipatutakoak kasu, aldaketarako arrazoi sakonak ezkututzen dituzte, ordea. Karlismadak deituriko gerren gordintasuna ondu zen aldaketa soziokultural askoren abarotan. Historia kulturala arduratu da aldaketa soziokultural horietaz eta Burkek (2004-15), esate baterako, dio alderdi sinbolikoekiko arduraren dela historialari kulturalen ikerlan mota guztietan aurki litekeena. Eta honako hau eranstean du:

Si antaño fue posible, incluso normal, que los historiadores ignorasen a Nietzsche o a Wittgenstein, se ha tornado cada vez más arduo eludir el análisis de la problemática relación entre el lenguaje y el mundo exterior que antes se suponía que “reflejaba”. Se ha roto el espejo. Se ha puesto en duda la presuposición de que una representación “se corresponde” con el objeto representado. (...) Este es el contexto en el que los historiadores culturales, junto con los sociólogos, los antropólogos y otros estudiosos, han llegado a involucrarse (...) Constituye un caso especial de lo que ciertos filósofos y sociólogos denominan la “construcción social de la realidad. (2004-98)

Mujikaren belaunaldia Burkek aipatzen duen paradigma aldaketa horren aktorea da: euskaltasuna islatzen saiatuko dira errealitatearen eraikuntza sozialean aritzearen kontzientzia garbia izanez. Paradoja interesgarria da.

Tene sortu zenean euskal gizartearen modernizazio prozesua gertatzen ari zen. Gizarte tradizionaletik gizarte modernorako aldaketa *modernitatea* deitu den ideologiaren indarrez gauzatu zen. Modernitatea subjektu modernoaren kontzientzia indibidualean oinarritzen da, gizaki horrek bere giza-ibilbidearen autokontzientzia hartzen du eta bere posizio sozialean eragiteko gaitasunaz jabetzen da. Ideologia horrek, beraz, autoeraikuntza-gaitasunarekin du lotura, ekinaren ekinez indibiduo gisa bakoitzaren esku dagoenaz jabetzen baita. Subjektu modernoaren ekintza tipikoak dira autoafirmazioa eta niaren eraikuntza kontzientea.

Charles Taylorrek (2006) identitate modernoaren iturburu moralak aztertu zituen eta hirutan laburbildu zituen bere oinarriak: a) arrazoiari ematen zaion lehen tasuna eta ondorioz munduaren objektibizazioa (den guztia sailkatu, deskribatu, egituratu nahi da) b) Indibidualismoa, subjektua irudikatzea loturarik gabea, instrumentala eta manipulatzaila c) Lotura sozialengandik askatzeko gaitasunduna.

Modernitatearen proiektuak gizakia irudikatzen du beste espezie bizidunen gainetik. Filosofia Jainko ahalguztiduna baztertzeko duenean, beste proiektu humanista hau eraikitzen da zinetan gizakiak ethos ilustratua gara dezakeen aurrerapen zientifiko-teknikoen eskutik. Aurrerapenaren ideia horrek irudikatzen du ibilbide historiko lineala, gero eta hobetua izango den mundu baten irudia. Eta, jakina, maila emango duen subjektu autoerreferentzial baten beharra.

Subjektu moderno horrek bere burua eraikitzeko erabili zuen teknologia nagusietako bat izan zen binarismoa; errealitatea bitan banatzea sinpleki esanda. Definitzeko zer den izaki modernoa, modernoa ez dena eraikitzen da. Mendebaldearen kasuan ekialde bat behar zen, gizonaren kasuan haren neurriko emakumea, frantses kultura ilustratuaren kasuan euskaldun basatia.

Kultur Ikasketak askotan arduratu dira teknologia horretaz. Autore nagusietako bat da Edward Said. *Orientalism* izeneko lanean (1990) erakutsi zuen, adibidez, mendebaldearen neurriko ekialdea sortu zuela lehenak artearen bidez. Xehetasunez aztertu zituen material artistikoak (margolan, literatur lan, e.a.) eta ondorioztatu zuen fikziozko ekialdea erabili zuela mendebaldeak bere burua definitzeko: ni naiz beste hori ez dena. Ekialdean zeuden errealitate anitzak, genealogia askotarikoak eta beraien artean loturarik gabekoak, homogeneizatu egin ziren identitate mendebaldar kanonikoa sortzeko.

Teknologia kultural horrek izan zuen hedapen izugarria nazio-estatuaren antolaketarekin. Nazio-estatuak behar izan dute identitate homogeneoa eraiki anitza den estatuko lurralde-mugetan, irudimen ariketa bat izan zen zentzu batean (Anderson, 2005). Antzinako erregimena ere arduratu zen homogeneizazioaz neurri batean baina ez aipatu dugun modernitatearen teknologia kultural hauen bidez lortu den arrakasta berarekin. Hizkuntzaren alderdiari erreparatzen badiogu, esate baterako, frantses hizkuntzaren hedapenak ederki asko erakusten du proiektu modernoaren eraldatze-gaitasuna. Euskararen historia soziala da gizarte-aldaketa hauen guztien lekuko pribilegiatua.

Debako euskararen historia sozialaz arduratu ginenean (Ramirez de Okariz eta Goikoetxea, 2017) jaso genuen 1848an De Paula Madrazo Madrilgo kronistaren bisita Debara. Adibide apropostzat dugu ikusteko azaldu dugun teknologia kulturala. Kasu honetan espainiaritasunaren kanona eraikitzen ari denaren kon-

tzientziatik deskribatzen dira Tene Mujikaren sorlekua eta bizilagunak. Dakigunez *veraneoaren* praktika soziala da guztiz modernoa eta sasoi hartan horrela eraikitzen du Gipuzkoako kostaldeko herri txiki bateko herritarren *bestetasuna*:

¡Qué deliciosamente se deslizan los calorosos días del estío en un pueblecito de clima suave, de costumbres puras, de habitantes sencillos, y rodeado por todas partes de montañas cubiertas de verdor! ¡Cuánto goza el alma al contemplar el espectáculo de la vida feliz, tranquila y morigerada que hacen aquellos hombres que no comprenden el sentido de la palabra política, que no saben lo que significa ambición, que no entienden lo que son partidos y a cuyos oídos no ha llegado aún la palabra crisis! ¡Qué tranquila y qué felizmente se pasa la vida uno o dos meses lejos de las agitaciones de la corte, distraídos de los afanes y de los cuidados que aquí envenenan todas las existencias, por venturosas que sean! ¡Con qué facilidad se concilia el sueño, reparador de las inocentes fatigas del día, cuando no zumba en nuestros oídos otro ruido que el acompasado y solemne de las olas del mar! ¡Y con cuánto sentimiento, con cuanta pena se abandona esta vida encantada, cuando el término de los baños y el cumplimiento de obligaciones sagradas nos llaman a Madrid! Entonces, cuando esos días bonancibles (sic) y venturosos han huido ya, para templar la amargura de haberlos perdido, no nos queda más consuelo que el del recuerdo, ni hay más sabroso placer que el de ocuparnos de ellos entre las personas que participaron de nuestra felicidad.

Herritarrekiko begirada da kondeszendentzian eta paternalismoan oinarritua. Kondeszendentzia legoke handinahitik sortzen den abegikortasun gehiegizkoan. Diminutiboek, lexikoak eta adierazkortasun elementuek argi erakusten dute herritarrekiko infantilizazioa. Familia tradizionalako aita patriarkalaren autoritate eta babes gaitasuna darie hitzei, nahiz eta harreman soziala ez den familiartekoa kasu honetan baizik eta uda pasatzera datorren pertsonaren eta autoktonoen artekoa.

Bestalde, *gu eta besteok* binarismoa ere argi ikus dezakegu hurrengo pasarteetan: lehenik, botere harremanak argi lagatzen dira eta ondoren naturalizatutako errealitatea deskribatzen da:

Desde esta elevada altura y con el auxilio (sic) de un buen antejojo, que la bondad del respetable eclesiástico, antiguo vicario de Deva, facilita siempre a los curiosos, se descubren en una vastísima estension (sic) los mares de España y de Francia, formando

el golfo que baña por esta parte las costas de ambas naciones, y se distinguen perfectamente la farola vieja de San Sebastián, y hasta el puerto y la farola de Biarritz, que sirve de término a este amplísimo panorama.

Aipiak erakusten du botere-jokabide bat, zeina errealitate konplexu eta plurala izendatzeko eta kategorizatzeo ahalmenaren jabe den. Nazio-estatuen jokabide tipikoa da ezaugarri partikular batzuk unibertsalizatzea, adibidez gaztelaniaren aldeko praktika linguistikoa. Unibertsalizazioa da asimilazio-estrategia nagusia antolaketa politiko horretan. Praktika turistikoa botere-harremannen baitan gauzatzen da. Turismoa praktikatzen duena da botereduna alderdi askotatik, ekonomia eta kanon kultural homogeneizatzailea eskutik doaz kasu honetan.

No es solo en las clases acomodadas donde se encuentran estos caracteres hidalgos y generosos; las clases pobres ofrecen tipos no menos puros. Es muy frecuente en aquel país al llegar un forastero a un caserío cansado de recorrer aquellas montañas y de trepar por aquellos vericuetos, que los sencillos habitantes de él le brinden, no solo con una silla donde reposar de su fatiga, sino con un vaso de rica leche o de claro zagardua (sic). Y esta escena es tanto más singular y característica, cuanto que ordinariamente sucede que no entendiendo el forastero el vascuence, ni los moradores del caserío el idioma castellano, uno y otros expresan por medio de gestos sus sentimientos respectivos, manifestando su reconocimiento el primero; y su buena voluntad los segundos.

Euskaldunaren partikulartasuna ezinbesteko gertatzen zaio naturalizatuta agertu nahi duen estatukide boteretsuari. Balio-kateak eraikiko dira horrenbestez: euskalduna izango da basa, landatarra, tradizionala, taldekoa, atzokoa eta espainiarra zibilizatua, hiritarra, modernoa eta indibiduoaren logikan hazia, garaikidea. Gizaki bakoitzak erabaki beharko du, modernitatea sendotu ahala, non kokatzen den guzti horrekiko. Lehenik ahal dutenek egingo dute (ikasiek, gizonak, dirudunek...) eta gero gizarteko azken biztanleraino iritsiko da *erabakitzeko* beharra. Izan ere, nazio-estatuen paradigmatik indarrean dirau nahiz eta errealitatearen aniztasuna eta hibridazioa asko handitu den kapitalismoaren eskutik.

Uste dugu Tene Mujikaren ekarpena testuinguru horretan ulertu behar dugula, zirriborratutako gizarte aldaketa hauen baitan, hain zuzen ere. Berea izango

da abertzaleetasunaren eskutik eraikiko den erantzun erresistentea, ideologia abertzalea kontsolidatzen joan zen garaiko lekukoa baita. Laster nabarmenduko dugun *don Poli* apaizaren begiradak eman diezaguke sarbidea garai hartan eraikitzen ari zen erantzunari. Policarpo Larrañagak (1978, I, 101) horrela zioen udatiarren kanona berea egin zuen Donostiako hiriri buruz:

En Donostia (San Sebastián), bella ciudad euzkadiana, centro veraniego de la aristocracia española, lugar de cita de la cursilería, la inmodestia y la petulancia veraniega; pueblo mimado por las exigencias del más refinado veraneo, que perdía completamente sus rasgos característicos de pueblo vasco, era dura y difícil la labor de las patriotas que tropezaban siempre con peligrosos convencionalismos.

Larrañagak aipatzen dituen *convencionalismo* horiei, gizartean dauden idatzi gabeko arau sozialei, *esparru* deituko die Bourdieuk (1996). Errealitate sozialaren harremanezko ikuspegia da Bourdieuren *esparrua*. Kulturaren esparru jakin batean integratzeko, demagun turismo handia zegoen lekuetan, herritarrek beharrezkoak zituzten idatzi gabeko arau sozialak. Arau horiek eskatzen zituzten gaitasun batzuk eta horiek osatzen zuten Bourdieuk deitzen duen *habitusa*. Habitusa subjektibotasun sozializatua da, eraikuntza sozial eta kultural baten emaitza.

Don Polik dionean oso zaila zela emakume abertzaleen lana Donostia bezalako leku batean, erreferentzia egiten die goi klaseko turismo espainolak dakarren canon kulturalaren habitusari, besteak beste. Eta ertz ezberdinak ditu zailtasun horrek: naziotasuna, klasea eta generoa. Canon kultural horrek, bistan da, ez die soilik eragiten udatiarrei, baizik eta esparru horretan dauden subjektu guztiei arau bihurtzen baita guztientzat goi klaseek zehazten dituzten habitus moduak. Arauek espainiartasunarekin loturiko ezaugarriak hobetsiko dituzte, gaztelaniaren erabilera adibidez, goi klaseen praktika sozialak, aisialdia adibidez, eta genero ideologia jakin bat.

Emakume abertzaleek, kontrara, bestelako arau sozialak prestigiatu nahiko dituzte: abertzaleetasuna, euskaltasuna, JEL ideologia eta emakume rol jakin batzuk. Emakume rolei dagokienez, aurrean, antagonismoan, izango dituzte gizon abertzale zenbait ere. Alde askotako negoziazioak egin behar izan zituzten *emakumeek* beraien canon propioa eraikitzeko.

Tene Mujika negoziazio horien protagonista garrantzitsua izan zen. Bere lanak aztertuz irudika genezake euskaraz mintzatzen zen herritarren genero-ideologiaren nolakotasuna. Ikusiko dugunez erlijioa izango da elementu legitimitzaile behinena, inor baino kristau hobeia izanik lortu nahiko da botere posizioa gizartean, bai abertzale ez direnen aurrean eta baita abertzale diren gizonen aurrean ere. Horrek dakarrena da egiteko moduetan apaizgoa erreferente moduan hartzea, haien habitusa erreferentziazkoa izatea. Izan ere eliza izan da habitus eraikitzaile nagusia euskaldunon artean aro modernoan; ikusi besterik ez dago nolako elizak ditugun geure herrietan.



Debako eliza. [Iturria: www.deba.eus]

Abertzaleek apaizgoak metatutako gaitasunak eta baliabideak erabili zituzten kultura kapitala metatzeko. XX. mendearen hasieran, gizarte aldaketak tarteko, gertatzen ari ziren borroka sinbolikoen baitan pentsamendu eta jokabide erlijiosoak erabili zuten legitimatzeko tresna gisa. Lehen begiratuan ondoriozta genezake elizaren ikuspegi dogmatikoa dela abertzaletasunari interesatu zitzaiona baina Larrinagak (2006) azaltzen duen bezala pentsamendu erlijiosoaren modernizazioaren kontrako zerbait bezala ikusi bada ere ez da gutxietsi behar pentsamendu erlijiosoaren adituek eduki duten funtzio “modernizatzailea” zientzia sortu baino askoz lehenago ezagutza mota horri eman baitzioten hasiera historian. Znaniiecki aipatzen du Larrinagak ideia hau garatzeko:

(los hombres de estudio religiosos) iniciaron uno de los grandes descubrimientos en la historia de la cultura. Por encima y sobre todo conocimiento personal subordinado a los fines prácticos (...) descubrieron –o fundaron– un dominio de conocimiento superindividual independiente de esos fines, un campo de valores específicos subsistiendo permanentemente por derecho propio, con un orden distintivo sistemático, irreductible a ningún criterio práctico. Semejante descubrimiento sólo pudo surgir en una fase de evolución cultural, adscribiendo al “conocimiento verdadero” una santidad interna, asociándolo, no con necesidades materiales ni a las luchas sociales, sino con una y divina fuente, pauta de todos los valores. (Znaniiecki, 1944-119)

Apaizgoaren botere ideologikoa, hots, gogo eta buruen gain jarduteko gaitasuna, izan da agian abertzaletasunari interesatu zitzaiona. Esate baterako euskararen bidez ideia, sinbolo eta mundu ikusmoldeen sorkuntza bilatu zuten eta *egiazko ezagutza* moduan aurkeztu nahi zen beraien diskurtsoa, legitimazio iturri gisa. *Iturri* hartatik ura banatzen zutenak emakumeak izango ziren, emakume abertzaleek beren zeregintzat hartu baitzuten euskararen geroratzea proiektu abertzalearen barruan.

■ Debako euskararen historia soziala

Gipuzkoako kostaldeko herri txiki honetan ohikoa izan den historia soziala izan du euskarak. Deba eta Urola ibaien arteko biztanleek euskara izan dute hizkuntza nagusi XVIII. mendera arte, harik eta modernitatearen canon kultu-

rala gizarte eta estatu aurremodernoetako biztanleen antolamendu soziala eta komunikatiboa aldatuz joan zen arte.

XVIII. mendera arte biztanleen gehiengoak behar zituen funtzio sozialetarako hizkuntza ia bakarra euskara izan da. Gaztelania idatzizko kulturari eta gutxi batzuek betetzen zituzten funtzio sozialetarako hizkuntza izan da (Sanchez Carrión, 1974). Elizan, udalean, epaitegietan gaztelaniaz idazten zen eta hortik kanpo euskaraz gertatzen zen bizitza. Diglosia iraunkorra izan da eta egon dira pertsona batzuk bitartekari lanak egin dituztenak, nagusiki apaiz eta eskribauak. Egoera diglosikoaren berri ematen digute Ramirez de Okarizek (2017-133) Debako udaleko artxibotan bildutako aipuek. Honakoan apaizaren bitartekari lana ikus dezakegu:

Don Agustin de Rementeria, vicario propio y perpetuo de la parrochial la Real matriz Santa María de esta villa de Deva, y sus filiales anexas Yciar, Arrona y Mendaro, certifico haver dado a entender a mis feligreses desde mi pulpito al tiempo del ofertorio de la missa popular de oy domingo, veinte de noviembre de mil setecientos sesenta y ocho¹

Sistema tradizionalen iraunkor zena, mendez mende egoera diglosikoan iraun zuten hizkuntza murriztuen iraunkortasuna, aldatu egin zen Frantses Iraultza ostean sortu zen gizarte modernoan. Bizitza sozial osoa nazio-estatuen hizkuntzan izatea bilatzen zuten hizkuntz politikak abiarazi ziren orduan. Frantziar *patois* ziren frantsesa ez bestelako estatuko lurraldeko hizkuntzak, desestimatuak inondik ere. Frantsesaren aldeko politikak jarri ziren martxan botere-lekuetan, eskoletan, besteak beste (Irujo & Urrutia, 2014). Debaren kasuan ere gaztelaniaren aldeko asimilazio politika bera aurkitzen dugu eskoletan.


Bestalde, gorago aipatu dugun *veraneoak* izugarrizko eragina izan zuen Deban. XIX. mende osoan zehar Debako ekonomian itzeleko eragina izan zuen udaz eta etortzen ziren espainiarren ekarpen ekonomikoak. Familiek beraien etxeak alokatzen zizkieten eta ganbara erabiltzen zuten bizileku ekainetik irailera.

¹ DAH: Udal akta eta Akordioen liburua (1762-1770). Udal akta: 1768/07, 143. orriaren buelta.

Harremanak estuak ziren eta, jakina, gaztelaniaz gertatzen ziren. Canon kultural eta botere-harremani egin diegu erreferentzia gorago.

Tene sortu zenerako elebitasun soziala ordezkatzailer zen eta diglosia tradizionala, bizitasun etnolinguistikoan eragin mugatua zuena, bukatua zen. Aldaketa sozialek ekarria zuten ohikoa izan zen hizkuntzaren eta kulturaren ordezkapena.

3. XX. MENDEKO ABERTZALETASUNAREN HAZIA



I(ra)ku(s)/(r)lea atal honetan orientatzeko gezi-galderak:

XX. mendeko lehen abertzaletasunaren gakoak zeintzuk dira? Zergatik tematu ziren abertzale horiek konfesionaltasunean? Zein da aranismoaren proiektu linguistikoa? Zer esan genezake genero-binarismoaz? Zeintzuk eta nolakoak izan ziren Teneren lehen lanak?

■ Espania failed

EAJren historia politikoak eskainiko digu oholta bat Teneren ekarpena kokatzeko. Izan ere, Mujikaren legatuak alderdi abertzalearen logikan hartzen du zentzua. Ikusiko dugun bezala, euskara proiektu abertzalearen erdigunean kokatzeko ahaleginak lehen abertzaletasunaren ezaugarriekin du lotura. Horregatik abertzaletasunaren oinarriak ekarri nahiko genituzke, hasteko, hizpidera.

Abertzaletasuna definitzen dute De Pablok, Meesek eta Rodriguez Ranzek (1999) gizarte mugimendu garaikide moduan. Euskal abertzaletasunaren sorburuan bi arrazoi multzo aipatzen dituzte autoreok: espainiar nazio-estatuaren proiektu errena, batetik, eta talde sozialaren ezinegona eta frustrazioa, bestetik.

Autoreok diotenez espainiar estatuaren eraikuntza, denboran luzea izan arren, ez zen XIX. mende bukaeran ez indartsua, ez kontsolidatua, ez arrakastatsua izan. Gogoratu dezagun *state-building* delakoak ongi zedarritutako lurralde geografiko baten baitako talde sozialen batasuna, homogeneizazioa eta legitimazioa eskatzen duela. Zehatzago esanda: lehenik, lurraldearen batasuna ezartzen da; ondoren, populazioaren homogeneizazio kultural eta sinbolikoa eta, hirugarrenik, estatugintzak naziogintza ekartzen du, herritarrek estatuaren boterea legitimatzen dutenean. Horretarako kohesio-tresna ezberdinak erabili ohi dira: errepide zein trenbide-sarea, eskola, merkatu ekonomikoa, ejerzitoa, prentsa e.a.

Gorago aipatutako historialariok espainiar estatuak izan dituen arazo nagusiak aletu zituzten: hedapen arazoak, integrazio arazoak, partehartze arazoak, identitate arazoak, legitimitate arazoak eta botere-banaketa arazoak. Adibide batzuk ematearren: errepide eta trenbide-sarea ez zen XX. mendeko 60. hamarkadara arte osatu, merkatu komunari dagozkion mugak 1841ean eraman ziren itsaso ondora, Moyano hezkuntza-lege homogeneizatzailea 1857koa da, soldaduskari dagokionez 1895ean orokortu zen zozketa (aurretik ordainduz gero soldaduska egitetik libratzeko aukera zegoen), zerga politika bateratua ez zen foruak deseztatu arte ezarri eta ondoren ere *kontzertu* bidez egin zen, XIX. mendean botere-borroka etengabea izan zen espainiarren artean eta etengabeak izan ziren gobernu aldaketak, sufragioa berankorra izan zen guztiz, errege-familiek eta militarrek botere handia izaten jarraitu dute, estatua konfesionala izan da nagusiki (Concordatoa 1851n sinatu zuen estatuak Vaticanoarekin) eta umeen formazioa nagusiki elizaren esku egon da, populazioaren gehiengoa analfabetoa zen XIX. mende bukaeran.

Arazo horiek guztiek ahalbidetu zuten beste *state-building* ezberdin bat sortzea euskal lurretan abertzaletasunaren eskutik. Foruzaletasunaren hondarretatik antolatu ei zen garai honetako euskal kontzientzia diferentziala, lurraldez gainekoa zena, eta proiektu politiko sendoa izateko sortu zena, ez soilik alderdi

hutsa baizik eta alderdi-komunitate egituraketa izango zuena. 1891n EAJ sortu zen, alderdi abertzalea eta konfesionala.

EAJren ekinaldia ez da lehena. Nafarroako historiografiak ongi jaso duen moduan Euskal Herriak forma politiko-juridiko ezberdinak izan ditu garaian-garaian. Horregatik denboraz kanpoko ikuspegi esentzialistaren aurka, kulturgileen ikuspegi historikoa azpimarratu behar dugu: Intelektualek egintzarako dauzkaten aukera-mugak historikoki egituraturik agertzen direlako. Bestetik muga horietara egokitu nahian edo muga horiek berriz definitu nahian jarduten dute kulturgileek une jakin batean dauzkaten ahalmenekin (Larrinaga, 2006).

■ Darwinismo soziala eta abertzaletasunaren aurrekariak

Alderdia sortu zen garaian Europako mainstreamak Darwinen soinua zekarren (Azurmendi, 2016). 1859an arrazen arteko borroka idatzi zuen Darwinek eta iradoki arrazen arteko hierarkia zegoela giza-eboluzioaren ondorioz. Humus horretan ernetu zen ideologia nazionalista integrista Europako nazio askotan. Afrika eta Pazifikoa inperialismo europarraren itzaletan zeuden bortxa handiko urte horietan.

Bien bitartean espainiar inperialismo goiztiarra bere lurrak galtzen ari zen. XIX. mendearen lehen hamarkadetan latinoamerikako gehienak galdu zituen eta 1898an Kuba, Puerto Rico zein Filipinar uharteak. Marokoko Riffa zen gotorleku bakarra iberiar penintsulatik kanpo. Indarrak penintsulako lurraldeetara bildu zituen inperialismoak (Sarrionandia, 2010).

Giro horretan *Euzkotarren aberria Euzkadi da* idatzi zuen garai horretan Sabino Arana gazteak eta horrenbestez bat egin zuten kontzeptu politikoak eta kulturalak (Otaegi, 1986-19). Gorago aipatu dugun bezala bi izan ziren, De Pablo *et al.* en ustez, euskal abertzaletasunaren iturburu nagusiak, espainiar nazio-estatu proiektuaren ahultasuna eta euskal lurraldeko talde sozialaren ezinbegona eta frustrazioa. Gatozen bigarren horretara.

Inperialismoa mainstreama zelarik euskal herritarren biztanleen gehiengoak gerra karlistetan galtzaile suertatutako aldearekin zegoen nola edo hala lo-

tuta. Karlistaden euskal bertsoiak bazuen estatu eraikuntzaren protobertsioa. Foruen aldarrian aldarrikapen askatzaile protoabertzalea ikusi duenik bada, nahiz eta foruzaleen artean talde oso ezberdinak egon.

Talde horiek kulturaren eragin zuten nagusiki euskaltasunaren ideia eraikiz eta zabalduz: euskal jaiak, aldizkarien argitalpenak, ikerketa historiko-juridikoak, diru bilketak, sorkuntza-lanak e.a. Horiek guztiak euskal identitatea lantzea bilatzen zuten nahiz eta foruzale askoren artean ez irudikatu euskaltasun hori espainiartasunetik kanpo. Gogoratu behar dugu antzinako erregimenean foru sistemak zekarren autogobernu handia Gaztelako Koroari atxikita garatzen zela 1512ko konkistaz geroztik; nolabait euskal eliteek Koroari men egitearen truke jarraitzen zutela antolaketa sistema foralarekin. Antzinako erregimena bukatzean egitura foralen kontrako presioa handitu egin zen. Nolanahi ere, ohargarria da Nafarroako Koroako instituzioak, estatu-egiturak azken finean, ez zirela desagertu 1841 arte.²

Guda karlisten esperientzia traumatikoak euskaltasuna kultur jardueren birtartez lantzea ekarri zuen foruen galeraren ondorioz eta euskal herritarren identitate galerak bat egin zuen gizartea deseraikitzen zuten bestelako gizartealdaketekin, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoako eskualde batzuetan. Industrializazioak zekartzan hiritartze, bizi-ohitura aldaketa, migrazio, ideologia liberal e.a.k argi utzi zieten euskal herritar hiritarrei kultur eraikuntza horiek egituratze politikoa behar zutela. Testuinguru horretan sortuko da euskal abertzaletasuna gizarte mugimendu bezala, zeinak ez dituen falta izango tentsioak bere baitan, baina saihestuko dituen, hain zuzen ere, berrezarpen foralaren bandera erakutsita, 1876an galdu ziren foruen defentsa batasun-ikur moduan erabilia.

Eraikuntza kulturek dimentsio politikoa hartuko dute aurrerantzean eta ordura arte arrunt izan dena, euskara kasu, balio sinbolikoz aldarrikatuko da horien legatu politikoagaz koreografia berriak eraikiz nazio-estatu europarren testuinguruan. Euskararekin batera joango dira familia, tradizioak eta erlijio kristaua.

² 1841eko abuztuaren 16ko lege hitzartua, zeinaren bidez nafarroako foruen eraldaketa onartzen bait da.

■ Erljioaren auzia

XXI. mendeko euskal gizartearentzat harrigarria gertatzen da nola tematu ziren lehen abertzaleak kristautasunaren aldarrikapenean. Jaungoikoa eta Lege Zaharrak dituen sustraiak sakonak dira, ordea, eta errektiboki erabili zituen Sabino Aranak bere garaian antagonismoan sentitzen zituen hiritartze liberalen aurrean, nahiz eta bera ere hiritartze-prozesu horren ondorio izan. Baina Aranaren proiektura etorri aurretik gainbegira daigun zer izan den erlijioa eta eleiza euskaldunentzat.

Gorago aipatu dugu Debako herrian euskarak zuen itzultzaile eta mezulari nagusia eleizako parrokoa zela. Herritarrei eman behar zitzaizkien mezuak meza nagusian azaltzen zizkien bere hizkuntzan apaizak *publicaten* bitartez. Izan ere, klase aldagai bat dago eleizaren atxikimenduaren atzean aipatu behar duguna, hasteko. Irudikatu behar ditugu herritar gehiengoa, alfabetatugabea eta euskal elebakarra, eta gutxiengo elebidun alfabetatua botere ahalmenduna. Egoera diglosiko hau arrunta zen administrazioa eta erabaki politiko-administratiboak gutxi batzuen eskuetan zeudenean. Herri xeheak erabakiak jasotzen zituen eleizan bere apaiz elebidunaren aldetik. Ohikoa zen, beraz, garrantzitsuak ziren eginbeharretarako apaizarengana jotzea.

Eleiza izan da, halaber, familietan ikasketadun pertsonak izateko modua. Euskaltasunaren alde lan egindako gizon (eta emakume) gehienak eleizak formatuak izan dira ezinbestez, ikasteko beste aukerarik nekez baitzeukaten. Bestetik, familia askok lortu izan dute beren egoera sozioekonomikoa hobetzea seme bat eleiz-gizon (eta, emakumeen kasuan agian lekai) izatera bidalita. Estatusa hobetzeko instituzio moduan ere ikusi behar dugu, hortaz.

Hirugarrenik, erlijioaren errituek balio izan dute komunitatea eraikitzeko. Bere izaera sakonki besterendua sentitu duen komunitateak eta tradizioak zaintzeko arreta izan duenak gorputz sozial bat sinbolizatzeko modua aurkitu du meza nagusi, bataio-jaunartze-ekontza-hileta, herriko festa e.a bezalako errituen bitartez. Are gehiago, euskaltasunaren jazarpen unetan, kamuflaje-leku ere izan dira eleizak.

Laugarrenik, kristautasunaren balio sozialak, kode morala, justiziaren zentzua, maitasunaren aldarria finean, kode etiko bat izan da pertsona askorentzat. Au-

rrerago ikusiko dugun moduan Tene Mujikaren garaikide diren eliz gizon ugaririk, Aita Onaindiak kasu, kristautasunaren doktrina soziala aldarrikatzen zuten kapitalismo egoista eta sozialismo estatistaren arteko hirugarren aukera bezala (De Pablo *et al.*, 1999-83).

Bosgarrenik, Frantziar Iraultzaren ondoriozko indibidualismoaren ideologia-aren kontra, katolikotasuna lotu izan da taldeko eskubideen gordeleku moduan. Taldetasuna, obediencia, moral kristaua sentitu izan da aire frantsesek zekarten eskubide indibidual eta arrotzen gotorleku. Ondoren, ezkerreko ideologia ateoaren babeserako antagonismoan begitandu da kristautasuna, euskaldun izaten jarraitzeko garrantia moduan. Martin Ugaldek zioen, Aitzol apaiz abertzalearen inguruko lan batean, honakoa: “*La lengua, el euskera, ha estado intrínsecamente unida a la religión en nuestro país*” (Ugalde *et al.*, 1988-54).

Horrela esanenez Aranaren ildo diskurtsiboak Joseba Gabilondok (2020) epistemologia erlijiosoa deitu duen mundutik edaten duela formaz baina Ricardo Arregiren *euskaldunen jainkoa hil behar dugu* bezain logika utopikoa duela.

Gabilondok epistemologia erlijiosoa eta utopikoa ezberdintzen ditu. Lehenak apokalipsia du bukaera, aurrez idatzita dagoena. Aldiz, humanismoak, bukaran zer dagoen ez dakigunez, utopiak idatzi behar ditu. Utopiek beti beste leku batean jartzen dute esperantza. Iraultza da modernitate utopikoaren tresna eta subjektu iraultzaile kanonikoa da gizona, burgesa, europarra, ikasia, heterosexuala, patriarkala. Azpiegitura epistemologiko horretan oinarritzen dira subjektu modernoak. Ikuspegi horretatik aranismoa formulazio kuriozkoa da bietatik edaten baitu: iraultza abertzalea egin nahi du diskurtso konfesional batekin.

Jakina, genero aldetikako ondorioak ebidenteak dira: Hutsaren hurrengoak izan dira emakumeak *itzultzaile* lanetan, botereleketan, ikasketa-aukeretan, gizar-tean gora egiteko aukeretan, nahiz moralaren ikuspegi katolikoan. Emakume jeltzaleek lekua egin behar izan dute, zenbait unetan erlijio katolikoak emakumeak baztertu ditu-eta maiz.

Adituek Trentoko kontzilioan kokatzen dute emakumeen kontrako politiken ezarpena. Erlijioaren ortodoxiak bereziki jazarri zituen ahul baina arrisku-tsu jotzen zituen emakumeak: “*emakumezkoak izan ziren, ez bairik gabe, erlijio itsukeria hori gehien pairatu zutenak eta, ondorioz, ulergarria da euskal literatura-*

ren historian hain emakumezko gutxi egotea” esango digu Olaziregik (2003-211). Literatura dioenak esan dezake kulturagintza, politikagintza e.a.

Aipa dezagun Bizenta Mogel dugula euskal literatur tradizio androzentrikoan pitzadura bat ireki zuen lehenengo emakumea (Olaziregi, 2003-219). Osaba apaizak hezi izan zuen eta, era berean, mugatu bere jardun literarioa. Bizentaren *Ipui onak* (1804) liburuko alegiek segida izan zuten 1876-1936 artean Tene Mujikaren belaunaldiaren aldetik. Hark eta hauek sistema kultural misogino berean jokatu zuten partida idazletzan. Bizenta Mogelen lanaren hitzaurrea idatzi zuen Txomin Agirrek (Agirre, 1804); Olaziregik (2003-215) horrela laburbiltzen ditu gerokoentzat ere indarrean egongo den ikuspegiaren gakoetako batzuk:

1. *Emakumea gizaldiko lorea dela baieztatu ondoren, (...) dikotomiak darabiltza emakumezkoak deskribatzeko. Horrela, emakumezkoa, lorea edo arantza, eroa edo zintzoa... gaizkilea edo aingerua izan daiteke.*
2. *Ez da gizona baino hobea edo okerragoa, baina errazago “zuzentzen” dena. Bere izaera biguna dela eta, emakumea hasieratik zaindu behar da. “Zeñek? Geuk, prakadunok; gurasoak, senarrak, anai nagusiak, dana dalakoak”. (“prakadunok” hitza darabil Agirrek (!).*
3. *Emakumezkoak badu gizonarenaren adinako burua, batzuetan hobea ere bai.*
4. *“Alegiñ guztiak egin bear dira emakumea zintzotzen, al degun guztia erakutzi behar ginioke; ori bai, berari dagokion mallatik erten gabe, bere gaitasunak eskatzen duan neurritan, samurki, garbiro, arreraz, animaren erdian ontasunaren azia boteaz, gazte dan bitartean jakintsu beziñ elizkoi egiñaz.”*
5. *“Ikus gaitzatela ongille ta indartsu... Elizak laguntzen digu lanbide orretan, Elizak egin du andrazkoa gizonaren mendeko, Jesusen legea daukagu gure alde. (...) Etxekoandretzat nai genduke? Etxekoandre izango da, geuk nai degun guztia izango da, agintzen badakigu.”*
6. *“Nerekiko, etxea da emakumearen bizileku ta lantegi aukerakoena. (...) Aitor dezagun: buru oneko ta biotz garbiko danean, emakumea bezelakorik eztago. Bakoitzari berea.”*

Ikusiko dugunez Sabino Arana ez dago ikuspegi horretatik oso urrun. Baina JEL ideologiaren aita pontekoaz berbetan haren profil soziolinguistikotik has gaitzen.

■ 17 urteko euskaldunberria

Sabino Aranaren profil soziolinguistikoa interesgarria da, ez baita hainbatek irudikatzen zuen euskaldun baserritar elebakar alfabetatugabearen estereotipoan sartzen. 17 urterekin ikasi zuen hark euskara, beraz, esan liteke gerora euskal komunitatearentzat funtsezko gertatu den profilak, euskaldunberriarenak, proposatu zuela euskararentzat euskal gizartearen funtzio egituratzailea. Profil hiritar eta ikasia izango da euskararentzat beste etorkizun bat irudikatuko duena.

Unibertsitate ikasketak ez zituen arren, gazte ikasia zela diote De Pablo *et al.*-ek (*op. cit.*), bidaiatua, esperientzia traumatikoak bizi izandakoa (guda, exilioa, gaixotasuna) eta Catalunyaeko errealitatearen jakitun zena 5 urtez bizi izan baitzen Bartzelonan. Beren esanetan Arana honako guztiaren ondorio zen: “*Crisol de experiencias, arraigadas convicciones religiosas, sustrato carlista, conciencia y sentimientos nacionalistas derivados de la revelación, el estudio y la reflexión*” (De Pablo *et al.*, 1999-26). Gogora dezagun 1877an %62,7koa zela analfabetismo-tasa gizonen artean eta %81ekoa emakumeen artean (De Pablo *et al.*, 1999-16).

Autore hauen arabera Aranaren ekarpenik garrantzitsuena izan zen politika ulertzeko moduaren eraldaketa. Abertzaletasunaren (eta sozialismoaren) etorrera bitartean, esaten digute autoreok, politika bezero-sare moduko bat zela, Gobernazio Ministerioan hasi eta lekuan lekuko jauntxoek zirkuluetara hedatzen zena. Lehen abertzaletasunak zekarrena zen sektore handien mobilizazioa ekintzarako tresna berriak erabiliz horretarako: mitinak, panfletoak, prentsa, manifestazioak e.a. Horien bitartez subjektu aktibo bihurtzen zituen ordura arte politika aktibotik kanpo zeuden aktoreak. Hori ez zen, jakina, eliteen gustukoa izan, horregatik zioten jarraitzen ari garen historialariek honakoa: “*los dirigentes del nacionalismo vasco habían optado por la vía tradicional y más segura y habían tenido éxito en su operación de presentar el nacionalismo como un movimiento social autónomo pero inserto profundamente en los sectores más conservadores*” (De Pablo *et al.*, 1999-90).

Ane Larrinagak (2018), bere aldetik, lan interesgarriak argitaratu ditu euskararen aldeko mugimendu soziala emozioen ikuspegitik ikertuz. Soziologoak eus-

kalgintzaren etapa historiko ezberdinetan akuilu gisa erabili diren emozioen azterketa egiten du. Adibide moduan aipatzen du izen ona edukitzea pertsonak ekintzan jartzen dituen motore bat dela (2018-325): *“es preciso subrayar que la reputación es uno de los móviles más comunes de la acción de las personas, puesto que está relacionada con el reconocimiento de la propia humanidad.”* Zentzu honetan kontserbadore izatea 20. mendeko euskaltzaleek ospea edo izen ona izateko, hots, sinesgarriak izateko, erabili zuten ezaugarrietako bat izan zen. Ikuspegi horretatik euskalgintzaren aldi bakoitza bere garaiko mentalitatearen kume da. Izen ona, *reputazioa*, osagai ezberdinez eraiki da aldian aldian.

Har dezagun euskaldun izatearen harrotasuna edota lotsa. Larrinaga jarraituz esango dugu emozio horiek ez direla naturalak, sozialak baizik eta egitura sozialarekin eta bere ondorio diren botere-harremanekin lotuta daudela. Nazio-estatuak dakartzaten botere-harremanek lortu dute euskalduna euskaldun izateaz lotsatzea, gabezia bezala bizitzea bere elebakartasuna. Aldiz, hizkuntza maiorizatuko herritarrak bere elebakartasuna harrokeriz bizitzeko testuingurua eraikitzen dute. Horra lotsa eta harrokeria legitimatzen duen hizkuntz ideologia.

Larrinagak dioenez gizarte bizitzan norberarekiko emozio negatiboak botere faltarekin lotzen dira eta positiboak boterea izatearekin. Gauzak iraultzen dira botere falta norbere buruari egotzi beharrean ardura beste norbaiti egotzen zaionean. Lotsa sentitzen zuenak haserrea sentitzen du orduan eta haserretik eraldatzen du diskurtso dominantea.

Hizkuntz borrokaren ideia 60. hamarkadako iraultzaileekin lotu bada ere lehenagokoa dela esango genuke. Forma kontserbadorea du Aranaren proiektuak baina haserretik ez zaio falta. Hau berau gazte hiritarra da, kapital kultural jakin baten jabe dena eta bestelako ismo iraultzaileak dituen inguruan.

Gatozen bere hizkuntz proiektura: Zalbidek (2015-19), Hermes aldizkariak Sabino Aranaren jaiotzaren mendeurrenean ateratako monografikoan dio Hendaiaiko hitzaldian gaur egungo soziolinguistikan euskaren inguruan ontzat ematen diren hainbat baieztapenen intuizioak daudela. Hitzaldia 1901ekoa da eta Zalbidek Aranaren hitzen aipuak ekartzen ditu haren ikuspegiaren erakusgarri (2015, 20-21):

“Para que el euzkera se levante y viva son indispensables a la vez dos cosas: hacerlo necesario para la vida, en grande o pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto para satisfacer esas necesidades”

“Hacedlo necesario, en grande o pequeña escala, a la vida social dentro del territorio de la raza a que pertenece (...) y al mismo tiempo hacedlo capaz de llenar esas necesidades (...) y entonces tened por seguro que el euzkera vivirá vida propia, lozana y próspera (...)”

“es general hoy la ilusa y frívola pretensión de cosechar el fruto sin cultivar la planta; hay obstinado empeño en empezar por donde tenemos que concluir; confúndese lastimosamente el efecto con la causa, y se juzga que de la enseñanza y la literatura de una lengua es de los que recibe ésta la vida, cuando es todo lo contrario. La literatura no descende al pueblo, sino que de él brota y se levanta. No son las escuelas las que hacen necesario el uso de la lengua, sino que de la necesidad de este uso nacen las escuelas ¿Qué autor escribirá en lengua que nadie entienda?; ¿qué escuela se verá concurrida como en ella se dé la enseñanza en idioma que para nada sirva? Hagamos los vascos que el uso del euzkera sea necesario en nuestra tierra, si queremos que el euzkera viva”

“como el pueblo vasco alcanzara su...³ todo sería cuestión de una plumada de gobierno, y la necesidad del uso del euskera se extendería a todo el territorio. Pero el presente estado de... vasca y de... franco-hispana, sólo de la iniciativa e influencia particular puede esperar el euzkera hacerse necesario en extensión relativa, y apto, en absoluto, de llenar el uso a que se aplican las tres lenguas en la vida moderna”

Hor agertzen dira labur jasoak garaiko euskalarien nolabaiteko iparrak. Zalbidetik horien gainean irakurketa hau egiten du:

- Corpus- eta status-plangintza ongi bereizi behar dira, bata eta bestea elkarren arrimuan hazten eta garatzen badira ere sarri;
- Corpus-plangintzan jardutea alferlana da kasik, status-plangintza koherente batean txertatzen ez bada;
- Eskola ez da, eta ezin liteke izan, ahuldutako euskara sendo indarberritze-ko saio globalaren muin eta motore;

³ JEL aldizkariak autozentsuratu zituen berba hauek.

- Euskalgintza osoa giza arteko mintzajardunaren perspektiba sozialean txertatu behar da, atarramendu onik izango badu.

Irakurketa horretan azpimarratzen dira Aranaren aitzindaritzza eta intuizio soziolinguistikoa, euskara sustatzeko legitimazio-sozialaren garrantzia gizar-te-bizitzaren zenbait esparrutan lehiakiderik gabe erabili ahal izateko eta behetik gorako plangintzaren aldarrikapena. Gaur egun eztabaida nagusia azken puntu horretan dago gure ustez, alegia, nola txirikordatu behetik gorako plangintza goitik beherakoarekin; edota, gordinago esanda, ea zein den behetik gorako plangintzaren kristalezko sabaia goitik beherako plangintza mugatuarekin.

Afera ontologikoa da: zeri begira daude Aranaren jarraitzaileak, komunikazio-tresna bati ala herri bati? Euskarari buruz ari garelarik ez dugu begi bistatik galdu behar Oteizaren sarkasmoa (2003-132): “*el euskera hay que volver a merecerlo culturalmente*”. Badago badagoenez zer pentsatua XXI. mendean ere.

Era berean, zer pentsatua ematen jarraitzen du emakumeei emandako tratuak. Hitzaldi berean, esate baterako, Aranek emakumeen aipamena egin zuen argudiaketan, zehazki, horien itxurari erreferentzia eginez (2015-65):

Askotan, hizlariak beren kontzeptuen mamirik eza ezkututzen abalegintzen dira hizkera dotore eta arranditsuaren azpian: ezer ganorazkorik eskaintzerik ez dutenez, nola edo hala atsegin eman nahi izaten digute, berez ederra ez den emakumeak iztuku eta margoetan sasi-edertasuna bilatzen duen legez. Ni neu, zuen artean jesartzeko ohorea dudan honetan, euskararen berezko edertasunaren bila nabil, ez dit ardura nire hitzen edertasunak; barruko egiari eutsi nahi diot, azaleko itxurak ez nauelako asebetetzen⁴.

Hitzaldia entzuten zeudenak, “*Zazpi Probintzietako eta aski ideologia-espektro zabaleko euskalariak eta euskaltzaleak (...) guztira 35 lagun eskuera ditugun datu mugatuen argitan*” (Zalbide, 2015-19), partekatuko ote zuten misoginia? Gera gaitezen hiru ideiekin: ezer ganorazkorik eskaintzerik ez, gizonei atsegin eman nahi eta sasi-edertasunaren bekatua. 35 laguneko unibertso *anitzean* falta zirenak aipatzea, emakumeak alegia, izan zitekeen gizonen arteko kohesiorako moduko ideia bat, leku komun bat.

⁴ Aranaren originalaren itzulpena ekarri dugu hona, Hermesek berak itzulitakoa.

■ Libe edo emakumeen artean salbuespena den euskal emakume arketipoa

Aitor dezagun: buru oneko ta biotz garbiko danean, emakumea bezelakorik eztago. Bakoitzari berea. Ez dezagun ahaztu Txomin Agirreren den gorago ikusi dugun aitortza. Gizakien artean kristauak salbuespen diren bezala, emakumeen artean ere badira apartekoak diren emakume abertzaleak. Horra, aranismoak eraikiko duen ideia-giltza. Libe izeneko idazlanean garatu zuen batez ere arketipoa.

Libe zen Aranak hil baino urtebete lehenago (1902) idatzitako idazlan dramatikoa. Ugaldek dio (1999-47) Aranak emakumeei opa zien leku-politikoaren manifestu bat dela; hauek abertzaletasunean jokatu behar zuten rola zehaztasun sinbolikoa. Epika historikoa erabiliz Bizkaiko jauntxo baten alabaren ibilkerak kontatzen dira. Libe, gaztelaua zen jauntxo batekin ezkonduko da eta arriskuan jarriko du horrela aberriaren aldeko borroka; bukaeran emazte izateari utzi eta gudan parte hartuko du heroi moduan aberriaren aldekoekin. Bizitza galduko du bertan.

Ugaldek horrela laburbiltzen ditu Aranaren manifestuko ideia-giltzak:

En primer lugar, identificadas con su función maternal, les correspondía ser el símbolo de la misma patria; en segundo lugar, debían poner todo su empeño en evitar ser instrumentos de la degeneración de la misma para serlo, en cambio, de su resurgir, eludiendo para ello los matrimonios mixtos, y siendo mediadoras ante la divinidad a favor del triunfo de los objetivos nacionalistas; y, en tercer lugar, debían ser el apoyo afectivo y el acicate que impulsase a los varones a la lucha tras la consecución de aquellos objetivos (Ugalde, 1999-50)

Ugalderen begirada nagusi izan da azken hamarkadetako bisio kritikotetan. Abertzaletasunaren ikuspegi kritikoa jorratu duten historialarien ekarpenak daude atzean eta baita antropologia feministaren ariketa errealistak ere. Ugaldek ordezkari ditzake lehenak; Del Vallek (1985, 1997) bigarrenak. Arrazaren inguruan abertzaletasun konfesionalak zuen ikuspegia kritikatu dute askok eta antzerako paradigma ikus liteke euskal milenarismoaren (Aranzadi, 1982) bisio patriarkalaren kritikan ere. Teorikoki ere bi elementuak, arraza eta patriarkatua, txirikordatuta ikus liteke nazioa eta generoa uztartu dituzten ikerlanetan.

Hernándezek (1997) Yuval-Davisen lanak (1997) aintzat hartuta analisi kritiko eskaintzen dio euskal kasuari. Horretarako hiru ardatzetan oinarrituko da: emakumeak eta nazioaren ugalketa biologikoa, genero arteko harremanak eta kultur errepresentazioa eta, azkenik, ezberdintasuna eta hiritartasuna. Lehena interesatzen zaigu atal honetan bertan txirikordatzen baitira arraza eta generoa kategoriak. Horrela dio (1997-5):

El papel que el nacionalismo vasco diseñó para las mujeres es la reproducción biológica de la nación. En el análisis de este aspecto habría que subrayar algunas de las consecuencias que para las mujeres vascas supuso la definición de la raza como elemento central de la identidad nacionalista vasca. Una definición elaborada por Sabino Arana —principal ideólogo del nacionalismo vasco— a finales del XIX y que, a pesar de sus posteriores modificaciones, dejó una profunda huella en la descripción y definición del “prototipo” de mujer vasca. Sabino Arana caracterizó a la mujer como baluarte y salvaguardia de la pureza de la raza. Una responsabilidad ligada al por aquel entonces pilar de la identidad nacionalista vasca, y que se verá reflejado en la configuración de la identidad de las mujeres vascas en torno al binomio mujer-madre. Unas mujeres que Sabino Arana catalogaba, como seres débiles y enfermizos, necesitados de una constante “protección”, lo que en la práctica supuso una llamada al control de las relaciones, los actos, los cuerpos y de la sexualidad de las mujeres. No es éste un discurso exclusivo del nacionalismo vasco. Tal y como la crítica feminista viene desvelando, diferentes nacionalismos han usado el cuerpo de la mujer como imagen, símbolo y materia sobre la que consolidar la reproducción biológica y simbólica de la nación. Una práctica que en función del contexto presenta versiones y consecuencias diversas, pero que subrayaría la relevancia de la sexualidad en las relaciones de poder, y la utilización de las mujeres y sus cuerpos en distintos niveles del discurso y la construcción de la nación.

Ikuspegi hori izan ohi da gerraurreko emakume abertzaleak kritikoki aztertze-ko ainguratze teorikoa. Guk ezagutzen dugun arte nagusi da gaur egun ikuspegi kritiko hori gerraurreko abertzaletasunaz. Eta guk ere aintzat hartuko dugu Mujikaren lanak aztertzerakoan.

Nolanahi ere, aranismoaren arketipoa hori bazen ere, hezur haragizko emakume abertzaleek bizitza propioa zuten, ordea. Ikerketa gutxi egin da emakume

bakoitzaren singularitateaz, gehienetan taldea azpimarratu da, ez emakume zehatza. Ñabardurak ez dira gehiegi ikertu gure iritziz. Errealitatea, bistan da, antzagoa da. Aipagarria da, dena esatera, Edorta Jimenezek (2021) Nikolasa Atxika-Allenderen inguruan proposatu duen irakurketa. Emakume horren irakurketak salatzen du berari buruzko estereotipo interesatua, emakumeen mugatze-mekanismoak agerian jarriz. Atxika-Allenderen bitartez Sabino Arana beraren inguruko diskurtsoa, ia karikatura bihurtzen duena, zalantzan jartzen da. Bukatzeko Jimenezek ez du garatu Atxika-Allendek Emakume Abertzale Batza taldearekin izan zituen harremanak baina urregorria balio duen 1935eko argazkia argitaratu du. Bertan ageri dira Nikolasa bera, izendatzen ez dituen batzako kideak eta hainbat apaiz, tartean Joseba Markiegi Debako semea, Arrasateko ikastolaren sortzaileetakoa (Altuna eta Garai, 2019) eta 1936an afusilatua.



Joseba Markiegiren oroigarria.

[Iturria: Tene Mujikaren artxibo pertsonala.

Argazkia: N. Goikoetxea]

Bidenabar, irakurleak onartzen badigu digresioa, paradoxikoa da XXI. mendean hainbat emakume abertzale feministek arrazaren gaiaren inguruan egin duten bersinbolizazioa. Angela Davis bezalako aktibistaren legatua, razializazioaren aldarrikapena, eraman dute abertzaletasunera irakurketa feministetatik. Zalantzarik gabe ekintza performatibo moduan ulertu behar ditugu *Baltza nazela dineure* bezalako leloak. Berreraikitzen da euskaltasunaren ikuspegi patriarkala (eta baita feminismoaren ikuspegi liberala ere) arreta jarriz hizkuntz borrokan, adibidez. Arteak irauli egiten du errealitatea ikusteko modua. Horren premia handia dugu gure iritziz.

■ Kizkitzaren aukera: Teneren lehen lanak

Teneren lehen lanak 1914an, 26 urte zituela, argitaratu zituen Euzko Gaztedik. Erakunde hau sortu zen 1904an, otsailaren 14an, Sabino Arana hil eta hiru hilabetera. Gazteen artean abertzaletasunari buruzko Aranaren ideiak zabaltzeko asmoa zuen elkarteak. Hasiera batean 400 lagunek osatu bazuten ere, 1936ko gerra bitartean eragin handiko gune izan zen. Tenek ipuinak argitaratu zituen beraiekin: *Antontxo (Gipuzkeraz)*. *Umientzako ipuyak, Koldobika ta Jon (gipuzkeraz)*. *Umientzako ipuyak, Zorionaren jauregiya (gipuzkeraz)*. *Umientzako ipuyak*. Norbaiti gustatuko zitzaizkion ze bi urtera Euzkadiko eta Euzko Deia bere kolaborazioak hasi ziren. 1916 eta 1920 bitartean 26 pieza argitaratu zituen Euzkadin; 37 Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarran; 1 Euskal Esnalean eta 9 Jaungoiko-zale. Euzkeldunei-euskerazen.

Euzkadi agerkariaren lehen zenbakia 1913ko otsailaren 1ean argitaratu zen. Zuzendari izendatu zen Engracio Aranzadi, *Kizkitza*, EAJren agintaria Gipuzkoan. De Pablo eta besteen arabera (1999-100) bere izendapena honakoa zen:

fue un reconocimiento oficioso de algo que también ha quedado patente (...) la centralidad de Aranzadi en el movimiento nacionalista vasco. (...). Aranzadi se erigió en el principal intelectual orgánico del nacionalismo postararista con una extraordinaria facilidad para combinar en sus escritos los dos elementos característicos del nacionalismo vasco (...): el esencialismo doctrinal y el posibilismo político.

Ondorioztatu behar dugu Teneri Euzkadin 1916tik aurrera idazteko aukera eman zion pertsonak itzal handia zuela EAJren baitan.

1915eko 1657 harpidedunen datuak aipatzen dituzte historialariek (1999-98) eta harpidedun nagusien artean ageri da lehen lekuan emakume bat, Victorina Larrinaga 28.000 pezetako harpidetzarekin. Larrinaga da *Libe* ezizenez, Ropero Vasco izeneko emakume-elkartearen sortzailea. 1908an ongintza zein laguntza sozialerako elkartea sortu zuten Bilbon (Rekalde, 2012-23). Arropa zein tresnak biltzen zituzten behartsuentzat. EAJko emakumeen elkarte hau gizonen aldetik onetsia izan omen zen eta Ugaldek Emakume Abertzale Bartzaren aurrekaritzat jo du (1991).

Baina itzul gaitezen Kizkitzarengana, konkretuki bere hizkuntz ideologiara. *La Patria de los Vascos. ¡Hermano en raza, medita!* izeneko liburuskak bat argitaratu zuen Aranzadik 1910ean. Bertan dioenez:

[el idioma sería] *“la más espléndida señal de la actividad de la nación, pero la diferencia de los idiomas no tiene nada que ver con la voluntad de los ciudadanos de expresarse de una u otra forma, sino con las diferencias biológicas que separan a las naciones. Son distintos los idiomas de nación a nación porque distinta es la sangre que las nutre”* (De Pablo, 1999-107).

Euskara, beraz, biologiari lotuta ageri zaigu eta zerbait eskusiboa da, kohabitazioa onartzen ez duena:

“Si la patria es la misma nación amada, la posesión simultánea de una patria grande y otra pequeña, supondría la fusión de dos naciones, mejor dicho, la negación de la nacionalidad, porque ésta nace de una sangre, una lengua, unas constituciones y un territorio”.

Euskaltzale foruzaleen tradizioarekin erabat eteten zen baieztapen honekin eta identitate berezia eraikitzeke plangintza abiarazten zen. Euzkadi egunkaria izan zen EAJren bozeramailea eta Kizkitza haren gidaria 1937an zendu zen arte. Euzkadi eta La Tarde izeneko egunkariak abertzaletasuna zabaltzeko tresna eraginkorrak izan ziren.

Haren ondoan izan zuen erredakzioburu *Kirikiño*, Evaristo Bustintza. Kirikiño Bilboko Institutu Zaharreko euskarazko katedran aritu zen Azkueren ordezkoko 1904-1909 bitartean. Zalbiderek (*op. cit.*) berau jotzen du Arana osteko bigarren plangintzaldiaren erreferentetzat.

Gorago aipatu bezala Zalbiderek guztiz interesgarria den ekarpena egiten du Hermes aldizkariko artikuluan: XX. mendean euskararen alde egin diren plangintza-saioak zirriborratzen baititu. Horietako bat da, hain zuzen ere, Kirikiñok ordezkatzeko duena. Merezi du Teneren jardunarekin loturiko guztiak aletzea (2015-25):

✓ “grass-roots” euskalgintza: Ebaristo Bustintza “Kirikiño”-ren eragina:


“XX. mendearen lehen hiru hamarkadetan (...) euskal idazlerik joriena, bai eta itxuraz irakurriena. Proselitista politikoaz gainera, eta horren gainetik, euskal identity planning osabetezkoaren bultzatzaile sendoa. Horrekin batera behetik gorako euskalgintza xume-praktikoaren funtsezko zutabea Bizkaian, 1902tik 1929ra artean. Euskal irakurleen biltzaile eta erakarle. Euskaldun xehea zuen gogoan: hic eta nunc hartako euskaldun arrunta, demografikoki ugaria (...) herritarrentzat eskuragarri izan zitekeen estilo-eredu baten sortzaile eta hedatzaile (...) cultivation-aukera baten eredu eta bidegile.

- ✓ Euskalgintza jaso-asmokoa: Euskal Esnalea eta Gregorio Mujika: Det-esparruko euskalgintzaren antolatzaile, bide-urratzaile eta, Gregorio Mujikari eskerrak, indaremaile jarraikia izan da Euskal Esnalea, mende laurden batez. Euskara handiki-soinekoa janzten biziki saiatua, hitzaldi eta artikulu. (...) “Mitines, fiestas y conferencias”... Euskarari jardun-gune berriak irabazteko saioa izan zen Euskal Esnalearena, ahozko jardunari idatzizkoa erantsiz.
- ✓ Oñatiko Biltzarra: goi-mailako identity-planning. Koldo Eleizalderen gidaritza. Euskaltzaindia sortzeko onarpen soziala jendarteratzeaz gainera, aurre-ra begirako identity planning osoaren gogoeta-leku goi mailakoa. Status-plangintzari dagokionez, mende hasieratik zenbait euskaltzalek azpimarraturiko emulazio-irizpidea aldarrikatu zuen: dezakeen jendeak (hots, “Oñatin bildurik gaudenok eta gure antzekoek: aberatsek baino areago, profesio liberaletako jendeak eta apaiz-jendeak”) euskaraz egin behar dugu: bai etxean, bai lagunartean eta bai jendaurreko bizibidean. Dezakeen jendeak euskaraz egiten duela ikustean, herri xeheak ere jaun-andere horien bidetik joko du.
- ✓ 1927 eta 1936 arteko hizkuntza lantzeko euskalgintza: Aitzol, Mokoroa, Lizardi eta Altube. Euskalgintzako barizentroa Bizkaitik Gipuzkoara pasa da. Zenbaiten leitmotiv argia: “Euskera gai da, gizarte berriaren mintzabide trebe eta baliagarria izateko. Azal oriztarenpean muin betirakoa landu, garatu eta eguneratzea da kontua”. Elaboration-lanketa literatura jasoan, epopeia

herritarrean. Hizkuntza cultivation eta elaboration bidez, batez ere literaturaz salba litekeeneko ustea gogotik indartzen da lehen aldi batean. Euskara eskolara eta prentsara eramateko saioa.”

Aurrerago ikusiko dugun moduan lau eredu hauetatik edaten du Tene Mujikak berak: Kirikiñoren kolaboratzaile izan zen, euskara prentsaren bitartez handiki soinekoz jantzeko ahaleginean jardun zuen, euskal emakumeen zeregin politikoaren inguruko identitate-plangintzan euskararen geroratzea sustatu zuen eredugarritasuna sustatuz eta literatura jorratu zuen.

Ohar dezagun, bidenabar, plangintza-saioen defnizioan ageri diren izen guztiak gizonenak direla. Gizonen mundu horretan norik eman zion aukera kostaldeko herri txiki bateko andra honi jokatu zuen rol publikoa jokatzeko?



Dakiguna da, berak esanda, Debako iturkaleko 5ean bazegoela 1916an Batzokia, antzerki talde bat aritzen zela bertan eta Euzko-Gastedi elkarte antolatua zutela⁵. Gipuzkoako lehen EGI taldea izan zen Debakoa (Ruiz, 2011-230).⁶ Mujikak 32 urte zituen artean. Baina bere aurrekariak aurretikoak dira. Mujikak berak kontatu zituen Ohorezko Euskaltzain izendatu zutenean 1975ean:

“Ez naiz ikaste nagusiak egindako emakumea. Senide asko giñan, eta gurasuak gu aurrera ateratzen lanik asko izan zuten. Gozoki, edari, ta janari denda zuten, eta errian bertan al bestean ikasiak giñan. Mutillai, mutil bezela, neskak neska bezela, ezi ta ikasiak giñan.

Gure gurasoak, eurak bezela debarra zan apaiz jaun bat zuten adiskide on eta aundi: Don Lorenzo Boneta. Eurak baiño zarragoa. Apaiz agurgarria, ta euskaltzale izugarria zan. Oso etxeko gendun.

Don Lorenzo, karlista gudan aurre-zamarrian nabarmendua; eta berak esaten zuenez euskalerraren alde egiten zutelakoan, buruz beerako galanta artuta, galduan gelditu.

Ez ordea erri maitasunean makaldu; ta euskerearen aldez alegindu. Euskal nortasun alde, euskerearen alde.

Zartzara ikusmena galduz zijoan (ni orain bezela) ta ezin irakurri. Ordurako nik ikastea utzita gurasoei dendan laguntzen nien, ta don Lorenzo dendara etortzen zan egunero berak irakurri ezin zuana neri irakurri araztera. Ni pozik. Irakurtzea zan ba nere zaletasun bizia ta don Lorentzori irakurtzen nizkionak atsegin. Euskeraz idazten zuten guzia ta euskeraren alde erderaz idazten zan guzia zan Irakurgai, jaun arentzat. Esan bearrik ez, biziro zaletu nintzala euskeraren aldez zan guzira. Baita gai orretan zerbait askoren jakitun egin ere.

II zanean larogeta bosto urte zitun don Lorentzok. Ordurako zertxobatzuk idazten asita nitzan bildurti... kezkatu... Evaristo Bustintza “Kirikiño” aundiagana

⁵ «Ordu larriyak», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 20. zk., 1916-12-16: 9.

⁶ Izen hauek ageri dira arduradunen artean 1918an: “Presidente: Patricio Astigarraga; Vicepresidente: Hilario Olabe; Secretario: Marcelino Egaña; Tesorero: Calixto Oñederra; Vocales: Florencio Markiegi, Manuel Iriondo, Gumersindo Andonegui, Lindo Irigoyen; Abanderado: Pedro de Echeverría”. 1920an beste hauek: “Florencio Markiegi presidente; Manuel Iriondo vicepresidente y vocales Juan José Esnaola y Antonio Allika”.

jo nuen. Beso zabalik artu nindun bere saillean... ez det aiztutzen zenbat irakatsi zidan, zela goratu nindun, ordaindu eziñeko zorretan gelditu nintzaion betiko joan zanean... "Jaungoikozale"ko apaizek ere ondo artu ninduen...

Don Ambrosio Zatarain, izen ontako euskaltzaiñaren aitak, don Bitor Garitaonandia ta Andres Arzeluz (Luzear) lagun zitula "ARGIA" asteroko errikoi ospatsua ere asko idatzia nuan, eta irakurle asko nitun. Zarrak, gazteak, prailleak, apaiza, jesuitak, (mojak ez)... Jesuiten artean Aita Joakin Aspiazu "sociologo" ospatsua ere maixu aundi, ezin aiztua izan nuan, gizarteko onbidean euskeldun zintzo jarrai nezan.

Antzerkigiñañ, eta antzezleri taldeekin ematen baita, beti euskera alde, era askotara lanegiña naiz... pozean giñala... anai arteko guda... Urteak eta urteak joan dira... nere biotzean beti bat, esan bearrik ez: Euskera maite. Biziko da euskera?... biziko da?... biziko da, euskal-sendia bizi bada. Ta euskal-sendia biziko da emakumeak nai badu. Eta emakumeak nai du... nola ba nai ori azaldu ez, ekin baten elkartuta? Zeri begira emakume gaztea?"⁷

3.1. 1914-1920 LANEN AZTERKETA

Mujikaren artikulu eta liburuak praktika sozialak dira, hau da, gizartean gertatzen diren eta gizarteak arautzen dituen praktikak. Horren ondorio dira honakoak: emakume abertzaleek hitza hartzen dutela masa-komunikazio egintza batean, emakumeek ahots publikoa garatzen dutela, emakume abertzaleek bizitza publikoan zeregin bat dutela, zeregin horren errepresentazio eredu bat sortzen dutela eta egiteko modu batzuk entsegatzen direla. Horiek guztiak ordena sozialarekin lotutako elementuak dira ulertzen ez direnak ez badugu gizartean dauden botere harremanak aintzat hartzen. Emakume abertzaleek esaten dutena bezain garrantzitsua da, beraz, esatea bera, leku sozial baten entsegua.

Zein da paradoja? Feminismotik egin diren analisi batzuk ez dutela ordenu sozialean inperialismorik ikusten eta, beraz, abertzaletasunaren karikatura errazak egiten dituztela emakumeen eskubide indibidualen izenean barregarri utziz hauen praktikak. Eta bigarrena, abertzaletasunetik egindako analisi

⁷ Mujika, T. (1976). Euskera XXI. 158-159. Azpimarra gurea da.

batzuk ez dutela ordenu sozialean matxismorik ikusten eta, beraz, desautorizatuz ikusezin bihurtzen dituztela emakumeek egindako ekarpenak. Agirrek eta Eskisabelek diotenez (2019-140) “bide osoena interseksionalitateak marrazten digu, boterearen eta botere harremanen gaineko begirada integrala izatea ahalbideratzen digulako”.

Mujikaren ibilbidea ezin da gure iritziz ulertu bortxa sinboliko hori guztia, alegia, agenteek kokapen sozial bati loturik dagoen gizarte dominazioa barneratzea, kontuan hartu gabe (Bourdieu, 2006). Horregatik, ordenu sozial baten ordezkari dugu Mujika eta, nolana ere, bere praktika sozialek garapen bat dute bere bizitzan zehar. Aitzindari baten aurrean gaude. Hel diezaiozun, has-teko, lehen aldi honi:

Hemen ditugu, begi kolpean ikusteko moduan, Tene Mujikak garai honetan argitaratutako lanak:

LIBURUAK

Antontxo (Gipuzkeraz). Umientzako ipuyak. Euzko-Gastedija. Bilbo. 1914. 31 or.
Koldobika ta Jon (gipuzkeraz). Umientzako ipuyak. Euzko-Gastedija. Bilbo. 1914. 18 or.
Zorionaren jauregiya (gipuzkeraz). Umientzako ipuyak. Euzko-Gastedija. Bilbo. 1914. 22 or.

ALDIZKARIAK

Euzkadi

- «Aitona», 1.142. zk., 1916-03-25: 1.
- «Nere aitaren jayotetxeari», 1.144. zk., 1916-03-27: 8.
- «Iñude legorra», 1.155. zk., 1916-04-07: 8.
- «Atsekabea», 1.158. zk., 1916-04-10: 8.
- «¿Kirikiño, keneral errusitarra?», 1.176. zk., 1916-04-29: 1.
- «Nere albistariak», 1.178. zk., 1916-05-01: 1.
- «Aitona», 1.221. zk., 1916-06-14: 1.
- «Nere txoriakin», 1.373. zk., 1916-12-04: 1.
- «Aizkora-jokua», 1.509. zk., 1917-04-12: 1.
- «Agur Euzkadi!», 1.592. zk., 1917-04-23: 9.
- «Mariñel zarra», 1.724. zk., 1917-09-27: 1.
- «Aurtxuaren irriparría», 1.748. zk., 1917-10-21: 1.
- «¡Mendi maitiak! (Abestiya)», 1.893. zk., 1918-03-16: 1.
- «Gotzontzuaren musua», 1.955. zk., 1918-05-18: 1.

- «Sortzez Garbiari», 2.088. zk., 1918-12-08: 1.
 «Gogo-negarra», 2.171. zk., 1919-01-26: 1.
 «Biotza, maitakor (Gogarpena)», 2.185. zk., 1919-02-09: 1.
 «Goruntz begira», 2.225. zk., 1919-03-23: 1.
 «Neskutz minduari», 2.243. zk., 1919-04-11: 1.
 «Arrantzallaren abestia», 2.419. zk., 1919-10-08: 1.
 «Juan Zaigu...», 2.430. zk., 1919-10-19: 1.
 «Miren'i», 2.479. zk., 1919-12-08: 1.
 «Arrantzallaren otoy», 2.561. zk., 1920-03-06: 1.
 «Joseba Deunari», 2.572. zk., 1920-03-19: 1.
 «Nere leyotik», 2.740. zk., 1920-10-07: 1.
 «Iltegian», 2.762. zk., 1920-11-01: 1.

Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra

- «Erti-gayak. Jauntxuaren morroyak», 4. zk., 1916-04-01: 6-7.
 «Nere maittia», 10. zk., 1916-07-01: 4.
 «Osagai ona», 11. zk., 1916-07-16: 8.
 «Aberkoyak», 12. zk., 1916-08-16: 7.
 «Itzaropena», 14. zk., 1916-09-01: 8.
 «¡Ene mendi maittiak!», 16. zk., 1916-10-01: 7.
 «Lo gozoa», 17. zk., 1916-11-01: 4-5.
 «¡Iraun beti!», 18. zk., 1916-11-16: 3.
 «Ordu larriyak», 20. zk., 1916-12-16: 9.
 «Josu aurrari», 21. zk., 1917-01-01: 3.
 «Maintoni'ri», 22. zk., 1917-01-16: 6.
 «Nai ta ezin», 23. zk., 1917-02-01: 5.
 «¡Ez txarra!...», 24. zk., 1917-02-16: 3.
 «¡Egabera gaxua!», 25. zk., 1917-03-01: 4.
 «Deun-Joseba'ren margerki baten aurrian», 26. zk., 1917-03-16: 3.
 «Lenbiziko arantzalilla», 28. zk., 1917-04-16: 6.
 «¡Arren, lore ederra!», 29. zk., 1917-05-01: 6.
 «¡Amarik ez!», 30. zk., 1917-05-16: 3.
 «Mendiyen illunabarra», 31. zk., 1917-06-01: 3.
 «Maitta zazu...», 32. zk., 1917-06-16: 3.
 «Biyotz-beraz», 33. zk., 1917-07-01: 6.
 «¡Bekaitz gaiztoa!», 39. zk., 1917-11-01: 5.
 «Elurtza (abestiy)», 43. zk., 1918-01-16: 5.
 «Zorgiñak», 45. zk., 1918-02-16: 4-5.
 «Berrerosliaren oñetan», 48. zk., 1918-04-01: 6.
 «Deun-Kepa eta auzokide biyak (ipuin zarra)», 51. zk., 1918-05-16: 5.

- «Ogena, ñorena (ipuya)», 55. zk., 1918-07-16: 4.
 «¡Enaratzua!», 58. zk., 1918-09-01: 3.
 «Ollanda ta pattia (ipuya)», 59. zk., 1918-09-16: 6.
 «Larrebeya (ipuya)», 60. zk., 1918-10-01: 5.
 «Astoa eta azeria (ipuya)», 61. zk., 1918-10-16: 4.
 «Kardantxoloa eta ormatxoria (ipuya)», 62. zk., 1918-11-01: 3.
 «Nola Sabin'i...?», 64. zk., 1918-12-01: 3.
 «Egiyaren bildur (ipuya)», 68. zk., 1919-02-01: 4.
 «Azken-agurra», 70. zk., 1919-03-01: 6.
 «Euzki-eguna», 72. zk., 1919-04-01: 3.
 «Amari», 79. zk., 1919-12-01: 5.
 «Bakaldunen bezuza», 81. zk., 1920-01-01: 2.

Jaungoiko-zale. Euzkeldunei-euskeraz

- «Orrilla», 121. zk., 1919: 75-76.
 «Otz», 124. zk., 1919: 96.
 «Amari», 125. zk., 1919: 107.
 «Basatxonua», 129-130. zk., 1919: 141.
 «Baserriko jauparia», 132. zk., 1919: 158.
 «Belen'en», 136. zk., 1919: 188.
 «Maitearen nekea», 143. zk., 1920: 56.
 «Nere maiteari», 148. zk., 1920: 98.
 «¡Poztu zaitez!», 160. zk., 1920: 193.

Euskal-Esnalea

- «Gure aberatsak», 194. zk., 1920: 2.

Teneren lehen lanak, 1914an argitaratuak, izan ziren haurrentzako ipuinak (ikus goiko zerrenda). Argitalpen horien helburua hezitzailea zen eta Tenek tradizionala zen rol bat jokatu zuen horrenbestez. Ipuinak idaztea, hartzailea haurra izatea, ez zen inondik ere garairako praktika sozial disonantea. Izaitekotan bi alderdi aipatu beharko genituzke: euskaraz argitaratzea eta Eusko Gaztedi izeneko elkarteak argitaratzea lanok.

Gorago ikusi dugun bezala Eusko Gaztedi zen Bilbon sortutako gazte talde abertzalea. EAJren historia politikoaren baitan protagonismo handia izan zuen taldea izaki, nabarmentzekoa ikusten dugu Tenek erakusten duen harreman sozialen hedadura. Ez dakigu nola iritsi zen liburutxoak argitaratzera baina norbaitek aintzat hartu zuen literaturgilea zen euskal idazlea. Emakume baten

kasuan ez zen ohikoa literaturgiletzat hartzea, ez eta ere euskaraz argitaratzea. Deigarria da lehen lan honetan amaren abizenez eman zuela argitara lana: *M. Egañatar- E.* sinatzen du amaren abizena azpimarratuz.

Euskara literarioa sortzen aritzearen kontzientzia agerikoa da hasieran esaten baitu *“Umiak ipui au irakuñi edo leiduntian, eñezago uleñtu dezatentzat, jañtzen ditugu emen, lenbizi, izki edo letra atzalgariyak, eta urango, itz edo berba gitxi ezaunak”*. Kontzientzia metalinguistikoa askotan agertuko da Teneren lanetan. Horrela zioen beranduago argitaratutako beste pieza batean: *“Itz au ondo-ondo eraldu detanik ere enago. Neronek sortua izan añen, enau asetzen, baña egokigorik ez det idoro ta orixe jañi det. Bere zatiak auetxek dira: emakume-sendu-toki-eri”*⁸. Argi uzten du euskara eraikitzearen kontzientzia argia daukala.

Lehen aipuak balio digu, bestalde, asmo didaktikoaz berba egiteko ere. *“Lenen, Jaun-goikua maite-ezazu, Beria zeralako; ta gero maite ezazu zure Aberiya, zuria dalako. Alegintzen ba-zera maite abek maitatzen, ikusiko dezua Jauna’k beti gordeko zaitula”* esango dio haurrari Jauna, aberria eta maitasuna. Horra hor behin eta berriz enuntziatuko dituen unitate semantikoak. Ipuinen bidez tesi hori argudiatzen eta adibideak ematen saiatuko da.

Izan ere hiru ipuinak dira ikasketadunak. Ñabardura ezberdinekin baina hiruretan ikasgai jakin bat pertasiosioz helarazi nahi die haurrei: Sari traszentea iragartzen dio (zerua) euskal aberria zaintzen duenari. JEL doktrinaren arront erakusle dira ipuinok:

“Jaun-goikua ta Aberiya oneraztiak biyotzan poza ematen dit, eta ludi ontan ongi izateko, ori naikua dala deritzat nik”. *“Euzko-mutiltxuak: izan ditezela zuben biyotzak Jaungoiko ta Aberiyarentzat; ta ez dedila eldu zubezana Maite abek aztutzeko ezbiara; bañan ori gertatu ba-zaizute Antontxo’k zer egin zuban gogora ezazute; laga ziara orain-arte atzipetubak eduki zaituzten irakaskai galdubak; naiz ta ontarako igaro biar, zenbat atsekabe ta negar; ekin zintzo maite abek maitatzen, eta ikusiko dezute Goikua’k sariztatzen zaituzten”*.

Interesgarria da ikustea nola eraikitzen dituen aktore sozialen errepresentazioak: Lehen ipuinean onak emakumeak dira (ama, amona), ijituen emaku-

⁸ «Lenbiziko arantzalilla», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 28. zk., 1917-04-16: 6.

meak ez dira txarragatik narbarmentzen gizon ijitu lapurrak bezala. Protagonistak eta ekintzaileak gizonak dira Antontxo, basetxeko semea, ehiztaria, morroiak, ijituak, jauntxo (jaungoikua balitz bezala). Bestetik, dikotomia ugari darabilzki: on-txar, basetxe-uri, jaungoiko=aberri vs kanpotarren zale, ijito lapur-jauntxo on e.a. Subjetibazio eredu egiten da, hortaz, atribuzio estereotipatuaz eta enuntziatio ahotsa guztiz baloratiboa da.

Kontaketa bereziki txinpartatsua da bigarren ipuinekoa. Debako testuingurua antzeman daiteke bertan: Madril, zezenak, dantzak, klase sozialak, beste aberri bat. Euzkotarren taldetasuna “askatasun zalietakua” izatearekin identifikatzen du protagonista abertzalearen aitaren lagun batek esaten dionean honi “zure semia azkatasun-zalietakua da; aberriyaren etsaya”. Aita, berriz, *Garaiko-goyena'tar Toma zan euzkeldun aberatza, ez gaiztua, bañan maitasun gitxikua bere aberi ede rarentzat. Bera ta bere sendiya goratubak ikustia zan aren betiko ametsa, naiz ta oretarako saritan egin biar itxura-gabeko gauzeak*. Abertzalearen oposizioan leudeke, beraz, espainiarrak eta haiekin bat egiten duten euskaldunak, zenezaleak, aundizkiak, erdaraz mintzo diren “*érdeldun amoratubak*”, dantza zikiñetan dabilzanak eta testu lizunen irakurleak. 1914, Deba, espainiar udatiarrekin sortutako talka. Horra hor Teneren inspirazio iturriak: klasea, nazioa, moral kristaua. Emakumerik ez da ageri ipuinean, protagonista guztiak dira gizonak. Datu bat da.



Debako inudeak. [Iturria: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/aintzinako-lanbideak/hautzainak>]

Hirugarren ipuinean antzerako ezaugarriak aurki ditzakegu. Ohargarria da, dena dela, kasu honetan aberria amaren pertsonifikazioa dela. Kasu honetan ez du ipuina kontatu osteko moraleja moduan aipatzen ama aberria baizik eta pertsonaia bihurtzen du.

Haurrei, eta euskaldunei oro har, eman beharreko mezuan aukera egitearen ideia dago inplizituki, aberriaren alde aukera egitekoa. Aukera horren aldeko argudio nagusi bezala azpimarratzen da erlijio kristauak agintzen duen *beste bizitza*. Paradojiko da, horregatik, transzendentzia agintzen zaiola euskal aberria eraikitzeke inmanentzia aukeratu beharrean denari. Saria da transzendentia baina jarduna da erabat konstruktibista. Euskara da horren lekuko nagusia, idazleak eraiki egin behar baitu idatzizko erregistro bat menostua dagoen hizkuntzarentzat eta eraikitzen ari denaren kontzientzia argia dauka.

Testuinguratze teorikoan aipatu dugun bezala euskal abertzaletasunaren eraikuntza gauzatzen da espainiar eta frantziar nazio-estatuaren eraikuntzaren markoan. Teneren ahotsa erabat dago lerratua euskal abertzaletasunaren aldeko argudiaketaekin baina marko soziokulturala *Beste* handi horrek egituratzen du. Aipa genezake adibide moduan Menéndez Pidal entzutetsuak espaniartasuna eraikitzeke egindako lanak. Gartziak (2002) bere doktore tesia eskaini zion *Espainia Metafisikoa* eraikitzeke Pidalen ekarpenaren azterketari. Azpimarratu nahi duguna da pidaldarrak diren moduak arandarren moduen garaikideak zirela eta denek osatzen zutela sistema dinamiko bat. Sistema horren baitan sortzen dira diskurtso fundante eta operanteak: batak gerlarien epikotasuna aipatzen badu, besteak jopuak aipatuko ditu; batak gaztelaniaren handitasuna frogatzen badu, haren gaitasun handiak, besteak euskara bihurtu nahiko du gutasun ikur... Horrela kanonizatu egiten dira balio-kate jakinak eta eraiki nahi diren gizarteetarako sedimentu bihurtzen.

Hori horrela izanik ere, bi eraikuntza horien botere-harremanak erabat asimetrikoak dira eta horrek dakarrena da eraikuntza-prozesua bera unibertsalizatzeko eta naturalizatzeko aukera oso ezberdina izatea. Nazio-estatuak, bereziki iragan inperiala izan dutenak, beste errealitate nazionalen ukazioan ardatzen dira. Are gehiago, ukazio horrek legitimatzen ditu proiektu identitarioak (Apodaka, 2015). Demokraziaren inperatiboa hedatu ahala diferentziak onartuko ditu baina beti ere asimetria aldatzen ez bada. Mujikaren lekukotza

ezinbestekoa da testuinguru horretan. Bere ekarpena kokatzen da sistema hau gorpuzten den unean eta irudikatzen du nazio-estatu espainiarraren aurreko erantzuna. Hori da bere ekoizpen diskurtsiboaren marko politiko eta soziokulturala.

Identitate nazionala eraikitzeko ezinbesteko tresnak izango dira hurrengoak: ahots propioa izatea, identitatearen errepresentazioa eraikitzea, subjektibitate berria eraikitzea eta imajinario nazionala sortzea. Horiek guztiak irudikatu, ekoiztu eta zabaldu egin behar dira. Masa-komunikabideak sortuko ditu euskal abertzaletasunak eraikuntza horri erantzuteko.

Euzkadi, Euzko-Deya, Jaungoiko-zale eta Euskal-Esnalea. Guztietan hartu zuen Tenek parte lehen hamarraldian. 1916an hasi eta 1920ra bitartean (hortik aurreragoak hurrengo atalean aletuko ditugu) ahots narratiboaren garapen bat ikusiko dugu: ahots ezberdinak entsegatzen ditu eta aldizkari bakoitzari egokituta ageri zaizkigu. Euzkadiko ekarpenak dira anitzak, kolore ezberdin asko dituztenak. Euzko Deyakoak dira indartsuagoak, kementsuagoak. Jaungoiko-Zalekoak mistikoagoak. Guztiak ardazten dituen asmoa da pertsuasiboa, euskaltasuna legitimatzeko iritzi publikoa sortu nahi du, taldetasun bat eraiki eta bide bat erakutsi.

Prentsan ohikoa den polemistaren ahotsa, zirtolaria den narraitzailearena, olerki lirikoen egilea, moraleja erakutsi nahi duen irakasle jakintsua. Denak erabiltzen ditu garai honetan. Ikus ditzagun xehetasunez adibide batzuk:

Ahots indartsua erakusten du euskara defendatzeko eta kritika gogorak egiten dizkie euskal herritar hainbati. Esate baterako Kirikiño defendatzeko honakoa dio bere lehen ekarpenetako batean Euzkadin:

“Euzkeldunak izan eta izparringia artuta euskeraz idatzia dagona albo batera utzirik erderaz idatzia dagona bakarrik irakurtzen duten abek ikusiya dago ez dutela beren izkuntzaganako maitetasunik; eta bere izkuntza maite ez duanak ez du bear bezela bere Aberria maitatzen eta bear bezela Aberria maitatzen ez izanik ezin lezake abertzale izendatu. Orrelakoak... ;Zigorrarekin kanpora!”⁹.

⁹ «¿Kirikiño, keneral errusitarra?», Euzkadi 1.176. zk., 1916-04-29: 1.

Euzko Deyako beste aipu honek ere badu ahots indartsurik:

“Jeltzale zintzoa zerala uste dezun gaste sutsua, jakin zazu ongi, Jel-bidia ez dala lorezko bidea; baizik estua, aldapatsua, elor-arantzaz dena estaldua; begira bestela, Sabin Irakaslea, bide ortan beti minddua. (...) Izan beti, ene euzkeldun ona, Jel-naittasunean; ez bilduñtuta atzera egin. jez! ekaitz-egun gogorñan; begira gora. ta... jja ñai beti! ekindako bidian. jarrai beti! Arana-Goiri’k bezela, jil-ártian! (...) jel-bidia dala zure bidia, zorionean dezu igarñ; aztindu epelkeriña, ta sendo-sendo ekin aldatzari; Sabin’ek bezela su-garñez ekin diozu bide orñ; Berak bezela, jbiñi guziñan! jil-ártian!.. jiraun beti!”¹⁰.

Mitinlari baten ahotsa da azken hau, zer ikusi gutxi duena emakume otzan eta jainkotiarrarekin. Autoritatez betetako ahotsa da.

Euskal Esnalean euskararen galera lotzen du euzkotar batzuen harrokeriarekin. Esperantza, ordea, badago eta argi-izpi forma du hirietan hasi baita euskarra hedatzen, gutxika, hori bai...Naturaren metaforak erabiltzen ditu: Arazoak dira *arrotzale-aizea* eta *andikeri-lanua*. Salaketa gogorra egiten die euskotar aberatsai: Sakela aberats baina ez burua! Luzea da aipua baina hemen txertatzen dugu interesgarria delakoan:

“Euskotar aundikiñen jauregiñetan egun beltz baten jeiki zan arotzaleñtasun-aizeak eusko-uriñetako txaidietatik aurñan artu-ta, baseñi txiro ta basetxe bakañetara basteñtu zuan gure euskera maitagarñia, badirudi euskeltzaleñtasun-eguzki-beñiñak mendi-artetik jeikita, malkarñak artuaz, basetxiak berotuaz, baseñiak alaituaz, uriñan bete-betian sarñtu nairik, euskotar biotz osoen jabe egin nai duala. Bañan gutxika..., neke aundiz sarñtzen ari da uriñan eguzki osasungarñi au. Lenago arotzale-aizea jeiki zan jauregiñetatik, orain andikeri-lañua jeiki eta uriña estaldu du. Alaz guziñaz Jaungoikua’gan itxaron degu eguzki beñi oni emango diyola beañ duan indarñ laño kaltegarñi au ayenatzeko. Ba, ¿zeñ da andikeri-laño bat besterik euskotar aberatsen jauregiñetatik jeikitzen dana? Gure aundikiñak, gure aberatsak, ez dute aintzat artu nai beren abizenak egin ditun izkuntza. Txiroa derizkiote, guztiz txiroa, iya lotsagarñia; baseñitaren, arantzaliña; ayen sukaldiak bezin illuna, abenak bezin txiroa arkitzen dute. Ez dute nai berentzat; geyago: ez dute berentzat ezagutzen. jEroak!

¹⁰ «jIraun beti!», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 18. zk., 1916-11-16: 3.

*Onelakoak aberatsak izango dira, bai; bañan zakela bakañik aberats, ez burua. Adimen txiroa da, euskera euskotañ oroena dala aitu ezin duana*¹¹.

Olerkari lirikoaren ahotsa ere agertzen zaigu hainbatetan. Horietan ama, aberria, haurtxoak izan ohi dira aktore sozialak. Azpimarragarria da familiaren garrantzia aktore sozialen errepresentazioan. Naturaren pertsonifikazioa agertzen da horietan ere Pizkundean ohikoak izango diren topoi erromantikoak gogoraraziz: *“Illunabaña da... ta mendiyen dena izanik ixiltasuna, bereala datoñ berau ausitzera basatxaunoko ezkila; onexek die azkañ menditañai jaso donokirontz biotza, Miren Neskutzañri aguñ bat dalarik mendiyen illunabañeko soñu-otsa*¹².

Narratiba pipertsua garatzen du beste hainbat ekarpenetan. Umorea, zirtoa ez zaio falta kontalari trebe honi. Adibidez, sagardotegira doan eta bueltan datorren Errotagaraitar Txomini zirtoa. Betaurrekoak behar ditu joaterakoan, ez ordea, etortzerakoan. Hitz gutxikin kontaketa erritmoduna eraikitzen du umorez.¹³

Badu ekarpen bat sozialisten ingurukoa:

*“Txaide-kurutz bat igarotzian, an inguruko etxe batetik ateratzen ziran soñu-ots eta zaratak, bertara begiyak jaso zizkiyoten. Sozialisten batzokia zan. Bertako bazkidiak, jan-edan eta zabañkeri-añtian, amabosteko alogerañ aztindua ematen ari ziran. Etxe au ikustian, Markelin gizajoari biotza lañitu ta arpegia sutu zitzaizkiyon. ¡Etxe zorigaiztokoa! Lagunak atzipetuta egin zan bazkide, bertan galdu zitun Jaun-zinañsmena, lotsa-ona ta sendiko zorion-gentza. Ango erakutsiak erotuta, gau artan ere, ausardi gaiztoz, biraoz mintzaturik, Urtzi iraindu, emaztea atsekabetu, ta bere burua kezka-pian jañi zitun*¹⁴.

Ahots narratiboekin amaitzeko aipatuko dugu metonimikoki eta metaforikoki sinbolo bihurtzen dituen txori eta kaiolak, askatasunaren ikur; arrotzaren uztarri den diruzaletasuna; odola, guda, Sabino Arana bera. Sinbolizatze lan hau bereziki aurkitzen dugu Euzko-Deyan. Jaungoikozalen amabirjin eta oro

¹¹ «Gure aberatsak», Euskal-Esnalea 194. zk., 1920: 2.

¹² «Mendiyen illunabarra», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 31. zk., 1917-06-01: 3.

¹³ «Osagai ona», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 11. zk., 1916-07-16: 8.

¹⁴ «Bakaldunen bezuza», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 81. zk., 1920-01-01: 2.

har katolikotasunarekin loturiko aingeru, saindu, zeru, Jesus haurtxo eta horrelakoak ugariak dira.

Bukatzeko, atal honetan aurkitu ditugun genero markak aipatu nahiko genituzke. Lehenbizikoa da prentsako lehen artikulua argitaratzen hasten denetik *aitaren etxeari* egiten diola erreferentzia eta bera haren alabatzen agertzen dela. Beraz, abertzaletasunaren leku komuna den aitaren etxearen aurrean genero markarekin ageri zaigu. Are gehiago, alabaren zeregina aldarrikatzen duela dirudi:

*“Aundizkiyak bere jauregiya
aitortzen dun bezin arro
aitortzen zaitut ;basetxe deuna!
zeuretarra naizelako;
Goiko Jaunauri diyot eskatzen
gorde nazala maitaro
zeu ere nizaz poztu zaitian
alaba nazun ezkeru”¹⁵.*

Idazkian irudi luke funtzio bat betetzeko gertu dagoela bera, ekimen gaitasuna aldarrikatuz. Ohar bedi, bidenabar, aitaren etxea zentzu politikoan edo erlijiosoan aditzera ematen duen ez dela argi geratzen.

Bigarren kontu bat da sarritan egiten diela trufa gizonei bere idatzietan. Gora-go ikusi dugun Errotagaraitar Txomin edota inñude zelakoan moztortzen den beste gizon bati kritika pipertsuak egiten dizkie. Mujikak antagonismoan ikusten dituen haundiki, erdalzale eta horrelakoak sarri gizonak dira. «*Erti-gayak. Jauntxuaren morroyak*»¹⁶ izeneko piezan hauteskunde egunerako larri dagoen jauntxoak bidali ditu bi morroi kaletar baserri batekoei bere autarkia (botua) eskatzera. Errebolberrak patriketan abiatu dira eta harroputzei norbait azaldu zaie mendietako itzalean ezkutaturik. Aldapan behera ihes eginda doaz morroiak asto baten arrantza entzun dutenean. Gogoratu ere ez dira egin patrikan

¹⁵ «Nere aitaren jayotetxeari», Euzkadi 1.144. zk., 1916-03-27: 8.

¹⁶ «Erti-gayak. Jauntxuaren morroyak», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 4. zk., 1916-04-01: 6-7.

zeuzkaten errebolberrez. Kontaketan barregarri utzi ditu Tenek kaletarrak eta hauteskunde garaiko estutasunak. Gizonak dira protagonista oraingoan ere. Kontaketa bikaina da erritmoari dagokionez, ironikoa. Gizonak generikoan erabiltzen ote ditu? Hala dirudi. Baditu, nolana ere, emakumeentzako berezko kritikak ere. Bereziki interesatzen zaio herria utzi eta hirira joaten den alabaren kritika. Manttoni neska gazteari ohartarazten dio hiriarekiko grinak dakarzkien kalteez:

“Ikus-min kaldeřak zuregan sortu duan egařiak, zure biotza astintzen duan itxaropen txoroen aiziak, zemazki galdu-gordian urirontz, erukařia! noski uste-dezu an zoriona arkitzia... bařan aztařtu zazu adimenaren aręiya, ta maitagaři azalduko zaitzu mendiko gentza alaya. Uriko aiziak, Maintoni, dira indařtsu kaltegařiak, e řaz auřian ařtzen ditu gastien buru ariřnak; gero abetan katibaturok ařztaka dijoazen biotz indařgeak, laister negargařizko itxuran laga oi-dittu beko loyak, egiten dirala guzien destaingaři beren eruz erukařiak.

Igo ostera mendiyan gora... ekin sendo aldatzari, ez ba-dezu nai iřola izan betiko erukaři, Zoaz gora, igo, igo, Maintoni!”¹⁷.

Ildo beretik kontatzen du modu dialogalean hiritartu den alabak bere aitarekin duen elkarrizketa:

“-Aita nere semeak ez dizu ulertzen, ez daki ba berak euzkeraz itz-eiten.

-Zer? Ez ditala ulertzen?

-Aita, onek euskera zertarako?

-Zertarako?? Aitonakin euzkeraz itz-egiteko”¹⁸.

Emakumeengan dauka esperantza jarrita, ordea. Horrela mintzo zaio Karmele Egia izeneko neska bati:

“Maita-zazu, maita-zazu zure izkuntza, Karmele, zeuria da, ta egin zazu zeure biotzaren jabe. Maita ba-dezu, maitasunak zure biotza suturik, laister zera maita

¹⁷ «Maintoni’ri», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 22. zk., 1917-01-16: 6.

¹⁸ «Aitona», Euzkadi 1.221. zk., 1916-06-14: 1.

*ori zeuretzat iritxi-nairik. Ta ikusiko dezu, Karmele ona, ikusiko dezu euzkera, ta bera mintzatzeko atsegiñez beti pozik biziko zera*¹⁹.

Euskararen ikuspegi mistikoa zabaldu nahi du Mujikak. Maitasun mistikoaren zantzu garbiak dituen pieza honek erakusten du zein errepresentazio duen berak herritar askok galdu egin nahi duen hizkuntza zaharraz. Gaur egundik begiratuta harrigarria gertatzen da zein urrutira eramaten den sakralizazioa:

“Nere biotzak bai-du maité bat biziro maité duana, nere Aberi –izkuntz edeía berdin– gabeko euzkera. Berau eta nere asaben bidez Goikoa’k eman didana, nigan beronen gorde-lekua beti biotza izango da.

Euzkera maité, euzkera eder ene izkuntza kutuna, euzko-abenda txit garbiaren loirik–gabeko ikuía, zurekin beti bizi nai det il nai det iltzen ba–zera, zuri bizitzen zintzo laguntzen amai bedi bizi nereá.

*Zeurea nazu, neurea zaitut, Ama euzkera laztana ludi guziko izkuntz–ártean zera edeí–edeírena; nere maité txit maitagaía nere izkuntza lenena, Goikoa’ren zeu izan zaite baita nere izkuntz azkena*²⁰.

Azkenik, aipa dezagun Teneren piezetan askotan ditugula protagonista femeninoak: alabak, amak, amamak, itsasoan galdutako mariñelen alargunak. Horietako bat da geroko *Mirentxuren* oihartzuna dakarkigun honakoa:

*“Bañan itxasuak sarritan baziyon
senarrarekin ogiya ta poza bialdu,
baita ere berak gogor dizkiyo
senarra, ogiya, ta poza kendu”*²¹

Erreferentzia horrek eramaten gaitu euskal artean berrikuntza ekarri zuen Arretaren *Mirentxura*. Horrela diote Arestik eta Llonak (2004-490):

¹⁹ «Maitta zazu...», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 32. zk., 1917-06-16: 3.

²⁰ «Nere maittia», Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra 10. zk., 1916-07-01: 4.

²¹ «Atsekabea», Euzkadi 1.158. zk., 1916-04-10: 8.


Bajo el ascendiente nacionalista, sus cuadros tomaron al mundo rural vasco como el escenario privilegiado y a las mujeres como las protagonistas principales. Arteta fue incorporando a las escenas del país una imagen femenina, una mujer vasca, cuyas características estaban en consonancia con el renacimiento de un mito, la madre de la patria, que el nacionalismo vasco creía portador de un nuevo orden simbólico.

1919an bere *Mirentxu* aurkeztu zuen Artetak (2004-491): “*Mirentxu, la virgen laica que representa trasciende, como en el caso de la Virgen María, el papel de madre nutriente e incorpora al significante madre toda otra serie de significados como bienestar, refugio, protección, cuidado, hogar, punto de referencia. (...)*”. Mirentxu horretatik abiatuta emakume langile eskultorikoak margotuko ditu Artetak aurrerantzean. Autoreek aipatzen dute Artetaren eboluzio artistikoaren atzean dagoela euskal burgesiaren nazio proiektu liberal eta progresista. Bilbon Lehen Mundu Gerran aberastutako burgesia horrek apustu egin omen zuen Arana-ren ikonografia kostunbrista gaingintzeko. Ildo beretik Manterolak (2017) ere azpimarratzen du mende hasierako euskal artearen berrikuntzan ahalegin bat dagoela ezaugarri tradizionalak bersinbolizatzeke eta ariketa horretan datzala berrikuntza berak.

Non kokatuko da Mujika horrekiko guztiarekiko? Aldi honetako piezek erakusten dute polisemikoa dela bere ahotsa eta, euskal abertzaletasunaren ildo ezberdinekin konektatuta dagoelarik, ahots ezberdinak entsegatzen dituela. Hurrengo ataletan ikusiko dugu bere eboluzioa zein den. Hasteko esango dugu eszizio politikoa datorkiola abertzaletasunari, komunionistak eta aberrizaleak bananduko dituen.

Argi geratzen zaiguna aldi honetan da Tene Mujikak autoretza bat garatzen duela ekarpen horien bidez. Hasieran M. EGAÑATAR E. amaren abizena erabiliz sinatzen du, ondoren TENE erabiltzen du Euzkadin eta Euzko-Deyan. Honi *Deba(n/tik)* eransten dio abertzaletasunaren egituratze espaziala irado-kiz. Deigarria da, hirugarrenik, Euskal Esnalean izen eta abizen osoak erabili-ko dituela MUXIKATAR ERROBUSTENE. Deba.

4. ABERTZALETASUNAREN EKINTZAILETZA



I(ra)ku(s)/(r)lea atal honetan orientatzeko gezi-galderak:

Nola egituratu zen lehen abertzaletasuna? Nola ekin zitzaion emakumeen abots publikoari? Nolako garaiak ziren? Nolako zen abertzaleek topatzen zuten garaiko hizkuntz ideologia?

■ Egituraketa: CNV, SOV, EAB, Euzko Gaztedi

20. hamarkadaren hasieran EAJk eraikiak eta inguratuak zituen hurrengo hamarkadan komunitate-abertzalearen gorputz soziala izango ziren egitura nagusiak: Alderdiaren lurralde-egitura, batzokien antolaketarekin, langileria

abertzalea batzen zuen SOV (gero ELA) sindikatua, Emakume Abertzale Batza eta Euzko Gaztedi gazteen egitura.

SOV 1911n sortu zen Bilbon. Langileria autoktonoa antolatzen zen aldarrikapen sozio-laboralak nazio ikuspegiarekin uztartzeko. Abertzaletasuna eraikitzen ari zen gizarte mugimendu dinamiko eta multidiziplinar gisa. Espainiatik industrializazioaren kariatzat etorritako langileetariko asko eta hiriguneetako liberalak ezker ideologiaren bueltan ongi antolatuta zeuden ordurako eta bertoko langile abertzaleen antolaketa propioa ekarri zuen SOV sindikatuak.

Don Poli Larrañaga apaiza izan zen sindikatuaren sortzaileetako bat. Berak ongi irudikatzen ditu norabide biko sinkretismoa zeinak konbinatu egiten zituen katolikotasunaren tradizionalismoa eta partehartze dinamika berritzaileak, sindikatua kasu. Soraluzen jaioa, Eibarren bizi izan zen urte luzez eta ongi ezagutu zituen debabarreneko langile mugimenduak. Sindikalgintzaz gain, emakumeen mugimendutik gertu ibili zen. Idatzizko lan mardul bat eskaini zion Emakume Abertzale Batzari eta xehetasunez zein mugimenduaren aldeko apologia eginez kontatu zituen erakunde horren jardueraz guztiak.

Gatazkatsua izan ohi da, ordea, gizarte mugimendu batentzat klasea, generoa eta naziotasuna txirikordatzea eta desorekak noiznahi gertatuko dira lehentasunen aferan: zer da garrantzitsuago langilegoaren interesa ala naziotasunarena? SOV alderdi abertzalearen abaroen sortu bazen ere, autonomoago egiten joango da hamarkadetan aurrera egin ahala klaseen arteko borroka garrantzia irabazi ahala eta alderdiak, pendularki, autonomismoaren aldera jo ahala. Emakumeen taldea bera ere sektore progresistan kokatuko genuke, bereziki 30. Hamarkadako andreen gazte belaunaldia. Horretan lagun zituzten *aberrizaleak*. Euzko Gaztedi Bilbon kokatutako gazteen erakundea zen. *Aberrizale* izeneko aldizkaria ateratzen zuten eta gazte abertzaleen bozeramaile ziren. Erakunde dinamiko horrek ekintza ugari egiten zituen.

Emakume Abertzale Batzaren lehen etapa 1922tik 1923ra izan zen, dakigun moduan. Ugaldek dioenaren (1993) arabera ez zen hutsetik sortu. Ropero Vascoren jardunak zein prentsan agertu ziren emakumeen hitzak lurra prestatu zuten egitura bat sortzeko. Prentsako aitzindarien artean leku nabarmena du Tene Mujikak. Ordura arteko giroa nolakoa zen Don Polik deskribatzen digu:

Más la mujer no tenía a la sazón, ninguna representación en ninguna de esas organizaciones. Se discutía si la mujer debía de intervenir en las luchas patrióticas. Algunas de ellas “Garbiñe”, “Etxakin”, enregistaban o enristaban? sus plumas en la prensa, pero se ponía en tela de juicio su atrevimiento (Larrañaga, 1978-I, 34)

Karmen Errasti, Etxakiñ, bilbotarra zen, eta, 26 urte zituela, euskara ikasi zuen Kirikiñorekin²². 1922an EABko presidente izan zen. Bere lan gehienak euskaraz idatzi zituen Euzko Deya aldizkariko *Euskeldun neskatillai* argitalpenerako, eta Sabino Aranaren ideologia irakastea eta emakumeen artean zabaltzea zeukan helburu nagusi (Rekalde, 2012-24).

Purificación Gorostiza, Garbiñe; Maria Barbier, Mirentxu; Rakel de Alda, Kataliñ, e.a Tene Mujikarekin batera aritu ziren prentsan. Gehienek gaztelaniaz idatzi zuten; Mujikak, ordea, beti euskaraz. Tenek «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak» izeneko 19 pieza argitaratu zituen Euzkadin 1921eko urtarrilaren 16tik abuztuaren 16ra. Hainbat autorek nabarmendu duten moduan sekulako eragina sortu zuten emakumeengan. Idatzi horietan emakume abertzaleen arketipoa azaltzen eta marrazten zen (Rekalde, 2012-23):

“Asko dezakegu, asko; ain asko eze, gu gabe, emakume euzkeltzale gabe, ezin liteke euzkerak bizirik iraun, beste eleena bezela, beronen bizia ere, erabilia, aoz. erabilia izatean dagolako; eta gizadiaren zati bat egiten degunex (ontan ere esaten dutenez gizasemeak baño zati andiagoo), gizadiaren erdi bat egiten degunex, beñere ez da gauzen aldez edo kaltez gure eragiña aintzat ez artzekoa; len ere au bein baño geyagotan esan det-eta; eta bai zenbait gauzetarako gizasemeena baño almen geyagoduma; sustrayagotik ukitzen diegulako, edo ta beren oñaria dakigulako; oñengatik gera gu gauz oyen zoria erabaki dezakegunak. Abetako batzuk dira eleak, edo izkuntzak gizartean; eta gure aberien elea euzkerea. Biziko ba'da, ele ña izango ez pa'da, beste guztien gain emakumien egipena da lenen lenen bear duana...” “Tene” Mujika. “MIREN ITZIARI IDAZKIAK”.

Ugaldek esango du emakume hauek komunitatearen amaren funtzioak egingo dituztela eta haien zeregina izango dela arraza, ohitura eta abertzaletasunaren transmisioa. Euskararen transmisioak berebiziko garrantzia hartuko du beren zereginen artean.

²² Beti geratzen zaigu zalantza ea euskara ikastea ez ote den kasu askotan euskaraz alfabetatzea.

Ikerlari askoren aburuz emakume hauek ez dira feministatzat hartzen. Aber-tzaletasunari kritikatzan zaion atzerakoikeria dakuste emakume abertzaleen artean. Sarritan genero-berdintasuna aldarrikatzea edota eskubide indibidua-len aldarria hartu ohi dira irizpidetzat eta, kasu, ez da hori emakume hauetako gehienek ikuspegia.

Mary Nashek (1994-156), bere aldetik, espainiar historiografiaz egindako berri-kusketari esker feminismoaren begirada liberalak emakume hauen inguruan erai-ktiko begirada murriztaileak agerian jarri dira. Llonak horrela dio (2002-215):

En el panorama historiográfico, el debate sobre los feminismos ha resultado un tema controvertido. Las dificultades para su análisis han estado relacionadas con problemas de diverso orden: por un lado, los avances de las mujeres en el presente siglo, en un sentido tendente a la igualdad política formal de los sexos, han creado por sí mismos una inclinación a la interpretación lineal del pasado y a la desvalorización de aquellos proyectos feministas no coincidentes con esa tendencia general; por otro lado las pautas de carácter liberal marcadas por los feminismos norteamericano y anglosajón, así como la centralidad de sus luchas por el sufragio, han contribuido a reforzar una visión unilateral según la cual la voluntad de alcanzar derechos políticos para las mujeres sería un requisito indispensable para obtener carta de naturaleza feminista.

Nashen esanetan genero-berdintasuna aldarrikatzen zuten emakumeen on-doan genero-desberdintasuna aldarrikatu zuten multzo garrantzitsu bat ere egon zen. Amatasun sozialaren ideia omen zeukaten azken hauek eta horren bitartez lortu omen zuten emantzipazio proiektuak bideratzea gizartean.

Nashez gain, beste bi ikerlari ere aipatzen ditu Llonak: Off (1988) eta Bock (1993). Offek *feminismo erlazionala* deitu zion berdintasunzale izanda ere genero bakoitzaren funtzio ezberdinak azpimarratu zituenari. Autorearen esanetan XX. mendean Europan feminismoak erabili duen argudio nagusietako bat izan da paradigma erlazional hau. Bi generoak dira ezberdinak baina osagarriak, horra bere ideia nagusia. Amatasun funtzioari garrantzia eman zieziaion bilatzen zuen.

Bockek, bere aldetik, *feminismo maternalista* deitu dio Europako herrialdetan XX. mende hasieran nagusi zen ildoari. Emakumeen eskubideak aldarrikatzen zituen baina berezko izaera onetsiz. Aniztasunaren aldeko aldarria egiten zen emakumeari onar zieziaion emakume eta ama bezala zuen garrantzia.

Hernándezek (1997-6) arreta jartzen dio euskal abertzaletasunaren kasuan politikarako espazioen banaketa nola gertatzen den begiratzeari. Azpimarratzen duenez emakumeen artean lan politikorako espazio nagusiak dira hurbilak, afektibitate eta emozionalitate intimoa nagusi diren guneak. Aldiz, gizonen espazio politikoak betatuta agertzen dira emakumeentzat eta deskonfidantza sortzen dute emakumeek espazio horietan. Ondoriozta liteke, beraz, emakumeek ez zutela erraz izan partehartze politiko publikoa. Hauek emakume-ama sozial rolak erabili behar izan zituzten espazio publikoetan onartuak izango baziren.

Mary Beard historialariak, kultura greko-erromatarrean aditua denak, emakumeen ahotsa ixilarazteko antzina klasikotik egin den bidearen genealogia landu zuen (2017). *Odissea* klasikotik hasita, ahots publikoa duten emakumeen ixiltze-inperatiboa aztertu zuen. Ixilarazte ariketa lotzen zaio, irakaslearen iritziz, gizontasuna bera eraikitzekeo prozesuari. Alegia, gizon izatearen atributo gisa erabili izan da andrak ixilaraztekeo gaitasuna. Horrela, iraunkor eta sistematikoa izan da ahots publikodun emakumeen deslegitimazio eta deskreditua. Soilik bi kasutan baimentze diete gizonak emakumeei ahotsa publikoki altxatzea: *beraien gaietaz* aritzeko edota familiaren iraunkortasuna mehatxatuta egon litekeen kasuetan.

Teneren jarduna hitzez hitz lotzen zaio inperatibo horri: bata da, euskaraz biziberritzeko afera emakumeen gaitzat jotzen zen, alde batetik, eta bestetik, ontzat ematen zen abertzaletasuna emakumeen artean aktibatzekeo zeregina emakumeei zegokiela; bestea da, larritasuna aitortzen zitzaiola familia abertzaletaren egoerari, Jaungoikoa eta Lege Zaharraren moralak kaltetua antzematen baitzuten. Horrek guztiak legitimatzen du Tene bezalako ahots publikoa. Ikusiko dugunez, Teneren obrak erakusten du ahots publikoaren negoziazioa. Horretara iritsi aurretik, ordea, ikustagun hurrengo atalean emakumeek rol publikoa jokatzearen inguruan sortu zen gatazkaren lekukotza.

■ Emakumeen partehartze gatazkatsua

Tenek lidergo argia izan zuen emakumeen papera aldarrikatzen eta 1921 aldean berari erantzun zioten *Euzkadiren* orrietan polemika sustatu nahi zuten hainbat alderdikidek. *Asier* sinatzen zuen batek (Euzkadi, 1921-03) esaten zion

Teneri “*zeren gure idatzia etzan jun zure aurka, baizik emakumien ekandu lasayen aurka*”. Polemika beroa izan zela ezin ukatuko dugu horrela baitio ironia handiz “*Gu ere, Tene, ondo ulertu-ezaren erruz, alkar iltzen bagabilz bezela estutu gera, baña ondo begiratzen badiogu guk il nahi degun “Alkar” txarriya (metafora bat da)...txarriya baño loyagua (da), ekandu txarra*”. Hilabete batzuk berandua-go (Euzkadi 1921-08) *Akillako Morroyak* dio:

“Adimen utsa ez dala uste det abertzaletasuna, adimena beste edo geyago da maitetasuna, eta biotzeko lora eder au amaren magalian bezin ondo eta ona ez da inñun artzen. Nik badakit emakumiak edozein euzko-batzokiko bazkidiak balira, makiña batek esango luke mari-bandera batzuk dirala, baña inñon esan-besana eta iritzia-ri begira daganak burua zertarako du? Orain senarra zaragia baño moskorragua izan, emazte onak aren utsak ordaindu eta sendia bide onian eramaten du; baña emazte txarra baldin bada, gizonaren indarrak utsak dira eta etxia sustraitik jausiko da.”

Urte bereko irailan *Aberri* eta *Belu-menduk* proposatzen dute Teneren “Emakumea eta Aberriatza” idatzia argitaratzea beren ustez “*lan ta lan ta emakumeren aldetik laguntasun gutxi, jain gutxi ere! Ta lan asko egin ondoren atsedean piska bat artu bihar*” zuelako Mujikak. *Aberrik Zargazteri* erantzuten dio Teneren lanak argitaratzeaz honakoa:

“Kirikiñok gai onetzaz ez aldu ezer esan bihar? Ala txakurzulon izparringirik irakurri gabe egoten da? Gauza onen burua bera izanik, oso egoki derizkiot berak itz edo idaztia, zergaitik TENE berak baño obeto eztau inñork ezagutzen. Orain txindia ugari batzia da ta egokia izango litzateke Batzoki guztietan zerbait batzia, auxe emakume baten lanak batzia, geure elez behintzat, lenengoa izango dalako” (Euzkadi, 1921-09).

Aipuek nabarmen uzten dute, gure iritziz, Teneren autoritatea Euzkadiren irakurlegoaren artean eta emakumeen partehartze politikoari buruzko eztabaida. Tentsioak areagotu egingo dira 20. hamarkadan bertan gauzatuko baita alderdiaren barruko eszisia, batetik, eta kanpo baldintzek diktadura baten forman mugatuko baitute, bigarrenik, abertzaleen jardunbidea.

■ EAJren eszisiao eta Primo de Riveraren diktadura

Sindikatu eta Gaztediren inguruko ahotsak kritikotasuna agertzen hasi omen ziren Alderdiaren jokaera kontserbadorearekiko. Beraiek egokiago ikusten zuten langilegoarengandik gertuago egongo zen alderdian aritzea. *Euzkadi* egunkariaren izaera burgesa kritikatzeko zuten eta gizarte gaietan alderdiak erakusten zuten ardura falta.

Aberrin, bestalde, Sabino Aranaren doktrinarengandik urrundu izana salatzen zuten gazteek. 1921ean Comución Nacionalista Vascaren baitan eszisiao ekarri zuena, funtsean, estatu espainiarrarekiko izan beharreko harremanaren nolokotasuna izan zen. Historialarien hitzean (De Pablo, 1999-134):

esta ruptura tuvo su origen en una herida mal curada y en un debate siempre candente pero nunca realizado. La herida fué la famosa “evolución española” de Arana y el debate (...) fué sobre la relación política e institucional entre Euzkadi y el estado español, es decir, la disyuntiva entre autonomía e independencia.

Kizkitzak *Euzkadiko* bozgorailutik defenditu egin zuten Aranaren jokabide aldatuta estatuarekiko. Izan ere, Aranak gaztetan defendatzen zuten erabateko banaketa modalizatzen eta ñabarduraz josten joan zen bere ibilbidean. Badirudi Gipuzkoako ordezkari hainbat, Kizkitza aurrendari, estatuarekiko harremana malgutzearen aldeko zirela. Aurrean zituzten, ordea, Euzko Gaztedikoak. EBB neutraltasuna gordetzen ahalegindu zen, “*facilitar la cohabitación entre radicales y moderados, obreros y burgueses, jóvenes y viejos*” (De Pablo, 1999-136).

Debatea atzeratu egiten zuten CNVk etengabe eta foruen berrezartzearen misiopean estalita geratzen ziren bi posturak. 1906an ateratako “Manifestuan” jasotako formulak, “*plena restauración foral*” (De Pablo, 1999-135), denon konformidadea lortzen zuten. 1920an, ordea, biltzar bat egin zuten eta ponentzia batzuetan gaiari heldu zitzaion. Ondoren etorri zen ia hamarkada bat iraungo zuten eszisiao: Aberrikoak eta Euzko Gaztediko hainbat kide bota egin zituzten CNVtik. 1921eko irailean Partido Nacionalista Vasco osatu zuten Aberrikoek eta *leben Aranaren* doktrinarekiko ortodoxia zaindu nahi zuten alderdikideek. Azken hauek Bilbo hirian herri kulturaren eta propagandaren bitartekoak baliatu zituzten beraien ahotsa erakusteko. Debako Euzko Gaztedikoak aberri-

koen alde azaldu omen ziren eta CNVtik bota egin zituzten (Ruiz, 2011, 400, 403 eta 449).

Emakumeak, bien bitartean, antolaketa betean zebiltzan. Emakume Abertzale Batzaren lehen etapa etorri zen PNVkoen eskutik eta CNVkoek, aldiz, emakumeak inguratzen saiatu ziren Emakume Atzarri Batza izeneko erakundearen bidetik²³. 1923an Euzkadi egunkariak antolatu zuen “Emakumea eta Aberria” atalean, beste batzuen artean Tene Mujikaren idatzien ondorioz, elkarte berria sortzeko ahalegina egin zuten EAJko joera komunionistaren aldekoek bultzatuta (Rekalde, 2012-49). Lehenak aurre egin zuen, bigarrenak ez.

EAB Euskal Gaztedi nahiz Aberri astekariaren inguruan sortu zen, beraz. Gogora dezagun modernitate giroan, Lehen Mundu Gerra ostean, European aldarrikapen feminista sonatua zela sufragioaren borroka zela medio. EABko presidente zenak baieztatu zuen Bizkaiko hiriburuan baino ez zela ezarri, 400 bat emakume afiliatu zirela eta Euzko Gaztediren eskumenpean sortu zela emakumeen elkatea. Bilboko hedadura zabaldua zen, hortaz, sortu eta gutxira (Rekalde, 2012-23).

1923an Primo de Riveraren diktadura eta monarkiaren bukaera etorri ziren. Estatu kolpe horrek segida ematen zion XIX. mendean izan ziren hamaika gobernu aldaketei. Espainiar kolpisten gogoan iltzatua omen zegoen Marokon izandako espainiar militarren porrota, kaleko istiluen gorakada klase borroka tarteko eta baita abertzaletasunaren sendotzea ere. Arrazoi horietan zurkaiztuta etorri zen diktadura militarra. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, European erantzun autoritarioak ernetzen ari zirela Lehen Mundu Gerraren ostean.

Abertzaleen jarduna hibernazioan sartu zen politikan baina zazpi urtez kultur politiken bitartez forma eman zitzaion 30. hamarkadan ernetuko zen gizarte mugimenduari. 1927an funtzio jakina ematen zitzaion hizkuntzari eta kulturari “*(animaba a) hablar y escribir siempre en euzkera, si lo sabes, y a aprenderlo*

²³ Ondarroa eta Deban sortu ziren Emakume Atzarri Batzako bi batza. Debakoen kasuan Allika'tar Eusebe izan zen Lehendakaria eta Odriozola'tar Imanole Lehendakariordea. Euzkadi 15 eta 19-IV-1923. Bi emakume hauek 1931n Debako Emakume Abertzale Batzako bokala eta idazkaria izan ziren hurrenez hurren. Odriozola'tar Imanole, gainera, EABko lehendakaria izango zen 1934an. El Día 26-VII-1931 eta 26-I-1934. (Ugalde, 1999-170).

si lo ignoras”, “*a contribuir en la medida de tus fuerzas económicas al sostén de las sociedades, centros, organizaciones, revistas, etc., etc., que aun sin hallarse declaradas como nacionalistas, laboran por el desarrollo y conservación de alguna de nuestras características nacionales*” (De Pablo *et al.*, 1999-182). Pizkundera deitu zen mugimenduak ordezkatzeko du estrategia hura zeinak kultur ikuspegi sendo bat ekarri zuen gizarte mugimenduaren labera.

CNVk, Kizkitzaren aitzindaritzarekin, jarduera politiko agerikoa lausotu zuen eta indartu nazioaren eraikuntza kulturaren bitartez. Euskara, euskal usadioak, nekazal eremuak arrazaren iraunkortasunarekin lotzen ziren eta hirukote hori landuz jarraipena eman nahi zitzaion, gizarte aldaketak tarteko, aldatzen ari zen herritartasunari. Tene Mujikaren lanak estrategia horren baitan kokatzen dira nagusiki.

Era berean, PNVren eginak garaikideagoak dira: batetik, euskaltasunaren aurrerarietara jotzen da taldeetasun ikuspegia lantzeko. Zentzu horretan Arturo Kanpion euskaltzalearen *Pedro Mari* obra (1895) taularatu zen hainbat lekutan. Obra horretan Marokorekiko gerra koloniala hartzen zen hizpide eta euskaldunek bertan izan zuten partehartzea kritikatzeko. Bigarrenik, Irlanda aldeko emakume abertzaleen antolaketa eredu gisa aurkeztu zitzaizen emakume abertzaleei. Berau omen dago EABren aurrekarien artean. Horrela, lehenagotik zetorren genero aldetikako aldarrikapen bati forma egituratua eman zitzaion aldi batean bederen. Hirugarrenik, aliantzak landu ziren galegozale eta katalanzaleekin abertzaleen mugimenduari ikuspegi zabalagoa eskainiz.

Bestetik, hezkuntza arloak ere ematen dizkigu aldaketa sozialen zantzuk: Bilbao, Ezkurdia, Pérez eta Chuecak (2012-53) adierazten dute Bilboko irakasle eskolako maistrek aukera zutela, euskarazko katedra sortu zenez 1918-19 ikasturtean, euskara dohain lantzeko. 1920-21 ikasturtean maistragaien % 18 matrikulatu zen; 1921-22an % 27 eta 1922-23an % 64. Datuek argi erakusten dute euskara bultzatzea helburu zabaldua zela Primo de Riveraren diktadura aurretik. Diktaturak, mugatu bazuen ere, ez zuen olatu hori geratu. Emakumeen lana itzela izan zen arlo horretan. Euzko Gaztedijak eta Eusko Ikaskuntzak udako ikastaroak antolatzen zituzten eta maisu-maistra euskaldunak joaten ziren euskararen titulua prestatzeko aproposak zirelakoan. EABko maistra asko kideak omen ziren. Julene Azpeitia da horietako bat: 1920an Bizkaiko

Aldundiaren auzo eskoletako oposizioak irabazi zituen, lehen postua lortuz eta emakume irakasleen zuzendari izendatu zuten. Hortik aurrera irakasle eta ikertzaile lan oparoa egingo du (Altzibar, 2021-22).

Euskararen jazarpena diktaduran ez zen gerora, gerra ostean, ezagutuko zen modu bortitzean gauzatu baina mugatu egin zen aurreko euskalzaletasunaren ekinbidea maistren eskolako euskarako katedra bertan behera lagata, adibidez. Abertzaleentzat euskararen defentsa ikur garrantzitsua izan zen diktaduran. Izan ere Sabino Aranaren heriotzak (1903ko azaroan) areagotu egin omen zuen euskara naziotasunarekin lotzeko ideia. Naziotasun politikoa lortzeko birtartekari zen euskararen aldeko politika. Euzkadi agerkaritik euskara sustatzeko aholku eta proposamenak plazaratu ziren: euskal izenak jartzeko, hizkuntz eskakizunak ezartzeko lanpostu publikoetan e.a. Diktadurarengandik babestuta egoteko euskararen apolitikotasuna defendatu zuenik ere bazen.

Gainontzean hainbat egitura mantendu ahal izan ziren diktaduran: Bilboko Correo kaleko egoitza, SOV, Ropero Vasco eta Euzkadi egunkaria, azken hau *despolitizatuta* nonbait. 1923an egunkariko *euzkel atala* desagertu egin zen 1926ra arte.

■ Ezkerreko inteligentsiaren hizkuntz ideologia

20. hamarkadan euskarari ematen zaion funtzio sozialak asko du erresistentziatik. Euskaltzaleek aurrean dituzte hiritartasun progresistaren izenean euskara baztertzeko aldarrikatzaileak. Merezi du, gure iritziz, horien argudioak aletzea.

Euskararen *historia beltzean* (Torrealdai, 1998; Irujo & Urrutia, 2014) aipu asko ditugu euskararen balio soziala menosten dutenak. Unamunok berak ohartarazten zuen “*Cooficialidad (del euskera) implica soberanía nacional y puede ser peligroso*” (Otaegi, 1986-35).

Azurmendik (1979b) lehen sozialismoaren hizkuntz politika aztertu zuen. Bilboko sozialismoaren bozeramaile zen *La lucha de clases* (LC, 7 de octubre, In Azurmendi, 1979b-9) egunkarian irakur zitekeen 1899an, adibidez, honakoa:

“Nosotros, lo decimos como lo sentimos..., quisiéramos un Gobierno que prohibiese los juegos florales donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional, que son causa de que los hombres de un país se miren como enemigos y no como hermanos”.

Azurmendik Unamunoren ideologia soziolinguistikoa ikusiko du aipu horren atzean, Bilboko Sozialisten Elkarteko kide baitzen berau. Ideologia horren ezaugarria izango litzateke euskarari ukatzea gaztelaniari opa ziotena: *“Aduenarnos de nuestra habla es cobrar tierra, independencia y libertad espirituales”*. Beranduago Azurmendik kontrargudio honen berri ematen digu (1979b-10):

“El argumento de Aquiles de los nacionalistas vascos es el idioma, completamente distinto del español, con el que no tiene punto alguno de contacto. Pero vengamos a cuentas. El vascuence desaparece rápidamente sin que pueda evitarlo nadie. En casi la mitad de las provincias no se habla ya; es diferente en Guipuzcoa que en Vizcaya, hasta el punto de no entendernos muchas veces los de una y otra provincia; apenas lo entiende nadie escrito, y el pueblo no sabe escribirlo en absoluto...”

Ikuspegi horrek bigarren argudio bat ere bazerabilen *status quo*a indartzeko, kasu honetan Euskal Herriko lurralde asko historikoki euskaldun izateari utzi izana. Ez dago euskararen eta gaztelaniaren historia sozialaren inguruko analisiarik, soilik galeraren konstatazio sinkronikoa. Horrela gaztelania baino ez dakiten herritarren hizkuntz eskubideak aldarrikatzen dira baina ez zaio gauza bera opa euskaldunari. Hizkuntza, finean, foraltasun, ohitura, historia bezala menosten da eta progresoaren izenean partikularitasun anakronikotzat hartzen da. *“Hablar de una patria chica y querer conservar una lengua regional cuando todo tiende a universalizarse es una de las mayores locuras.”* (In Azurmendi, 1979b-25).

Beranduago ideología faxista-falangistak ere berdintasunaren printzipioa aldarrikatuko du:

“El sistema concertado que en materia económica regía en las provincias Vascongadas entraña un notorio privilegio con relación al resto del territorio nacional... No es, pues, admisible que subsista ese privilegio sin agravio para las restantes regiones... Nadie, en definitiva, podrá afirmar con fundamento que al equiparar estas provincias

a la inmensa mayoría de las que integran la nación, sometiéndolas a idéntico régimen tributario (...) es acto de mera represalia y no medida de estricta justicia. Dado en Burgos, a 23 de junio de 1937, Francisco Franco Bahamonde.”

Argi dago gaur egun ere berdintasunaren argudioa indarrean dagoela espainiar nazio-estatuan. Azurmendik baieztatzen du progresoaren ideia espainiar estatuen kasuan beti dagoela lerrokatuta botere metaketarekin, ez askatasun handiagoarekin. Gizarte aurrerapenaren ideia asimilazio kulturalaren adibide izan da aspalditik. Unamunok berak darwinismo sasilinguistikoa erabiliz horrela zioen:

“y yo estoy convencido de que la principal causa es de origen intrínseco, y se basa en la ineptitud del eusquera para convertirse en lengua culta” (...) “Lo que afirmo y reafirmo y sostengo es que el vascuence se pierde sin remedio, que se perdería aunque formásemos los vascos nación independiente y pretendiéramos imponerlo como idioma oficial, que se pierde por su índole misma, como perecen ciertas especies así que se trata de hacerlas domésticas, y que nos conviene a los vascos que se pierda, pues no por ello perderemos nuestra peculiaridad psíquica, sino que la acrecentaremos más bien” (La cuestión del vascuence, In Azurmendi, 1979b: 28).

“Es, pues, muy racional suponer que el lenguaje de un pueblo que sea superior en pensamiento y cultura a otra, sea, por lo mismo, superior al lenguaje de este pueblo” (In Azurmendi, 1979b-85).

Eta jarrai genezake, *La lucha de clasesek* baieztatzen baitzuen: *“disolución paulatina de unos idiomas en otros, más poderosos y, en definitiva, una síntesis monolingüística universal en un futuro muy lejano” (LC, 1897, 15 de febrero, In Azurmendi, 1979b-59)* eta *“el vascuence es un enfermo tuberculoso en su último grado que irremisiblemente perece...” (LC, 1901, 7 de septiembre In Azurmendi, 1979b-58).*

Unamunok, berriz, (1979b-29):

“-Es en mi antigua convicción de que el vascuence (...) carece de condiciones intrínsecas para servir de medio de expresión a un pueblo que entre de lleno en la vida espiritual moderna, y que constituye un grave obstáculo para la difusión de la cultura europea en mi país”.

“La razón nos pide que no malgastemos en la baldía labor de resistir a lo incoercible, fuerzas que para otros fines nos hacen falta. Nos es preciso resignarnos por lo menos al progreso...”

Sentimentala, irrazionala eta nostalgikoa. Hortxe euskararen biziberritzearekin tematzen ziren euskaltzaleek entzun behar izaten zituzten izenlagunak. Azurmendik azaltzen du sustrato mendebaldar, kristau eta inperiala antzematen zaiola ikuspegi horri. 98ko Belaunaldiaren ordezkari moduan Unamunok zioen ildo beretik (1979a-84):

“es preciso confesar, que a su generosidad [Gaztelaz dihardu], a su sentido impositivo, a su empeño de imponer a otro sus esencias, debió su predominancia. Lo dije en Bilbao en la ocasión citada: Cuando tenía España dominios allende los mares, predomino y debió predominar Castilla, el pueblo central, el más unitario y más impositivo, sí, pero el menos egoísta... Gran generosidad implica el ir a salvar almas, aunque sea a tizonazos”

Ortegaren aipu hauek ere merezi dute tarte bat gure lanean (In Azurmendi, 1979b-95):

“Ser vasco es, sin más, una renuncia a la expresión verbal. El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales, y es por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior.”

“La lengua vasca es pobre, el nacionalismo vasco retrógrado, la historia vasca es nula y la etnografía no deja de ser una manifestación regional primitiva”

Euskalariek Ortegak aipatzen duen etnografian aurkituko zuten ikusi dugun hizkuntz ideologia horri guztiari aurre egiteko modua. Azkue buru dutela (Euskalerrriaren Yakintza, 1935-1947) euskararekin batera galtzen ziren ondare kulturalak batzeari ekin zioten.

Izan liteke, bestalde, euskara modernitaterako hizkuntza? Pizkundeak baietz uste zuen Catalunyako *Renaixença*k bezala. Euskara noranahikoa nahi izan zuten. Azkuek, adibidez, opera sustatu zuten bilbotar burges hiritar euskaldunberrientzat (Kintana, 2002), praktika kulturalak aberasteko asmoz.

Beste aktore batzuek, ordea, Unamunok ala Pio Barojak kasu, ez zuten posible ikusten. Barojari “*fantasía de filólogo*” iruditzen zitzaion Julio Urkixoren nahia (Ortiz de Pinedo, 2018-105), zientziaren bitartez euskara kultur hizkuntza bihurtzeko (Urquijo, 1919), hain zuzen ere. Testuinguru horretan idatziko du Aitzolek *El Día* egunkarian 1931ean «*La muerte del euskera. Los intelectuales vascos o los profetas de mal agüero*» artikulua; aurrez aurre izango zuen Unamunoren «*La muerte del euskera*» (Aldekoa, 2008). Ildo beretik jarraituko dio Julene Azpeitiak ere “*Unamuno, edo kirtenkeria ugari*” artikuluaekin 1931ko abenduaren 3an Euzkadiko orrietan (Altzibar, 2021).

■ Aitzolen hizkuntz ideologia

Aitzol euskal soziolinguistikaren aitzindaritzat hartua izan da. Euskal eskola, literatura, euskararen batasuna, euskal prentsa eta euskara bultzatzeko elkarteen inguruan aritu zen lanean. Elorza historialariak dio euskal hizkuntza arrazaren faktore osagarri nagusi bezala ikusten zuela Aitzolek eta euskara mentalitate kolektibo bat osatzeko eragile gisa interesatzen zitzaiola (In Ugalde, 1988-55). Aitzolek berak esango digu: “*El euskera es para nosotros ante todo y sobre todo un valor espiritual del más alto grado*” (1988-265). Martin Ugaldek Teodoro Hernandorena, Aitzolen laguna, hizpidera ekartzen du azaltzeko zein zen euskalari hauek aurkitzen zuten egoera: “*El país no estaba concienciado, euskaldunizado, a pesar de los muchos progresos de la doctrina nacionalista de Sabino Arana, mandaban todavía los carlistas, y los carlistas, menos aún los integristas, no sentían la lengua, ni les importaba*”. Ugaldek eranstean du: “*esta vía ciega y retrógrada la empezó a superar nuestro pueblo a partir de Sabino Arana*”.

1922an Eusko Ikaskuntzaren 3. Kongresua egin zen Gernikan. Aitzol elebitasunaz eta Europa aldeko hizkuntza minoritarioen egoeraz arduratzen hasi zen. Han entzundakoak eta ondorioz irakurri zituenak herri nazionalitateen iraupenean hizkuntzak izan zezakeen garrantziak ohartarazi zuten. Horrela, hizkuntzen legediaz, eskubideez, administrazioaz, eta bereziki, irakaskuntzaz idazten eta ikasten hasi zen, hizkuntzen iraupenean garrantzia izan zezaketen faktore guztiei buruz.

1926an lehen ekitaldi publiko euskaltzaleak sortu ziren: lehena Elgoibarren, bigarrena Mutrikun eta hirugarrena Arrasaten. Hirugarren horretan sortu zuten “Euskaltzaleak” izeneko elkarteak. Aitzolek sustatuta lehen inkesta soziolinguistikoa egin zuen Euskaltzaleak elkarteak Hego Euskal Herrian. Aitzolek berak eman zituen emaitzak *La muerte del euskera* izeneko lanean (Otaegi, 1986-24):

	Biztanleak	Euskaldunak
Nafarroa	329.835	75.000
Araba	98.008	8.500
Gipuzkoa	268.557	167.000
Bizkaia	400.559	195.000
Guztira	1.096.620	445.000

Milioi bat biztanleko lurraldean erdia zen, gutxi asko, euskalduna, gehiengo bere hizkuntzan alfabetatugabea zen eta horietako batzuk elebakarrak ziren. Baldintza soziolinguistikoko horiek zer ikusi gutxi zuten, Tene hil hurren zegoenean, 80. hamarkadakoekin. Ordurako euskaldun elebakarrak desagertuak zeuden, populazio euskaldunaren ratioa arras txikiagoa zen emigrazioaren kopuruen eta Frankismoaren hizkuntz politika glotofagikoaren ondorioz eta sistema autonomikoaren izenean hizkuntz komunitatearen lurraldetasun premisa puzkatuta zegoen Nafarroa eta EAE bananduta. Hori bai, haur eta helduen euskal hezkuntzaren bitartez lehen elebidun alfabetatuak komunitate linguistikokoaren erdigunean kokatuta zeuden.

Perspektiba zabal horretatik deigarria da Lizardik esatea beraien nahia zela honakoa: *“nuestra aspiración es poner de moda lo vasco entre los vascos”* (Otaegi, 1986-63). Euskara Lizardirentzat hauze zen 1927an *“lo que más perfilado carácter imprime a nuestro pueblo”* (43). Euskara herritartasun euskaldunaren frogagiritzat hartzen zuten eta etxearekin identifikatzen zen hizkuntza. Zentzu horretan zihoen: *“Euskerak etxekotu gaitzake oraindik senide guztiok, euskeragabetzeak arrotzu”* (Otaegi, 1986-283).

Hizkuntz ideologia horrek herritarren *esnaera* eskatzen zuen, errebelazioa. Lizardik aurreko belaunaldiaz zioen *“hemos cubierto de oprobio excesivo por su*

abandono a nuestros padres, sin dignarnos pensar que ellos no habían escuchado grito alguno de revelación” (Otaegi, 1986-214). *Esnaeraren* metafora garai-ko autore askoren leku komuna dugu: Aranak aipatuko du, Tenek berak ere bai, baita Lizardik ere. Ikusiko dugun bezalaxe Teneren hartzaile nagusia den euzko emakumea *esnatu* nahiko du debarrak, esnaera horri begira jarri bere familia bidezko transmisio gaitasunaren bitartez biderkatzailea izan dadin.

Pizkundeak euskara nahi du euskaldunentzat eta kritikatzten ditu euskarari uko egiten dioten euskal herritarrek, Unamuno eta enparauak kasu. Pizkundeak, ordea, ez du imajinatzen euskara immigranteentzat izan daitekeenik. Haurrak sustatu nahi dituen hizkuntz politikaren erdigunean kokatzen dituenean ere, soilik euskal familietako haurrak dituzte gogoan. Haurrekin egin beharrekoa zen Lizardiren arabera “*Sembrar (...) cultura euskérica, de conciencia de la personalidad, del valor y de la idoneidad del euskera*” (Otaegi, 1986-45). Etorkizunera proiektatu nahi zen aberrigintza haurrengan jarriz esperantza. Gaur egun bezalaxe.

Euskal familietako haurrak ditu begiz jota bere proiektuan, haur horiengan jartzen du esperantza eta horrekin batera horien ardura duten emakumeengan. Lizardik emakumeak ez ditu plazandre gisa aintzat hartuko ezpada kritikatzeko euskara transmititzeko funtzio horri uko egin izana. Gaurtik ikusita estuak ziren bideak dira horiek baina, nola esan, inperialismo linguistikoa zen garaiko melodia.

4.1. 1921-1926 LANEN AZTERKETA

Hona hemen errenkadan garai honetako Mujikaren lanak:

LIBURUAK ETA LIBURU ZATIAK

Nekane edo Neskutzaren babesa (Umientzako ipuña, antzezki-eraz). Jaungoiko-Zale. Zornotza. 1922. 16 or.

Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak. Jaungoiko-Zale. Zornotza. 1923. 126 or.

«Emakumeak eta Euskera», in: Askoren artean (1926): *Bigarren Euskalegunetako Itzal-diak Doneztebe-n. 1923-garren Irailean ospatuak*. Gaubeka. Bermeo. 53-59.

ARTIKULUAK

Euzkadi

- «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.817. zk., 1921-01-16: 2.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.823. zk., 1921-01-23: 1.
 ««Arbil-Mendi»-ri», 1921-02-17: 1.
 «Emakumea eta aberria (1). Miren Itziarr'i idazkiak», 2.847. zk., 1921-02-22: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.852. zk., 1921-02-27: 1.
 ««Arbill-Mendi»-ri», 2.854. zk., 1921-03-02: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.858. zk., 1921-03-06: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.869. zk., 1921-03-20: 1.
 «Zertxobait «Asier»-ri», 2.871. zk., 1921-03-23: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.874. zk., 1921-03-27: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.892. zk., 1921-04-17: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-04-24: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.905. zk., 1921-05-03: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.910. zk., 1921-05-08: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.821. zk., 1921-05-22: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.839. zk., 1921-06-12: 1.
 «Emakumea eta aberria», 2.845. zk., 1921-06-19: 1.
 «Emakumea eta aberrija. Miren Itziarr'i idazkijak», 2.851. zk., 1921-06-26: 1.
 «Miren Itziarr'i idazkiak», 2.857. zk., 1921-07-03: 1.
 «Emakumea eta aberria. «Agerre»-k, eta nik ere...», 2.861. zk., 1921-07-08: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.863. zk., 1921-07-10: 1.
 ««Akillako Morroya»-ri», 2.890. zk., 1921-08-12: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-08-21: 1.
 «Osoro'tar Gotzon'i», 2.941. zk., 1921-10-14: 1.
 «¿Esango ote leuke?», 2.955. zk., 1921-10-30: 1.
 «Amonaren poza», 3.020. zk., 1922-01-15: 1.
 «Galdea eta erantzuna», 3.085. zk., 1922-09-27: 1.
 «Dantza nastua dala ta...», 3.112. zk., 1922-10-29: 1.
 «Eleizalde'ren osasun-aldez. Deba'tik», 3.136. zk., 1922-11-30: 1.
 «Miren'i», 3.143. zk., 1922-12-08: 1.
 «Uri zale bati», 3.204. zk., 1923-02-18: 1.
 «Olerki baten edestia», 3.216. zk., 1923-03-04: 5.
 «Mari-Txoroak», 3.221. zk., 1923-03-11: 5.
 «Gu ere bai», 3.224. zk., 1923-03-15: 5.
 «Besteak irakasleri», 3.230. zk., 1923-03-22: 5.
 «Aste Deuna eta Emakumea», 3.233. zk., 1923-03-25: 5.
 «Keska gezurtiak», 3.236. zk., 1923-03-29: 5.

- «Nori begitzen diegun», 3.238. zk., 1923-04-01: 5.
 «Ikerraldi bat», 3.247. zk., 1923-04-12: 5.
 «Janzkerak eta gu», 3.250. zk., 1923-04-15: 5.
 «Dantza lotua», 3.266. zk., 1923-05-04: 5.
 «Apainzalekeria», 3.268. zk., 1923-05-06: 5.
 «Egarri ese aziña...», 3.277. zk., 1923-05-17: 5.
 «Gizonezkoa emakumeakiko», 3.280. zk., 1923-05-20: 5.
 «Lengoan», 3.284. zk., 1923-05-25: 5.
 «Emakumeak bai, baña gizonak ere bai», 3.289. zk., 1923-05-31: 5.
 «Itz bi...», 3.294. zk., 1923-06-07: 5.
 «Apaizarena», 3.297. zk., 1923-06-10: 6.
 «Neskatxen aurrekua», 3.306. zk., 1923-06-21: 5.
 «Ondarroatarrakin», 3.309. zk., 1923-06-24: 6.
 «Deun Jon Goiza», 3.312. zk., 1923-06-28: 6.
 «Gona luzeak», 3.315. zk., 1923-07-01: 5.
 «Emakumearen eskubideak», 3.321. zk., 1923-07-08: 6.
 «Gogo-negarra», 3.344. zk., 1923-08-04: 6.
 «Erdel-Idazlien zintzotasunik-eza», 3.345. zk., 1923-08-05: 6.

Euzko-Deya

- «Gure artetik», 5. zk., 1921-10: 73-74.
 «Aberriaren udaberria», 6. zk., 1921-11: 87-88.
 «Gure artetik. Bakoitzak berak daki...», 11. zk., 1922-04: 63-65.
 «Mirentxo'ren burestuna», 16. zk., 1922-09: 136-138.
 «Maitale ituna», 22. zk., 1923-03: 41.
 «Arrantzaliaren otoyaa», 27. zk., 1923-08: 115-116.

Jaungoiko-zale. Euzkeldunei-euskeraz

- «Eder-ederrenari», 232. zk., 1924-05-15: 85.
 «Zuri Miren», 265. zk., 1925: 237.

Argia

- «Mutil bat, eta beste bat», 99. zk., 1923-03-11: 1.
 «Neskamiak ala etxeandriak?», 157. zk., 1924-04-20: 1.
 «Merkatu arratsaldea», 170. zk., 1924-07-20: 1.
 «Apaizaren eguna», 172. zk., 1924-08-03: 1.
 «Goizetik gabera», 175. zk., 1924-08-24: 1.
 «Orban gabeari», 190. zk., 1924-12-07: 3.
 «Erabakia», 195. zk., 1925-01-11: 1.
 «Leyotik», 232. zk., 1925-09-27: 1.

Argia'ren egutegia

«Baselizako Ama Neketsua», 1926: 81-83.

Gure Herria

«Ama», 9. zk., 1923: 576.

Sasoi honetako lan nagusiak *Euzkadin* argitaratu zituen Tenek. Bertan gorago aipatu dugun Emakumea eta Aberria izenburupean euskal emakumeei zuzenduriko JEL ideologia zabaldu zuen. Nolanahi ere, ideologia horren hari diskurtsiboak aztertu aurretik esan dezagun Primo de Riveraren diktadurak ixildu egin zuela Tene. Lan gehienak argitaratu zituen 1923ko irailean diktadura militarren aurretik. Horren



Tene Mujikaren gazetako irudia.
[Iturria: <https://zubitegia.armiarma.eu>]

ostean pieza txikitxo batzuk baino ez zituen eman argitara Argian eta Jaungoikozalen. 1930ean diktadura bukatzen den arte ez du beste ezer argitaratuko.

1920 eta 1923 artean, ordea, Tene pertsona ospetsua da eta euskal emakumeen kode morala idazten eta sustatzen arituko da. Esate baterako, Euzkadin bai 1921ean bai 1923an urtarrila eta abuztua bitartean ia astero idatzi zuen; aldiz, 1922an irailetik abendura hilean behin. Antzerako gauza esan genezake Euzko Deyaz ere: 1921ean bi pieza eman zituen urri eta azaroan; 1922an apirila eta irailean; 1923an martxoan eta abuztuan. Ez dakigu nola kudeatzen ziren argitalpenak, Tenen ekimenez ote ziren ala argitalpenen eskariz. Ikusten dugunez urtez urteko kolaborazioak ez dira iraunkorrak.

Hainbat autorek azpimarratu duten bezala Euzkadi agerkariko *Emakumeak eta Aberria*. *Miren Itziarri idazkiak* izeneko piezak eragin handia izan zuten abertzaletasunaren baitan. Horren erakusle bezala uler genezake hurrengo datua: aldizka ateratakoak liburu bihurtu ziren 1923an. Lan horren analisiak badu, horrenbestez, interesik.

Lehen hausnarketa litzateke definitzea zer zentzu duen kolektibitate horrentzat emakumeek iritzia ematea eta iritzia sortzea komunikabide batean. Zentzu bera

du emakume abertzaleentzat eta gizonentzat? Ez dugu uste. Mujikak berak definitzen du pieza horiekin lortu nahi duena: *euzkeldun emakume artean Jez-aldez emaitz ederrak biltzea*.²⁴ Emakumeak abertzaletasunean parte hartzera deitu nahi ditu. Ageriko helburua da hori baina badu baduenez gizonak hartzaile (ez airtortu) dituen bigarren helburu bat: Argudiatu behar du emakumeen agentibitatearen alde gizonen aurrean. Agerian emakumeak dira hartzaileak baina egiazki gizon-emakumeak ditu aintzat hartuta. Bistan da, argudio ezberdinak erabiliko ditu, nahasian erabili ere, batzuk eta besteak pertsuaditzeko.

“Gure Abefi gaxoa il-zorian dago; eta ala dago, geuk bere umeok, bere seme-alabok arduragetu izan degulako. Batzuek gera erudun: gizasemeak bai, baña emakumeak ere bai; batzuek elkarren lankide izan gera bere zoritxaña egiten, beraz bidezkoa da elkarrekin lankidetzea bere zoriona egiten; gizasemeak gizaseme bezela, emakumeak emakume bezela, zegati done bat aldezkutzen duanaren su, kemen eta sendotasunakin alegindu ere”.²⁵

Abertzaletasuna zabaltzeko helburua gizon eta emakumeen artean partekatua bada ere, emakumeek berezko zereginak edukitzea ez da autorizatutako diskurtso bat XX. mendeko 20. hamarkadan. Mujikaren ekarpena izango da abertzaletasunaren baitako bigarren mailako kolektiboa, emakumeena, zeregin politikoei begira jartzea. Eta ariketa hori egin nahi du gizonen autorizazioarekin beraien ondoan aritzeko eskubidea lortu nahi baitu Tenek berak ere. Aipatua dugu Mary Bearden eskutik emakumeei ahots publikoa ukatzeko inperatiboa.

60. hamardatik aurrerako feminismoak borroka sozialaren estrategia erabat bereganatua du eta kritikoki begiratzen ditu Mujikaren belaunaldiko hari diskurtsiboak. Aurrerago ikusiko dugun moduan Tenek gizonen desautorizazioa ez du zalantzan jartzen, are kontzesiboa da erabat eta bortxa erabiltzen du berak ere emakumeen aurka. Hori horrela izanik ere garrantzitsua jotzen dugu baloratzea Mujikaren belaunaldia gizonen desautorizazioaz, bazterkeriaz, iku-sezintasunaz jakitun dela. Eta belaunaldi horren emaitza dela emakume batzuk *plaza* aldatzea. Egintza horiek balioan jartzeko, ordea, aipatu ditugun hari diskurtsiboez haratago baloratu behar dugu diskurtsoak sortzen diren marko

²⁴ *Euzkadi* 2.817. zk., 1921-01-16:2.

²⁵ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria (1). Miren Itziarr'i idazkiak», 2.847. zk., 1921-02-22: 1.

soziokultural eta politikoa. Gaurko feminismoari askotan, arrazoi ideologiko ezberdinengatik, deserosoa zaio ariketa hori.

Mujikak lan honetan egiten duen legitimazio ariketa ideologia, balio eta ezagutza jakin batzuetan oinarritzen da. Nabarmentzekoa da autoreak erakusten duen erreflexibitate soziala. Berak, aiez ale, bere ekarpenen eragina ikusten du eta piezaz pieza praktika diskurtsiboak modulatzeko ditu. Limurtze ariketa baten aurrean gaude. Autoretza hori azpimarratzeko ongi datorkigu Asensiren aipu hau (2007-141):

El arte es una ficción, esto es, una deformación-modelización de la realidad fenoménica (una ideología) que produce efectos de realidad. Al hablar de “efectos de realidad” quiero decir que el espectador o lector adquiere una percepción del mundo que en muchos casos le conducirá a actuar de un modo determinado en el mundo empírico. Y es claro que la actuación queda automáticamente ligada a la dimensión ética y política.

Oinarritzko premisa izango du gizon eta emakumeen zereginak abertzaletasunaren baitan ezberdinak direla, *bearkunak* esango du berak. Horrenbestez ontzat ematen du genero aldetik definizio hertsatzailea. Premisa hori da bai gizonen emakumeen agentzia onartzeko argumentua, bai emakumeen agentzia propioa onartzeko argumentua. *Euzkadiko* agertokitik adostasuna eraiki nahi du termino hauetan. Biolentzia sinbolikoaren egiturazko dikotomiak biei eragiten baitie, unibertsaltzat hartuak diren gizonen eta ez diren emakumeen. Biak konbentzitu nahiko ditu Mujikak testuen bitartez.

Izan ere, identitate kolektiboaren eraikuntza da lehentasuna autorearentzat. *Euzkalduna* eraiki nahi du Mujikak. Edota izan baden *euskalduna* adjetibatu JEL ideologiara ekarriz. Interesgarria da ohartaraztea identitatearen ontologia bera ikuspegi esentzialistatik ikuspegi desentzialistara datorren garaiaz ari garelako. Euskalduna zer den autoafirmatzen du abertzaletasunak eta horretarako edaten du gerora soziologiak teorizatuko dituen hurbilpenetatik: identitatea sozialki eraikitzen den zerbait da (Berger & Luckman, 1968) eta identitatea rol sozialetan gauzatzen da (Goffman, 1959). Mujikaren ariketa bi ur horien artean gauzatzen da, modernitatean gauzatutako praktika kultural gisa. Paradojiko dena da praktika kultural hauek teknologia desentzialistatik edaten badute ere, nazio-estatuaren ideologia harroa eredu nagusi izanik, esentzialismo

katolikoa sustatuko duela. Kriterio absolutuak bilatuko ditu horrela harroke-riaren kontrako erantzun gisa.

Emakume zein gizonen *bearkun inguru* ezberdinen ideia erredundantea da tes-tuetan, behin eta berriz errepikatuko du ideia nagusi legez. Ikuspegi katolikoak ez du besterik ahalbidetzen. Izan ere, Llonak azaldu bezala (2002-9), klase soziala, ideologia politikoa eta genero identitatea bernegoziatzen den garai ba-tean gaude: “*No querían hacerse rebeldes, ni mucho menos revolucionarias. Lo que sí querían fue una vida menos estrecha, y una posibilidad de desarrollo personal y au-todeterminación en el trabajo, en las relaciones afectivas y en el compromiso político*”.

Hamarkadan mugarri garrantzitsu bat da Teneren ekarpena eta 30. hamarka-dako II. Errepublikan beste dimentsio bat hartuko du horrek guztiak.

Esan dugun legez Teneren transmisio pertsuasiboak argudio eta kontrargudio ezberdinak darabilzki bi hartzaile mota kontuan harturik, gizonak eta emaku-meak. Itxura batera emakumeak dira testuen hartzaile nagusiak baina analisi finagoak gizonak ditu begiz jota dioenean:

- Politika gizonen dagokie baina maitasuna (abertzaletasunaren sinonimo moduan) emakumeen.

«Politika» emakumientzat ez dala; onetan oso-osoan zeurekin nago; nik ere ez det ondo arkitzen «politika» edo eriketa emakumientzat; batetik, izanik «politika» ustearen ondorea, eta ustea (gai onetan beintzat) eri-zaintzazko jakintzaren ondorea, arazo au emakumioi ez dagokigu, gizasemeai bezinondo; abek bezin adi-men argidunak, edo beintzat agitz ain ikasiak ez geralako; eta bestetik, senditik kanporako ardura abek, emakumea, beregisako bearhun ingurutik aldentzen du-telako; eta au, sendiyarentzat kaltegarri izanik, gizartearen galbide litzakelako. Baña abertzaletasunak, Miren Itziar, ez du «politika»kin zer ikusirik. Au uste baten ondorea dan bezela, abertzaletasuna biozkada baten ondorea da, maitasun bat da; eta alde ontatik, iya~iya ausartuko nintzake esatera gizasemeai baño obeto dagoki-gula abertzaletasuna emakumiai; adimen argiya ayen ogasuna ba-da, maitasuna gurea dalako, emakumiena dalako».²⁶

²⁶ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziar'i idazkiak», 2.823. zk., 1921-01-23: 1.

- Aberriak arrisku handi bat du: emakumeen erdaltzaletasuna. Gainera, emakume espainolak zilegitasuna badute espainiarzale izateko, nola ez dute ba emakume abertzaleek zilegitasunik izango ekintzaitzarako?

“Gañera, ¿ez dezu igari, gaur euzkótar emakume geyen-geyenak, berenez, eta berenkiko gauzetan agertzen duten espaintzaletasuna?”

Eta espaintzaleari espaintzale agertzeko eskubidea ezin ukatu ba’leikio ¿nola ukatu leikigu euzkozaliei euzkozale agertzeko geure eskubidea? Au eguna bezin argi dakust nik; eta ori, bakoitzaren eskubideai bakarrik elduta; eta euzkotařok euzkotar agertzeko daukagun bearkuna alde batera utzita; naiz ta, notíñarentzat, bete bear duan bearkuna, artu edo utzi lezaken eskubidea baño lenagoko izan”.

- Jaungoikoaren legea abertzaletasunaren gainetik dago. Seme-alabei jarri nahi zaion euskal izena apaizak jartzen uzten ez badu, lehenago kristau izan abertzale baino esango die emakumeei:

“Aundiya izaten da gaxo onen lariya, baldin onelako arerioresen batek, (geyenean emakumea au ere) euzkeldunak orain arte ez ditugula ořelako ixenik izan, eta oyeke ez direla euzkeldunenak eta abar ekiten dionean, ořelakoeri ez bai-daki erantzuten, orain darabilzkigun erdal-ixenak ere ez direla gureak, eta bai ařotzak ezariak; eta oyeke erderazko diralako, eta Sabin'enak euzkera egokiguak, abek artu bear ditugula.

*(...) Euzkel-izenak dirala eta ez, noizbaiten gertatu leike, jaupari erdalzale zital baten eřuz, gurasoa aurkitzea, edo kistar-bearkunai uts-eman, edo aberiakikoai. Onelakoan al guzia egin, ori bai, zeure eskubidea aldeztan; baña besterik ezean aberiaganako bearkunai lenago uts-eman, kistar bezela dituzunai baño”.*²⁷

- Gure aberrian erlijioak garrantzitsua izaten jarraitu dezan nahi badugu, ekin egin behar dugu.

“Lenen-lenengo, Miren Itziar, Jaungoikoa gure abeřian nai ba'degu, gure abeřia Jaungoikoarentzat nai ba'degu, gu bakoitza izan bear gera Jaungoiko onenak sinisenez eta egíñenez.

Eta ustea eta itxaropena Beragan ditugunex, asi bear gera, Miren Itziar, arako beari izan bat degunex, edo geuk asko maite degun senide edo adizkide edo ořelako norbait

²⁷ Euzkadi «Emakumea eta aberria. Miren Itziarri idazkiak», 2.863. zk., 1921-07-10: 1.

gaxorik, naiz beste zer bait gatik bea'rean arkitzen danean, geure, edo lagun-urko o'ren alde, kistar onak bezela eta sinismendunak bezela, Jaungoikoagana nola zuzentzen geran; ala baita abe'iaren zoritxar eta biar-izan aundi ontan Bera'gana zuzendu bear gera, otoi egi'ñaz; ba on guziaren asitza eta itur'ia Jaungoikoa danez, bakoitzari bezela, abe'iari ere Goitik bakar'ik letorkio maitasunez opa diogun ona".²⁸

- Gizonok ez eduki beldurrik! Denontzat nahi dugun aberria, bakoitzak hasi behar du, baita emakumeak ere.

"Eta euzko-gogo ori, Itziartxo, gizasemeak bezela emakumiok dagigunex, aek bezela gaude beartuak Jaungoikoarentzat izan dedin alegintzera. Eta au lortuko degu bakoitza beregandik asita; norbere bizikerako egi'nenak Jaungoikoaren Lege'peratuaz; ba jaki'ña dago, orok batez lortu nai deguna bakoitzarengandik iritxi bear degula: eta au da baita gogoan edukitzea dagokiguna".²⁹

Emakumeei zuzenduta ere badaude goikoak eta baditu azken hauei zuzenduriko berariazko argudioak ere:

- Etikoki gure kode moralagatik behartuak gaude aberria zaintzera, etxeko gaixoak zaintzen ditugun bezala edo kristoren sakrifizioaren eredia jarraituz.

"Emakumeak, ez bakar'ik abertzale izan eta agertu ginake: oretara beartuak gaude; il-zoriyan dagon Ama gaxoari bere laguntasuna ukatzen dion alaba gaiztoak bezela, geron buruak gaiztetsi-gari egin nai ezpeditugu".³⁰

"Abertzale azalduta, zenbaiten oniritsia lortu gabe beren buruak aotan ja'riko ote-dituzten, edo esamesanak izango ote diran edo, zenbait bildur izaten dira, eta zu ere bai noski, Itziartxo; ba'ña ez aiztu Josu Kisto gure Jauna, osotasuna bera izanik, deuntasuna bera izanik, ludi ontan maxiatua izan zalá; beraz gu obendiyok bir'itan izango gerala".

- Gizonen lanetan gabiltzala esaten dutenei kontrargudioak eman.
- Aberriaren alde soina eta gogoia behar ditugu. Gogoia formazioak eta eza-gutzak emango digute.

²⁸ *Euzkadi* «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.852. zk., 1921-02-27: 1.

²⁹ *Euzkadi* «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.858. zk., 1921-03-06: 1.

³⁰ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria (1). Miren Itziarr'i idazkiak», 2.847. zk., 1921-02-22: 1.

*“Ba notiñok ez degu soña bakañik, eta bai soñaren gain dagon gogo bat ere. Soña gogo oñen’peen bear deguna da; eta beroni bere elpurura zuzentzen laguntzekoa, besterik ez. Oñengatik gure ardurak gogoakiko bear ditugu lenengo; eta soñakiko, gogoari leikion onagatik. Au, bakoitzak berekiko bezela, emakumeak jakin bear du, gañera ume-txuak azitzean, aben soñaren ardureaz gain, beren gogoen ardurea eukitzeko, beren biotzak eraitzen jakitzeko; ba au da ama batek bere umiekiko duan lenengo bearkuna (...) Bear duana da, bere bearkun onen ezaguera, eta onekin, naimen zuzen eta artezi pizka bat; ba au eduki ezkeru, berez dagi beste guzia; eta ain lanpetua dagon ama gaxo oñek, lan oyek utzi beañik gabe, bere irakatsi eta onu eta ikasbide onakin sendia Jaungoikoarentzat azi al’izango du. Ostera, bere bearkun au ezagutzen ez duan amak, gogoaren gain, soñaz arduratu bear duala uste duan emakume jakin ezak; alpeñik izango da zindoena. bere usté ta naimenak luditañak diranex, bere ardurak soñakikoak bakañik; eta bere sendia ludirako eraltzen du; eta era ontako eraltzeatik sortzen dira gaurko egunian gure abeñiaren zoritxar ditugun ainbeste nolabaiteko seme-alaba; gastedi makur eta galdua. Ez daigun ba au aiztu, eta bai zintzo-zintzo alegindu, gure bearkun onetatik datorkion ona abeñiari opaltzen”.*³¹

- Aberria arriskuan dago gizarte aldaketak direla-eta: antzinako belaunaldia eredugarria zen, ez horrela oraingoa; aldaketa gertatzen ari da lehenagoko ezkontza eruedetan, gaztedian e.a.
- Eredugarriak behar dugu izan, begira antagonistak nolakoak diren:

“Zenbait eta zenbait emakume ez dirá, arako dagokien baño malla goragoan gizartean azaltzen, beren buruak eta beren sendiak elikatzen edo janaritzen bear duten txindia, aundikeri eta jantzi-geikertan ondatzen dutenak! Zenbait neskatxak, señar aberats edo andiki bat lortzeañ, beren buruak apaintzen eta edertzen ondatzen dute jateko bear zutena, beren izamen aula indartzeko bear zutena (...) Eta zenbat ama, ume azitzen arduragabeak, abeñiari laudara sendoak opaldu bearean, aul eta ajeluak beren eñuz opaltzen diotenak; eta txindi pizka batengatik, beren umeak, ze izamenekin naztuko ditun ez dakin beste ama bati emanaz, bere burúa zertzez kutsutu leiken ez dakien beste ume bat azitzera juaten diranak; eta abar eta abar. Eta ez nijoakizu beste emakume ordi, ta galduak, beren gaiztakeriz abendari dagioten kalteak aipatzera; oyek ez dijoaz zuri dagizkizudan idazkitxo abek irakurtera; eta

³¹ Euzkadi «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-04-24: 1.

irakuřita ere, bere gogoari eta bere soñari maitasunik ez dionak ezin leikio aberiari izan, eta ez luteke artuko aintzat iñolako onu eta esan onik.³²

Hainbat ondorio atera ditzakegu argudio hauetatik: Testuek benetako boterea duten gizonetakoak limurtzera jotzen dute. Gaurko feminismoak (Alberdi, 2019) *zelatan eta zigortzen* definitzen duen gizonen jarreraz jakitun da Tene eta bere egintza erreaktiboki eraikia da. Tene den emakume publikoaren onarpena gizonen baitakoa da. Berak gizonen autoritatea darabil momentu askotan. Horren adibide gisa dakargu ondorengo pasartea:

Teneren liburua argitaratzeko diru-bilketa egiten ari da Euzkadi. Tenek azalpenak ematen dizkio Osorotar Gotzoni esanez Euzkaltzale Bazkunakoek ere beraien kabuz bildu nahi dutela txindia argitalpen hori egiteko. Bi ekimen, beraz, elkarri bizkarra emanda ari dira Teneren liburua argitaratzeko diru bila. Tenek ez du hori ongi ikusiko eta denak JEL alde batasunean aritzera gonbidatuko ditu: *norbere nahia Jel-aldez jar dezagula, aberriaren behar izanei, alegia.*

“Ara ba orretzaz dasakedan guzia. Zuek “Euzkadi”-n arpidia iriki ta laister, “Euzkaltzale Bazkuna”-kuak etorri ziran nigana berak ere arpide orretarako txindia lortzeko baimen eske; ba “Euzkadi” n bazkun orretakoen eta beren lagun batzuen izenik azaltzea ez datela laketzen, eta augatik eziña zitzaizela arpide orreta juatea; baña asmoa begiko zayelako ez dutela lagundu gabe gelditu nai, (gaur, Epinekuan “Jadarka”-k dasan bezela), or nere baimena nai duteta berak beren txindia batzeko, Tira: orain guziori Jel-aldez gauza bat bakarra eskatzen dizutet, norbere naia baita Aberriaron biarr-izanaiz begitzea; neri ere Jainkoak eman daidala au”.

Teneren inplikazioa testuetan autoritate ahotsarekin lotzen da. Ahots indartsua da, gizonen parekoa. Hori ederki asko ikus genezake agresibitatearen erabileran. Gehienetan emakumeen kontra erabiltzen du agresibitatea, gizonen aurrean legitimitatea irabazteko asmoz, gure ustez. Alderdi hau da gogorren kritika genezakeena Mujikaren ekarpenetan. Eredugarria da alde batera ez duelako emakume ahul, intseguru, goxo, atsegin, emozionala jokatzeko, baina emakumeak gogorkeriz tratatzearen bizkar egiten du hori, bere burua bakan moduan agertuz beste guztien artetik.

³² *Euzkadi* «Emakumea eta aberria», 2.845. zk., 1921-06-19: 1.

Irakurtzeko modukoak dira ondorengo pasarteak:

“Au diot, gaurko emakumeoi; agitz, esaerak dion bezela, «zaietan zintzo, eta iriñetan ero» gabiltzalako. Ardura aundiya gizartean ondo azaltzeko; baterez Jaungoikoari atsegin izateko. Gizonenkikoa nai, ta ez Jaungoikoakikoa; soña ta ez gogoa. Auxe da agitz dagiguna; ta ez da batere aritzeko izango, gaiztoki-usaindun dantzak lekuetan, soñu zirtzil bat aitzaki dala, gizasemeaz lotuta ibiltzen bildurtzen ez dan neskak, Jel-usai garbidun tokietan beste emakumeaz biltzen bildurtzea; bere jantzi eta nabarmenkeriaz lizunkeri eta likizkeria ereiten ikaratzen ez dan anderatxo «ondo mendua», Jel-azi osasungarria ereiten ikaratzia; lagun-arte, auzo eta abar, gezurra, naspila eta kalderkeria ixurtzen ordu osoak noiz-nai botatzen ditun «etxeakoandre zintzoak», Jel-aldez eman bear duan ordu laurdenari alperkeria iriztia; bere burua apaindu eta edertzen eta aundi-usaitzen txinditzak ematen ditun andera aundikiak, eta aundiki ez danak, Jel'i eman bear zayon txindi apurtxuari ondaketa iriztia; eta al guziyan bere espainzaletasuna agertu eta zabaltzen alegintzen dan elizkoi benak, euzkozaleak beren zaletasuna agertu eta zabaltzea obentzat edukitzea; eta abar”³³

“Emakumiok Agindu Deunak betetzen jakin izan ba'gendu, gure Euzkadi maitean ainbat oitura gaiztok etzuan artu duan indarrik artu izango; etzuan gure aberriak ainbat gaiztakeriren kaltea soñian eramango; etzuan ainbat Mikizkeriren kirats zikiñak orain dagon gal-zoriyan ipiñiko. Nik iruditzen det emakume oso onoiementsuak giñaken Euzkadi zoriontsu bat. ¡Ze donokia! Esan neike, iya-iya besterik ez gendukela bear. Zenbat oitura gaizto geyagoko gabe zapalduak; zenbat oitura on, iya il ziranak, berbiziak; zenbat gaiztakeriren iturburuak galdu, eta berayetatik onbide dagitenak sortu! Ze sendi-eratze bear bezelakoa, era oretatik ze azi ontsua aberiaren zorion. Itz baten: emakumeoi dagokigunagatik, ludi onetan geure gain damagun bearkun goitia gogoan degula, emakumea, sendian, gizaldien eratzalia dala gogoan degula, aberia erabiliko duan burdiñaga geugan dakusgu; eta geure eragin au onerako izan dedin, onak izaten alegindu bear gera;”³⁴

“Orégatik ba, emakumearen gain dago geyen bat aberiaren zori au; eta dezakeguna egin bear degu ardura guziz. Zenbaitek usté du, emakumeak sendiko bere bearkunak

³³ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria (1). Miren Itziarr'i idazkiak», 2.847. zk., 1921-02-22: 1.

³⁴ *Euzkadi* «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.858. zk., 1921-03-06: 1.

*bete al'izateko, asko duala, eltzea egosten, soñekoak josten, eta etxe-aldea txukun ta garbia eukitzen jakitea. Eta au egin, umetxuak azi, soñakiko ardura bakařaz; sasoi-
ra eltzen diranean ikaslolar a bidaldu; txadonara bidea irakatsi, or konpon egin ta
eurak bakařik antxen jolastera bidalduaz; ;ta kito!*³⁵

*“Bearkun onek emakumeari ardura aundi eta jakintza berezia deskayoz; egiazko
maitasunean, eta uzkuřtazko egietan arkituko ditun ardura eta jakintza; gaur
eguneko emakume askok besterik uste ba'dute ere. (...) Baña ;gure zoritxara! ume
ori bere bulařakin euzkera eman dion ama ořek, uste oker baten ondorenez, gaur ge-
yen-geyenetan umearen zoriona erdalkerian dakus, eta otoi egiten erderaz irakasten
dio, edonorekin bezela Jaungoikoarekin ere gure izkuntzan eřezen eta ondoen min-
tzatuko ez ba'giña bezela; edo ta jaungoikoak gure izkuntz garbia entzun nai ez ba'
leu bezela. Eta batere obea ez dana, Kistar-ikasbidea ere erderaz damayo; bere ume-
txuak «dotriñea» erderaz ikasi dezala nai du, «euzkera iñorako ez dala ta». ¿Usté ote
dute onelako emakumeak, gerora, ume oyek gizon izatera eltzen diranean, atzerian
(nairz aberian) bizibide bat lortu al'izateko kistar-ikastian aztertuak izango dirala?
;Gaxuak! ;Bai obe ořela balitz ;Besterik izango litzake gizartea!”³⁶*

*“Kistar-jakintza, bakoitzak gure gogoaren zuzenbiderako bear deguna da; eta ume-
txo euzkeldunai ikasti au erderaz ematea, uts eta alperikakoa da; geyago: bere bi-
zitzako egiñenak zuzenduko ditun ikasbidea bear bezela ez ematea da; eta onekin
umeari, geroko gizonai, eta ondorenez aberiari kalte bat ezartzea da. Eta ez dago
aitzakirik ama bat bearkun abetatik legazkatuko duanik”³⁷*

Euskara ere maiz erabiltzen du gai bezala bere testuetan:

*“¿Maite ote degu gure izkuntza, bear ainbat, bear bezela...? Ez det usté. Aundi-za-
lekeri, ařokeri eta beste keri guztiak batera sartu zaigu gure artean erdelkeria ere;
ekandu onakin batera guaz utzitzen gure euzkera gaixua ere, arako gauza ezerez eta
alperikakotzat bezela; geure aundinaikeriakin elkartu ezin liteken gauza bat bezela;
eta gure zalekeri txarēn arantz-arteana guaz uraturik utziyaz era bat ontasun eta
euzkeltzaletasuna,*

³⁵ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-04-24: 1.

³⁶ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.905. zk., 1921-05-03: 1.

³⁷ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.905. zk., 1921-05-03: 1.

Biziro sartu da erdalkeria emakume artean; euzkeldun erian, emakumea da euzkera sustraitik jaten duan zerena; emakumea euzkereari galbiderontz geyen bultzatzen dion indaía, sendian beintzat; eta gure ele au gaizkatu nai ba'da, emakumea da lenen bere aldez ipiñi bear dan gaikia.

Bai diruri gai onetan euzkeltzaleak ez gaituela bear ainbat aintzat artzen emakumeak; nere ustez ez diote gure eragiñari bear ainbat gañantzi ematen; eta órela dakusgu gaur gizaseme euzkeltzaleak, bere adimen eta indaíean geyegi ziñestuta, gu gabe, guri deirik egin gabe, beren aldetik alegintzen euzkera gaizkatu nairik, bear dan onu gabe; emakumeak dagiogun kalteari begitzen ez diolako, gañantzirik ematen ez diolako, aintzat artzen ez dualako”³⁸

*“Asko dezakegu, asko; ain asko eze, gu gabe emakume euzkeltzale gabe, ezin lileke euzkerak bizirik iraun, besle eleena bezela, beronen bizia ere, erabilia, aoz erabilia izatean dagolako; eta gizadiaren zati bat egiten degunex (ontan ere esaten dutenez gizasemeak baño zati aundiagoa), gizadiaren erdi bat egiten degunex, beñere ez da gauzen aldez edo kaltez gure eragiña aintzat ez artzekoa; len ere au bein baño geyagotan esan det-ala; eta bai zenbait gauzetarako gizasemeena baño almen geyagoduna: sustrayagotik ukitzen diegulako edo ta beren oñaía dagigulako; ofengatik gera gu gauz oyen zoria erabaki dezakegunak. Abetako batzuk dirá eleak, edo izkuntzak gizartean: eta gure aberíen elea euzkerea. Biziko ba'da, ele ila izango ezpa' da, beste guzien gain emakumien egipena da lelen lelen bear duana eta esango dizut zergatik. **Lenbizi elearen osasuna gaztedian dago:** iraungo ba'du, gizaldi guztietan erabiliko duten gazteak bear ditu eta gaztedi euzkeldun ori umeak dagie: **amak aziko dituen umeak”³⁹***

*“Uts egiteko bildur gabe esan neike, oraindiño ipiñi dirán euzkel-ixen gustiak, edo beintzat geyenak, **gizasemen abertzaletasunari zor zayokela;** eta ipiñitako oyek ez erabilia, geyen-geyen bat baita emakumeai; **batzutan erdelkeriz, bestietan koldartasunex dagio emakumeak kalte au euzkel-ixenai.** Egiya esan, gizasemea abertzaletasunex sendo ba'lego, ez luke galtzen utziko berak ipiñi-arazi duan euzkel-ixen ori; eta bereakin aterako litzake; **baña zeinbat emakume ez litzakez beretik aterako, ez da egunoro bere bizkarian gorosti-makila bat ausita ere. Eta aitak ipiñitako ixena, amak kendu egiten dio umetxoari”⁴⁰***

³⁸ *Euzkadi* «Emakumea eta aberrija. Miren Itziarr'i idazkijak», 2.851. zk., 1921-06-26: 1.

³⁹ *Euzkadi* «Miren Itziarr'i idazkiak», 2.857. zk., 1921-07-03: 1.

⁴⁰ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.863. zk., 1921-07-10: 1.

“–¿Badaki euzkeraz umeak?”

Bai daki, bai; ez du nai egin baña. Aitak euzkeraz egiten dio ikasi dezan nai du ta, baña beronek nai ez egin. Eta aita arren izena galdetzean, Donostin ezagun-ezaguna dan abizen bat esan zidan.

–¿Beronen ama euzkalduna al da? –berriro galde nion.

Baita euzkaldun “ederra” ala ere.

¿Eta euzkeraz mintzatzzen da baita umetxuakin? Nere galde oni, arrituta bezela egin zidan begika batekin erantzun zion; ba’zirudin esan nai zidala: “*Alako andere aundikiyak euzkera erabiltzen ez dutenik ez al dakizu?*” Baña berriz ere bere lanari ekinda, alako baten erantzun zidan:

–Ez; amak ez dio inoiz euzkera egiten. Aita da ikasi dezan nai duana. Baña alpe-
rrrik, onek nai ez; guzia aitzen du bai ikusi dezun bezela, baña itz egin nai ez: orren
gañian aserrerik asko aitak egiten dion arren. ¡Kopeta onakin esaten du ba beronek:
“Euzkera malo!”⁴¹

Gizonak ere kritikatzzen ditu, ordea, kasu batzuetan exigentzia eta gogorkeria berarekin. Esan liteke batzuetan emakumeei argudiatzen erakutsi nahi diela eta gizonen aurrean ahots indartsua izaten. Hori ere bada Tene Mujika.

“Baña ez usté izan, geuretzat, emakumientzat ari naizelako, Itziartxo, otoi egitea emakumien lan berezitzat daukadalako dala, ez. Otoi egitea emakumiena bezela gizasemeena ere da; abetako askok besterik usté ba’dute ere; eta orengatik gure egiñen au orelakoen ikasbide izan bear du baita, beste orenbeste egin dezaten; eta guzcion artean iritxiko degu gure Euzkadi gaxo onentzako gaur ain beañean duan zoriona; zorionaren asiera Goikoa da-ta”⁴²

“Emakumeok bakañik dakigu, zer lan dan lau edo bost umetxo ditun ama baten-tzat senañaren lantsari labor batekin, bere egin utsaz, sendia bear bezela erabiltzea. Ze lan aundia dan emakumearena, ze arazo ta nekeak ditun, umetxo oyek garbi ta txukun erabili beañak; senarak bear ditunak gertu eukitzea; janariak inguratu eta ipini beañak; etxaldea jaso ta txukuntzeak; au guzia geuk emakumeak bakañik dakigu; ze, gizonezkoak aitu edo ezagutuko baluteke, zigur nago, lotsatu egingo

⁴¹ *Euzkadi* «¿Esango ote leuke?», 2.955. zk., 1921-10-30: 1.

⁴² *Euzkadi* «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr’i idazkiak», 2.852. zk., 1921-02-27: 1.

lirakela, or ibiltzen dirán bezela, asefe ta naspilan ibiltzen, lanerako ordu geyegi dituztela ta, atsedeen geyago bear dutela ta abar”.⁴³

Euzko-Deyako idazkietan gizonak ihardesten ditu emazteak JEL bidean sartzeko. Testu dialogal baten forman egiten du familia abertzale bateko senar emazteen arteko liskarra tarteko. Garai honetan hasten da gerora etorriko diren antzerki testuak entsegatzen.

Bestetik, aurreko hamarkadako lanetan azpimarratu dugun polarizazioa darie testuei. Dikotomiak ugariak dira, atribuzio estereotipatu eta baloratiboak etengabeak dira.

Bestalde, merezi du hainbat gairen inguruan defenditutako posturak enumeratzea:

- ✓ Emakumeen formazioaren aldarrikatzen du beste pertsona-ereduen gainetik *nagusitasuna* izatea garrantzitsua jotzen duelako; moralki *nagusi* izatekotan emakumea jantzi beharra aldarrikatzen du. Formazio erlijiosoan jartzen du arreta batez ere. Teneren pentsamendu moralean gizarte-bizitza galbiderako arriskuz beteta ei dago eta ezagutza da hortik kanpo kokatzeko modua emakumearentzat.

“eta onak izaten jakiteko on ori ezagutzen, on ori ikasten baita alegindu bear gera. Onbidea, jakintzaren bidea da; baña onbide onen ezaguera ikastetik dator; ezin ezagutu berau, ikasi gabe, ezin maitetu ezagutu gabe. Eta gaur eguneko ainbat jakintza gaizto, adimen-iluntzaie dirán oyettik geure burua gaizkatzeko, Egiya ikasten, Egiya ezagutzen alegindu bear gera; ondorenez geure bearkunak betetzen jakin al-izateko”.⁴⁴

“Emakume euzkeldunak aurtzaroa utzitzen duan garayan, Kistar-ikastiko idaztixoa ikasten amaitzen duan garayan, amaitzen du baita uzkurutzazko bere ikastarora; ikastaro ori zindo eta sakonen asi bear duan garayan amaitu egiten du; ikaste ori beaferen duan garayan utzi egiten du; edo obeto esateko, utzi egin bear izaten du, beretzat jañabiderik ez dualako, bere izkuntzaz jakintza ori nork eta zerk eman ez dualako; eta gaxua arixku eta amildegia baño ez duan bizi-bidean itxu-itxuan sartzen da;

⁴³ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-04-24: 1.

⁴⁴ *Euzkadi* «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.858. zk., 1921-03-06: 1.

bidé ořetan bear bezela ibiltzeko gai -gaya dan euzkeldun emakume ori, bear duan jakintza ez dualako, nařaxka, erorteko zoriyan diřoa; eta zutik irauten ba'du ere, jaungoikoengandik artu ditun Jaun-sinismen eta ekandu onetan euskal sendo bat arkitu izan dualako da.

Aurtzaroa utzi, eta beretzat berria dan garayan, edonundik galbiderako deya bařo ez duan garayan, ez du gaxoak beste abendatako emakume gasteak oi dituzten laguntasunik; ez du, bere izkuntzaz eta berari dagokion era bereziz biotza eraltzen, eta ez gogoa zuzentzen lagunduko dion ez irakasle ez idazti uzkuřtzalerik”⁴⁵

“gaur bařa dasakizut baita emango digula, era baten, arako nausitasun bat, gaitasunak ematen duan nausitasuna; eta sendiya ondasunean eraldu al'izateko, au bear-beařeko du emakumeak; ba nausitasun onen bidez eřez-eřez menperatuko ditu bere ardurapean dauden guziak; eřez-eřez bereganatuko ditu, eta bear bezela ondasunean eraldu. Eta auxe da leřen bear duan ardurea ama batek bere umeakin”⁴⁶

- ✓ Ezkontza gorai patzen du ama izateko bidean baina neska zaharren zeregina ere aldarrikatzen du aldi berean aurre eginez misoginia mota horri. Ezkontza bidean jartzen den neska gazteari ohartarazten dio ezkontzearekin batera datozkion bete beharren inguruan. Eskakizunez betetakoa da bere ahotsa, exigentziaz betea.

“Emakume berekoi, gaizto, edo likits galduak, agitz, amatasuna gaitzetsi oi duan bezela; emakume on, biotz garbiak baita ama izateko naimen bizia nabaitu oi du; amatasunaren zale da; eta zale lasun au, onaren bizian izaten danez, ezaupide auxe degu asko, Jaungoikoa'gandik datořen zaletasuna dala igartzeko, eta bizitz onian geurekiko egin beařa sendia eratzea dala igartzeko, Itziartxo (...) Zein da, zeure zorionez Jainkoak bere Eskon izateko ludi au utzitzera deitzen ezpa'zaitu, edo ta zio ren batetatik eskonge gelditzeko asmotan ezpa'zara beintzat; zeure amesa iřola ere, seřar zintzo baten laguntzan sendi bat eraltzea izango da, noski, Iziartxo (...) Eta baldin oye k ezagutzean, betetzeko naimen zuzenik zeugan nabaitzen ezpa-dezu, utzi, utzi eskontza ¡Jainko ařen! ba zenbait emakumek, emazte eta ama onak ezdiralako, beren aberiari dagioten kaltea edesteko, idazti bat osoa bear genuke. (...) Zenbait diřoa es-

⁴⁵ *Euzkadi* «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.869. zk., 1921-03-20: 1.

⁴⁶ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.905. zk., 1921-05-03: 1.

kontzara, eskontzen dan une berean atsedean aundi bat artzeko pozean; eskonduaz bere gañetik zama aundi bat kentzeko asmotan; eskonge, neskazar gelditzeak bildurtzen ditunez, bere ustetan nardagari dan bizikera ortatik irteatearen. Beste zenbait beriz, bere maitasun edo zale bat asebetetzearen, beste nai-izate aratzago bat gabe. Ez dakite eskontzeakin bearkun beri aundi-aundiak beren gain artu dituztenik; ez dakite eskontzak Jaungoikoa'kiko eta Aberiakiko bearkun beriak ezartzen dizkienik. Ez dakite oso arin baizik umetxuak Jaungoikoa'rentzat azi bear dituztenik, era gutxiago Jaungoiko orentzat ñola azi bear dituztenik eta azkenez ez dakite ere ume oyek Jaunarentzat aziyaz, aberiaren baratzan gizaldi on, beri baten landara edera ipini bear dutenik; eta baldin ba-dakite ere, ez dituzte nai beren bizibideko bearkun oyek bete; eta gorago desakizudan bezela, onekin aberiari dagioten kaltea ezin esan anakoa da; ba emaztea bear bezelakoa ez izatetik etori oi da askotan zenbait señaren okerbidea; eta onekin beronen gaiztakeriz bere buru, sendi ta aberiari ezartzen dien kaltea. Baita ama ona ez izatetik etori oi da ume askoren gaiztakeri eta txarerako zalekeria, eta onekin gastedi makur-galdua aberiaren zoritxar-gai. Eta au guzia andreak berak berekiko artu leiken okerbidea alde bat utzi, eta oreakin ezartzen duan kaltea aipatu gabe. Beraz berari dagokion ain batean on izan aren, bere bizibideko egin bearak ez betetzetik bertatik dagi kalterik asko".⁴⁷

"Gaurko neskaxa baña, eskontzean, geyen-geyenean jartzen da gaurko gizarte galdutik onekiko artu-emanetan bere Jaun-zinismena iya galdu, edo beintzat otzitia duan baten babespean; eta senaaren zinismenik -ez ori, beti da emazte aularen onoinemaren arixku bat; eta askotan oni Jaungoikuakiko bearkunak sendiyan bete al'izateko aurka jartzen zayon eragozpen bat. Alperik onelakoan emaztea berez Jaungoiko-zale eta onoi-mentsua, uzkurtzako egipen jakintzak ematen duan artez eta sendotasunik ezpa'du, senaagan ikusten du beregan arkitzen ez duan jakintza, eta ontzat arturik, itxu-itxuan berari jaraitzen dio; eta onen luditar jakintza eroakin bat-egiñik, Jaungoikoarentzat oso-osoan eraldu bear zuan sendia, ludiarentzat eraltzen du; eratze kaltegarri onen ondorenez, gizarteari eta onekin aberiari kalte aundi bat ezariaz. (...) Oregatik ba, Itziartxo, eskontzerakoan ondo beitu norekin zuazen eskontzera, ñor zuazen senartzat artzera; eta baldin on ustean, bear bezelakoa ez dan bat gertatzen ba-zaizu, aundiya izango da zure nekea, baña ez aitzu zure bearkunak, eskatu Jaungoikoari laguntasuna, eta Bera lagun dalarik zer ez lezakegu?"⁴⁸

⁴⁷ Euzkadi «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.874. zk., 1921-03-27: 1.

⁴⁸ Euzkadi «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.892. zk., 1921-04-17: 1.

*“Zenbait amak baña, bere aundinaikeri eta bere arokeriz, ez du aski semeak zindo eta bear bezelakoak izateaz; nai ditu beste amen semeen gain bereak ikusi; eta berak izaten dirá Iteren onu makuéz sañirik askotan seme oyen zoritxara dagitenak; aberastasunak lortzearen, eginkizun ausařegi, eta áskotan onak ez diranetara bultzatuaz; txindi pizka bat izatearfen, edozela eskondu-arazitzen dituztenak; eta eskondu ta gero amaika naspletan sartu oi dituztenak; beren izakera oker onen bidez, umiai, aitzen da bere seme-alabei, onik baño okerik geyago dagizkiotenak”.*⁴⁹

“Gauza asko eta asko dirá eskonduak, bere lan eta arazo ugariagatik, ezin egin dituztenak; eta eskongea bai, azkeago daudelako agitz. Batez ere, berekiko ontasunez eman leiken ikasbide ona, aberiari zuzen dijoakiyo, eta onen ondorea gustiz onuragaři.

*emakume eskongea da, gastea dan artean, zenbait jolas, dantza eta oitura txarfen ziyoa; emakumea ez ba’litz ez lukete gure aberian, jolas gaizto eta dantza loyak, duten kalterik egin al-izango, berion sañerarik ez luleke-ta”.*⁵⁰

*“gure aldetik ba beste zerbait ere bai leikegu abenda garbitasunatzaz: eskontzean, gure abendakoa ez danakin ez eskontzea. Egiya esan, ez naiz auzartzen esatera, euzkotara izan ezik inorekin ez eskontzeko; ori ez. Aberiaganako bearkunaren gain degu geure gogoaren gaizkatzea; eta bizibide bat artu edo ezetik galdu leike au. Orengatik ez dizut esango, zeuk eskondu nai, senargai euzkotar onik euki ez, ta órela dan atzeritar bat bai, zure abendari kalterik ez egitearfen zure gogoari egiteko; baña au ez da beti gertatzen, eta al-ba’dezu beintzat, atzeritar eta euzkotarfen artian euzkotařa aukeratu; ori bai. Eta au onela izan dedin, zeuri dagokizun añian alegindu ere bai”.*⁵¹

- ✓ Hizkuntz asertibitatea proposatzen du Tenek gizartean leku duin bat irabazteko bidean. Gorago aipatutako kode moral horren osagai moduan hartzen du euskararen erabilera. Ez du ez hizkuntz gatazka saihesten eta euskara sozializazio-eremu guztietarako aldarrikatzen du, baita haundiekien erabiltzeko ere.

⁴⁹ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.910. zk., 1921-05-08: 1.

⁵⁰ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.821. zk., 1921-05-22: 1.

⁵¹ *Euzkadi* «Emakumea eta aberria», 2.845. zk., 1921-06-19: 1.

“Gañera geuk, beti erabili: ez txikiakin bakañik, baita aundiekin: eta lagun artean, lantegian, etxealdean, edonun: euskeraren-aldez erderaz ezta-baidan jardun gabe, {au ere bai, bear danean baña} eta bai, ezer esan gabe, erdaltzale artean ari geranean, erderaz esaten digutenari euzkeraz erantzunaz: eta geuk onela itz egiñaz; ba emakume artean erdaltzale asko dago, ezegatik ere euren erdera mordolua utzitzen ez dutenak; eta onelakoekin gertatzen da askotan euzkeltzaleak ayen erderara jo, ta guztiak arotz izkuntzez. Onetan kontu aundija bear degu geuriari eutsitzen; eta izketan gauden edonun eta edozeiñekin, batez ere euzkeldun artian, eziñik ez dago-ta, iraukor, leyatsu, jardun bear gera gure euzkera ezari eta gaindutzen.

Gañera baita euzkel-ingiak zabaltzen ere; oyen-tzat arpidiak bildu; bat eta bestean eskuratzen zizkigun euzkel irakurgayak zabaldu; beraren aldez itzegin egokitzen zaigun gustian, egokimen au sañi degu-ta; edozelan alegindu euzkerazko irakurgaitara euzkeltzale oro zaletu daitezcan

*Eri askotan Ama Neskutsa'ren aintzazko elizkixunetan, Mire-Alaba'en gain izan oi dirá abestiak; neskatzak abesten dute elizkixun oyetan. Ara ba emen ere, Itziartxo, beste era bat euzkera-aldez egiteko”.*⁵²

Ikusi dugunez, 20. hamarkadako lan hauek lerrokatuta daude garaiko autoreen helburu eta moduekin. Debarraren ekarpena da emakumeei zuzenduriko argudategi berariazkoa sortzea eta hedatzea, arrakasta handiz egin ere.

Abertzaletasunaren marko ideologikoak zedarritzen du garaiko autoreen pentsamendu soziolinguistikoa, larritasunez eta harrotasunez beteriko ekimena da idazletza.

Nolanahi ere, inor gutxi aztertu du Teneren obra bere osotasunean. Berari buruzko kritikak 20. hamarkadako lan hauetan oinarritu dira nagusiki. Berezi ki *Itziartxo* neska gazteari zuzendutako mezuak izan dira horretarako erabili direnak. Ondorioz murriztu egin dira kritikaren aldetik bere eboluzioaren kore eta ñabardurak.

⁵² *Euzkadi* «Emakumea eta aberria. «Agerre»-k, eta nik ere...», 2.861. zk., 1921-07-08: 1.

5. II. ERREPUBLIKAREN INGURUMARIA



I(ra)ku(s)/(r)lea atal honetan orientatzeko gezi-galderak:

Pizkundeko ahots nagusiek nola ikusten zituzten emakumeak? Nolakoa zen elizgizonen pisua euskaltzaleen artean? Zein ikuspegi zeuden emakumeen sufragio eskubideen inguruan? Nola egituratu zen hamarkada honetan EAB? Zeintzuk izan ziren bere egintzak? Pizkundean zein leku izan zuten emakume idazleek? Eta ondoren zer transmititu zaie hurrengo belaunaldiei beraien ekarpenaz?

30. hamarkadan euskal kulturak bultzada handia izan zuen: antzerki taldeak (Oldargi, Jostari, Gipuzkoako Antzestalde Batza), argitaletxeak (Verdes Achirica, editorial Vasca-Itxaropena, López Mendizabal, Beñat Idaztiak), musika eta folklore taldeak (Saski Naski, Euzko Abesbatza, Gipuzkoako Ezpatadantzari Batza, Bizkaiko Ezpatadantza-Batza), literatur topaketak (Euskal olerri egunak, Antzerti egunak...), Bertsolaritza saioak, historiografia abertzalea e.a. (De Pablo *et al.*, 1999-235).

Batzokiak izan ohi ziren jarduera horien gune. Ez soilik kulturaren sorleku; batzokiak gerora euskara biziberritzeko estrategia ezberdinen hedatzaile izan ziren: merkataritzan errotuluak euskaraz jartzeko, *euskalzaleen orratza* izeneko paparrikurrak euskaldunak identifikatzeko, abertzaleen zentsoak, ikastoletako lehen ikasleen kabi e.a.

Euskara eta euskal kultura sustatzeko elkarteak ugaltu egin ziren: Euzkaltzale Bazkuna, Euzkaltzaleak, Nafarroako Euzko Ikasbatza, Euskararen Adiskideak, Euzkaltzale-Gaztedija, Euskal Eснаlea, Euzko Pizkundera, Euskal Idazle Batza, Euzko Ikastola Batza, Euzko Irakasle Batza, Euzko Ikasle Batza e.a. Ezingo dugu azpimarratu gabe utzi taldetasunean eraiki zirela estrategia nagusiak.

Taldetasunaren ondoan, hala ere, lan ixil eta bakartian jarria zuten euskaltzale askok esperantza, literaturan hain zuzen ere. Lizardik sormen literarioaren bitartez erakutsi nahi zuen euskara ez zela beste hizkuntzak baino basatiagoa edo dorpeago, *zernahi adigai* adierazteko oztoporik ez zuela. Tene Mujikak bat egiten zuen estrategia honekin. Aitzol apologista zen nagusiki, eragilea. Lizardi, ikuspegi soziolinguistiko handia zuen arren, sortzailea da, hizkuntzaren lanketan eta edertasunean jartzen du arreta. Gure ustez bietatik edaten du Tene Mujikak berak ere.

30. hamarkadako lanetan ikusiko dugun bezala antzerki lanak garatuko ditu garaian antzerkiak biziko zuen loraldiaren erakusgarri. Bestetik, bere artikuluetan emakumeen antolaketa eta eragiletza izango dira ardatz. Ez dugu ahaztu behar II. Errepublika aukeraz betetako aroa dela abertzaleentzat eta sortzaileentzat; itxaropen une bat da modernitatearen barruan eta arte abangoardiaren eskutik euskaltasunaren imajinarioa berritu eta politizatu egingo da. Pizkundera deitu izan den mugimenduko ahotsen artean emakumeak ere baziren baina horien jarduna gizonen nagusitasuna praktikatzen zuen genero-sistemaren baitan gertatzen zen ikusiko dugunez.

■ Lizardiren genero-ideologia eta EAB

Lourdes Otaegik (1986) Lizardik prentsan argitaratutako artikuluen bilketa eta testuinguratzea eskaini zigun lan dotore batean. Artikulu horien

artean badira emakumeei buruzko iritzi ugari, Lizardiren genero-ideologiaren zantzu moduan har genitzakeenak. Oro har ugariak dira emakumeen aurkako iritzi kritikoak, bereziki euskara gutxi erabiltzen zutelako. Kritikak ez dira Lizardik ohiko duen gatz eta piperren faltan eta horrelako aipu antologikoak uzten dizkigu: *“Neskamerik ezta Euskalerrian, telefonoz euskeraz dakinik. ¡Arian barrena ibiltzeko ere, lakatza ta baldarra degu, noski, mintzoa!”*⁵³

Lizardik kazetaritza lanen bitartez eraikitzen dituen genero-rolak esanguratsuak dira botere harremanak ikuskatzeko. Kazetaritza lan horietan jorrotzen dituen gai ezberdinen artean han eta hemen aurkitzen ditugu emakumeei buruzko iritziak. Iritzi horiek irakurle maskulinoei zuzenduak daude ia gehienetan. Diskurtso ekoizpen horien helburu komunikatiboa gizoni zuzendua dago eta ikusiko dugunez sarritan genero ideologia jakin baten mesedetan egi ten dira diskurtsoak.

Lizardiren nahia da kazetari zorrotz eta ironiaz betetakoa dela frogatzea, bereziki gaztelaniaz idazten duenean. Horretarako ausart jotzen du iritzi-artikulu askotan, parodiara ekarriz hainbat pasarte eta kolektibo. Horietako bat da emakumeena. Generikoan diogu “emakumea”, despertsonalizazioa delako nagusi haren idatzietan, “emakume” kategoria orokorra erabiltzen baitu legitimatu nahiko lituzkeen gizon unibertsalen antagonista gisa.

Emakumeak aktore sozial generiko moduan atribuzio jakin batzuekin hartzen ditu hizpide. Atribuzio horietako bat da beren errepresentazio modua, gizar-tean interakziorako darabiltzaten praktika sozialak aipatuta. Aurpegia margo-tzea, makilatzea, janzkera jakinak erabiltzea edota ofizio batean aritzea (telefonista, bulegari) emakume arduragabe, zital, manipulatzaile edota buruarina irudikatzen azpimarratzen dira. Adibideak antologikoak dira:

“¡Pensar que entonces viéramos (...) preciarse de hablar euskera y aún quizá de descifrar en sonoro verso euskérico el amor a esas madres futuras de tanto niño vasco, un poco desdenosas de su belleza racial, que prueban a distraer púdicamente bajo costosas síntesis químicas, a esos encantos de ingenuidad cuyas graves preocupaciones giran

⁵³ *Euzkadi*. 1929ko abenduaren 25. Donapaleura joan-etorria.

*hogaño en derredor de la fijación –muy “ad libitum”– por supuesto según su espíritu “rendidamente rebelde” a toda norma de límites inferiores de largura y superiores de cortedad, de sus cada vez más breves y económicos vestidos; y de las felices creaciones de eximios peluqueros en materia de poda capilar con los subsiguientes secretos y encantos de la “ondulación permanente”, y del paso y los compases del último “charleston”!*⁵⁴

*“Nexka-motzarik beñipein, eztezute arkituko erderaz ari eztanik. Aspaldidanik degu ikasi, ori bai, emakumezkoak askoz ez bizkor, aurreratu eta “gusto” obekoak dirala, gizasemeak baño; Bai-ta ere, arretxengatik guri baño amar-hogei urte lehenago euskera lotsagarri-zatar au ezpain gorri-gorriegitan agortzen zaiela. Ta emen, nonai bezela gerta delarik, igerri diteke mutil-koxkorak berak ere, bide negargarri ortan sartutxoegi dirala.”*⁵⁵

Aurpegia margotzearen gaiak badu mamirik. Aurpegi txuritze eta ezpain gorritzeak sarri izan dira misoginiarako baliabide eta horietatik ere baditugu Lizardiren lanetan. Horren inguruan testuratu nahiko genuke Tene Mujikari erreferentzia egiten dion pasarte bat: Aita Onaindiak Tene ohoratzeko asmoz esan zuen *aurpegi zuriko emakumea* zela berau. Emakume on eta garbi eta beselakoen arteko banaketa eraikitzeke sarri erabili da itxura fisikoa, bereziki makilaiari dagokiona.

Askotan gizonek jasaten dituzten ondorio negatiboen agentibitatea emakumengan ezartzen du Lizardik. Horrela, gizonen arteko haserrean atzean emakumea egon ohi da Lizardiren ustez:

*“gizaseme bat baño geiagok emakume bakarra ederretsi-ezkero, jakiña da beren arteko ezin-ikusia sortzea.”*⁵⁶

*“Un senador de Carolina del Sur, discreto varón a quien le suponemos (...) bajo la influencia dulcemente despótica de una señora ebúrnea ha presentado en el Senado una moción”*⁵⁷

⁵⁴ *Euzkadi*. 1927ko urriaren 26. La moda del euskera.

⁵⁵ *Argia*. 1929ko otsailaren 3. Zarautz erdelerri.

⁵⁶ *Euzkadi*. 1927ko urriaren 22. Euskera alderko asmoak dirala-eta.

⁵⁷ *Euzkadi*. 1929ko ekainaren 25ean. Glosas triviales.

*“Hay quien exalta (sic.) la gran función social que desempeñan las mecanógrafas. Pero lo cierto es que, con raras excepciones, dedican su tiempo a enamorar a su principal o al oficinista más distinguido en la nómina de sueldos”*⁵⁸

Baina agian ikuspegi bortitzena ikus genezake emakumeen parte hartze politikoaren gainean idazten dituen iritzi deslegitimatzailletan:

“No acertamos a comprender cómo podrían las mujeres constituir ministerios duraderos, de resolver concordes, allí donde se reuniesen más de cuatro, cualquier asunto de interés para el bien público. Ciertamente es que los hombres lo hemos hecho en todo tiempo bastante deficientemente, pero... con todo”

*“Pero no digamos nada de lo que sería la Sociedad de Naciones en manos de fémmina, ni de cómo se podría evitar a la salida de las sesiones, al encontrarse a la puerta con los periodistas, que dijese pestes la representación inglesa acerca de la lamentable caída de ojos de la enviada del Japón, o se ocupase la francesa del insufrible corte de falda de la teutona, o murmurase la “fascista” del aspecto irritante de las ex-cejas de la ministra plenipotenciaria de todas las Rusias. Cosas que darían luego lugar a frecuentes conflictos armados”*⁵⁹

Diskurtsoaren analisiaren ikuspegitik bereizgarria da Lizardik darabilen umorea. Sarkasmoa eta batez ere alderdi estetiko eta fisikoei egindako erreferentzia ironikoak nagusikeria erakusten dute. Nabarmentzekoa da, bestalde, nola inplikatzeko den idazlea diskurtsoan. Ñabardurarik gabe gizonen kolektiboaren ordezkariak da bere ikuspegia. Zentzu horretan erabat legitimatua sentitzen da emakume generikoa desautorizatzen, diskurtso dominantearekin dago erabat lerrotatua, errealitatea izendatzeko eta atribuzioak egiteko gertu, baita izena eta abizena duten emakumeen kasuan ere:

*“Han dator Campoamor andereñoa. Or, apaiz lodikote bat (...). Urrena, Nelken andereño liraña (zerbait esan bear emakumezkoari, polita ez danean)”*⁶⁰

⁵⁸ *Euzkadi*. 1929ko otsailaren 21ean. Glosas triviales.

⁵⁹ *Euzkadi*. 1929ko otsailaren 21ean. Glosas triviales.

⁶⁰ *Euzkadi*. 1932ko maiatzaren 13an. Etxe-barne bizia. España-Legebatzarrea nere begipean.

Ausart jokatzeko du kleroaren jokabidea emakume kaltegarri horien artean kokatzeko duenean. Emakume erlijiosoengan, esate baterako, emakumetasuna azpimarratzen du. Baina deslegitimazio arriskuan jartzen ditu apaiz edota anaiak “gonaren erabilerak” susmagarria metonimikoki erabiliz kritikarako:

“Mojetzaz ez gera gaizki-esaka ekiteko ausarta; gañera, alperrik litzake, emakumeak baitira aiek ere”⁶¹

“esan digu inork, alakorik egitea (euskaraz irakurtzen eta idazten erakustea haurrei) pralleak politikatzat jotzen ote duten. Kertenkeri ori sarri esana da. ¿praka-gonadunak ere, zenbait prakauts ainbat, “eguzkia-nora”koak ote ditugu?”

“Gonadun guztiak astindu-bearrik ote-gera, naiz emakume naiz gizonezko?”⁶²

Aparteko atala merezi du abertzaletasunean emakumeek bete beharreko egin-beharrak diskurtso legitimatu bihurtzen duenean. Euskararen aldeko praktika nabarmenago eskatzen zaio emakumeari, hari balegokio bezala. Gizonei ez zaie erantzukizun bera eskatzen, ez hain asertiboki bederen. Badirudi harreman asimetrikoa zegoela ezarria euskararekiko erantzukizunari dagokionez bizitza publikoan gertatzen zen diglosia onargarriagoa eginez gizonen kasuan hauei zegokielakoan bizitza publikoan aritzea eta ez emakumeei.

“ta batez ere, sortu ditzagun idazle meak, emakumezkoa gure etsairik zitalena, dala-koxe (...) olakoetarik bear degu meta larria ta berbidera gaitean inoiz”⁶³

“nacida en Argentina y vasca sin embargo hasta la médula, más vasca, mucho más que la inmensa mayoría de las señoritas de nuestro país euskaldun (...) mientras que aquí las representantes del bello sexo que en algo estimen su dignidad todo lo más lo chapurrean, con la torpeza con que chapurrea el francés por los cafés de París un madrileño castizo”⁶⁴

⁶¹ *Argia*. 1929ko otsailaren 3. Zarautz erdelerri.

⁶² *Argia*. 1929ko otsailaren 10. Zarautz erdelerri.

⁶³ *Euzkadi*. 1929ko urriaren 2. Andoain-ondoren gogoetak.

⁶⁴ *El Día*. 1930eko ekainaren 24an. Organización literaria.

1929tik aurrera hasten dira emakumeenganako iritzi positiboak agertzen Lizardiren lanetan. Jarrera aldaketa sumatzen dugu idazle zirtolari honengan eta jarrera aldaketak EABren kontsolidatzearekin bat egiten du denboran. Horrela mintzo zen Lizardi Euskaltzaleak elkartearen sortu zen Arrasateko hitzaldian 1930eko uztailaren 30ean:

“ta azkenik ez luzatzeko: oraizdik ere eranegun, zbadakizute zer besterik egin degu?...Donosti’ko antzokirik ederrenean, udaaren gorrienean, jendea abea jotzera-ño erakarri, ta Euskalerra’ko neskatx aundiki sorta ugari bati (are markesak ere tartean baibaitziran) euskera utsez jardun arazi, Euskarari Emakumeen Maite-Agurra eskeñi arazi, bertakoei ta erbestetarrei oso goitik auxe esanaz: euskeraz itz-egitea, alegia, ez tala emendik aurrera izango baserritarren eginbearra: goi-goieneko alabak ere arrokero erabili nai dutela ezpañetan, gurasoengandiko ots ez tala dutelako, ta bear ba-da, euskeraz ari diranean bezin eder ta laztan iñoiz beren buruak agertu izan ez titutelako.

Ta bitez nere azken-itzak bereizki emakumezkoentzat. Gizasemeok bakarrik ez goazke urrutira, zuen bear gera edozertarako ta edozertarako baño bearrago zaituztegu geure erri au jasotzeko.

Zuek zaituztegu asegarri, zuek atsedean, zuek akullu, zuek artizar eta eguzki. Ta zuek zaituztegu (auxe ez aaztu beñere) zuek zaituztegu geure aurren ama ala amagai. Zuen eskuek taiutu ta azi bezelakoxeak izango dira bihar gure aurrak... izango dira bihar Euskaldun berriak. Aintza aundia, glori aundia zuena ontan ongi jokatzen ba-dezute; lotsari ta erantzunbear larria ere, ordea, eginbearraren gibel-ema ten ba-diozute.

Entzun itz auxe soilki. Asaba zaarren goguz elkartzen gaituan urreko kate zaarra, etzazute, arren, emakumeok, esku laztankor aiekin betirako eten eta apurtu”⁶⁵

Garapen nabarmena erakusten dute hitzok, emakumeen onarpenera darie baina baldintzapean. Giro honetan egin zuen ekarpena Tene Mujikak, emakume abertzaleen aldeko onarpen bila mainstream misoginoan.

⁶⁵ 1930eko uztailaren 30. Arrasate’ko itzaldia. Euskaltzaleak.

■ Sufragioa eta EAB

Primo de Riveraren diktaduran ahalbidetu zen, teorikoki bederen, emakumeen boto eskubidea. Eskubide hori aitortu zitzaien emakumeei, ezkonduer izan ezik. Baina diktaduraren baitan ez zen hauteskunderik egin. 1931ko urriaren 1ean onartu zen sufragio-eskubidea azkenik.

Gizarteko posizio ideologiko ezberdinetako emakumeen artean ikuspegi ezberdinak azaleratu ziren. Clara Campoamor (Partido Radical) eta Victoria Kent (Partido Radical-Socialista) parlamentarien artean, adibidez, bigarrenak bat egin zuen ezkerreko gizonen beldurrarekin: Eliza Katolikoak eragin handiegia zuen emakumeengan eta arriskua ikusten zuten emakumeek errepublikaren kontra bozkatzeko. Abertzaleen artean ere ikuspegi ezberdinak zeuden. Ugaldek esaten duenez Julene Azeitia izan zen Euzkadiko orrietatik⁶⁶ emakumeen boto-eskubidea defendatu zuenetako bat (1993-223):

defendió la capacidad de éstas para actuar públicamente, y dejó al descubierto implícitamente que la base de la autoestima de las nacionalistas ya no residía sólo en su papel familiar, sino también en el reconocimiento social de sus múltiples capacidades. Una de ellas era la participación en el desarrollo del movimiento nacionalista desde el ámbito público.

Tenek badu artikulu bat El Día⁶⁷ kritikatzan duena gizon denen balioa botua emateko. Zehazki, mozkorzale den elizaren kontrako *azkatasun-zaleak* gizon zintzoen botuen balio bera izatea kritikatzan du. Ez dugu argi emakumeak botua ematearen aldeko kontrargudio bat den –“horrelako gizonek botua eman badezakete emakumeek zergatik ez?” moduko zer edo zer–, emakumeak botua ematearen kontrako argudio bat den ala hauteskunde sistemaren ahultasunak seinlatu nahi dituen besterik gabe.

Nolanahi ere, emakumeak aldatzen eta antolatzen ari ziren: 1930ean herriz herri hasi ziren Emakume Abertzale Batzak antolatzen. Azkoitia eta Eibar izan ziren lehen herriak. Laster batu zitzaizkien Arrasate, Elgoibar, Soraluze,

⁶⁶ Arritokieta. “Emakumien autarkijatzaz”. *Euzkadi*, 1931-XI.

⁶⁷ Tene Mujika. *El Día* «Azkatasun zaleak», 1931-06-24: 14.

Aretxabaleta eta Bergara. Debakoa, Tene tarteko, abenduaren 13n sortu zen. Debako ekitaldian parte hartu zuten Mercedes Kareaga eibartarrak, Elvira Zipitriak, Karlos Linazasoro Maiztegi-*Altzetak* eta Bizkaiko SOVeke lurralde federazioaren lehendakariak, Pedro Ormaetxeak (Larrañaga, I, 79). Ezin esan goi-mailako ordezkaritza ez zenik.

Deba ibarreko herrien ostean, 1931ko ekainaren 4an, Bilboko eta Ondarroakoak osatu ziren. Bilboko ekitaldian 500 bat emakume batu ziren eta tartean ziren Karmen Errazti, Alizia Aretxabaleta edota Sofia Mac-Mahon; Ondarroakoan Maria Etxabe zarauztarrak, Olano, Donostiako Juventud Vascaiko presidentek, Aitzolek eta Arantza Barrena GBBko presidentearen alabak hartu zuten parte. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, Emakume Atzari Batzaren ekimena azken herri horrek lideratu zuela debarrekin batera. Pentsatu behar dugu horrenbestez Tene Mujika berrantolatze honen erdian zebilela hainbeste gipuzkoar aurkituta Ondarroako ekitaldian. Ez da gutxiestekoa, beraz, gipuzkoarrek 30. hamarraldiko antolaketan izan zuten rol garrantzitsua; sarritan Bizkaiko fenomenotzat hartzen baita susperraldia. Adibidez, propagandisten zerrenda osatuta ondorengoan aipatuko genituzke: Pilar Untzueta (arrasatearra), Miren eta Ciriaca Garate, Miren Lazkano eta Mercedes Kareaga (eibartarrak), Elvira Zipitria (donostiarrak), Maria Etxabe (zarauztarra), Sorne Untzueta (bilbotarra), María Uranga (herrerarra-Altza). Don Polik esango digu: “Comprenderéis fácilmente el esfuerzo que esta comisión ha debido realizar para encauzar y formar el espíritu femenino, venciendo escrúpulos y prejuicios y preparándolo para esta actuación (Oradoras)” (Larrañaga, I, 92).

Nolanahi ere, EAB erakunde deszentralizatu zen. Nahikoak ziren baldintzak betetzea ezein herritan batza bat osatzeko. Herriz herri zabaltzen joan zen sarea harik eta 1936an ia hego Euskal Herri osora zabaldu arte (Ugalde, 1993-471): Bizkaiak 116 herri bazituen 92tan sortu ziren batzak; Gipuzkoan 89 herritatik 55etan; Nafarroan 267tik 22tan; Araban 77 herritatik 11tan.

Udal politikak garrantzi handia zuen artean. Gogora dezagun 1931ko irailaren 22an 420 alkate Madrilera joanak zirela Gobernu Buruari Lizarrako Autonomia Estatutuak eskura ematera. Tartean zen Polentzi Markiegi Debako alkatea.

Batza bat osatzeko baldintzak ziren 1922ko araudian jasotzen ziren berberak, araudi hau berau erabili baitzen nagusiki 30. hamarraldiko etapan ere. Alde

batetik euskal jatorrikoa izatea probatu behar zen abizen edota jaiotzagirien bitartez; bestetik, bi afiliatuen abalak aurkeztu behar ziren eta hirugarrenik, zuzendaritza batzordeak oniritzia eman behar zuen. Hemen artikuluetako batzuk (Larrañaga, 1978-I, 41):

Art. 1: El objeto de esta Asociación será la unión de todas las mujeres vascas amantes de Jaungoikua eta Lagi-zarra, para difundir por Euzkadi, valiéndose de cuantos medios estén a su alcance y en consonancia con su sexo y condición, la doctrina que en el referido lema se encierra, desarrollando sus actividades e iniciativas principales, orientadas al aspecto social vasco y de carácter cultural y benéfico.

Art. 3: Es deber de las euzkeldunes asociadas, hablar el euzkera en los locales de la Sociedad, y de las que no lo sean, aprenderlo.

Art. 4: Igualmente deberá conducirse en el mutuo trato en la igualdad y fraternidad propias de los vascos y que mayormente debe imperar entre patriotas amantes de JEL (Jaungoikua eta Lagi-zarra).

Art. 15: Para ser apta y pertenecer a la Asociación, se requieren las condiciones siguientes expresadas por orden de importancia: 1.º) estar conforme con el espíritu de la misma, reflejado en el artículo 1º. de este Reglamento; 2.º) no pertenecer voluntariamente a ninguna asociación que, a juicio de la Junta, sea incompatible con ésta, como sociedades de bailes inmorales etc.; 3.º) haber cumplido los 12 años de edad; 4.º) ser vasca u originaria de vascos.

Debako EABko zuzendaritzan karguak izan zituzten honakoek (Ugalde, 1993, 305 eta 363):

Maria Garate	Lehendakaria, diruzaina, lehendakaria
Manuela Odriozola	Idazkaria, lehendakaria
Dolores Salegi	Bokala
Eugenia Altuna	Bokala, idazkariordea
Agueda Beitia	Bokala, idazkariordea
Anastasia Berasaluze	Lehendakariordea, diruzaina
Robus Mujika	Diruzaina (1932), Lehendakaria (1933)

He aquí otro lindo pueblo costero, eminentemente patriota. Tuvo 260 afiliadas. No le faltaron su escuela de cocina, sastrería; su ropero, que asistía a las familias necesitadas de

toda condición social y política. Más de 30 familias recibían regalos de Gabon, importantes obsequios de ropas y comidas, por valor de varios miles de pesetas (...) Organizó teatro vasco, cuadros y grupos de niños y poxpoliñas. Su festival de reyes interesaba a todo el pueblo. A cuantos niños quisieran se les daba clases de catecismo euzkérico.

Horrela kontatzen du Don Polik (*op. cit.*) 1932ko kontaktetan. Deban 1930ean baziren batzokia, Euzko Gaztedi elkarte, Mendigoizalien taldea eta 1931tik aurrera EAB. Itziarren 1932an EABko talde bat antolatu zen; batzokia Aginagaldekoenean omen zegoen.

Baina, itzul gaitezen sufragio kontuetara. EABren hedapenak marko politiko jakin bat zuen, 1931ko apirilean aldarrikatu zen II. Errepublikak eta emakumeen partehartze politikoa. Don Polik dioskunez Debako batzakoek “en su fichero electoral habían clasificado a todos los votantes de su jurisdicción” (Larrañaga, 1978-I, 142), alegia, emakumeak bozkei begira hasi zirela lanean. Donostiarrak ere antzeratsu zebiltzan: “*En Donostia se fijaba el 10 de abril de 1932 la fecha de organización oficial. Eran un millar. Mitin en el Frontón Urumea sin precedentes en Donostia, con una asistencia calculada de 25.000 personas, a cargo de las oradoras Mercedes de Kareaga, Elvira Zipitria, Jose Antonio Agirre. Las autoridades suspendieron la representación de Pello-Mari*” (Larrañaga, 1978-I, 103). Aurrerago dio “*Se hicieron cargo del censo electoral femenino, y no quedaba ya mujer votante que no fuera visitada por ellas*”. Zergatiak ere azaltzen dizkigu: “*Concedida a la mujer (...) el derecho al sufragio, urgía la transformación del censo electoral femenino (...) [esta labor] mereció el elogio de la comisión similar de los hombres, que no sospechó tales aptitudes en las emakumes*” (Larrañaga, 1978-I, 93).

1933an Tolosan egindako asanbladan bi aldaketa onartu zituen EAJk: emakumeak EAJn afiliatzeko eskubidea eta 10 urteko antzintasuna zuten euskal herritarrek, euskal jatorrikoak izan gabe ere, afiliatzeko eskubidea izatea. Zehazki: “Art. 3: Para afiliarse al PNV se requiere: a) ser oriundo vasco. Podrán por especiales circunstancias pertenecer al PNV los que no siendo oriundos vascos hayan nacido en territorio vasco, o que no reuniendo las anteriores condiciones lleven más de 10 años de residencia en el mismo”(…) baina “Art. 9: Quienes desempeñen cargos regionales o nacionales deberán ser de oriundez vasca” (De Pablo *et al.*, 1999-231).

Luis Aranak bi zuzenketa aurkeztu zituen funtsezko aldaketan aurrean: guraso euzkotarrak ez zituzten euskal herritarrei afiliatzeko aukera baldintzatuta ematea “no como un derecho, sino como una gracia que se les concede” (De Pablo, 1999-241) eta emakumeen berdintasuna egikaritzearen kontrako zuzenketa emakumeen izaera tradizional, etxezalearen izenean. Gauzak aldatzen ari ziren baina oso poliki. Alderdiaren barruan kargu politikoak izan zituztenen artean ageri dira: Mercedes Kareaga, Pilar Sansinenea, Francisca Abendibar, Teresa Azkue.

1933 udal hauteskundeetan agertutakoa da honako manifestua (Larrañaga, I, 134):

“Emakume, patriota. Si en tu pueblo hay elecciones ahora y tienes el voto allí, marcha el próximo domingo a tu pueblo aunque hoy vivas fuera de él. Vete sin falta a votar. Emakume nuestra, a ayudar a tus padres, a tus hermanos, a tus amigas, que allí estarán trabajando y luchando con todo el alma por Jaungoikua eta Lagi-zarra, que es Dios y es la Patria, que es nuestra Euzkadi bendita. Vete sin falta, emakume: Ayudanos a alcanzar el triunfo del nacionalismo vasco en tu pueblo querido”

Emakumeen boto eskubidearekin batera horien politikan aritzeko gaitasuna handitzen joan zen euskal gizartean. Horrela, herriz herri zabaltzen zozzen batzak gorputz sozial artikulatuagoa sortzen joan ziren. Gipuzkoan sortu zen 1935ean lehen federazioa Eibarko taldearen lidergopean. Asanblea bat egin zuten Gipuzkoako batzek donostiarrek deituta eta 60 ordezkarietzek (tartean ziren Gasteiz eta Iruñeko lehendakariak) federazioa sortzea onartu zuten 1935eko ekainaren 27an.

Ondoren Zumarragan ekitaldi esanguratsua egin zuten uztailearen 7an. Bertara bildu ziren 64 delegazio eta Larrañagak dioskunez “*Asistieron el Euzkadi Buru Batzar, con su presidente el Doctor Ziaurritz. Los miembros del GBB Señores Markiegi y Alberdi; los exconsejeros señores López de Mendizabal, Urreta, Zaldua y Linazasoro; diputados nacionalistas por Gipuzkoa, señores Monzón e Irujo (...)*” (Larrañaga, 1978-I, 63). Tene lehendakari izendatu zuten ekitaldian eta jaso zuen omenaldia denen eskutik. 47 urte zituen artean eta egindako lanaren kontsolidazio moduan har zitekeen loria hori guztia.

Horrela kontatzen du ekitaldia Don Polik (Larrañaga, 1978-I, 65):

Los actos comenzaron, como siempre, con una misa solemne (...). El salón donde a continuación se celebraba el acto, estaba adornado con la bandera bicrucífera (...) y un retrato de Arana-Goiri'tar Sabin. (...) Procedióse a designar a las "Emakumes" que habían de formar el comité Directivo: Presidente: Srta. Tene de Muxika, de Deba, Distrito de Azpeitia (...). A continuación tuvo lugar el homenaje a la brillante escritora Euzkérica, "Tene de Muxika", que acaba de ser nombrada presidenta, la cual, vivamente emocionada, pronunció breves pero sentidas palabras como expresión de su gratitud por las muestras de afecto y estima (...). Luego hubo exhibición de danzas en la magnífica campa, y se bailó un aurreku de honor, que fué sacado por el mismo presidente [Ziaurritz]. Se le presentó como dama de baile a la nueva presidenta. El atzesku lo bailó D. Isaac López de Mendizábal, que tuvo por pareja a la sra. de Zulaika De Urreta. Por la tarde hubo romería vasca.

■ EABren egintzak

Manifestu moduan aldarrikatu zituzten emakumeek beren zereginak:

1.º Difundir poz Euzkadi, la doctrina nacionalista vasca.

En este aspecto "de afirmación y propaganda nacionalista allá donde la acción del hombre no tenga franca intervención. Organizará, a este efecto, fiestas en consonancia con la naturaleza de la Institución: publicará hojas y folletos sobre la acción de la mujer en el hogar, etc; trabajará para interesar a toda mujer vasca, en el Nacionalismo, como único medio de salvación de su conciencia, de su hogar y de consolidar en nuestra Patria, un porvenir venturoso de paz y prosperidad". "Llevará su consuelo a los que sufren por la Patria en la prisión o en el destierro: aliviará, con ánimo fuerte, a los que tienen que luchar diaria y penosamente por la libertad de Euzkadi, y llevará a ellos el espíritu de sacrificio y abnegación, para servirla gozosamente". (Larrañaga, I, 46)

2.º Desarrollar actividades e iniciativas en el orden cultural.

"Esta Institución se propone cultivar, con todo cariño, la educación cultural del pueblo, estableciendo cuantos organismos sean precisos, para que nuestros hermanos, y especialmente los niños, desarrollen sus facultades en su preparación para el porvenir, dentro de un ambiente patriótico."

"A este efecto, creará clases y fundará escuelas para niños, fomentará su literatura apropiada con cuentos, narraciones, lecciones etc.; iniciará el teatro infantil; cultivará su inteligencia con clases de solfeo y piano; ordenará sus aficiones con grupos de hilanderas, ezpatadantzaris y juegos propios; creará el amor a la lengua, estableciendo clases de euzkera, y preparará a la mujer patriótica, con enseñanzas prácticas, labores domésticas, etc"

Bilboko EABko 1932ko memorian baieztatzen da ondorengoa:

"Pretendemos que no se limite el campo de acción de las emakumes, a la organización de fiestas más o menos vistosas; a reunir a las mujeres vascas, para que en un saloncito coquetón, maten el tiempo (...) Queremos, ciertamente (...) la formación cultural y patriótica de la mujer vasca".

Eta, bestetik (Larrañaga, 1978-I, 48):

"Pretendemos que cada hogar vasco sea una pequeña patria, tal y como la deseamos: fuerte y vigorosa, físicamente y profundamente cristiana"

Kode moral estua ezartzen zitzaion emakume abertzaleari:

En el aspecto social en la sociedad ciudadana "Debe dar buen ejemplo siempre, acordándose que no sólo es emakume en los mifines y dentro de la sociedad, sino en los espectáculos, bailes, en el momento de elegir sus vestidos, en las playas, etc" (Larrañaga, I, 51)

En el aspecto político en la sociedad familiar "Lo principal de este campo (Siempre guardando la reserva propia de la mujer) no es tanto la actuación directa ni inmediata, sino la mediata, la preparación de los futuros patriotas" (...) "Debe tener un concepto verdadero e instruir en él a sus familiares, sobre todo a sus hijos, en las nociones de Patria, en la historia de Euzkadi, de sus características, de su derecho, de sus aspiraciones nacionales", "Que sus hijos conserven, fomenten, aprendan el euzkera. Esta es la actuación directa e inmediata y de más fruto en definitiva" (...) "La actuación de la emakume debe tender a desarraigar todo lo que aniquila y degrada la raza: el vicio, **las mujeres**, el juego"

En la sociedad patriótica, "Si es mujer instruida, podrá tomar parte en los actos públicos, mítines, etc, que no desdican de la mujer" "Deberá ejercitarse y prestarse a esto, sobreponiéndose a su natural rubor y encogimiento, y trabajar cuanto le sea posible" (...) "Tendrá mucho cuidado con el respeto a las personas, aunque deba atacar sus ideas"

En la sociedad ciudadana, "Si sabe el euzkera, fomentarlo, no hablar en erdera, sino por necesidad. Hacer ambiente euskeldun", "Hacerse profesora, a cada momento, del euzkera, procurando difundirlo" (Larrañaga, I, 52)

En la sociedad familiar, "Hacer ver que la paz y el bienestar de las naciones consiste, no tanto en proclamar derechos cuando en acatar deberes. Y esto, prácticamente, pues la familia es una imagen de la sociedad. Y si cada uno procura cumplir con su deber, en el mero hecho, quedará salvaguardado el derecho ajeno".

Egintza ezberdinak erabili zituzten esku artean:

- Emakumeentzako hitzaldiak eta neska gazteen kaptazioa: Emakumeen aktibazio politikoa izan zen egintza nagusietako bat. Herriz herri, baserri baserri joaten omen ziren hainbat emakume bertako neska eta andreen bila. Pilare Baraiazarra irakasleak (Meñaka, 1938) Jakin aldizkarirako Miren Rubiok egindako elkarrizketan (Rubio, 2021-14) horrela kontatzen zuen beregana nola heldu ziren haietako batzuk gerraostean:

Eskola txiki bat sortu zuten, eta hara gerturatzen hasi ziren gerrako emakumeak. Lehenik Maria Luisa Egiguren bilbotarra etorri zen. Bere lagunak ekartzen zituen asteburutan (...) Guk ez genekien emakume abertzaleak zirenik, gerora jakin genuen hori. Ze Bilboko Correos kalean leku bat omen zegoen horiek elkartzeko, eta abertzaletasuna lantzeko konpromisoak hartzen zituzten: aukerarik bazuten herrietara joaten ziren baserrietako neskak abertzale eta euskaltzale bihurtzeko. Horrela iritsi ziren Meñakara. Zorte ikaragarria izan nuen (...) Tailerrak ematen zizkiguten asteburuetan: josketa, kantua, sukaldaritzza, txistua, antzerkia...

Gerraostean horrela ari baziren, atera kontuak nola ibiliko ote ziren II. Errepublikan.

- PNVko ekitaldietan hizlari aritu ziren. Horrez gain, egun propagandistikoak antolatu zituzten, "Ama euskaldunari omenaldia" deiturikoa adibidez. Herrietako batzetako kideak biltzen ziren topaketa egun horietan. Aipatutakoan Debakoak bertan omen ziren, adibidez.

- Formazioari garrantzia eman zioten eta hainbat aktibitate bideratu zituzten emakumei urrutirago iristen laguntzeko. Euskararen alde egin zituzten ekimenen artean esanguratsua da, esate baterako, alfabetatze eta euskalduntzea.
- Idazletzan ere aritu ziren. Teneren garai honetako idazlan argitaratuen artean gai nagusietako bat da emakume idazleen gaia. Aipagarria da nolako talde kontzientzia zuten euskaraz idazten zuten emakume hauek. Emakume idazleek ekitaldiak egiten zituzten elkarrekin, Itziarrera egin zuten “bidezkundea” adibidez. Peregrinazio hori sustatzen aritu zen Tene hedabideetatik.

Ikusita EABk osatu zuen gorputz soziala feminismoaren aldeko beste iniziativa batzuk hurbildu egin ziren EABra bat egiteko beren aldarrian. Larrañagak horrela kontatzen du:

Era tal el brillo que adquiriría “Emakume” con su actuación pública, que unas cuantas señoras, guiadas, tal vez, de buena intención, tomaban la iniciativa de formar el “frente único femenino”, con ánimo de defender sus postulados feministas, invitando con el mayor interés a “Emakume”. Esta acordó no tomar parte en él y continuar a las órdenes del PNV, comunicando este criterio a las organizaciones de “Emakumes” de los pueblos”. (Larrañaga, 1978-I, 86).

Ondorioztatu behar dugu JEL ortodoxia zela lehenetsun emakume hauentzat, ez hainbeste emakumeen eskubideen aldarrikapena.

Zentzu berean, Mateo Mujika apaizari telegrama bidali zioten Gasteizko EABkoek Errepublikak desterrura bidali zuelako. Ondoren ikusiko dugunez Mateo Mujika ez zen abertzalea baina bai euskaltzale tradizionalista. Saretze bitxia osatzen zuten denen artean. Horrela zioten gasteiztarrek:

Gasteizko EAB ta Mendigoxalien ikurriñak onetzias bildu gerade ainbat Euzkadi gustiko ordeskari. Gustien ixenian agurrik maitagarriena. Gure onduan ikusi nai zaitugu ainbat lazterren. Ori eskatutzen diogu Goiko Jaunari: ez gera geldituko arantza mingarri au biotzetarik atara artek. Euzko abertzaliak belauniko ezkatzen dizugu, Aita on ona, zure Onespena (Larrañaga, 1978-I, 109).

Ikus litekeen moduan batzokiek, gazteek, emakumeek, sindikalistek, hedabi-deek gizarte-ehun antolatua osatzen zuten. Hitzaldiak, ikasketa-taldeak, an-tzerkia, euskarazko eskolak, abesbatzak, txistulari eta dantzariak, kirolariak, irteerak, ekitaldi erlijiosoak...performatibitatez bete zituzten kale eta plazak. Abertzaletasuna zen indar grabitazionala, ez soilik Alderdi politikoa.

Zentzu horretan esanguratsua da Gasteizko euskarazko katedraz arduratu zen Manuel Lekuonak Martin Ugalde kazetariari azaltzen zion kexa:

Había la manía de confundir Cultura Vasca con Política Vasca. Y no es que la política vasca “no tenga que ver” con el Partido Nacionalista Vasco. La cultura es la base doctrinal del Partido “su arranque”. Arranque, pero no culminación. Puede uno ser perfectamente profesional de la cultura vasca, sin profesar la totalidad del contenido político del Partido. Pero esta observación elemental no cabía dentro de ciertas cabezas (Ugalde et al., 1988-31).

■ **Elizgizonen pisua: Mateo Mujika, Polikarpo Larrañaga (Don Poli), Aita Onandia (Egizale), Jose Ariztimuño (Aitzol), Nemesio Etxaniz, Joseba Mirena Markiegi**

JEL ideologiak kristautasunaren balio moralei eta batez ere eliza katolikoari aitortzen zien XX. mendean euskal gizartean kokatzeko izaera identitate emalea. Abertzaleek aberriaren legitimitatea katolikotasunarekin lotzen zuten. Gizarte konfesional batean, elizaren egiturak botere politikoan eragiten zutelarik, katolikotasunak legitimitatea ematen zion abertzaletasunari eta ezkerreko ideologiengandik bereizten zituen.

Katoliko askok (tartean euskaldun ere bazirenak) ez zuten bat egiten abertzaletasunarekin. Horietako bat da gorago aipatu dugun Mateo Mujika apezpikua. Abertzaletasunarekin bat egiten ez zuen arren euskara sustatu zuen praktika ezberdinen bitartez: Iruñeko apezpiku zenean bere gutun pastoralak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzea agindu zuen eta hori laudatua izan zen prentsa abertzalearen aldetik. 1928an Gasteizko apezpiku izendatu zuten euskalduna eta euskaltzalea zen aldetik. Ez dugu ahaztu behar zer garrantzia zeu-

kan Gasteizko elizak garai horretan. 1929an euskaraz hitz egiten zen herrietan katixima euskaraz irakastea gomendatu zien apaizei. Mujikak ordezkatzeko du tradizionismoan egon den euskaltzaletasuna. Ahaztu ezin dena da 1931n II. Errepublikarekin batera erbesteratua izan zela (De Pablo, 1999-193). Izan ere, ezker ideologiarentzat Mujikaren profil kontserbadore eta tradizionalista da, gizarte konfesionalaren botere-egituren ordezkaria, atzean utzi behar dena.

Ezker moldeekin bat egingo dute ondorengo apaiz abertzaleek, ordea. Alberto Onaindia, Polikardo Larrañaga eta Aitzolek ordezkatzeko dute abertzale-tasunak kezka sozialekin bat egiten duen apaizgoaren profila. Hirurak dira SOVen jirakoak eta hirurak, gehiegi esatea ez bada, Tene Mujikaren lagunak. Antonio Elorza historialariak deitu izan die “sacerdotes propagandistas sociales” (1978-258, 322). Haren esanetan Alberto Onaindia, Egizalek, *“alienta la página social de Euzkadi (...) sobre la problemática social de Vizcaya”*, Don Poli, *“en el secretariado de Acción Sindical del obispado de Vitoria es un hombre que de hecho ejerce funciones como consiliario de SOV”* eta Aitzol *“desde El Día pulsa la situación social de Gipuzkoa”*.

Apaiz talde horrek kontrapisua egiten die apaiz euskaldun katoliko eskubitarrei. Kezkatuta ageri dira gizarte aldaketan aurrean ezker espagnolistaren eraginarekin:

Centenares de jóvenes aldeanos que descienden del caserío a la ciudad, transformados en obreros industriales y ocupados en el ramo de la construcción y hasta nuestros arrantzales del puerto donostiarra se suman a las organizaciones obreras socialistas, en ellos el sano obrero vasco sufre una doble transformación como obrero y como vasco; como obrero, la falsa misión humanitaria del proletariado que se pone ante los ojos pretende suplantar la fé cristiana (...), y como vasco, el ensueño de que el internacionalismo fraternal de nacionalidad le anula el sentimiento vasquista sufriendo una transformación en la concepción y psicología de su propio problema racial vasco (...) Con el tiempo llegan a ser hostiles al ideal de su propio país (Día, 1931/VII/11 eta Día 1931/VII/19).

Izan ere, egiturazko aldaketa handiak gertatzen ari ziren. Ordura arte boterearen hegemonia zuten taldeek, elizak besteak beste, sufragio unibertsalaren ondorioz boterea ezartzeko modua aldatu behar zuten. 1876an lortu zuten boto-eskubidea gizonek, 1931n emakumeek. Argigarria da jakitea 1929an

SOven lehen kongresua egin zenean Eibarren 45 talde-ordezkaritza bildu zirela. 1933an 40.000 ziren afiliatutako langileak: 20.000 Bizkaian, 15.000 Gipuzkoan, 3.000 Araban eta 1.200 Nafarroan. (De Pablo, 1999-292).

Aita Onandiak eta Aitzolek ezkerreko sindikalista multzo baten aurrean hitzaldia eman zuten abertzaletasuna eta aldarrikapen sozialak bat etor zitezkeela erakutsi nahirik bertan bilduta zeuden ezkertiar sindikalistei.

Onaindia elizgizon boteretsua zen, baita abertzaletasunarekin erabat lerratua ere. Altxamendu militarra gertatu zenean bitartekari lanak eginez txosten bat bidali zuen Vatikanora. Bertan justifikatzen zuen EAJk ezkerrekin egitea aliantza eta ez katoliko kolpistekin. Onaindia lerratua zegoen abertzaletasunarekin eta negoziatzaile ibili zen Santoñan. Liburu bat ere aipatzeko modukoa da, *Hombres de paz en la guerra* izenekoa bertan kontatu zituen bizipen hauek guztiak.

Aita Onaindiak estimua adierazi izan zion Teneri sarri. Emakumeekin harreman estua izan zuen. Esate baterako, parte hartu zuen Ropero Vascoren 25. Urteurrenean, meza eman baitzuen 1933ko ekitaldian (Larrañaga, I, 27). Alabaina ziurrenik Tenek harreman estuagoa izango zukeen Aitzol, Nemesio Etxaniz eta Joseba Markiegirekin. Hiru horiek elkarrekin izan ziren 1918an Oñatiko Eusko Ikaskuntzaren kongresuan. Etxaniz Deban izan zen gerraostean; Aitzol eta Markiegi debarrak fusilatuak izan ziren aurretik.



Markiegi sendia. Polentzi Markiegi, Debako alkatea, eta Joseba Markiegi, Arrasateko apaiza, fusilatu egin zituzten. [Iturria: Debako Udala (ed.), 1977. Deva, ayer 260 fotografías. Debako Udala.]

Baina guztietan esanguratsuen Don Poli apaiz soraluzetarra da. EABren *biografoa* izan zen eta inkondizionala EABren aldekotasan apologia egiten. Aipu mordoska ikusi ditugu testu honetan zehar. Tenek kontatzen du, behin Gipuzkoako EABren lehendakari zela, nola hartzen zuen trena (*bultzia* deituko dio berak) Deban Donostian egiten zuten hileroko batzarrera joateko. Trenean biltzen zitzaizkion Garate emakume eibartar batzordekidea eta Don Poli bera. Eszena bat kontatzen digu: Don Polik bat batean hizketaldia utzi eta erreza-tzen hasi da, bere baitara bilduta mundutik aparte legez, eta horrek zer pentsatua eman dio Teneri:

“Eta nere baitan zerbaitek erazo nau: “Beste orrenbeste egiten bai dakin?” “Bai dakin egon bitartean, eure gogoaz beko arazoetatik orrela askatu, ta goikoaz lotzen? (...) Bultzia ia Donostia’n da; laurok elkar-izketan, laurok alai. Garate anderetxuak bere lagun eibartar Emakumaentzat berri pozkarri bat gaur; gizona ezko gazte abertzaleak, beste orrenbeste ango langille beartsuentzat; Don Poli’k, Donostiara daraman egitekoaz oldozten du orain eta liburua gorde du; nik... zer-tara nuanik gabe, gogoan itsatsi zaidan “zerbait”etzaz oldozten det! Izan ere gure Jaungoiko maiteak, usterik gutxien degun tokian, usterik gutxien degun orduan Bere nor dan eta nun ta nola arkituko degun adierazten digu!”⁶⁸

Harreman handia ikusten zaio Don Polirekin, gertutasuna. Eredu da Tene-rentzat bere espiritualtasuna, baita langileriaren aldeko kontzientzia ere. Klase kontzientzia nabarmen handituko da 30. hamarkadako Teneren idazkietan ikusiko dugunez. Sinkretismo ariketa interesgarriak gertatzen ari ziren.

■ Euskaltzaleak, Pizkundea eta aitortzak

Iñaki Larrañaga soziolinguistak ematen digu Pizkundeko ordezkari nagusien argitalpenen datu kuantitatiboa (Ugalde *et al.*, 1988-286) Lizardik 1927tik 1933ra 109 artikulua argitaratu zituen prentsan, horietatik 64 euskaraz, hots, %58. Aitzolek 1930etik 1936ra 443 argitaratu zituen, horietatik 16 soilik euskaraz, %3,6. Tene Mujikak 500dik gora argitaratu zituen, ia denak euskaraz.

⁶⁸ *El Día* «Donostiarra bidean», 1935-12-20: 7.

Halaber, 1933 eta 1936 aldikoak izan ziren EABko kideek argitaratutako 120 idazlan baino gehiago, gehien gehienak euskaraz idatzitakoak eta Euzkadin argitaratutakoak (1988-1996). Horien izenak, ordea, nekez ageri dira Pizkundeaz arduratu diren lanetan. Datu horrek argi erakusten du, gure iritziz, emakumeek egindako lanaren inbisibilizazioa.

Zaitegik berak ere euskalarien genealogia bat egin zuen eta belaunaldien enumerazioa egitean denak gizonetzkoak aipatzen ditu (Ugalde *et al.*, 1988-68):

Yo pondría en la generación anterior a Aitzol: Azkue, Txomin Agirre, Olabide, López-Mendizabal, Eguskiza, Arrese'tar Emeteri, Altube, Zamarripa, Elzo, Sargartzazu, Arruti, Elizondo, Alzaga, Jeme, Garitaonandia, Intzagarai, Larreko, Manezaundi y Garbizu. Eran seguidores de Sabino Arana-Goiri en la modalidad euskérica: Elizalde, Kirikiño, Arriandiaga, Zabala-Arana, Urrutia, Jemein, Altuna, Aizkibel'dar Bingen, los del Euskaltzale-Bazkuna de Bilbao. (...) Los miembros de la generación de Aitzol participaron en los concursos literarios que éste organizó: "Lauaxeta", "Lizardi", "Loramendi", Patxi Etxeberria, Zaitegi, Jauregi, Otamendi. Junto con ellos: Orixe, hermanos Lekuona, Tapia-Perurena, Iakakortaxarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Barrenso, Arrizubieta, y otros, fueron celebrados. También serían de la misma generación: Iraizoz, Irazusta, Eizagirre, Irigoien'dar Txomin, Oiartzabal, hermanos Markiegi, los hermanos Larrakotxea, Otxolua, Ibagutxi, Manterola, Arruza, Oñatibia, Uzturre, Guridir'tar L., Etxaniz'tar Nemesi, Monzón, Goenaga, Ibiñagabeitia, Muxika [Gregorio], Jauregi'tar Gabriel, Xalokin, Atutxa. También Zubimendi.

1934. urtean Tene Mujikak "II. Antzerki Eguna" lehiaketan lehen saria irabazi zuen: Gogo Oñazeak komediarekin. Umeentzako komedietan ere lehen saria irabazi zuen Gabon lanarekin. Lan hauek 1935ean argitaratu ziren. 1914an argitaratu zuen bere lehen lana eta geroztik 1916 eta 1936 artean 500dik gora artikulua argitaratu arren bere izena ez da ageri, ordea, lagun zituen gizonen izenen ondoan.

Tenerekin batera beste izen hauek ere ager zitezkeen zerrenda horretan: Rosa Bustintza-Mañariko, Elvira Zipitria-Ira, Julene Azpeitia-Arritokieta, Carmen Errazti, Ivonne d'Arispe, Maria Begoña Beristain-Lorea, Maria Joaristi-Mi-

rentxu, Miren Lekube, Benita Oyarzabal-Pantxike, Jule Gabilondo-Mate, Maritxu Barriola, Sorne Untzueta eta ezkutatuta sinaten zuten Ete (markinarra), Lilitxo (leitzarra), Lorentxu (mutrikuarra), Iñazi (bergararra), Arantza (tolosarra), Yolanda (tolosarra), Itxiartxo, Edurne, Olatx, Jexuxa, Beatrix, Ekarnetxu, Ikerne, Onintze, ...1931 eta 1933 artean 50 bat emakume idazle lokalizatu ditu Ugaldek (1993-363). Guztiak daude ikerketa zain.

Antzerti aldizkarian argitaratu zituen bi lanok lotura dute bigarren errepublika garaian gertatu zen euskal antzerkigintzaren susperraldiarekin. 1928an jaiotako Euskaltzaleak elkarteak antolatzen zituen Olerki Egun arrakastatsuen pareko jarduera abiatu zuen antzerkigintzan. 1934, 35 eta 36an egin ziren Eusko Antzerti egunak (Urkizu, 2007).

Horretarako, eta 1932an Antonio Labaien zuzendaritzapean sortutako Antzerti aldizkaria zela medio, antzezlan lehiaketa bat antolatu zen. Horrez gain, udaberrian antzerki taldeen lehiaketa antolatu zen eta, besteak beste, Debak bere ordezkari izan zuen bertan. 1935ean Tene Mujikari eman zitzaion sarrietako bat *Gabon* lanarengatik. Euskal kulturako izen handiak ageri dira susperraldi horretako protagonista (Altzaga, Lekuona, Labaien, Aitzol, Monzón). Mujika eta Elizegi emakumeen artean. Urkizuk dio 1876 eta 1936 arteko antzerkigintzaren goieneko unea hogeita hamarreko hamarkadan bizi izan zela. Baina hala eta guztiz ere emakume izenak ez dira iragazi.

5.1. 1930-1936 LANEN AZTERKETA

ARTIKULUAK

Antzerti. Euskal antzertiaren illerokoa

«Gogo-Oñazeak. Iru ekitaldidun antzerkia», 34-35-36. zk., 1934-10/12: 1-72.

«Gabon. Umientzat antzerkitxoa», 46. zk., 1935-10: 1-13.

Argia

«Andere ingoskiak», 714. zk., 1934-12-16: 1.

«Andere ingoskikak», 716. zk., 1934-12-30: 9.

«Andere ingoskiak. Nolakoak izan litezken», 718. zk., 1935-01-13: 1.

«Andere ingoskiak. Nolakoak izan ditezken», 719. zk., 1935-01-20: 5.

- «Andere ingoskiak (amaitzeko)», 720. zk., 1935-01-27: 2.
 «Anderekikoak. Ekin batez oldozten», 721. zk., 1935-02-03: 2.
 «Anderekikoak. Asitzea bear-bearreko», 724. zk., 1935-02-24: 1.
 «Anderikoak. Gure arazoaz (Ira'ri)», 727. zk., 1935-03-17: 2.
 «Anderekikoak», 730. zk., 1935-04-07: 1.
 «Egunoroko ogia», 733. zk., 1935-04-28: 2.
 «E.A.B. dala-ta...», 735. zk., 1935-05-12: 1-2.

Argia'ren egutegia

- «Gure al aundia», 1931: 65-66.
 «Emakume-Bazkunak ¿zertako?», 1932: 107-108.
 «Arno'ko kurutzza», 1935: 154-155.
 «1936-2036», 1936: 61.

El Día

- «Euskal itxasaldeko zaindaria», 1930-06-15: 12.
 «Irujarrena ¿nor?», 1930-08-10: 12.
 «Iritzi berri gaiztoak», 1930-09-16: 12.
 «Berri on baten albistari», 1931-03-25: 8.
 «Itziar'ko bidezkundeatzaz», 1931-05-03: 10.
 «¿Bai ala ez? Neska-idazle batzarra», 1931-05-06: 8.
 «Bidezkunde ondoren», 1931-05-16: 8.
 «Usteaz bestera», 1931-05-26: 10.
 «Azkatasun zaleak», 1931-06-24: 14.
 «Tori nere iritzia», 1933-07-29: 10.
 «Poxpoliñak atzerritarren begietan», 1933-09-03: 6.
 «Prakak... prakadunak... praka gabeak», 1933-09-29: 10.
 «Las cejas de Marlene Dietrich y el euskera», 1935-02-05: 6.
 ««Mujer que sabe latín...»», 1935-02-17: 10.
 «Carmencita es ingeniero», 1935-03-03: 10.
 «La «Eva» de «Adán»», 1935-03-17: 12.
 «Jaungoikoa beti ematen», 1935-03-31: 6.
 «Bear-bearreko», 1935-05-18: 6.
 «¡Ernai, emakumak!», 1935-07-04: 7.
 «Aurkezpen eraz», 1935-09-12: 7.
 «Munita'tar Iñake», 1935-09-27: 7.
 «Seasken olertia», 1935-11-23: 7.
 «Donostiarra bidean», 1935-12-20: 7.
 «Iru erreginak», 1936-01-08: 6.
 «Lan eta lan beti», 1936-01-08: 6.

Euzkadi

- «Anderakikoak. Gizasemeen lagunak», 5.757. zk., 1931-05-27: 5.
 «Euzko-langillemea», 6.048. zk., 1932-05-14: 1.
 ««Emakumeak» eta «Margaritak» edo euli gogaikarriak», 6.054. zk., 1932-05-21: 1.
 «Gaiztakeri eskutuak», 6.060. zk., 1932-05-28: 5.
 «Maitasun-ikastola», 6.066. zk., 1932-06-04: 5.
 «Emakume-idazkijak. Eskeñirik onena», 6.075. zk., 1932-06-15: 5.
 ««Gazigozoak»», 6.365. zk., 1933-05-03: 8.
 «Prakak... prakadunak... prakagabeak», 6.494. zk., 1933-09-30: 8.
 «Emakumak. Itziar'ko gure eguna», 7.118. zk., 1935-10-18: 10.

Euzkerea

«Ikurrin gordea», 30. zk., 1931-06-15: 642-643.

Jaungoiko-zale. Euzkeldunei-euskeraz

«Ereserkia», 400. zk., 1931: 197.

ITZULPENAK*El Día*

«Deabrua ta bere adizkidea», 1935-12-20: 7.

Hamarkada honetan kontsolidatu egiten da Tene Mujikak agentzia bat garatzeko esku artean zebilkien proiektua. Esan izan da gorputz publikoak etengabeko negoziazio semiotiko batean gauzatzen direla eta horien emaitza direla. Hamarkadaz hamarkada kanpo faktoreak aldatu ahala Teneren jarduna modulatu joan zen. Aurreko hamarkadetan entsegatutako praktika kulturalak –literaturaren idazketa, prentsan eragile rolak, antzerkigintza-esperientziek, hitzaldiek, batzar politikoek– identitate bat eraiki, gorpuztu, legitimatu zuten.

Esan ohi da, bidenabar, identitate modernoek hiru zutabe dituztela: adierazkortasuna bilatzen duen subjektua, sentsibilitate erlijioso ezberdina duena eta nazio-atxikimendu sentimendua. Erantsi ahal diogu espazio publikoaren birnegoziaketa ere, genero terminotan ulertuta azken hau.

Teneren ahotsa ahots legitimatua da hamarkada honetan. EABren proiektua kontsolidatzeko bidean ikusten du, Federazioko lehendakaritzak aitzindari moduan aitortzen du eta emakume idazleen taldetasuna eraikitzeko urratsak gertatzen ari dira. Txorutzen ikusten dugu Tene:

“Amaika aldiz esan izan degu erri txikietakoak aundikoen laguntasun bearrean generala zerbait egin al izateko; orra laguntasun ori oparo nola datorrigun; orra zerbait egin al izateko era Donosti’ko Emakumak nun eskeintzen diguten; ez degu ba epelkeriz utzi bear, bestela gure jarduna jardun utza litzake ta gogo ona egitez, egiñenez erakusten da. Maitasuna eginkor. Abertzaletasuna orrela baita. ¡Zumarraga’ra Gipuzkoa’ ko Emakumak !

Onuzkero zeron erri bakoitzean autu dezute zuen ordezkari izango dana an egin bear dan batzarrean. Zuen izenean itz-egingo duena, araudi orokor ori astertu ondoren. Baita beste guziok ere gertu zaudete ara juateko egun eder aundi bat guziok elkarekin igaro dezagun. Egun onek, eta Zumaragan artuko diran erabakiak Euzkadi-aldez garrantzi aundia izango duteta, ez gelditu etxean. Ez da ara damagun egitaraua inork aitzakirik atera lezaiokena. Guzitarikoen atsegin izateko laingoa baita ta... ¡guazen Zumarragara!”⁶⁹

Bere eboluzioan azpimarratzeko modukoa da testu erlijiosoak, ugariak izan direnak batez ere lehen hamarkadan, asko urritzen direla. Amabirjinari ereserki bat edo beste eskaintzen dio baina argitalpenak lotuago doaz izaera politikoari, identitate baten eraikuntzari. Pieza asko eskaintzen dizkio Federazioari eta baita neska-idazle Batzarrari ere. Tenek argi dauka faktore kulturelek zein garrantzia duten emakume abertzaleen atxikipen subjektiboa lortzeko. Soziazazio espazio horiek ezinbestekotzat jotzen ditu. Emakume apalei zuzentzen zaie beraiek egin dezaketena esanez. Eta zerrendatzen ditu eginbeharrekoak bilera bateko gai-ordena bailitza: *“Utzi alde batera omenaldiak”* esango die, *“naikoa da”*; Goazen emakume abertzale emakumiak Zumarragara baina erabakiak hartzera Jainkoaren eta Lege zaharren alde:

*“1-Jaungoikoarengana zuzentzea. Zer egiten du EABk ortarako? Zer egin dezake?
2-Jaungoikozale zintzoa ez dan emakumea, aberiaren izurri. Gure bear kun bereziak:
A) neskatxetan: jolas eta atseginketa garbiak; baita oitura onak. ¿zer dagokigu egitea gure artean au lortzeko?
G) andreetan: Jaungoikoaren lege aurka, ezkonduen bear kun bereziak alde batera utziaz, gure artean sartuaz dijoazen zenbait gaiztakeritik abefia gaizkatzeko; ¿zer da egitea dagokina?*

⁶⁹ *El Día* «¡Ernai, emakumak!», 1935-07-04: 7.

K) umetxoak jaungoikoa eta aberiarentzat asi ditzaten, ta abei onatan laguntzeko, ¿zer da egin bear deguna?

Y) bakoitzaren kistar zintzoa izatea

3-euzkotar mixiolariei laguntasuna

4-Aldizkari euskarazkoei laguntasuna. Euskotar emakume artean oparo bizi dira erderazko aldizkari asko ta asko. ¿Zer egiten degu Jesusen biotzaren deia, Zeruko argia, Argia, ta abar zabaltzeko? Zer egin dezakegu?

5-Gure espetxeratuei laguntasuna eraltzea nola?

6-euzko langileai

7-emakume langileatzaz ¿zer dagokigu?

8-neskamien bazkuna

9-emakumien jakintza berezien ikastaroak

10-aberi arazoetan edo beronen aldezko ekiñean, zer dagokigu emakumiai?

11-eri txikietako itzaldiak

12-urteroko gure jai eta batzaldiak

13-eusko ikastolak

14-Monjen ikastetxe eta ikastoletan ¿zer eskatu bear degu? ¿zer dira abek gure aberiarentzat?

15-euskara aldezko ekin berezian

16-euskera aldezko bazkunei laguntasuna”.

Eta bukatzen du horrela:

“¿Zertarako esan abertzale gerala JEL alde ez alegintzekotan? Emakume gaztea: ¿zertarako zure gaztetasuna, aberi aldez kementsu ez ekitekotan? Emakume zarkote edo zara: ¿zertarako urteak eman dizuten jakintza, berau aberi alde ez opaltzekotan? Ekin beaŕean gaude Donostiar emakumeak egokimen au eskeintzen datozkigu. Guazen beroiekin!”⁷⁰

Idazleen bazkunaz zera, *emen naiz langile taldera nire idazkortz ugerra leiken bestean alegintzera*. Apaltasuna erakutsi nahiko die Batzarra antolatzen diharduten andra gazteagoei baina jakitun da bere autoritateaz.

⁷⁰ *El Día* «Bear-bearreko», 1935-05-18: 6.

Autoritatea ikus liteke alderdi ezberdinetan. Horietako bat da erlijiotasunari ematen dion zentralitatea. Esan nahi dugu aurreko hamarkadetan autoritate ahotsa eraikitzeke funtsezko elementua den erlijiotasuna ñabarduraz betetzen duela hamarkada honetan. Badago pasarte gure ustez interesgarri bat diskurtsoaren ikuspegitik. Hain zuzen ere, Iñake Munita aukeratua izan da Tenerekin batera Gipuzkoako EABko Federazioko zuzendaritza-batzordea osatzeko. Munita federazioko diruzaina da. Halako batean moja joatea erabakitzen du eta, beraz, Tenek aurretik aldarrikatu duen aukera egitea; alegia, Jainkoa Aberrriaren aurretik aukeratzea biak jokoan badaude. Bada, Teneri dilema bat sortuko zaio Munitaren erabakiarekin:

“Gu mai inguruan exerita, zer esan ez dakigula. Obeto esateko, aserre xamar, au egin digulako. Aitzen da baña gure aserrea; lagun on eta atsegiña gendun; argi-argia; ikasia beregana zaletu giñan guziok batera. Eta jakiña, onelako bat galduaren miña. Baña kistar bezela oldozten ere bai dakigu; gure Jaungoikoari ezetz esan bear etzaiola ere bai”⁷¹

Tene buru-belarri dabil mezu politikoa. Primoren diktaduraren osteko garai sozialetan indartu egiten du mezu politikoa bere idatzietan. Politikari baten ahots indartsua da berea. Eta ahots indartsu hori ez dugu soilik abertzaletasun terminotan ulertu behar. Emakume taldeek ematen duten legitimitatetik eta bere aitzindaritzaz jakitun dela gizonei zuzendutako mezu kritikoa oso esplizituak dira testuetan.

Garai honetako atributu bezala azpimarratu egin behar dugu irabazitako lekutik hitz egiten duela, irabazitako espazio publikoek ematen duten boteretik. Lehen bi hamarkadetan elizaren babesaren behar dute emakumeek ordura arte konkistatu gabeko ekintzak egin eta espazioetan sartu ahal izateko. Alvarezek erlijioaren femininazioaz hitz egin izan du bere tesian. Baina egindako bidean metatu egin dute emakumeek kapital kultural bat eta zentzu horretan horrelako pasarteak uzten dizkigu:

“Zuk beintzat emakume ARGIAren irakurle euskeltzalea, zure izkuntza maite dezuta, or nunbait zure Abeñia ere. Zerana zerala zaar, gazte, eskondu, eskongee, abe-

⁷¹ *El Día* «Munita'tar Iñake», 1935-09-27: 7.

rats edo txiro ez ukatu zure alegiña galzorian arkitzen dan zure aberi maiteari, ta onetarako ¿zer oberik zure beste aizpaz elkartzea baño? Oía ba zuretzat Emakume Abertzale Batza."⁷²

Bestetik, enuntziatio-leku batzuk errekurrenteak dira, ez ditu alde batera uzten. Horietako batzuk dira itxurakeria gatazka-leku bihurtzea, neska gazteak arrotzen zale ikustea e.a Beretzako funtsezko diren gaiak talde sozialaren definiziorako.

Llonak azaltzen du aparientzia klase ertaina definitzen duen ezaugarri behinena dela, "pretensioa" delarik palanka nagusietako bat, alegia goi-klasearen emulazioa. Ez dugu ahaztu behar garai honetan sortzen direla hiritartzearekin batera lan egiteko eskubidearen lorpena emakumeentzat eta horrekin batera identitate femenino gero eta emantzipatuagoaren irudikaria. Tene, arrotzeko arriskua ikusten bazuen ere, humus horren eraikitzaile zen, independentzia ekonomikoa zuelarik, ama ez zelarik, bizitza kultural aberatsa garatzeko aukera zuelarik eta legitimatutako leku soziala irabazi zuelarik. Baina "aparientziaren" nolakotasuna ez zen arrotz-haizeek ekarritakoa, baizik eta moderazioak agintzen zuena.

Aparteko aipamena merezi du euskalzaletasunak ere: *Nire Deba maite ontan ere abertzaleak errian buru, baina ez ordea euskera*. Emakumeak kritikatzan jarraituko du baina baita gizonak ere gero eta argiago. Hizkuntz trataera, gainera, ironikoki erabiltzen hasiko da bere idazkietan.

Gure ustez testurik ederrenak dira El Día egunkariko azkenetakoak. Haue-tan izenburuak gaztelaniaz jartzen ditu eta gero testua osorik euskaraz eman: «Carmencita es ingeniero», «Las cejas de Marlene Dietrich y el euskera»... Amua jartzen dio despistatutako irakurleari eta ironikoki errieta ematen gero. Umorerik ez zaio falta gure Teneri. Horrela idazten du herrikideen inguruan:

*"Abek zerbait ere "eleganteak" dira geienak eta beren artean esango zuten: "¿A Itziar...? ¡Vaya un plan!" Eta erdiko kalean gora-ta bera pasiatzeko asmotan bertan gelditu; futbola ta musika ere bai zeudela-ta."*⁷³

⁷² *Argia*'ren egutegia «Emakume-Bazkunak ¿zertako?», 1932: 107-108.

⁷³ *Euzkadi* «Emakumak. Itziar'ko gure eguna», 7.118. zk., 1935-10-18: 10.

Aipatzen ari garen testu hauetan figura erretoriko eta estrategia diskurtsibo ederrak erabiliz goi-mailara eramaten du, gure iritziz, bere ahots literarioa. Konparazioak, analogiak, ironia, erritmoa... testu bikainak dira. Igartzen da garaian Lizardirena bezalako luma zorrotzen jakitun eta ziur aski miresle zela debarra.

Bukatzeko aipatu nahiko genuke klase kontzientzia argia agertzen duela garai honetan. Antzerkietan gai zentrala da, Gogo-Oñazeak lanean adibidez. Horrez gain, nabarmena da bere pentsamendua zein den Bitorñe Larrinaga emakume ahaltsua loriatzeko idazten duen piezan. Emakume euzkotarren eredu den Larrinagatar Bitorñe hizpide hartzen du Tenek. Emakume aberatsen eskuzabaltasuna gehiago ikusten bada ere, txiroena aldarrikatzen du Tenek. Klasea lantzen du.

“ba gaur egunean txiro ta beartsu artean noiz-nai arkitzen ditugu, goi-maitasunak beartutako esku-zabaltasun eta emaitza arigariak, nai-z ta ezagun ezak. Aberatzen emakumak edo emanak, zenbatez aundiak oi diraleko geyago ikusten dira, ta ariga ri zaizkigu; txiroenak baña, txito ta gutxiak diralako ez dira ezagun; baña besteak ainbesteko opa-izatea berekin dute ta ain maitagari dira. Ala ere Larinaga'tar andre onaren goimaitasun eta opa aundia, aberatz artean on bakana da, ta goralben guziak berontzat gutxi.”⁷⁴

Ez dugu ahaztu behar Tenek behin eta berriz ekartzen duela hizpidera bere herrian bertan udatiarren etorrerarekin urtero bizi izaten zuten eraldaketa. Udatiarren arriskuak ez ditu ez ahazteko. Herriko festetan gozatu dute udatiarrek euskal dantzekin baina ez dute ezer jakin nahi folkloreak haratago. Haserre entzun behar izan zuen:

*¡Qué lastima que sean ustedes separatistas! ¡Qué pena que se quieran separar de nosotros!*⁷⁵

Hari horretatik tiraka aipatuko dugu, azkenik, nola tematzen den Tene *Andere Ingoskia* edo aldizkarietako emakumeen atala (página femenina) defendatzen

⁷⁴ *Euzkadi* «Emakume-idazkijak. Eskeñirik onena», 6.075. zk., 1932-06-15: 5.

⁷⁵ *El Día* «Poxpoliñak atzerritarren begietan», 1933-09-03: 6.

eta dauden ereduetatik berena propioa sortzeko ahaleaginean. Gauza batzuk ez dira hamarkada honetan aldatuko, lehen esan dugun bezala.

Horretan zebilela dena aldatu zen. *Pozean giñala, anai arteko gerra* esango du berak...

6. GERRA ETA ONDORENA



■ Aztu ezindako oroigarriak

Gerra garaiko Tenek, 48 urteko emakumea artean, ihes egin behar izan zuen giza-eskubideen zapalketaren eta errepresioaren ondorioz. Arizabaletak (2019/II/18) kontatu zigun gerra hasi zenean Tenek erbestera joateko hautua egin zuela; Eusko Jaurlaritzak antolatutako hurrez beteriko itsasontzi batean joan zela, lehenik Arroxelara eta, ondoren, Ziburura. Bere anaiarekin batera bizi izan zen bertan gerra amaitu zen arte eta bera bezala errefuxiatuta zeudenen alde lan egiten jardun omen zuen.

Teneren iloba batek, Arantza Larrañaga Mujikak, Joxe Mari Pagoaga Bustorekin ezkondua berau, bi alaba izan zituen: Arantza eta Mari Luz Pagoaga. Hauek izan dira gure gidariak gerra sasoiko pasarteak kontatzerakoan. Ikustagun aurretik nolako familian sortu zen Tene bere iloben hitzak hona ekarrita:

Su padre Juan José, se casó dos veces, con la primera mujer tuvo un hijo, pero se murieron la mujer y el hijo. Se caso con la hermana de su mujer, es decir con su cuñada

Josefa, y tuvo otros 8 chicos y tres chicas. Era pastelero y estuvo aprendiendo en Gasteiz donde Sosoaga. Como en casa tenían tienda de ultramarinos, hacia turrones y demás dulces.

Tene solamente tenía dos hermanas y el resto eran varones. De esas dos hermanas, una estaba soltera, Encarna Mujika y la otra, Eugenia Mujika, estaba casada con un marino mercante Prudencio Larrañaga y tenían dos hijas, Arantza y Nerea, nosotras somos hijas de Arantza.

Nuestra madre tenía una relación muy entrañable con su izeko, así como nuestra abuela y nuestra tía Nerea, pues al ser su padre, Prudencio, marino pasaba muchos meses fuera de casa y como ellas vivían frente a las tías, prácticamente vivían todos juntos gran parte del año hasta que llegaba su padre y pasaban a su casa.

La afición de izeko Robus a la escritura y lectura viene desde que era pequeña y se debía a que, según ella misma nos contaba, cuando era muy pequeña tenía unas llagas en los ojos que le hacían protegerse de la luz pues con la claridad sufría muchísimo. Sus amigas estaban jugando todo el día en la calle, pero ella no podía por la luz y el cura de Deba le llevaba libros para que se distrajera en casa y de ahí le entró la afición a la literatura.

Familia egitura horrek eutsi zion Teneri gerra garaian. Ilobek orain arte eza-gutzen ez genituen datuak eman dizkigute:

Salió de Deba en el año 1937 junto a su hermana Eugenia y las dos hijas (nuestra abuela, madre y tía). La hermana soltera, Encarna, se quedó al frente del negocio familiar que era la tienda de ultramarinos Mujika y otro hermano, José, casado y con un hijo, José Antonio, y que también vivían con ellas, estuvo como gudari en un batallón que no nos acordamos del nombre.

Tene y su hermana con las dos niñas, se fueron desplazando a medida que los nacionales iban invadiendo pueblos. Primero estuvieron viviendo en Ispaster, de allí a Lekeitio, pasaron por Gernika en el bombardeo, pero ellas fueron a Plentzia y de allí a Bilbo. Siempre se alojaban en casas de conocidos o amigos. De Bilbo, por mediación del lendakari Leizaola, consiguieron embarcar en el barco La Habana y, escoltado por buques ingleses con destino a Gran Bretaña, pero ellas desembarcaron en La Rochelle.

Dirudienez, Tenek Maritxu Loidi Zulaikarengana jo zuen laguntza bila. Maritxu Loidi (Maria del Coro) Jesus Mari Leizaolaren emaztea izan zen.

Senar-emazteak donostiarrak izan arren Bilbon zuten bizilekua sasoi hartan, Gran Vía kalean, Agirrerren gobernuko justizia sailburua baitzen senarra (Zabaleta, 2014). Loidi, bost seme-alaben ama, “recia mujer guipuzcoana” omen zen⁷⁶.

1936ko irailaren hasieran Gipuzkoa matxinoen esku erortzen joan zen. Pertsonen mugimenduekin batera egiturak ere leku-aldatu zituzten. Esate baterako, Union Radio SS Debara ekarri zuten 1936ko uztailean abertzaleek eta errepublikazaleek. Altzibarrek dioenez bertatik Radio Euzkadi izenaz saioak egiten hasi ziren (Altzibar, 2021-235). Gerra hastean, Donostian borrokak zirela, segurtasun arrazoiengatik higituko zuten mendebalderantz.

Irailaren 23an sartu ziren matxinoak Deban. Jendea Donostiatik, kostaldetik, zetorren ihesi eta jendetzarekin bat egin zuen Tenek ere. 1936ko bukaera arte fronteak Ondarroa eta Lekeitio artean zegoen. Lehendabizi Lekeitiora egin zuen Tenek eta handik ihesi Bilbora. 1937ko apirilaren 26an Gernika bonbardatu zuten *doixtarrek*; apirilaren 27an frankistak Lekeitio sartu ziren eta ekainaren 19an Bilbo erori zen.

Teneren ihesaz Julene Azpeitiak emango digu: 1968ko garagarrilaren 23an omenaldia egin zitzaion Teneri Deban. Julene gonbidatu zuten beste hainbatekin batera Teneren merezimenduak aipatzera eta bien arteko laguntasun harremanaz horrela mintzatu zen:

Oroitzen al zera, Tene, nun, nola, eta noiz alkar ezagutu gendun?

Ni bai, Donibane Loitzun´en, Lerembourg sendagillearen itxaron aretoan.

Egun gutxi ziran, Itali ta Doixtar guda-egazkin ankerrak, Gernika, bertako biztanle geienak eraill, eta uri ederra zearo auts bihurturik beien gañean utzi zutela, arririk bata besteen gañean laga gabe.

Ori gertatu zanean, juañ giñan gu Donibane Loitzun´era, eta orduan alkar ezagutu gendun.

Ni, itxaron aretoan sartu nintzanean, zu an zeunden. Euskeraz agurtu giñan eta bereala alkar besarkatu pozik. Zu, debarra, Tene ziñan, ni zumayarra, Arritokieta.

⁷⁶ https://ianasagasti.blogs.com/mi_blog/2020/11/jes%C3%BAs-mar%C3%ADa-de-leizao-la-un-hombre-de-paz-en-la-guerra.html

Ze egun i'lunak eta beltzak egun aiek! Zenbat negar egindakoak! Zenbat otoi biotzetiko!

Euskal-Erria galdutzat jotzen gendun, eta gure Ama Euskera denbora gutxi-ko biziagaz.

Juleneren eskuizkribua Belen Egañak, Debako ikastolako zuzendari izandakoak, eman zigun. Hark gorde zuen omenaldiaren ostean eta guk Debako Udalaren artxiboan laga dugu orijinala.

Ilobek xehetasunak eman dizkigute:


Pasaron la primera noche en la estación del tren en Burdeaux y de allí se fueron a Donibane Lohitzune. Allí pasaron varios meses hasta que nuestro abuelo Prudencio, reclamó oficialmente a su mujer y sus dos niñas para que pudiesen volver a Deba.

Lekukotza horiez gain, eskura izan dugu balio handiko artxibo pertsonala: Patxi Aldabaldetrekua ikerlariaren funtsan utzi zituen Teneren etxeko ilobak, Jose Antonio Mujikak, Tene hil ostean hainbat paper eta objektu. Cira Crespo historialariak egin du erregistroa (ikus 10.3. eranskina). Dokumentazio horretan daude Teneren zenbait izkribu. Ihes egin aurretik erre egin zituzten bere etxekoek hainbat paper (Dorronsoro, *op. cit.*). Ilobek ere horrela kontatzen dute:

Su hermana Encarna quemó muchísima documentación y escritos de izeko Robus por miedo a las represalias políticas cuando se quedó ella sola en Deba.

Beste zenbaitzu, Tenek zahartzaroan idatzirikoak, aipatutako *Patxi aldabaldetrekua funtsan* gordetzen dira. Horien artean, besteak beste, garai honen ingurukoak kontatzen dizkigu. Paper zenbakitu solte batzuk baino ez zaizkigu iritsi baina horiek arras interesgarriak dira. 1974tik aurrera idatzitakoak dira, hala erakusten du eskuz 1974ko dokumentu baten atzeko aldean ageri delako idatzi mekanografiatu hauen zirriborroak. Artean 86 urte zituen Tenek.

Lehen pasarte honetan Bilbon Donibane Lohitzunera eramango zuen itsasontziaren zain bizitakoak kontatzen ditu. Bertan ziren Tene eta Eukene ahizpa eta haren bi alabak, Arantza eta Nere Larrañaga:



Tenek eskuz 86 urterekin egindako idazkia. [Iturria: Tene Mujikaren arxibo personala. Argazkia: C. Crespo]

Erbestera joan aurretik, 1936ko dagonillan (abuztuan) Deban zein giro zegoen kontatzen du eskuz idatzitako paper zatian:


“Hauxe zan egun artan 1936ko dagonilla, udaran kanpotarra, gure etxeak, gure erriak zer zela ta ezer asko jakin gabe urduri, bildurt, jakinmin ez jarri zidana. Guda!!! Franko zeritzan jeneral bat, bea (...)”

Irailaren 23an sartu ziren Deban. Ordurako Bizkaia aldera jo zuen Mujika sendiak. Aurkitu dugun hurrengo pasarteetan Santurtziko portuan Ingalaterrara eramango zituzten haurrekin batera kaian daude Tene, Joxe, Eukene alabekin (Arantza eta Nere Larrañaga) eta guztien ama Josefa. Tene amagatik errukituta dago eta honako iruzkina egiten du:

“Gure ibilleraren errua geien bat nerea zan ba aldi artan españar aundiki aberatsak emeko abertzaleentzat gorroto aundia [zigun] eurekin joan nai ez gendulako ta eurentzat ta euren gixako euskal gaiztoentzat Euskadi maite zuan euskotarra “pekatari” aundia zan eta zigorpean jartzekoa. Zenbaitek bere alabari esango zion “zuregatik gabiltz onela”, baña nire ama onak etziran egundo itzerdi bat aurka esan gure ibillera tristeak neri ezarriaz. Bestera: nai zuana zan nere ondoan jarraitzea, ene ama on!!!”

Galdu den paperetako batean kontatuko bide zuen nola lortu zuten itsasontzian lekua. Paper honetan bidaiatzeko eta erbesteko baldintzez dihardu lehen parrafoan: *“Eltzean an utziko zituztela ta euren gain bizi bearko zutela. Bai pozik!”*

Eta arratsaldean etxeratzera berri aundi ori ekarri zigun". Ondoren, barkura igotzeko unea deskribatzen du:



Tenek mekanografiatutako idazkia. [Iturria: Tene Mujikaren artxibo personala. Argazkia: N. Goikoetxea]

“Eldu zan Barkura sartu bear gendun egun ta ordua Santurcen gure zai zegon Pasajero? izenakin ezagutzen oietakua. Esan ziguten Baionaraño eramanak izango giñala. Gu pozik... Lenengo ingelesak eskatutako umeak jaso zituzten itsasontzi edo barkura. Jendetan izugarria giñan kaiako zur-zubian noiz gure txanda iritsiko. Zutik nekatzen baña Joxek eta nik besobanatik artuta gendukan ama nekatu ez zedin, Eukene gure aizpak bere alabatxoak. Eta ingelesak eskatutako umeak jasotzen amaitu zutenean aiek kubiertatik eurentzat izango ziran tokietan?. Noizbait amaitu zuten aukeriko lana. Izan zuten aundiak euren umeekin igotzeko baimen ura zan guziok era bat igo”

Hurrengo pasarte honetan itsasontzian bizitakoak kontatzen ditu. Amaren kezka berriz ere. Berorika zuzenduko zaio amari eta ikusiko dugunez, kontalari trebearen forman bideratzen du kontaketa:

42
15

Igo nintzan gure gelatxora eta esna zegon
 !! Ama: obeko du barkoa utzi bear degun arte ez jaiki, ezta?
 -- bai ni ementxe egongo naiz ondoen.
 Baiña belarria adi zeukan. Eta ontzi-gizonak zumatu zitun elkarrekin gogor izketan-- zer zarata da ori? Esan diteke gizonak elkarrekin asarratuta dabiltzala!...
 --~~alfulitzkagizonauaunagatdebe. te--anreranguanuuniorbaina cebaitzenri nualako Oco~~
 -- Politika kontua. Ori erantzun nion, Baiña ez horrela uste nualako Altu itz egiten zuten eta juan-etorrian batera ta bestera zebiltzen. Adi negoan esaten zutena ulertu nai nairik eta baten deadarra "Todos al kapitan !!! ...Arriba Arriba !!!... Emen zerbait gertatzen da eta gelatik kanpora atera nintzan . Mutilletako bat zijoan laisterkaka ezutua arkitzen nintzan eta galde nion
 -- Que pasa?. Eta gelditu gabe zijoala erantzun zidan:
 -- Nada ! no pasa nada Entre en su camarote .
 Ez nuan sinistu ezer gertatzen etzanik, baiña abindu bezela gelan sartu nintzan
 Deadar bat entzun nuan : Todos con el capitan!!!... Asus ordenes ??? Vamos!!!
 Eta laisterka gorruntz zijoazela nabaitu nitun... Urduri nengon... Larri... Eta ama galde ta galde... Zer esan bear nion?

Tenek mekanografiatutako idazkia. [Iturria: Tene Mujikaren artxibo pertsonala. Argazkia: N. Goikoetxea]

*"Igo nintzan gure gelatxora eta esna zegon
 !!Ama! obeko du barkoa utzi bear degun arte ez jaiki, ezta?
 -Bai, ni ementxe egongo naiz ondoen.
 Baiña belarria adi zeukan. Eta ontzi-gizonak zumatu zitun elkarrekin gogor izketan.
 -Zer zarata da ori? Esan diteke gizonak elkarrekin asarratuta dabiltzala!
 -Politika kontua. Ori erantzun nion, Baiña ez horrela uste nualako Altu itz egiten zuten eta juan-etorrian batera ta bestera zebiltzan. Adi negoan esaten zutena ulertu nairik eta baten deiadarra "Todos al kapitan!!!... Arriba Arriba!!!...Emen zerbait gertatzen da eta gelatik kanpora atera nintzan. Mutilletako bat zijoan lasterkaka ezutua arkitzen nintzan eta galde nion
 -Que pasa?. Eta gelditu gabe zijoala erantzun zidan:
 -Nada! No pasa nada. Entre en su camarote.
 Ez nuan sinistu ezer gertatzen etzanik, baiña abindu bezela gelan sartu nintzan.
 Deadar bat entzun nuan: Todos con el capitan!!!...Asus ordenes ??? Vamos!!!
 Eta laisterka gorruntz zijoazela nabaitu nitun...Urduri nengon...Larri...Eta ama galde ta galde... Zer esan bear nion?"*

Hirugarren orri honetan Donibane Lohitzunera iristeak emandako poza eta han aurkitutako euskaltasunak sortutako zoriona deskribatzen ditu. Mina, be-
rriz, Bilbok sortuko dio eta hurrengo orrietan ikusiko dugun bezala anaia Joxe
han uzteak ekarritako nahigabea.

26

Donibane Loitzun ! Gure zoriona ! Iruditsen gihan geure etxean gihala. Egonun euskeldu-
nak Elizan euskara Zein uauk izalea bertako erretore Bellevue jsuna ta zein ondo artu-
ak isan gihan berekin ! Dendetan goienetan beintzet euskeraz Azoken saltzalleak gure
baserritarrak nitata ematen zuten kaian arrantzeleak euskeidun jatorrak, Bidasoa ibeia
erdira tuak gihala beste ezberdintasunik ez.

Etxeak asko eta asko aurrean orna nagusiak euskerenka idatsi politbat sutela
"AMATXIRENA; ANAIARREBAK; EBUKI AZPIAN; ZURUPAT; DOY GERTATU" au etxe triki batena
erreala asko zein-baiño zein Oumi onek biotza aleitzen zigun eta beste gabe geure orri
ta etxeetan arkitsen gihala uste arasten zigun.

Pozgarri au apaltzekoa, semingarri gendun bakoitzak: Bilbo.

Egunean baiño egunean genduzen andik. "Bilbo larri zala Eroki bear zuala Faxistaen e
erazoa izugarria zala Nora botatsen zuten begitu gabe h'nbardotzen sutela
Eta nork etsuan an mendikoren bat? Al zuanak el zuana. Arerioak indarra ta dirua zitu
guk aberriageneko mitasuna biotz gorien

Ura zen Euskadi zapaldu nai! Ura zen gorrotea
Bitartean guk erbestean otoi eta otoi gudariak beti gogoan genduzela eta gudari iz
izan gabe arerioaren porre ta ixekak jasangarri zituztela

Tenek mekanografiatutako idazkia.
[Iturria: Tene Mujikaren arxibo pertsonala.
Argazkia: N. Goikoetxea]

“Donibane Loitzun! Gure zoriona! Iruditzen giñan geure etxean giñala. Edonun euskeldunak. Elizan euskera zein euskaltzalea bertako erretore Bellevue jaunna ta zein ondo artuak izan giñan berakin! Dendetan geienetan beintzat euskeraz. Azokan saltzalleak gure baserritarrek zirala ematen zuten kaian arrantzaleak ? jatorrak. Bidasoa ibaia erdira tuak giñala beste ezberdintasunik ez.

Etxeak asko eta asko aurrean orma nagusiak euskerazko idatzi politikak zutela GARTXIRENA, ANAI ARREBAK, IDUZKI AZPLAN, ZURETZAT, ? GERTATU au etxe txiki batena orrela asko zein-baiño zein. Guri onek biotza alaitzen zigun eta beste gabe geure erri ta etxeetan arkitzen giñala uste arazten zigun.

Pozgarri au apaltzekoa, samingarri gendun bakoitzak: Bilbo.

Egunean baiño egunean genduzen andik “Bilbo larri zala Erori bear zuala Faxisten erasoa izugarri zala. Nora botatzen zuten begitu gabe Bonbardatzen zutela. Eta nork etzuan an sendikoren bat? Al zuanak al zuana. Arerioak indarra eta dirua zitun, guk aberriaganako maitasuna biotz gorian.

Ura zan Euskadi zapaldu naia! Ura zan gorrotoa. Bitartean guk erbestean itoi eta otoi gudariak beti gogoan genduzela eta gudari izan gabe arerioaren parre ta ixekak jasangarri zituztela.”

Patxi Aldabaldetrecu funtsean dagoen dokumentazioari esker jakin ahal izan dugu Tenek gerra garaiko kontuak idatzita uzteko asmoa zuela, *Aztu ezindako oroigarriak* izenburua jarri zion lanari. Zoritxarrez hemen jaso ditugun orri solteak baino ez zaizkigu geratu.

Ziburun zuen Tenek ostatua hartuta. Bera bakarrik zen ordurako, Joxeren berririk ez eta familiako beste erbesterratuak hegoaldeko muga pasea zuten ordurako. Erbestearen gogorra kontatzen du bertan Tenek:

A Z T U E Z I N D A R O O R O I G A R R I A K

Etxea ta extxoak utzita erbestean bakarrik gelditu bearra ortik igaro ez danak ez daki zer dan Mugako zubia bitarte da la elkarri agur egin giñon es kua jasoz

Alde batetik nere ama maitea aizpa senarrakin eta euren alabatzoekin eta eta erbeste aldetik ni bakar-bakarrik zijoazela ikusten...

Aienatu ziran... Eta ama bereziki gogoan nuala nere baitan gogoan gelditu zitzaidan galdea egin nion nere buruari : Ikusiko ote dat berriz ? Eta malakoak itrutu ninduen

Begiak legortuaz abiatu nintzan Hendala ra autobusa artzera Donibanera joateko...

iburu n nuan ostetua artua Ama ta alaba bakarrik bizi ziran Etxean sartu nintzanean bat-batean negarrari eman nintzan Ama ta alaba ni baretu eziñik etzekiten zer egin

Amak eskuaz arpegian igurtziak egiñaz goxo-goxo esaten zidan Ez zazu negarririk egin Konsola zaitia laister bukatuko da zuen gerla madarikatu ori. Anaiak anaiak iltzeko sortu zaizuten izugarritzko gaiztakeri ori laister izango zera berriro zure etxean .. Baiña gurekin ongi izango zara Maite zaitugu... "Dutia emango dizugu bero-beroa ta onik jarriko zaitu"

Ez nuan ulertzen zer izan ziteken "dutia" baiña nolansai ain maiteki nere onerako eman nai zuana zerbait osasungarria izango zala ta baietz esan nion pozik artuko nuala esan nion

Alaba ikusten nuan zerbait eratsen ari zala ta maian iru katillu ta gozokiak zabaldu zitunean ants eman nion guk "tea izenez esa gutzen degun ingeles edari berorik artzekoa izango zala

Ala izan ere ta irurok elkarrekin artu gendun Bitartean andre onak bere bizian jasan zitun nekeak edesten zizkidan batez gudaen aurka gogor jarri ta bazuan zergatik ere ba Franzia alemananakin izan zuan "amalauko" izenez aipatzen degun borroka ikaragarrian seme bi galdu zitun eta bazuan bai zergatik zergatik gure amak anai artekoa zergatik txartzat eman Alabar esaten zion; Beti gauza bera aipatusz bizi zera Ordua da gogoangarri oor utzitzekoa Anak biziro erantzun zion; "ik nere seme errukarri gaxoak aistu nere biotzean josiak ditut eta aztutzea eziña da

“Etxea eta etxeokak utzita erbestean bakarrik gelditu bearra ortik igaro ez danak ez daki zer dan. Mugako zubia bitarte dala elkarri agur egin giñon eskua jasoaz.

Alde batetik nire ama maitea aizpa senarrakin eta euren alabatxoakin eta erbeste aldetik ni bakar-bakarrik zijoazela ikusten...

Aienatu ziran... Eta ama bereziki gogoan nuala nire baitan gogoan gelditu zitzaidan galdera egin nion nire buruari: Ikusiko ote det berriz? Eta malkoak itxutu ninduen.

Begiak legortuaz abiatu nintzan Hendaia ra autobusa artzera Donibanera joateko...

Ziburun nuan ostatua artua. Ama ta alaba bakarrik bizi ziran. Etxean sartu nintzanean bat-batean negarrari eman nintzan. Ama ta alaba ni baretu eziñik etzekiten zer egin.

Amak eskuaz arpegian igurtziak egiñaz goxo-goxo esaten zidan. Ez zazu negarrik egin konsola zaitia laister bukatuko da zuen gerla madarikatu ori. Anaiak anaiak iltzeko sortu zaizuten izugarrizko gaiztakeri ori. Laister izango zera berriro zure etxean... Baiña gurekin ongi izango zara. Maite zaitugu... “Dutia emango dizugu bero-beroa ta onik jarriko zaitu”

Ez nuan ulertzen zer izan ziteken “dutia” baiña nolanai ain maiteki nire onerako eman nai zuana zerbait osasungarria izango zala ta baietz esan nion pozik artuko nuala esan nion.

Alaba ikusten nuan zerbait eratzen ari zala ta maian iru katillu ta gozokiak zabaldu zituenean antz eman nion guk “tea” izenez ezagutzen degun ingeles edari berorik artzekoa izango zala.

Ala izan ere ta irurok elkarrekin artu gendun bitartean andre onak bere bizian jasan zitun nekeak edesten zizkidan batez gudaren aurka gogor jarria, bazuan zergatik ere ba Frantziak alemanekin izan zuan “amalauko” izenaz aipatzen degun borroka ikaragarrian seme bi galdu zitun eta bazuan bai zergatik gure anai artekoa zergatik txartzat eman. Alabak esaten zion: Beti gauza bera aipatuaz bizi zera. Ordua da gogoangarri ori utzitzekoa. Amak biziro erantzun zion: nik nire seme errukarri gaxoak aiztu nere biotzean josiak ditut eta aztutzen ezina da.”

Tenek “ficha negra” izatearen inguruan gogoetatzen du. Testua ez da batere ongi irakurtzen baina uste dugu dokumentuak duen balio historikoagatik mezezi duela irakur litekeenaren transkribaketa egitea:

A Gau artan ez nuen lorik e in Ise igerri sergatik san nik "ficha negra"
 eukitze ori sergatik san

Jaungoikoari ekerrek beti jekin nuan beteren iritsiak nik neren gordetzen
 nuan beaterenkin suntu gabe ongi naiten bekoitzaren bearkunon berri, ondo askien
 sartara beartsen goitun "Jaungoikoren legeak beste gudan erriketa onduen ere
 Bankara aldean lan asko egitea naitela ? Eta zer? ez alda gure eukura "oikoen
 gaurtsat emana ?... Beparren igesi Penai aldeko jentsei non gabe igerut etate dit
 aiantzat toki billa batari ta besteai berogarri koltzeo billa ta eukoen alogianu
 nintzelako ? Ori elzen "ficha negra" ren aios ? Bat-benaka nere berutik igeru airen
 aberriak eukatu aiskiden laguntza ta alogiak ba nuan arditzen nigan ezoren
 gaitakeririk

 Gaitakeritzat artzetan behan "fan ko ren aldekoa ba izaten ihola re
 Au egia "aiña Franco etzuan maite nere eberria ta geureak airen eukubidez kanu
 aiskigun eta nik gogo gusis aldeatu egiten nitun Origitik beazan "ficha negra
 nere iritsis "ficha negra" berari begokione san baña...baña,, Franco k ote sekid
 sekien munduan ni nintzanik ere?... Bai sara! eurretiagokirik beazkan bere biskah
 goñean astinua ta jaurtikiko lituskenek baña... eain! Artuko luke nere ficha negr
 negra bai berak eta bai neri errus duanark ! Onelako burusuteakin loak art
 artu nindun

 Goiz-Berandueneanatu nintzan Joxe nere anaia gogoen maia. "izajoa
 Bilbo n gelditu zan Aberriaren alde al zuena egiten Barriegi sara nuan adiskide
 aundi eta onkin aitzin zan ezertaroko beaz sanean . "aiña Bilbo larri san Areri-
 ca gñeen zuala . ere moduko beste asko bezala gureak, nora inperno artatik
 irtenik etzuala . Ber gertatuko ote zan ? ... Ban eta nola zebillen ihandik berri
 rik ez gendula Goizeko inpernariak artu berri onik ez gorongo ta larriago
 eukumeok eurren bekoitzea anik irtena san baña gizaceonek ..Gustira
 Egunero sartzen airen erreñetako itsan-ontziak Biskaitik alde egin nai zutenak
 eta irtetea lortu zutenak. Ni beti ere eziara juan da etorri ihork ezoren berriak
 sekarren jekin naita Batzuek artzen nitun bai baña nere enaiarenik ez.

 Eta... bildur gendun egun tristea : Bilbo erori zala Eta nere anaia ta beste
 asko berruan artuak zirela

 Bik bezala beste eukok situzten eanre sene edo beste norbeit an galdituk...
 Ihoiz etoi gogotsu egin ba "gendaun bai egun aietan noneko nonik euren
 berriak eukitzen !

“Gau artan ez nuan lorik egin (...) Jaungoikoari eskerrak beti jakin nuan bateren iritziak (...) nik ere (...) nuan besterenakin sartu gabe ongi nekien bakoitzaren bear kun berri ondo nekian zertara beartzen gaitun Jaungoikoaren legeak. Euskera alde z lan asko egiña naizela? Eta zer? Naparrek igesi Pasai aldera j uan non (...) aietzat toki billa batari ta besteai berogarri koltxoi billa (...) nintzalako? Ori alzan “ficha negra”ren zioa? Bat-batean nire burutik igaro ziran aberriak eskatu zizkidan laguntza ta alegiñak. Ez nuan arkitzen nigan ezertan gaiztakeririk.

Gaiztakeritzat artzekoa bazen Frankoren aldekoak ziran (...). Au egin baiña Francok etzuan maite nire aberria ta geurena ziran (...) zizkigun eta nik gogo guziz aldeztu egin nitun. Origmatik (...) nire iritzi z “ficha negra” berari zegokion (...). Francok ote zekien munduan ni nintzanik ere? Bai zera! Aurreragokorik bazeukan bere (...) gaiñean astindu ta jaurtikiko lituzkenak baiña...ezin! Artuko luke nire ficha negra bai berak eta bai neri (...) errua duanak! Onelako burutazioekin loak artu nindun.

Goiz-Berandu esnatu nintzan Joxe nire anaia goguan nuala. Gizajoa Bilbon gelditu zan Aberriaren alde al zuana egiten Markiegi zana zuan adiskide aundi eta onekin aitzen zan ezertarako bear zanean. Baiña Bilbo larri zan Arerioa gaiñean zuala. Nire moduko beste asko bezela goseak. Nora inperno artatik irtenik etzuala. Zer gertatuko ote zan?... Nun eta nola zebillen aspaldi berririk ez gendula. Goizeko izparringiak artu berri onik ez geroago ta larriago. Emakumeak aurrez bakoitza andik irtena zan baiña gizasemeek... Egunero sartzan ziran arrañetako itsas-ontziak Bizkaitik alde egin nai zutenak eta irtetea lortu zutenak. Ni beti ara kaiera j uan da etorri iñork ezereen berririk zekarren jakin naita. Batzuetan artzen nitun bai baiña nire anaiarenik ez.

Eta bildur gendun egun tristea: Bilbo erori zala eta nire anaia ta beste asko barruan artuak zirala.

Nik bezela beste askok zituzten senar seme edo beste norbait an geldituak. Iñoiz otoi gogotsu egin bagendun bai egun aietan andik o nondik euren berriak eskatzen!”

Joxeren etorreraren pasarte a ere iritsi zaigu XXI. mendera, zorionez. Ez zaio emoziorik falta, irakurle:

Badakigu Ama Mirjilla rik bat dela ta bere zeruen Jesus Ama beila beita sinisten
gure sinienetik tokian tokian jarri dikigula bere irudiek zeruen degoatzez oroi gaiten
gaitzen eta gure bearrizantetan laguntza eske bereganatu jua gaitzen Euzkalerrian
emaitzatu gutxi bere irudiek gaitzen nek Sasetxoak beoetan duala Ama degula adierasten
digula Amaregan gure unta euzan deagan

Bene-benetan aste nuan nere aniek itzier ko saagena joko zuala laguntza eske
eske ta aste onak Jose gaitzuko suan itxaro ocan postutsen nindun eta oien
eguna esaten nuan

Andik egun gutzira neretzat esezagun zan gizon batek eskutitz bat ekarri
siden Kontrabandistaren bat nurbait Eskutitza esaterakoen esen sidan: "Tori berri
posgarria" Irripar agiñas agurtu nindun eta laisterko joan zan.

Esen bearririk ez eskutitzari zein askar kendu nion azala. Nere ania
Bilbo atara zala ta Donosti a zegala laister izango zala nerekin. Berri posgarri eu
ixilik gordetzeko "

Donibene Lotzun, en eskoak gihan aldi arten gusiok Franco ren igesi gozanda
gusiok zenide bezela elkarrekiko ocan Berri ona etxerik etxe esateko gogo txora b
ortu zan nere berruan gorde esiketoea beila noure buruari gojor aginda ixilik
goiditu nintzan itzier ko Ama ri eskerrek esen ta eman..

En nintzan etxetik atara egun arten ez bestean nenguan etxeko azalabekin
alditxo beteko izketaldiek eta nere golan sartu ta nere sendiaz oldoaten orduak
esen nitun.. Beila ni kokatu Beila bidan natorrela oietako zaintzalleren batek
arrapatzen badu?, Bere izakera bildurtiak kezkatu jartzen nindun.. Eta beste gau bat
lorik egin gabe

Urreragokoen geroago ta kokatuago ni... Beila eguardi aldean norbeit laisterko
calladian gora zetorrela esatu nuan Eta igoaz deadar zegin Jose!!! Jose!!! Esen
Esen bearririk ez Zein laister joan nintzan atea zabaltsara arnaza bete esinda
zetorren bere adiskide aundi bat igoaz igoaz deadarka Jose !!!... Jose !!!
Nik orduan Nun da? Nunda?

Esen da ! Esen Da ! Euzkian jabe gebeak Gendarmierira eramaten zitustela Ta bilia
abiatu nai nuan beila orduan esen siden besteak Larrun igerota mondi berrenen ip
pertrikotan zebiltzan bi erritarrekin arkitu zala Alabear suan ia ligan suan
Lagunok artu ta gendarmierian egin beor nitun gindieunak eta denak elkarrekin
etorri zitzeizkiden

Tenek mekanografiatutako testua.

[Iturria: Tene Mujikaren artxibo pertsonala. Argazkia: N. Goikoetxea]

*“Badakigu Ama Birjiñarik bat dala ta bera zeruan dala (...) baiña baita gure sinis-
menak tokian tokian jarri zizkigula bere irudiak zeruan dagonatzaz, oroi gaitezen
(...) laguntza asko beragan jua gaitezen Euskalerrian ez ditugu gutxi bere irudiak
geiengaienak aurtxo besotan duala Ama degula adierazten digula Amarengana
gure (...) dezagun.*

*Ben-benetan uste nuan nire anaiak Itziarko amagana joko zuala laguntza eske ta uste
onek oso gaizkatuko zuan itxaro osoan poztutzen nindun eta oiez eguna ematen nuan.
Andik egun gutxira neretzat ezezagun zan gizon batek eskutitz bat ekarri zidan
kontrabandistaren bat nunbait. Eskutitza ematerakoan esan zidan: “Tori berri poz-
garria”. Irripar egiñaz agurtu nindun eta laisterka joan zan.*

*Esan bearrik ez eskutitzari zein azkar kendu nion azala. Nere anaia Bilbo atera zala
ta Donostian zegola. Laister izango nerekin. Berri pozgarri au ixilik gordetzeko.*

*Donibane Loitzunen askoak giñan aldi artan guziak Francoren igesi joanda guziok
senide bezela elkarrekiko osoan. Berri ona (...) sortu zan nire barruan gorde eziñe-
koa baiña nire buruari gogor eginda ixilik gelditu nintzan Itziarko amari eskerrak
eman eta eman...*

*Ez nintzan etxetik atera egun artan ez bestean nengoen etxeko alabakin alditxo beteko
izketaldiak eta nire gelan sartu ta nire sendiaz oldosten orduak eman nitun. Baiña ni
kezkatu baiña bidean natorrela oietako zaintzalleren batek arrapatzen badu? Nire
izakera bildurtiak kezkatu jartzen nindun... Eta beste gau bat lorik egin gabe.*

*Urrenagokoan geroago ta keskatsuago ni... Baiña eguerdi aldean norbait laisterka
malladian gora zetorrela somatu nuan eta igoaz deadar egin Jose!!! Jose!!! Esan esan
bearrik ez zein laister joan nintzan atea zabaltzera arnazaz bota ezinda zetorren
bere adiskide aundi bat igoaz igoaz deadarka Joxe!!!...Joxe!!!*

Nik ordun Nun da? Nun da?

*Emen da! Emen da! Banekian jabe gabeak Gendarmerira eramaten zituztela ta
billa abiatu nai nuan baiña orduan esan zidan besteak Larrun igarota mendi barre-
nean perretxikotan zebiltzan bi erritarrekin arkitu zala. Alabear aundia izan zuan.
Lagunek artu ta gendarmerian egin bear zitun eginkizunak eta denak elkarrekin
etorri zitzaizkidan.”*



Peli Markiegiren hil oroigarria.

[Tene Mujikaren artxibo pertsonala.

Argazkia: N. Goikoetxea]

Jakin dugunez gudari izateaz gain Polentzi Markiegi Debako alkateari laguntzen ibilia zen Joxe Mujika, Teneren neba. Markiegi hiru anaietatik bi, Polentzi eta Joxe, gerran hil ziztuzten eta hirugarrena, Peli, 1946an zendu zen. Teneren objektuen artean agertu da haren oroigarria:

Ilobei galdetu diegu Deban utzitako lagunen inguruan:

Amistades en Deba, los Oñederra eran como de la familia hasta tal punto que en la época de la guerra se trasladaron a vivir a casa de la izeko Encarna pues aquellos también estaban perseguidos, una de ellas casada con Gerardo Bujanda, ya ambos fallecidos.

De Markiegi también se oía hablar muy bien pero no conocemos detalles.

Bien bitartean herri guztietan bezalaxe Deban ere erreprezio bortitza bizi izan zuten herritar askok. Hemen Aranzadi zientzia elkartearen eskutik dokumentatuak dauden emakumeak bildu ditugu (Arizbaleta, *op. cit.*):

Agirre Aizpurua, Emilia; Elosua Agirresendia; Galdos Arrizabalaga, Eugenia; Garate Arriola, Miren; Garate Iriondo, Visitacion; Gascon Perez, Catalina; Goitia Landá, Maria del Carmen; Gorostola Salegi, Petra; Elosua Gorostola, Itziar; Iriondo Lizaraburu, Pepita; Iriondo Lizaraburu, Tomasa; Iriondo Lizaraburu, Asuncion; Osa Altzibar, Gregoria; Rjesgo Oñederrasendia; Rodríguez, Maritxu; Ulazia Esnaola, Maria; Ulazia Esnaola, Tomasa; Esnaola Osa, Aniceta; Agirretxea Zubikarai, Dominica; Yurrita Zubikarai, Libertad; Zulaika Idiakezsendia.

Auzitegi militar frankistek epaitutako debarrak dira hauek:

Aginagal de Loyola, Florencio; Albarrañ Albarrañ, Justo; Albarrañ Albarrañ, Melchor; Antia Ulazia, Esteban; Areizaga Beristain, Julian; Arostegi Jauregi, Antonio; Arostegi Jauregi, Juan; Arriñokietak Alza, Rufino; Baldes Alonso, Tomas; Barrena Diez, Leandro; Bereizibar Espilla, Jesus; Cuevas Rodriguez, Francisco; Esnaola Iraola, Jose Agustin; Esnaola Losada, Agustin; Forcada Mur, Felipe; Forcada Mur, Pedro; Galdona Esnaola, Juan; Galdos Alonso, Tomas; Garcia Ansola, Pedro; Garrido Garcia, Ildelfonso; Gomez Prieto, Antonio; Gonzalez Robles, Faustino; Gonzalez Robles, Fructuoso; Gonzalez Rubio, Isaias; Gurpegi Arispe, Eliseo; Idiákez Egaña, Ignacio; Idiákez Garate, Juan; Lazkano Arrizabalaga, Fulgencio; Lizaraburu Lasa, Francisco; Loiola Etxabe, Jose Maria; Martiarena Martinez de Iarduaya, Felix; Martiarena Martinez, Francisco; Martinez Perez, Jose; Miguel Del Rio, German; Mir Roig, Jose; Morales Montes de Oca, Juan; Oñederra Karrera, Francisco; Oñederra Karrera, Maximo; Ostolaza Egaña, Jose; Portillo Gil, Manuel; Romero Muñoz, Juan; Ruiz de Agirre, German; Sorazu Esnaola, Angel; Soto Rodriguez, Benito; Torre Posada, Antonio; Urberuaga Intxaste, Pedro; Urdangarin Imaz, Felipe; Urkiri Urain, Jose Maria; Valdes Alonso, Tomas; Vega Alvarez, Cristobal; Yurrita Berraondo, Tomas.

Hildakoak:

Galdona Anduaga, Felipe; Aizpurua Arrizabalaga, Vicente; Aranberri Arakistain, Francisco; Arroyo Garcia, Eusebio; Del Valle Lersundi Mendizabal, Alfonso; Garin, Iñigo; Etxebarria Eustondo, Santos; Etxeberria Salegi, Felix; Egaña Alberdi, Domingo; Egaña Idiákez, Pedro; Egia Arakistain, Celestino; Egino Arakistain, Santiago; Elduayen Ibarra, Carlos; Elizondo Urain, Bernardo; Esnaola Iraola, Rafael; Idiákez Egaña, Pedro; Isasti Uranga, Gregorio; Izagirre Etxaniz, Ramon; Sarasola Gainza, Jesus; Zalba Ayarza, Ramon; Zulaika Beloki, Andres; Aspiazu Esnaola, Modesto; Odriozola Basurto, Juan; Amuskibar Mendizabal, Miguel; Alvarez Martinez, Tomas; Aranda Magallon, Jose Luis; Dominguez Iturralde, Bonifacio; Garcia Nuñez, Julian; Millon Merino, Ignacio; Moral Garatea, Joaquin; Ortega Fernandez, Marcelino; Ortega Gonzalez, Marcelino; Santos Martinez, Jesus; Serrano Levia, Juan; Vallejo Ruiz, Aurelio; Vallejo Ruiz, Daniel.

Saturrarango emakumeen kartzelatik atera eta Debara bizi izatera etorritakoak dira honakoak:

Castillo Solano, Carmen; Castillo Solano, Emilia; De Cabo Arenas, Florentina; Domenech Elizondo, Josefa; Garate Iriondo, Visitación; Garcia Alvarez, Angelina; Gonzalez Gonzalez, Laudina; La Fuente Rubio, Carmen; Merino Alonso, Manuela; Perez Naranjo, Josefa; Rodriguez Perez, Maria; Rodriguez Pulgar, Asuncion; Rodriguez Pulgar, Eloisa; Rodriguez Pulgar, Elvira; Rodriguez Rodriguez, Josefa; Teleña Mendez, Balbina; Tapia Aguilar, Juana.

Langile Batailoi eta kontzentrazio esparrutan egondakoak izan ziren ondorengoak:

Aizpurua Egaña, Sebastian; Aranberri Epelde, Jose; Astigarraga Mendizabal, Fermin; Etxebarria Galdos, Fermin; Egaña Alberdi, Domingo; Egaña Egia, Sabino; Egaña Garcia, Juan; Elosua Salegi, Esteban; Enparantza Zabala, Manuel; Esnaola Iriondo, Ignacio; Iriondo Iriondo, Ramon; Larrañaga Basurto, Juan; Lizaraburu Lasa, Francisco; Lopez Martinez, Adrian; Maiztegi Ciriano, Rafael; Marañon Rabena, Jose; Olabeaga Basurko, Ignacio; Rico Morales, Pablo; Salegi Egaña, Saturnino; Sanchez Macia, Francisco; Zulaika Beloki, Martin; Elosua, Raimundo; Aizpurua Mendizabal, Jose; Amutxastegi Etxabe, Luis; Aranberri Arakistain, Juan Jose; Aranberri Arakistain, Pedro; Astigarraga Egaña, Patricio; Astigarraga Mendizabal, Fermin; Azkoitia Mendizabal, Agustin; Azpeitia Ezpeleta, Ramon; Azpiazu Iriondo, Jose; Azpiti Fernandez, Luis Mari; Barrena Diez, Leandro; Basurto Arrizabalaga, Carlos; Basurto Arrizabalaga, Jose; Bravo Mazkaran, Santiago; Elosua, Raimundo; Enparantza Zabala, Fidel; Esnaola Oiarzun, Felix; Esnaola Aizpurua, Camilo; Esnaola Iraola, Ignacio; Fernandez, José; Fernandez Iriondo, Ulbaldo; Galdona Anduaga, Pedro; Galdona Esnaola, Javier; Iciar Kaperotxipi, Jose; Idiakes Sorasu, Luciano; Iriondo Iriondo, Julian; Iriondo Lizaraburu, Julian; Irusta Mugarza, Jose Luis; Irusta Mugarza, Ramon; Larrañaga Elorza, Antonio; Lizaraburu Egaña, Jose; Manzidor Odriozola, Tomas; Manzidor Udabe, Jose Maria; Odriozola Basurto, Jose Maria; Osa Altzibar, Jose Maria; Osa Subiñas, Jose; Ostolaza Zalla, Julian; Riesgo Oñederra, Antonio; Rodriguez Egaña, Jose; Urbietta Egaña, Gregorio; Urbietta Egaña, Jose Maria Blas; Usabiaga Albizu, Claudio.

Eta gehiago. Eta horrela herri guztietan...



Frankismoko kartila.
[Tene Mujikaren artxibo
pertsonala. Argazkia:
N. Goikoetxea]

■ Erbesteko giro intelektualean

Como Izeko Robus no podía volver, su hermano José que también estaba huido trabajando en una fabrica de Bretaña junto a varios compañeros de batallón, se desplazó a Donibane Lohitzune y junto a Tene pusieron una pensión como modo de vida. Izeko Robus, dedicada a la cocina y osaba José a las habitaciones. Allí se hospedaba Isidoro Fagoaga con el cual estableció una estrecha relación literaria.

Allí pasaron bastante mal, sobretodo en cuento a la inseguridad política, ella decía que algunas noches tuvo que escaparse al monte y dormir en alguna borda de ovejas pues el General Petain francés, hacia redadas para apresar a refugiados.

Ixidor Fagoaga kantari ospetsua lagun egin zuen Tenek Donibanen. Fagoaga, Berako semea berau, Europako antzoki askotan aritu zen kantari. 1893an jaio zen Beran eta 15 urterekin Argentinara emigratu zuen. Han hasi zen kantu-ikasketekin. Gomendio gutun bati esker Italiara joan zen kantua ikastera beka batekin. Handik atzera Berara itzuli zen lehen mundu gerra zela-eta. Barojatarren laguntzarekin berriz ekin zion kantugintzari eta horrez gain idazten ere hasi zen. Sanson eta Dalila, Guridiren Amaya, Wagnerren Walkiria eta Parsifal... tenore kontsagratua izatera iritsi zen: Parma, Bolonia, Florentzia, Erroma, Milan e.a. 1936an Italiatik Berara itzuli zen eta muga zeharkatu behar izan zuen atzera ere. 1937ko apirilean, Gernika bonbardeatu zutenean Sizilian zegoen Walkiria kantatzen. Euskaldunen borroerentzat kantuan zebilela-eta kantatzeari utzi zion betirako. Hortik aurrerakoek Donibane Lohitzune, Paris eta Argentinan gertatu ziren.

Donibane Lohitzunen exiliatuen artean ezagutu zuen Tene beste hainbatekin batera: Orixe, Ramiro Arrue eta Antonio Labaien, besteak beste. Gursera eramane zuten naziek eta Argentinan hartu ahal izan zuen arnas handik urte batzuetara idazle lanetara jarrita. Sei liburu idatzi zituen eta hainbat aldizkaritan aritu zen. 1964an itzuli zen Berara eta 1976an hil zen Donostian (Aizpurua, 2020).

Liburu horietako batean exiliatuekin izan zituen harremanak kontatzen ditu:

1940ko otsailean Fagoagak Lapurdin antolatzen zuen literatur solasaldi batera gonbidatu zuten Julene Azpeitia. Tene tertuliakidea zen dagoeneko eta hari eskatu zion Fagoagak Juleneren aurkezpena. Tertulia horiek informalak –fami-

liarrak esango du Fagoagak— omen ziren. Aldiro pertsona batek hitzaldia eman eta solasaldiari ekiten zioten ondoren, aurretik tea hartzen zuten guztiok batera. Fagoagak horrela kontatzen du nola gertatu ziren (Ereña, 2019-232/234): *“estas charlas (...) han nacido por generación espontánea.(...) Ante un auditorio escogido y recogido, donde no faltan las señoras, que como la poesía lo embellecen todo (...) Una tarde del mes de diciembre [1939], tomando el thé y sorbiendo poesía, empezaron estas charlas. (...). Al poeta le siguió un filósofo, al filósofo un diputado, al diputado un alcalde, al alcalde dos poetisas [Tene?], a las poetisas un odontólogo, al odontólogo un artista-caricaturista-pintor [Txiki?] (...). Estas charlas nada tienen de académicas ni espectaculares”*.

Fagoagak gertatutakoaren erreseñak idazten zituen eta 1940ko otsailaren 23an bi emakumeen inguruan honakoa esan zuen (Ereña, 2019-235/237): *“Esta novena velada, como la quinta de la serie, fué sostenida por dos mujeres. Tene de Muxika, a quién ya conocéis, fué la encargada de presentar a su amiga Julene de Azpeitia, señora de don Enrique de Eskauriaza.”* Erreseñan bere aurkezpen hitzak ere batu zituen: *“Tene de Muxika, nuestra inteligente y modesta amiga, hará la presentación de Julene de Azpeitia.(...) Quizá a alguno le estrañe el que, en estas charlas demos una parte importante a la mujer. En verdad, si de nosotros dependiera, aún se la daríamos mayor. No porque seamos feministas a la manera politicante y grotesca, que tan sabrosas sátiras inspiró a principios de siglo, sino porque creemos, como nos lo enseñan todos los grandes humanistas, que la emancipación humana deba hacerse, deba hacerse en común y sin distinción de sexos.”* Eta beste iruzkin eta argudio ezagunekin jarraitzen du: gizon emakumeen funtzio ezberdinak, gizonen frakasoa gerra garaian, emakumeen gaitasunak aberria maitatzeko orduan e.a. Honakoarekin bukatu zuen: *“Por hoy me interesa resaltar la contribución decidida e inteligente de la mujer vasca, nuestras emakume, al movimiento renacentista de nuestra Patria. Esta colaboración, que como ahora en el exilio, es sacrificio, y, para algunas, durísimo sacrificio, nosotros los hombres debemos estimularla y fomentarla si queremos ser dignos de nuestro futuro destino”*.

Tene horrela zuzendu zitzaien entzuleei Juleneren merezimenduak aletu aurretik:

“Nuestro exilio, señores, a más de otras penas y el dolor de su tragedia, lleva consigo la nostalgia amarga de todo cuanto hemos dejado con nuestra Patria, con nuestros hogares, con nuestros seres queridos; la nostalgia de los días felices que hemos vivido

saboreando el renacer de nuestro pueblo que moría en la inconsciencia; la nostalgia de los días y años vividos luchando por y para este renacer; luchando para que Euzkadi se levantara apoyada en su pasado que le da derechos innegables a la vida.

Estas nostalgias, que hacen pasar horas y horas de tristezas, días penosos, noches de insomnios (probablemente lo mismo que a Vds.), las he podido aliviar algo, esta temporada, gracias a la gentileza del señor Fagoaga que nos reúne en estas tertulias, y en las cuales nos encontramos patriotas, unos, amigos antiguos, y todos hoy hermanos en penas y sinsabores.


Siempre acudo contentísima de poder pasar un rato sintiendome en común con todos ustedes, nuestro ser de vascos, y en respirar en un ambiente que los distinguidos charlistas hacen que sea saturados de los suaves perfumes que exhalan las montañas de Euzkadi, y animado por el eco del irrintzi, que, aunque doliente, lanza la raza milenaria que aún sigue en pie.

En estas charlas no podíamos faltar las mujeres; pues si bien la inteligencia es patrimonio del hombre, el corazón lo es de la mujer, y con el sentimiento, con el amor, sabemos seguir al hombre, sabemos ayudarle, colaborar con él, en una palabra completar su labor; pues no en vano somos en todos los aspectos de la vida, desde el principio, desde el Paraíso terrestre... la costilla que a él le falta."


Iruzkín asko egin litezke hitz horien inguruan. Genero-diskurtsoari dagokionez lehengo postura kontserbadoreari eusten dio Tenek gizonaren osagarri izaerari eutsiz. Era berean, kikiltzen ez den hizlaria ageri zaigu, gizonen parekide gisa zuzenduz audientziari. Hirugarrenik, exilioak legitimatutako ahots abertzalea da berea, exiliatutako gizonen parekoa beraz, haiek bezala jazarpenaren lehen lerroan kokatzen dena. Horrek ere badu lotura genero-sistemeekin. Fagoagak adiskidetasun parekidea eskaini zion Mujikari humanismoak lotzen baitzituen bi euskaldunak (Ugalde, 1974).

Teneren objektuen artean garai ezberdinetan sinatutako oroigarriak ikus gertatzake:

Objektuek erakusten digute laguntasun haundia izan zutela Fagoagak eta Tenek bizitza osoan zehar. Ez dugu ahaztu behar Tenek egin zituen itzulpen lan urrien artean Fagoagak Iparragirre bardoaren inguruan egindako lana dagoela. Hark gatzelaniaz emana Tenek itzuli egin zuen hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.



Fagoagatar Ixidoren eskaintza.
[Tene Mujikaren artxibo pertsonala. Argazkia: C. Crespo]



Fagoagaren Parsifalen argazkia.
[Tene Mujikaren artxibo pertsonala. Argazkia: C. Crespo]

■ Malerrekako Donamarian erbesteratua

Iheslari lehenik eta deserriratzeko agindu baten ondorioz Nafarroara erbesteratua ondoren. Horixe Teneren patua. Gure informatzaileetako batek kontatu zigun honakoa: “*Berak kontatuta dakit gerran deserriratu egin zutela eta deserriratzeko aukeratzeko tokiak eman zizkioten (barre ironikoa) eta hoiengan artian Nafarroa agertzen zen eta Nafarroara joan zen. Barre egiten genuen. Orain ere beraientzat Nafarroa horrela dago (kontsideratua batzuegandik)...*” (I7)

Arantza eta Mari Luz iloben bitartez jakin dugu, bestalde, honakoa:

Una vez acabada la guerra civil, le dejaron volver a cualquier lugar de España pero no a Euskadi, ella preguntó como consideraban a Nafarroa y al decirle que no consideraban Euskadi, se fue a Donamaria.

Allí estuvo viviendo con los del Ostatu, ayudando en lo que se podía y a cambio le mantenían. No sabemos cuánto tiempo estuvo en Donamaria pero si sabemos que nuestra abuela y la familia solían ir mucho a visitarla pues ella no podía ir a Deba. Nosotras también hemos solido ir con nuestros padres a visitar a conocidos y amigos que dejó en Donamaria.




Mujika sendia bazkaltzen.
[Argazkia: Tene Mujikaren
famiariaren artxiboa]



Joxe eta Tene.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]



Donamariak hartu zuen bada Tene ilobek kontatzen dutenez. Noiz arte, ordea? Teneren ama 1947an hil zen. Ez dakigu ordurako Debara itzulia ote zen.

Teneren amaren hil oroigarria.

[Tene Mujikaren artxibo pertsonala.

Argazkia: N. Goikoetxea]

7. AZKEN TENE



I(ra)ku(s)/(r)lea atal honetan orientatzeko gezi-galderak:

Nolakoa izan zen Teneren itzulera herrira? Zein funtzio bete zuten elizgizonek garai horretan? Zein eredu izan zituen Tenek? Belaunaldien arteko katebegi izan zen Tene? Nola joan zen aldatzen Teneren testuingurua hirurogeietan? Zein lan izan zituen esku artean azken urteetan? Nolakoa izan zen haren azkena?

■ Itzulera ostekoak

Nola herriratzen da bat, Frankismoaren gordinenak bizi izan ostean? Nola ekiten dio bizimoduari? Egoera liminal horretan Tenek bere jardura politikoa ixiltasunean gordetzeko hautua egin zuen. Nola bestela? Erbesteko erresistentzia moduak mutatu behar izan zituen Debako baldintzetara egokitzeko: mina familia giroan gorde, halabeharrez arerioarekin kolaboratzen zuen herria behatu, ixilpean eragin, hurrengo belaunaldia sortu. Aitortu ez zaien lana egin zu-



Tene nagusiaren argazkia.
[Iturria: Debako Udala]

ten emakume abertzaleek baldintza horietan funtsezkoa den familia-egituretan.

Beraren ondoan hazitako informatzaileak zioen Tenek Emakume Abertzale Batzan bizi izandakoak ez zizkiola sekula aitatu. Informatzaileak bere amaren Tenerenganako miresmena nabaritzen zuen harengana bidaltzen zuenean euskarazko eskolak jasotzera baina Tenek ez zion sekula santan kontatu bere iragan politikoa:

“Amak ematen zion izugarritzko garrantzia: Emakume batzakoa zan... Ta baina berak ez dit sekula horretaz hitz egin. Ez, nerekin euskeraren kontua, antzerkia...hizkuntzari buruz eta berak kudeatzen zuen hura esango genuke. Politika ez, abertzaletasuna bai eta elizan olerkiak eta kantuak...Baña hortik ez zan ateratzen.” (I7)

Informatzaileak esaten digunez bi belaunaldi abertzaleen arteko katebegia amek osatu zuten, Teneren eredia ezagututa, haurrak harengana bidaltzen ziztuztenean hezitza gerra ondorengoan:

“Nere amak bazekien, Errepublikara garaian eta hori Itziarren, Itziarko batzokian eta hori nere amak antzerkia eginda dauka. Aginagaldenian. Ta berari gustatzen zitzaion gauza hori, gustatzen zitzaion kultura eta esate zuan ba nere familiak jakin dezan ere bai, ezta? Ta maila horretan ba berak ikusi zuen Tene zela hemen Deban eredu.” (I7)

“Gure amaren joera erosteko eta gauzak erosteko hara zen, hara jute zen. Ta zazpi urte nituela edo gutxixoa eraman ninduen amak beregana. Nere amak esate zuen “emakume honek asko daki eta hau euskalduna da eta honek erakutsiko dizu idazten”. Ta ni ikasteko beti prest eta orduan eraman ninduen bere sukaldera. Eta beti gogoratzen det bere sukaldeko usaina, barruraino sartuta daukat, porru-patatan usaina. Izugarria. Eta lehenbiziko gauza idaztiño bat eman zidan. Ta orduan ba haste zen “Itziartxo”, ni orduan Itziartxo nitzan askorentzat, “ikasiko degu nola idazten den

hizki bakoitza” eta garai hartan r-a marratxo batekin jartze zitzaion gainian, l-ari beste bat jartze zitzaion eta t bustiari zera bat arrasta bat ezker eskubi gainean jartze zitzaion. Orduan ba gauza hoiek berarekin ikasi nitxun eta ni oso seria nitzan ikasten, ni ere oso seria nitzan umetatik eta bera seriago (barre egiten du).” (17)

Tene Nafarroatik Debara itzuli zenean familiaren dendan aritzen zen lanean eta denda hark dendaoste bezala sukaldea zeukan. Sukalde hartan haurrei eskola ematen zien, antzerkiak prestatzen zituen eta euskaltzaleen bisitak jasozten zituen. Hura izan zen azken Teneren leku naturala, bere babeslekua. 40. hamarkadan ume zen herritarrak horrela gogoratzen zuen Tene Mujika:

“Mujikianian, dendan egoten zan Enkarnakin. Ta Joxekin. Hirurak egoten ziazzen. Gu Mujikaneko bezeruak ginan. Juten giñan ume-umetatikan Mujikanera eta han egote zan eserita ertz batian, ongi etorrixa iten eta hitzegiten eta alaitasunez hitz egiten. Oso umetakua det hori, gerra ondorenekua. Egunero-egunero juten giñan Mujikanera. Harreman haundiko jendia zan ta bezero asko zaukaten. Harreman haundiko jentia zan, beti kontu-kontari. Zer erosi bihar ta ostentzeko gauzak kontatzen-eta. Gerra ondoreneko estutasun haietan gañera...bi aldiz gañera. Konfiantzazko jentiaikin edozer gauzataz hitzeiteko eta. Felisa ere emakume on-ona zan, igual-igual sorazutarra. Izugarri emakume sotila zan”. (15)



Mujika denda aurreko argazkia. Teneren bi ahizpak eta hiru ilobak. [Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]



Mujikatarrak mahai inguruan.

[Argazkia:Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

Ze ote den haurra izatea. Gure informatzailea denda hartako turroiekin gogoratzen da: *“Haien harremana izugarri ona zan. Oso alaia zan harremana. Tene jarritxa egote zan ta kontuak iten zitxun, diru kontuak, lapitzakin. Enkarna eta Joxe zian jenerua ematen zutenak. Ta orduan, Gabonetan-eta, Mujikaneko dendia izate zan turroi gehixena eukitzen zuana urte haietan.* (I5)

Baina dena ez zen gozoa garai hartan. Haur hark gogorarazten digu Debara udaran etortzen ziren espainiarren artean bazirela gerran eta ondorengo urteetan errepublikarren eta abertzaleen kontra biolentzia militarra erabilitako pertsonak: *“Zuk badakizu? Deban, hotel Deban erabaki zan Gernikako bonbardaketa. Ta generala, 23Fkua, Valentziako hori (Milán del Boch), Deban egoten zan udan, berau. Argazki bat omen dago bera San Roketan banderilla jartzen zezenari. Danak horrelako jauntxoak zeuden Deban orduan”.* (I5)

Beldurrak aidean bizi zen gehiengoa, zigortuta, ixilduta. Euskara ahopeka erabili beharra zegoen garai hartan eta ondorioak nabaritu ziren bai debarren artean:

“Debako gaztiak gutxi arduratzen zian euskarakin. Debako gazte talderik haundixena zan Beti-aurrekuak, ni gogoratzen naiz gazte talde hori tartian euskaldunak



Soldadu alemanak San Roke jaietan herritarren artean.

[Iturria: Debako Udala (ed.), 1977. Deva, ayer 260 fotografías. Debako Udala]

egonatik ere hitz bat etzutela itxen euskeraz. Gure artian euskeraz Artzabalguak ta Martzelino Egaña harrituta... 1950-52, 55, gerria pasatu eta aurrerakua. Deba zan hori, ikusi in bihartzan. Gero ja euskal jaixakin eta hasi zan zeoze baña... (15)

Ondorengo Ortziren aipu hau baliagarria izan liteke azaltzeko zein zen panorama 50. hamarkadan euskararen eta euskaldunaren jazarpenaren ondorioz:

La lengua vasca ha sido proscrita de todos los usos oficiales y de la enseñanza en todo el País Vasco. 'El juez o el cura, obedeciendo instrucciones recibidas, niega a los padres el derecho de poner a sus hijos nombres vascos... En las iglesias en que el culto público interno se hacía en euskera porque los fieles no hablaban otra lengua, fue proscrito el idioma vasco, autorizándose solo su uso antes de las ocho de la mañana... Los franquistas no toleraron la presencia del euskera ni en las tumbas y panteones de los cementerios vascos. Por decisión de las autoridades militares y civiles fueron tapadas con cal y cemento, o borrados con cincel o martillo, los nombres e inscripciones en lengua vasca... La consecuencia de toda esta persecución bárbara es que los límites lingüísticos del euskera van estrechándose y reduciéndose de una manera alarmante. El dialecto roncales ha desaparecido totalmente. Según computo del Congreso de Estudios Vascos de Biarritz, el número de vascos que hablaban el euskera era de 700.000; en 1954

la cifra había bajado a 525.000. (Ortzi, Hist. de Euskadi, 289-290. In Iztueta, 1981-28)

60. hamarkadako beste lekukotza honek ere erakusten du Deba zertan zen Frankismo ostean:

*“Gau eskoletako umeen listaua begiratu eta danak euskaldunak ziran. Bai danak euskaldunak baina hamen danak erderaz iten debe. Ta ikusi basarriko jendik e umiei erderaz itxe ziben, gaizki baña erderaz. Eta ni akordatzen naiz etorri zanin abiz-
pa hona bizitzea hiru txiki zazken ta seme zaharrena errekauetara bialtze zun ta (umearen abotsa imitatuz.) “ama, inok eztaki euskeraz hamen”. Azkoittitik etorri-
ta pentsaizu! ta “bai, hortxen aurrin, bebaixen aurrin Mujikanin”. Ta Mujikanin ezautu zebe ta danak handik itte zitxun. Ixe inok etzakitten, nik esaten nun fa-
milixa gutxi batzuk ondo, baña umiek ezakixaben inok. Euskeraz inork ez. Ta nik errita batzuk iten nixkoben.” (I1)*

Itziartik Debara bizi izatera etorritako familia bateko alabak ere inpresio bera dauka, gehiengoak ez ziola eutsi ahal izan euskarari. Jazarpen politikoa, noski, bizi-bizi zegoen denek ondo zekitenez:

*“Neretzat Deban garai hartan zauan jente asko Itziartik jetxitakuak. Neretzako haiek etzuten ezer jakin nahi ez euskera, ez... igual konplejua zan, eztakit zertzan baña txarrenak, gure amak esaten zuan, txarrenak Itziartik jetxitakuak, danak erderaz. Ba igual zan konplejua, gauza asko nabastuko zian hor...ta gero badakizu, herrixan zauden haura...eztakit zertzala ta hua salatu intzula ta bestiak bestia ta... porque eurak (jende nagusiak) oso ondo zakixen e... halako ta...halako familik begi-
ra ze intzuen ta huragatik ze gertatu zan ta.” (I2)*

*“50. hamarkadan oso gogorra zan. Garai oso gogorrek dira. Euskara baztertua dago, ez soilik baztertua dago, zigortua guztiz ta ni zigortua izan naiz e?, zumearekin esketan jo, eta bazterran kontra utzi, ta jan gabe utzi eta horrelako gauzak. Herri-
rian ezin zenun hitz egin, ez gendun hitzegiten, ezin zan. Mujikanian euskaraz eskatzen gendun eta euskaraz erantzuten zuten. Ta in bihar bazan erderaz ba erderaz egiten gendun. Orduan herri guztietan bezela erderaren zaindaria zeuden, españolaren zaindaria zeuden eta euskararen zaindaria ezin zen inor izan. Hori da gogorra. Orduan ba bazeuden toki batzuk ba nun euskeraz egiterik zegoen eta ba*

bai nire ama ta holako jendia ba...Itziarko jendia zen. Hori beste gauza bat Itziarko jendeak Debara jetxitakoak ba nik uste euskal kutsua behintzat gorde dute. Beste batzuk berriz baztertu egin dute beldurrez ere. Hori ere bai kontutan izan behar da. Askotan esaten degu bai erdalduna baña erdera edo erdaldunak, erderara jo dute beldurragatik ere bai.” (I7)

Euskaraz egitea jardun politikoa bazen mende hasieran, are politikoagoa bihurtu zen gerra ostean. Gaztelaniaz egitea, berriz, gehiengoaren obligazio. Hortik berehala dator etnopsikiatriak aztertu duen autogorrotoaren bizipena:

“1944an jaioa, gurasuak biak Itziartik jetxitakuak, bizi ginan Zesteroko etxian. Zesteroko etxian oso giro euskalduna zan. Nere gurasuak ere hala zian: nere etxian ezintzan erderaz egin, ezertarako. Ni eskolatu nitzanian nik ez nekian erderaz. Ni gogoratzen naiz parre itxen ziatela. Ba nola hitzegiten nuan ta ze gauza esate nittun. Geu lotsatze giñan.” (I2)

Euskarari eutsi zioten oro har ideologia zutenek. Informante berak kontatzen digu elkarrizketa pasarte honetan zein zen etxean jaso zuen eredu:

“Ama zan, nola esango nizuke (ixiltasuna) abertzale sutsua, hori... eta oso langilia. Nere etxian aurrenietzeon...nere etxian etzeon ezer derecho a cocina ezkondu zian. Zan ba oso famili xumia, oso xumia. Oain, beti kontatu izan digu baña beti kontatu izan digu bere bizipenak, txiki-txikitatik bere gauzak, ba gerra denboran gauzak nola izantzian.

Aita gudarixa izan zan. Bai, aitxa egon zan Batallón San Andresen. Eta ama ba batzokian Itziarren, ama PNVkua sutsua zan. Gero ez, gero EAra...

Galdera: Emakume Abertzale Batzakua zan?

Ba igual izango zan, eztakit. Badakit egon ziala, badakizu nola illia mozte zieten eta badakit egontzala amenazatuta hortaz. Baña eztakit besterik. Gero hoiek Itziarko batzokixan ibiltzen zian ta klaro han Itziarko batzokixan jente asko ezagutu zuan amak, ba Nemesio Etxaniz eta hoiek nik uste det handik ezagutzen zittula amak. Bai Nemesio ta bai bere anaia, medikua, Deban egontzana. Gure etxiakin harreman haundixa zaukan... Gure aita ta amakin harremana zakan.” (I2)

“Ama erreferente argi bat da. Eta aitak ere berak kontatzen zituen bere istoriua eta... Guk txiki-txikitatik jakin degu eurak kontatutakua. Ba nola pasatu zuten gerra garaia eta zer. Amak beti esaten zion aitxari “zu gorrixa ziñan” (ANVkua) ta ... aitxak esaten zion amari “zuk guri indakua! Iñok ez digu egin. Jun Aginagaldekuenera antzerkixa ikustera ta gorriak giñala ta utzi ez sartzen!” Eta beti botatzen zion arpeira amari (barrez). Ez etxian, esan nahi dizut, beti bizi izan degu hori.” (I2)

“Bai. Gu giro hortan hasi giñan. Nere aitak ez zakixen ez idazten, ez irakurtzen. Bakarrrik firmatzen zakien bere izena.

Galdera: Ta amak?

Amak bai. Amak asko irakurtze zuan. Asko gustatzen zitzaion.

Galdera: Eta ze irakurtze zuan?

Ba irakurtze zuan danetik. Begira, Xalbadorren heriotzean haura zakixen atzetik aurrea, aurretik atzea. Genoveva de Brabante, ez dakit nun egongo dan liburu haura, zan referente bat beretzat. Eta gure amak irakurtze zuan gauza asko. Ta gero azkenaldian irakurtzen zuan Itun Berria. Egunero egunero.

Galdera: Euskeraz?

Euskeraz.

Galdera: ama elizkoia izan da, fededuna?

Bai, oso.

Galdera: Berak lotze zuan euskaltasunarekin, ezta?

Bai, bai, bai. Ama zan oso, aitta ez. Hauek zatozen Juangoikua ta Lege zaharretik zatozen” (I2)

Informanteak deskribatzen duen bere amaren profila izan liteke Emakume Abertzale Batzako hainbat kiderena. Emakume guztiak ez ziren izan intelektualak, baizik eta herriko alabak, etxeko andreak. Horiei zuzenduko zaie Tene, aurrerago ikusiko dugunez, Diario Vasco orrietan. Kolektibo hau da Teneren publikoa, ez emakume ikasia, baizik eta herrietan familian eragiten ari den etxeko andre edo andregai. Horrela diosku hurrengo belaunaldiko informanteak:

“Hor ezagutu nuen Anes, Tene eta nere etxeko giroa. Nere abertzaletasuna hortik egin zen. Aitxa garrantzitsua izan zen abertzaletasunean. Ezkerrekua gehiago, izan zan ANVkua. Ordun aitxa eta amangandik jasotzen det hori eta bueno ba eramaten

*naute bi tokietara ba, gure ama oso elizkoia, beste gauza bat lotzen duena Tenerekin, oso elizkoia ta orduan Tenerengana ikastera eta abar eta gero bestalde Don Anesekin. Lebedabizi publikoan hitz egin nuen 7 urterekin. Don Anesek esan zuen "Itziartxo, zuk egingo zenuke euskeraz?". Ta "bai!" Beste pertsona inportante bat gure eskaile-
ran, gure etxean izan zen Juan Joxe Lete. Hauek dira familia Soralezetik etorritakua
baina baita ere euskal munduan murgilduak egon dira beti. Eta abertzaletasunean.
Gerran hil zitzaion semea Juan Joxeri. Ta Joxe berak idazten zuen eta olerkiak egiten
zituena. Hor ezagutu nuen Nemesio Etxaniz. Garai horretan dana. Elkarrekin bazeu-
katen lotura. Nemesio etortzen zan Juan Joxerengana. Ta Tenerekin egoten zan. Hauek
beren bilkurak edukitzen zitxusten eta ez dakit beste inor... (I7)*

Familia, auzoa eta hurbileko erosketa-lekuak, horra euskaldun izateko leku bakarrak garai horretan. Deban Mujikaneko denda zen lasaitasunez hitz egiteko tokia. Eta horrek errespetu-leku izatea dakarkio informatzaileari, katedralaren pareko:

"Eske, dendan egote zan, dendia zakan ta gero zakan aparte bat...bi ate zazkan dendak, bata Lersundi kaletik, ta bestia San Roke kaletik sartuta zeon hola jarraian despatxu txiki bat-edo, kontuak itxeko, han egoten zan Tene. Ta dendan abizpa Enkarna ta Joxe. Eta Felisa. Ta berakin ba harreman estua e..., ni akordatzen naiz juten giñala ta emate zigula baña ni hola esateko harreman estua ez det euki, bara jutia zan ir a la catedral o sea...

Bai, bai. Ikuste zendun haura zala, eske Mujikaneko dendara jutia zan pues eso... juten ziñan beste toki berezi, ez ziñan juten dendara...ez, eske ez dakit...diferentia zan girua

Galdera: Katedrala esan dezu...

Bai, bai, neretzako zan...holako gauza bat, diferentia, nahiz eta beste leku batzutan euskeraz hitz egin eta ez, han... beti zeon... eta gañera zerbait ondo expazendun esaten edo...zuzenduko zizuen..." (I2)

Teneren ilobek datu gehiago eman dizkigute:

La tienda de ultramarinos era un lugar que se convirtió en un círculo social y se realizaban tertulias y es por lo que era tan popular en Deba y por ello recibía muchísimas visitas.

Recuerdo que cuando el lendakari Leizaola volvió también del exilio, al día siguiente de su llegada, fue a visitar a izeko Robus a su casa en Deba.

Elkarrizketatuetara itzuliz, Tene nola gogoratzen duten galdetuta honako irizkiak bildu ditugu elkarrizketa sakonetan:

“Emakume fina eta sotila eta harreman oneko emakumia zan. Izugarri emakume fina ta sotila. Izugarri gozua zan bizketarako. Eta beti ixil-ixilik, umil-umil. Eta gertu hitz egiteko eta beti emakume jatorra, bai.” (I5)

“Tene era culta, extremadamente culta. Hablaba de todo con propiedad, muy claro. A mí me quería mucho por la pasión que yo tenía por el euskera.” (I6)

“Tenek eukitzen zuen halako moñua edo atzea baña Tene zan aurpegi luzekua. Erropaz eta ez naiz asko gogoratzen, en cambio Enkarnak, behintzat nere oroitzapena, arpegi biribila, oso diferentiaak zian fisikoki. Igual itxura gehio Tenena baina gizonezkuan zakan gehio anaixak, nere iritziz e?, eztakit nik dakaten e... ilun janzten zian.” (I2)



Mujikatarrak zutik.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

“Oain azkeneko azaltzen diazen argazki hauetan berdin-berdina. Gaztetan ere horrelakoxia zan. Beltzez janzten zan gehixenetan. Gonakin. Orduan etzon prakarik. Debekatuta zeon (barrez). Nik lehenengo aldiz emakumia prakekin ikusi nuana Belgia (Belgikako jatorrikoa esan nahi du) zan, ez dakit ezagutu zendun, Belgia zan. Hamen Deban bizi zan.

Ilia ba argazkietan bezela, berdin-berdin orduan ere. Harrotasunik gabe dena behera-behera (Eskuekin keinua egiten du). Abotzaz enaiz asko zertzen. Ez daukat oroimenik abotzenikan. Goxua zan hizketan beti. Azkenengo egon nintzarian berakin 90 urte in zitun, ta zorionak ematera jun nitzarian “beste ehun urtian” esan nion. Artian fresko-fresko, oso buru argixakin zegoen eta “beste ehun urtian horrelatxe” ta “ez, ez, gerokuak eztakigu ta nolakuak izango diazen ta...eztet nahi hainbeste urtian bizitzerik” bere erantzuna (barrez). Oso oroimen ona daukat, zorionak ematera jun nitzan, orduan kuartuan zegoen, orduan etzegoen dendan ta goixan, erretiratuta zauan. Baña argi agurtu nuan ere.” (I5)

“La recuerdo con gafas de aumento, siempre tiesa. Me quería mucho. Dabamos clase de euskera. Fué mi primera profesora. Luego, a veces cenaba en la tienda. Conmigo probó la letra de la Marcha de Deba (Pablo Sorozabalen pieza). Yo le cantaba y ella corregía.” (I6)



Tene eta familia bazkari batean.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

“Bueno...neretzako emakume (imintzioa egiten du ahoarekin)...ni tratatu nuana..., nik sakonki ez nuan tratatu baña nik tratatu nuana emakume (ahoarekin keinu bera egiten du, onarpen keinua).

Galdera: Goxua zan tratuan?

Bai (dudarekin bezala)... Bai.

Galdera: Distantea?

Eztaikit distantea, autoridadia zakan. Ez dakit nola esan...ez zizun zehatzen e... baña neretzako autoridadia zakan.

Galdera: Presentzia bat...

Bai, hori da. Bai, bai, emakume (keinua bat egiten du eskuekin osotasuna adierazteko).

Errespetuz-edo? Edo zu zeu ere zeatzen zinala... ez berak distantzia ipintzen zuala baizik eta... Igual norberak jartze zuan, bai.” (I2)

“Ba emakume hola...itxixe zan neretzat. Bai, seria, seria, seria. Era muy seria. Ta claro hau ere bere mundun bizi zan, idatzixa eta gauzak “eta ikastolia ondo dijua?” Eta kitto. Bai, amama bat. Oso gutxi ikustezun eta oso langile zan berien, berien. Era muy diferente a todos los hermanos de esto. Era, se le notaba que tenía una clase... Bai, idaxten ondo itte zun, euskeraz ondo itte zun, y ahí estaba metida. (...) Letren munduan bizi zan haura. Oso, oso. Nik ezagutu nun hola, una personalidad muy grande pero sola, aislada estaba. Trabaja en ese aislamiento, trabajaba todo el tiempo. Bai, eta etxien ere holaxe eukitze zeben bere gela, bere gauzek, erdi ilun ikuste zan beti eta hola nik parre argi bat ez nitxon ikusi sekule. Erretiratuta zeon.” (I1)

“Tenek euskaltasuna eta kristautasuna gauza biak batera transmititzen ditu. Bera da goitik beherako euskalzalea eta baita ere kristautasuna dauka berarekin. Nik esango nukeena da emakumea, bere garaiko emakumea baina hori egiten duena zera Jainkoa eta Lagi zarra? Ba hoixe da Tene. Nik uste det bi hoi en zaindari zala. Nik hola ikusten det emakume hori. Emakume oso serioa. Bera alta zan, oso garaia. Aurrepegi luze samarra, luzea. Oso seria, begi ondoak nahiko beltzak zitun. Antiojoak beti, nahiko lodiak. Egote zan gajua irakurtzen (keinua egiten du papera begien ondo-ondoan jarriz). Izugarria! Nere iritziz zan emakume oso hieratikoa, tentea, zuzena. Irribarra...ez diot nik irribarra ikusi. Emakume horrek gorde du nere iritziz gauza asko bere barruan.” (I7)

“Harek zeukan pazientzia. Begirada tristia nik topatzen nion. Guregana irripartsu ta pazientzia entzuteko-ta... “hau nola in bihar da, ta hori?!” Ta itxen zuan ba (buruarekin keinu). Zenbat lan hartze zuan emakume harek... jantzixak –eta, berak itxe zitxun danak. Rebistetatik nola ateratze zuan txapelak edo sonbreruak nola egin ta alanbriakin indako miriñakiak ta in bihar da dana, eh? Zeruan gertau daixela, goixan ala behian baina zeruan, han ere erakusten egongo da.” (I8)

Erresistentziarako instituzio nagusiak izan dira familia-egiturak. *Katedral* hartan Tene zen erdigune baina ez zegoen bakarrik eta informatzaileak ñabardura interesgarriak ematen dizkigu hango harremanen inguruan:

“Abizpa diferentia zan, oso diferentia zan baña han dana euskeraz e, han ezan itten hitzik ere erderaz. Anaixa gizon ooon bat (luzatu egiten du o bokala), bere semia bezela. Baña anaixia un buenazo, neretzat gizon on bat, nik hori dakat oroitzapen hori dakat. Hantxe beti lanian eta ze(r)ian... Felisa (Joxeren emaztea) ere badakizu, itzalian, neretzako itzalian. Etzan, etzan klaro, etzan bertakua ere. (...) Zan emakume umila, oso umila. Kanpotik etorritakua vamos a decir, ez kanpotik baña... Galdera: Han autoritateak ziren Tene eta abizpa... ”

Bai, anaia ez gehiegi e? Etzait iruitzen, nik uste det han emakumiak ziala... Bai, nere iritziz, eztakit.” (I2)



Mujikatarrak faro baten aurrean.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

Informazioa zabaltzeko eskatuta honakoa erantzun zigun:

“Eskeeee, oso diferentiak zian...bueno, papelak diferentiak zakaten. Nik eurakin tratatzen nuena oso papel diferentia zan. Bata zan hantxe despatxuan egote zana. Dendan etzan, zerbitzen da etzan...ni ez naiz gogoratzen behintzat, en cambio Enkarna zan ba dendan. Bai, neretzat gobernu eramatzen zuana Enkarna zan, nere iritxiz

Galdera: Dendarena?

Bai dendarena ta igual...gehixo. Eztakit.” (I2)

Teneren ilobaren eta familiaren gertuko zen informatzaileak ere hala esaten digu:

“Encarna era muy voluminosa. Le mandaba a Jose Antonio (Teneren etxeko iloba) a hacer recados, pesar bacalao. Tenían una máquina de aceite. El marido de Feli-



Dendaurrean Joxe eta semea.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

sa estaba por ahí. Había un bodegón en la calle San Roke. José era fuerte. Llevaba mantala azul, alpargata negra, era grande. Me acuerdo del pellejo de vino. Con 20 años íbamos un grupo por las tardes, amigos de Joxean. Comíamos el bocadillo, bota de vino. Espantábamos a la clientela. Joxean era etxeko seme, muy buena persona, jóven, vivía con 4 mayores, Robus (Tene), Encarna, Felisa y Joxe. Andaba en la calle, herriko seme.” (I6)

Mujikaneko katedralean emakumeak ziren *katedran* eseritzen zirenak itxura batera. Tene zen, bestalde, lan intelektuala egiten zuen bakarra familian:

“Gero etxian nik ustet bera zala oso aparteko. Anaiarreen artean, eta garbi esateko, ez zeukan bere neurriko pertsona bat, bere mailakoa hitz egiteko, eztabaidatzeko... Kultur mailan Joxerekin edo Enkarnarekin ez dut uste harreman haundirik izango zuenik. Ezta Joxeantoniorekin ere. Horregatik etxe mailan ere bakartuta geratu zen. Gero lagunak eta bazitun baina ez dakit.” (...) (I7)

■ Elizgizonak katebegi

“Aber ba Debako Tene bezela, hauek dira oso puntualak. Kontuan eduki bihar da gerra ondoren jota dana arrasatu egin zutela eta hemen dena arrasatuta geratu zala eta jendiak bildurra zakan baita euskaraz itxeko ere segun nun. Oso leku gutxitan zegoen euskera, abertzaletasunaren... nere garaian inkluso, nere garaian... Aber gero 1978an abertzaletasuna perretxikua bezela sortu zan, mundu guztia zan abertzalia... hori hala gertatu zan baña nere aurrekuak, nere osaba adibidez... Nere osaba iparraldean errefuxiatuta egon zan. Han bazeon, bazeon PNV baina zeon... zertzan PNV... PNV zan zerbait (eskuak mugitzen ditu) inork ikusten ez zuana. Ze EGI hasi zan 66, 67an zerbait mogitzen eta EGI mogitzen hasi zanian, ni ere EGikoa nitzan, ni EGI-Batasunatik sartu nitzan gero, baña zan zerbait... Aberri Eguna etzan existitzen ez zauan inolako posibilitadeik, igual Mejikon eta Argentinan eta Parisen eta ingo zitxun... Baionan ere PNVkoak klandestinidadian bizi zian, bildurrez bizi zian. Hauek bizi zian ixilik ere. Karo, Frantzian ez zeunden oso seguru ere, gu gure garaian ere, jendarmeak kontuz... trankilamente hartu eta inor ez bazeon begira, mugan entregatzen zizuen e! Hori bildurra... ”

Aiputik ondorioztatu behar dugu lehen ETA hartako militantziari heldu zion gazteriak ez zuela gerraurreko abertzaletasuna inondik inora aurkitzen. Tene-ren figura aintzatetsi bai baina bakana iruditzen zaio eta ez du abertzaletasunaren indar antolaturik sumatzen. Aipua esanguratsua da oso, hitz gutxitan laburbiltzen dituelako giltzarriak diren hainbat ideia: Frankismo gorrian jaio eta hazi diren euskal herritarrek galdutzat jotzen dute Agirrereren Gobernuaren legitimitatea. Izan ere, gerra hotzaren testuinguruan AEBk eta Europako Aliatuek Francoren erregimena onartzearekin batera (1953ko Madrilgo Akordioak) EAJren kanpo ekintzaren estrategia aldaketa ekarriko du. Agirrereren heriotzak areagotu egingo du legitimitate horren higatzea espainiar estatuaren integrazioan jarriz indarrak. Nola biziko zuten hau guztia exiliatuek? Nola, Tene bezala, Euskal Herrira itzulitakoek? Eta nola Euskal Herrian bizitzen jarraitu zuten eta erregimen frankistan bizi izatea beste aukerarik izan ez zuten abertzaleek? Zein izan zen *emakumeen* papera testuinguru honetan?



Mujikatarrak Azkainen.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

Egin kontu 60. hamarkadan konfrontazioa zetorrela abertzaleen artera. Ikustagun lehengoko informante berak nola jarraitzen duen bere kontaketa:

Berpizkundera abertzaletasunera ekarri zuten hauek Txillardegi, Benito del Valle... EKIN fundatu zutenak. Hoiek hasi zian. Klaro, Tene bat egongo zan eta egongo zan beste holako bat Bizkaian baña... Hori zeon, kanposantuko pakia. Banaka, oso banaka. Salbuespen bat zeon, eliza. Elizan bai doktrina ta bai meza abal zan... neurri baten.” (I4)

Salbuespen bakarra ikusten du, eliza. Aipu mamitsu horretatik elizaren katebegi izaerari helduko diogu bada. Tenek berak argi zuen elizaren garrantzia euskararen eusle bezala:

“Beste geiagok ere bai, baña euskerea maitasunez, gure eliz-gizonen artean dabill. Asko ta asko zor dio gaur euskereak elizari. Auxe degu pozgarri bat eta zerbait itxaropen poz tutzen gaituna. Izan ere Maitasuna Jaungoikoaren doaia da-ta, eliz-gizonak Jaungoikoari emanak diran gizon oiek. Bera’gandik artu degun izkuntza guretzat eman digun izkuntza, beste zio gabe ere nola maitatu ez?” (1969-3)

Testuinguru pixka bat behar dugu elizaren ekarpenaz aritzeko eta joko dugu Arantzazu aldean 1956an sortu zen Jakin aldizkarira.

Aldizkariak zilar ezteiak egin zituenean 1981ean ale berezia atera zuten Jakinekoeak aurreko urteetako errepaso a eginez. Ale horretan Paulo Iztuetak (1981) betiko luma zorrotzez azaldu zituen zein zen Jakin sortu aurreko giroa, zeintzuk ziren Jakinen aurrekariak. Dokumentu hori erabiliko dugu elizak bete duen katebegi funtzioaz eta generoari buruzko hainbat ondorioez gogoetatzeko. Bistan da, Jakinik gabe ezin dugu egungo Euskal Herria ulertu.

Iztuetaren testutik gehien interesatu zaiguna da defendatzen duen honako tesi a: ekimen politikoaren ezinak (Francoren politikaren homologazioa Europan eta exilioko gobernuaren ezintasun, ahultze eta 60. hamarkadatik aurrera desagertzeak) ekarri zuen arreta ekimen linguistikora. Debako gure informantearen oihartzuna suma liteke ikerlariaren analisisian:

1950-60 urteetako politika-tristurak areagotu baizik ez zuen egin hizkuntzaren aldeko baieztapena. Jakin-en inguruko lankidegoak zekarren hizkuntz grinaren nondinorakoa korronte historiko horren barnean agertzen zaigu; baina, inondik ere, uste haietako eskakizun politikoek inposatuko dute euskaltzaletasunaren lehertzapen

bortitzago bat, hitzetan eta egintzetan. Izan ere, ez baitzen hura hitzen arazoa bakarrik. Euskaltzaletasunaren baiexzapen berria errazki ikusten da, «heterodoxia» politiko-ideologikora joango direnengan ezezik (Krutwig, Txillardeggi, etab.), baita jeltkide politiko (Agirre-ren baitan, e. b.) edo gerraurretiko euskaltzale jeltkidezaleengan ere (Zaitegi, Ibinagabeitia, Umandi, etab.). Ezin uka, euskaltzaleagotze hau, politiko helduengan batez ere, nazioarteko euskal politika hondatuaren etsipenak eragina ere badena. Aberria askatzeko lehentasuna etxe barneko indarrei eman behar zaie: herri baten nortasuna dago arriskutan, eta nortasun horren zutaberik zindoena hizkuntza da. Desliluramendu politiko bati, hizkuntzaren itxaropenarekin erantzuten zaio. (Iztueta, 1981-23, azpimarrak gureak dira).

Gaurtik begiratuta funtsezkoa dirudi ulertzeak euskarari atxiki zitzaizkion funtzioek ezintasun politiko batean hartzen dutela lur. Garrantzitsua iruditzen zaigu ohartzea, era berean, “hizkuntzaren itxaropena” emakume abertzale eta elizgizonen lan-esparrua izan zela XX. mendeko lehen hamarkadetan.

“Itxaropen” horrek eskatu zuen lan eskeraren lekuko da Jakinen egindako lana eta artikuluan Iztuetak aletzen diguna. Hizkuntzari balio praktikoa eta funtzionala eskatu behar zitzaiola uste zuten eta euskara kultura modernoaren zerbitzuan jartzean ikusten zen funtzionaltasun hau. Horrela, batasunaren bila, kultur edukien bila, euskal hitzen bila aritu ziren. Ildo beretik zioen Atxagak 2020an “Euskararen balio politikoa oso posizio fuertea da, non eta eusten diogun. Nahikoa litzateke 5.000 irakurle tinko. 5.000 irakurleren bermearekin, horrekin mugituko genuke mundua”. Dilema da, ordea, nola heltzen dioten oraingo eta datozen gazte belaunaldiak desliluramendu politikoaz ez badira konsziente? Gure informatzailetako batek ere horrela zioen euskaren historia sozialaren gainean:

Orain nik esaten diet (belaunaldi berriei) euskara ba al dakizu zer dan? Ze kosta dan hitzegitia? Ez dezue imajinatu ere egiten. Ikusten dute ikurriña beti hor balego bezela, ez! (...) Orain dohain da, eta iritzi politikoek ere ez dute ezer kostatzen. Orduan betidanik horrela izan dan bezela, ez? (I4)

Nola osatzen dira katebegiak? Zer da transmititzen dena eta zer ahanzten dena? Jakinekoek arreta eskaini zieten aurrendari zituztenei. Iztuetak lan zehatz batzuk aipatzen ditu tartean:

Ibar-en aspaldiko Genio y lengua (1935) Lizardiren biotz-begietan (...) Eta zer esan poema-mirari berriez: Salvatore Mitxelenaren Arantzazu. Poema (1949), Orixe-ren Euskaldunak (1950), Labaienek eman zion lagungarri eta guzti. Eta Onaindia-ren Euskal Milla Olerki Eder (1954). Honek jo eta pasa egiten zituen gure amets guztiak: berau zen euskal literaturaren frogarik onena, hizkuntzaren zapaltzaile ororen kontra. Egia da, baikorregiak eta xaloeziak ginela gure uste eta eritzietan; baina halaxe sentitzen genuen eta hortixe bizi ginen. Euzko-Gogoa-ren Guatemalako azken aleak benetan hunki gintuen bere olermen oparoarekin (1956). Mitxelenaren Bizi nai hura eta N. Etxanizen olerkiak eta Aurraitz-en lana zinez gustagarriak izan ziren guretzat. Oraindik poesi molde berriak ez ziren agiri; baina enbor zaharraren gerraondoa gerraurreko onenarekin aldera zitekeela pentsatzen hasi ginen. Iztueta (1981-33 azpimarra gurea da)

Gerraurre eta gerraondoak lotzen ageri zaizkigu lan honetan askotan aipatu dugun Nemesio Etxaniz eta baita Aita Santi Onaindia ere. Aita Onaindiak 1954ko *Euskal Milla Olerki Eder* izeneko liburuan argitaratu zituen Teneren hainbat olerki: *Ama, Muxua, Ikazkin Lilluratua, Gogo-Negarra, Arnoko Gurutzia*. Baina ez bere, ez beste emakumeen izenik ez da ageri itxura batera hortik aurrera. Lehenagoko aipuan Iztuetak aipatzen zuen *enbor zaharrear* ez da emakume izenik ageri. Elizak eutsi zion euskarari baina elizan emakumeek duten ezlekua erreproduzitu zen gerraostean, agian areagotuta. Gaztedi elizkoiak eraiki zuen gerrarteko zubia baina bidean galdu egin ziren ahots batzuk, Onaindia karmeldarrak garraiatu zituen arren, Teneren kasuan bezala.

Konstatatu dugu 25 urteko balantzea egiterakoan Jakinen idatzi zuten 294 idazletatik 15 edo 16 direla emakumeak⁷⁷. Zuzendaritzetan soilik gizonak

⁷⁷ Lan hauek identifikatu ditugu emakumeenak bezala:

ALLLJR (sic), Arantxa Ikastolak eta irakasleak. Jakin Sorta 6, (1972), 47-54.

ALZOLA, N. Bernat Dechepare: Olerkiak. 34 zenb. (1969), 79-80.?

ARANTZA Lourdes. Sinismena arkitzeko leku. 7 zenb. (1958), 67-76. Abizenik gabe!

AZPEITIA, Julene Xabier Kintanari ta irakurleei. 33 zenb. (1968), 64-67.

ERREZOLA, Mikele 1937 aurreko ikastolen edestirako Jakingarriak. Jakin Sorta 6. (1972), 261-274. I. Eraskina: Kondairarako dokumentua.

GALDOS URRUTIA, Rosario Arabako jendetzari buruz zenbait ohar. 17/18 zenb. (1981), 62-73; *73-77. (Eusk.: Gotzon Nazabal)?

GARMENDIA, Mari Karmen Elebitasunaz ohar pare bat. 19/20 zenb. (1981), 35-40;

ageri dira. Eta laikoak diren sinadurekin aldizkaria berritu ahala gazteak gizonak dira denak. Problematizazioa, bistan da, ez da Jakini soilik dagokiona. Hain zuzen ere, abangoardian kokatzen dugun Jakinen emakumeen ikusezintasun hori gertatu bazen 1956-1981 aldian, ondorioztatu behar dugu genero-sistemaren desberdintasunak indartu egin ahal izan zirela euskal elizaren genero-sistema erdiguneko izan zirelako Frankismoaren genozidioaren aurkari kulturalen artean. Horrelakoxea izan zen enborraren transmisioa gurean. Interesgarria litzateke hipotesi modura lan sakona egitea horretaz, alegia, nola eragin zion elizgizonek osatu zuten katebegi funtzioak emakume aitzindarien ikusezintasunari? Gerraurreko emakume idazle abertzaleek ez zuten erraz izan ahots publiko bat lortzea baina ostean ere jasan zuten elizaren genero-ideologia gutxieslea bai nazional-katolizismoaren aldetik, baina baita elizgizon ziren (nahiz eta haietako asko sekularizatu) abertzaletasunaren eusle nagusi izan zirenen aldetik? Nolako harremanak eraiki zituzten elizgizon horiek emakumeekin? Horrelako lanek euskalgintzaren marko kontzeptuala osatuko lukete, ez soilik emakumeen gaineko ikasketak, bistan da.

Emakumeak klandestinitate kultura baten funtsezko egitura den familietan ari ziren jardun ixilean, hurrengo belaunaldia prestatzen ziharduten. Bestetik, jakina da emakumeak ez zirela 25 urte horietan soilik etxean aritu. Emakumeen partehartzea narrazio hegemonikoek adierazitakoa baino ugariagoa izan zen. Nagusiki irakaskuntzan aritu ziren emakumeak baina idazle jardunean horrek ez bide zuen islarik izan. Beraiei beste zerbait zegokien, nonbait.

-
- MO-42. Elebitasuna eta interferentziak. 19/20 zenb. (1981), 65-72; "72-73. Bibliografia. 19/20 zenb. (1981), 135-138
- IDIRIN, Maite Herri kanta egungo Iparraldean. 10 zenb. (1979), 43-59; *59-60.
- IPAR-ALDEKO ANDEREÑO BAT Ipar-aldeko ikastola. Jakin Sorta 6, (1972), 39-44.
- ITHURBIDE, Marta Euskararen Irakaskuntza. 10 zenb. (1979), 27-32; *32-33.
- MARTIJA, Mari Gernika-ko kanposantua... 23 zenb. (1966), 47-51.
- MINA, Mari Kruz Nafarroaren egungo historiari sarrera. 6 zenb. (1978), 75-85; *85-87. (Eusk.: Joan Joxe Iturrioz).
- NAVARRO, Koro Garmendia, J. J.: Hitzakia (Aitzaki abila). Arrieta, J. A.: Bidaia. Termitosti. 7 zenb. (1978), 126-129.
- PLA, Maria Hizkuntzabidun ikastola. Jakin Sorta 6, (1972), 123-126. (Itz.: J. J. Iturrioz).
- ROTAETXE, Karmele Irakaskuntzaren sistema eta euskararen irakaskuntza. 19/20 zenb. (1981), 43-53; *54-55.
- ZUFIAUR, Rosa Psikologia, Hiztegia. 17/18 zenb. (1981), 150-151.

Tenek argi adierazi zuen 1971n Zeruko Argiako zenbaki batean 4 emakumek idazten zutela-eta: “*Onek, eta irakurleok asko uste gabe, emakumeakiko gaiez egindako lau idazki dakazki. Zer naiago nik beintzat? Betiko ametsa, aldi ontan beintzat, euskal idazleak gurekiko gaiak aintzat artzea. Ordua da norbaitzuk gutaz oroitzekoa.*” (1971-3). Ikusiko dugunez aurrerago, Tenek emakumeentzako aldizkari bat zuen amets, Pizkundeko ikuspegiari jarraiki idazletzan jartzen zuen bere zeregina.

Tenek ez zuen irakaskuntzaren bide hori hartu nahiz irakasle lanetan ibilia zen herri mailan aurreko hamarkadetan. Tematu zen idazletzan, aipatu dugunez, nahiz asko urritu zuen bere idazlana gerra ostean baina lan batzuk egin zituen. Ikastolan buru-belarri aritutako informatzaileak horrelaxe esaten zuen:

“Ta klaro hau ere bere mundun bizi zan, idatzixa eta gauzak eta “ikastolia ondo dijua?” Eta kitto.

Galdera: Etzan sartu ikastolan?

Ez, ez.

Galdera: eta gaueskolatan ere ez?

Ez...ezer ez. (...) Idazten ondo itte zun, euskeraz ondo itte zun, y abí estaba metida.

(...) Letren munduan bizi zan haura.

Galdera: erakundeetatik aparte?

Aparte bai.” (I1)

Informatzaile berak honakoa zioen “*Ba nik euki det hartueman haundixa ba ze esangoizut X-ekin (EAJko politikari ezagun baten izena aipatzen du) ta sekula eziten horren gañian hitzein (Tenetaz).*” (I1). Ikusten da gerraren etenaren ostean inor gutxi gogoratzen zela EABko idazlearekin. Beste ikergai polit bat izango litzateke ikustea nola zaindu ala deskuidatu zuen EAJ alderdiak EABko emakumeen legatua. Ezer gutxi dakigu horretaz guztiaz. Non geratu ziren Emakume Abertzale Batzako emakumeak EAJren estrategia aldaketa horretan? Guk dakigula arreta gutxi jaso du aztergai horrek.

Bestalde, informatzaileetako batek hausnarketa interesgarria egiten digu Tenek bere jarduna defenditzeko erabili zituen estrategiez eta horien ondorioez:

“Ba emakumeak gorde behar izan duela, batetik, nere iritziz emakumetasuna, emakumetasunaren eragin hori jendearengan ez da gaur bezela defenditu behar dezula edo eztabaidatzen dezula edo ez dakit zer. Emakumea zen zaukan tokia eta berak gorde egin bihar izan du toki hori, bigarren maila hori baina berak gorde behar izan du toki bere...eta beharbada horregatik izan da (Tene) hain tentea ta hotza batzumentzat. Nik hotza bezala ez nuen sentitzen ze euskaragatik lotura haundia nuelako baina bestela bai. Baña nik ikusten nuena zan oso tentea, oso seria, eta irri-parre gutxikua.

Galdera: igual ikusten zualako beste zerbait egin zezakeela eta emakume izateagatik ezin zuela edo?



Nik uste dut baietz, hor eutsi egin zion, nik uste dut eutsi egin ziola bereari eta beste alderdi batetik ba euste horrek baita ere harremana ere igual...seria jartzen danian emakume bat, hain zuzen bigarren mailan baldin badago ta gizonen artian bizi bada, gauza hoiek badakit nik, seriotasunez erantzun behar dezu eta orduan egon behar dezu beraiek baino egoera zintzoagoan (enfasia jartzen du hitzetan) ez dakit ulertzen dan? Bai, ba gizonak daukate bide bat, gañea daukate mundu bat beaiek antolatutakua bai, ados, baña emakumeak hor tartean egin behar du lan, hor tartean bera da, bera da. Ez dakit zenbat gizonen artean ibili zen. Hori ez dakit ta ibili beharra izantzuen baña momentu horretan ta garai horretan ba izan behartzuen beraiek baño askoz ere zintzoagoa, askoz ere tenteagoa, askoz ere zerbait egingo bazuen edo kontuan hartzeko ere. Gero gañera idazle mailan, badauzka idatziak eta gauzak egiñak eta hori ere aintzakotzat hartzeko hor ere bidea jorratu beharko zuen beste gizonetzkuak behar ez duen bezela. Ordun hieratikua esaten det horregatik. Nik ikuste nun emakume bat, jantzita ere. Jantziak beltzez beti, oso ilun

Mujikatarrak zutik.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

ez? Eta bueno, e, nabiko dotore, nabiko dotore gauzak ere eta bestela dendan ere bera zan seriena.” (I7)

Errespetatua izan zedin habitus jakin bat garatu behar izan zuen itxura batera. Apaiz gizonak osatzen zuten bere lagun-taldea eta errigore bera sumatzen dugu haren gorputz adierazpenean, soinekotan, besteei zuzentzeko moduan, seriotasunean e.a. Zenbat aldiz ez ote dugun gogortasun-salaketa entzun andereño Zipitria edo Esnal bezalako inguruan? Zer dago apreziazio horien atzean?

■ Nemesio Etxanizen eredu

Mujikaren lanetara itzulita, azpimarratu beharko genuke Debaz gaindiko dinamiketan aritu zela baina baita Debako bestelako zubigintzetan ere. Lagun handi bat izan zuen aldamenean, Nemesio Etxaniz. Ikusten denez Nemesio Etxanizek itzal handia utzi zuen Deban eta Tenerengan:

“Herrian orduan zegoen izugarritzko bultzatzailea, Nemesio Etxaniz. Itzal izugarrixa utzi zuen. Tenek harekin zeukan harremana.” (I5)

“Ni Nemesiokin akordatzen naiz jaso bere sotana luzia ta nola soka saltuan ibiltze zan “zapi txuria lurrera, zapi txuria bestera”-ta eskolan”. (I8)

“Nemesiok deitzen ninduen Poxpolin. Poxpolin eta Teatrox ere bai. Teatrox dator hain zuzen Tenek eintzun lehendabiziko antzerkia ein zuena izena zuena Itziarko estanpak. Jauregi bat zeon ta Erretengo Malentxo ta nik egiten nuen Jauregiko alabatxoana. Eta ordun ere 7, 8 urte eukiko nittun. Nemesion kantuak ere badauzkat, noski. Antzerki hori Tenek gidatze zun. Tenek etzun inor aldamenian behar. Tenek gidatzen zun. Ensaioak nik uste Gure Kai inguruan egiten gendun, elizaren babesean. Ta gero dantza taldeari jarri zitzaion izena Gure Kai. Ta hor daude Izaga, ta Alejonekua, ez...Arrizabalaga abizena. Hoiek antzerkia egiten zuten. Ta gero Tenek egiten zitun antzerkiak izan biharrian ba zatiak. Batzuk abestiak, beste batzuk olerkiak, ta gero beste batzuk antzeztuak ere bai. Ta itxe zan tokian bete itxe zan e? Herritar asko juten zan. Gauza hoiek beti izan dia alegalak esaten dana, ez zian legalak. Beti eraman behar zan papertxo baten laburbilduma bat. Hontaz hitz egingo

da ta hori beti. Ta baimena jasotze zan. Teneren antzerki guztietan parte hartzen det. Berak beti dauka paper bat neretzat. Gustatzen zitzaien nik olerkiak deklamatzea.” (I7)

“Eske Nemesio Etxaniz egontzan hemen. Ta ni gogoratzan naiz eleizan, dotriñan, klaro gu euskarazko dotriñara juten giñan. Giñan, eztakit zenbat izango giñan, oso gutxi, oso oso gutxi ta Nemesiok garai hartan ere sartu zuan (keinua egiten du eskuekin) bere kuñatxua hor bai zeatik hamen euskera zeon (buruarekin ezezkoa adierazteko gaizki zegoela)... Hombree, haura zan oso, oso, oso... (ixilik geratu da). Denpora gutxi intzuan Deban harek. Ni umia ala gaztia nitzan. Ta gero akordatzen naiz doktriñan euskeraz hasi ta gu egote giñan, hantxe, sakristixan geu bakarrik, así como... (keinu bat egiten du eskuarekin, urruti bezala)

Galdera: Bai, bestiak elizan egote zian ta Bai, danak eleizan baña gu han

Galdera: Bazterrian...

Bai. Ta orduan esantziaten “zuk doktriña erakutsi behar dezu”. “Nik?” Artzabalko mutilak eta, harek batere etzakiben erderaz ta...nik ze erakutsiko diet... euskera etzan batere...eleizak etzuen batere egiten euskeragatik. Nemesiok emantzion halako... porque hor Don Anastasiok gero bai, aurrenien ez e? Hasieran erdera butsa.” (I2)

“Don Anes hasieran etorri zanian euskara gutxi zeukan. Etorri zanian hark lehenengo aginduak izan zian bueno jaunartzia parrokian egingo da, ez da egingo mojetan. Ta mutilak eta neskak alkartuta. Eta gero euskera kontuan. Irekiera bat izan zan.” (I7)

“Nemesio asko etortze zan hona, Juan Joxe Leterengana. Gero bestea inportantea zan medikua, Etxaniz. Haura ere abertzalia zan. Bazeon kanpotik etortze zianekin eta hemen biltzen ziren intelektualen talde bat.” (I7)

Gerra garaian zigortutako apaizetako bat izan zen Etxaniz. Comillasen ikasitakoa (Aitzol ikaskide izan zuen) proiektu abertzalearen eragile garrantzitsua izan zen. Zigortuta Burgosera bidali zuten lehenik, handik Gasteizera eta handik anaia zuen Etxaniz Debako medikuaren etxean aterbetu zen 1937an eta bi urtez Deban bizi izan zen. Zumaiara bidali zuten gero baina, polemika politikoren bat tarteko, berriz bueltan etorri zen Debara eta bertan eman zituen hamar bat urte, harik eta 50. hamarkadan lehenik Azkoitiara eta ondoren Donostiara bizi izatera joan zen arte.

Etxaniz medikua, Nemesioren anaia, oraindik orain asko gogoratzen den pertsona da Deban, alaia eta festazalea. Debako gizartean erdiguneko funtzioa betetzen zuen eta haren festa-giroak itzal luzea utzi zuen. Nemesio berak ere giro aproposa topatu ei zuen, Frankismo gorrian egonagatik, bere lanekin jarraitzeko eta bizipozari eusteko. Mujikaneko dendatik ez zen urruti ibiliko.

Pako Sudupek dioskunez (1996-64) Alostorrea izeneko antzeztaldea sortu zuen eta hementxe idatzi zituen *Peru Txinpart* eta *Anton Bare, Trapubiltzailea* eta *Izeko Aberatsa* lanak. Izeko Aberatsa izeneko antzerkia Mendaron antzeztu omen zen 1945 inguruan eta Azkoitian 1951ean. Bestetik, 1947an Abeletxeren, hau da, Manu Ziarsororen (1902-1987) Barrutiaren *Gabonetako Ikuski-zuna* obraren moldaketa, *Gabon Gabonetan* izeneko egin eta antzeztu zuen (Urkizu, 2007).

1952an, Debatik kanpo zegoela ja, *Aberatsa eta Irulearen negarra* argitaratu zituen, azken hau Arakistainen *Irulearen Kondairan* (1866) oinarritutako antzezlan. Bertan Katalintxo debar gaztearen eta Gaston bidartarraren maitasun istorio tragikoa kontatzen da.

Beste hiru lan ere aipatu nahiko genituzke: 1951n, beraz, Debako urteen segidako lana den, *Kanta-kantari* izeneko *aur jolasak, maite kantak eta izadi abestiak* argitaratu zituen. Doinu modernoak erabili zituen euskal tradizioarekin lotzen ziren funtsezko baliabideak ekoizteko. Etxanizen gogoan, Mujikarenean bezala, ez zeuden euskaldun ikasiak eta ez zitzaion hainbeste interesatzen hizkuntzaren ahalak zabaltzea lan kultoak eginez, baizik eta eskola gutxiago zuten euskaldunak euskaldun izaten jarraitzeko eginkizuna zuen beretzat hartu (Sudupe, 1996). Lan hau, eta Etxaniz oro har, Euskal Kantagintza Berriaren aitzindari da eta *Ez Dok Amairu* taldearen inspiratzaileetako bat. Azurmendik esango duenez “*apenas irakurtzen duen herri xume horri bere poesia eta kanta sortu baino, rumba, fox-trott eta habanera ritmoan, hain zuzen Camusek nahi izango zukeen bizipoz eta izpiritu «libertinoan» {lagundu nahi dio}.*” (1997-85). Poztu egiten zen bera etorri bazetorren gaztediarekin:

Noizbehinka bada ere poz bizi batzuek ere hartzen ditugu. Oraintxe sortzen ari zaigu euskaraz kanta berriak asma eta kantatzen dituzten emakume talde bat. Sei badira gutxienez, nexka gazte lirainak, kitarra hartu eta abesti berriak berak asma

eta kantatzen hasi direnak herriz-herri. Sendagile gazte bat ere hasia da horiekin. Orain, kantari guziak talde batean bildu nahi ditugu, gero abesaldiak eta diskoak barreiatzen hasteko. Urrietako nexka gazte batek, batez ere, zoragarri abesten du (...). Ta nola guzia euskaraz. Gure 's' eta 'z' haren ahoan ederki bereizten dira. Ikasbide ederra beste emakume txepelentzako! (1965. IX. 14n idatzitako gutuna In Azurmendi, 1997-82)

Bestalde, Pablo Sorozabalen *Gernika* musika sinfonikoari letra jarri zion. 1966ko lana bada ere “herri drama lirikoa”, Sorozabalek “Euskadi libre” izenarekin osatu zuen 1937an euskal milizientzat. Non egin zuten topo bi pertsona hauek lankidetzara hori posible izan zedin? Debako giroak izango zuten ziurrenik zer ikusirik.

Sorozabal 1950ean hasi zen Debara etortzen. Uda horretan haren emazte Enriqueta Serrano kantariaren medikuarengana hurbildu ziren Debara. Vidriero izeneko doktorea Debako beraneantea zen eta Sorozabal senar-emazteak harengana bertaratu ziren. Giroa gustatuta, etxea erosi zuten bertan. Harrezkero, lagun giro polita osatu zuten, besteak beste, Ozio-bide izeneko elkarte gastronomikoko lagunekin Urbieta (errealeko jokalaria ohia eta artista plastikoa), Lete (debatartutako soraluzetarra eta euskal-alfabetatzearen sustatzaileetako bat) e.a. Debak festa egiteaz badaki zerbait eta San Roketako alegrantziak egin zituen bai bere lika-lanak. Laguntasun horretatik etorri ziren San Roke festetan falta ezin diren Debako Martxa (1956) eta Ozio-Bide polka (1962). Tene Mujikak jarri zion letra Debako martxari, nahiz Ozio-bideko *festara* ez zuten gonbidatuko emakumeek sarrera debekatuta izan baitute 90. hamarkadara arte soziedadean.⁷⁸

Baina itzul gaitezen Etxanizen azken lana aipatzera. *Izotz kandelak* eleberria idatzi zuen nahiz eta sor zezakeen eskandaluagatik ez zen berehala argitaratu (1992). Kontatzen dena da protagonista den apaizak duen dilema, emakume batekiko maitasuna tarteko, ordura arteko mundu ikuskerari eta fedearen segurtasunari eusteko. Aldatzen ari den mundua, beraz.

⁷⁸ 2022ko martxoaren 26an lehenengo aldiz bi emakume sartu dira elkartean bazkide moduan: Ainhoa Urbieta Egaña eta Maite Goikoetxea Agirre debarrak.

Lan horretan eskutatik erortzen zaio euskaltasunaren diskurtso epikoa, euzkotarren hobengabetasuna. Bizizalea den pertsona, bizitzari zukua atera nahi diona berau, polemista, dilemetan murgilduta ageri da, ahots sakonagoaren bitartez datorren mundua irakurri nahirik, autokuestionamenduan: Dilema izango zaio fedearen defentsa etsaiak ere fede hori bera erabiltzen duenean ikur moduan; dilema izango zaio sekularizatzen ari den belaunaldi berria irekia dagoena bestelako harremanak izatera emakumeekin; dilema izango zaio euskaldunen artean ideologia ezkertiarrek izango duten ospea; dilema izango zaio euskaltzaleek borroka armatuaren erabilerarekiko dituzten diskurtsoak; dilema izango zaio euskaltzale ortodoxoekiko berak ordezkatu duen heterodoxia gazteengan sumatzen duenean ber gauza. Etxanizek antzematen du mutitzen ari dena diskurtso molde bat dela, euskaltasunari buruzko diskurtso tradizionalen krisia antzematen du. Krisian dagoena euskal abertzaletasunaren leku fundantea da.

Etxanizen lana eta bizitza aztertu duen Pako Suduperen (1996) lanerako *Oraingo gazte eroak* izeneko saiakera (1998) idatzi zuen Joxe Azurmendik, lehenaren hitzaurrea izan nahi zuen testu moduan. Saiakeran Etxanizen ahalak eta ezinak testuinguratzen ditu aurreko eta hurrengo belaunaldiekiko harek betetzen duen katebegi funtzioa azpimarratzeko:

izpirituaren eta errealtatearen dibortzioa (Le mythe de Sisyphe, 1942), fedegabetasuna, desilusioa, munduan oro zerrikeria eta bortxa den inpresioa (orain berriro Roldán, Galindo eta GALen historia guzti horrek irakasten duena), belaunaldi honentzako (gaztearentzako) abiapuntua izan da, ez konklusioa. Diferentzia inportantea duzu hori. Borroka ez da esperantzaren hautu bat izango, amorruarena eta etsi ezinarena baizik. (Azurmendi, 1998-68, azpimarrak gureak dira).

Gazteen abiapuntua amorrua eta etsi ezinak dira, existentzialismoaren aldartea. Etxanizek, ordea, ez du ulertuko beren belaunaldiaren legatua baztertzea. Amorragarria zaio belaunaldi gaztearen eten beharra. Ildo beretik esango die Mujikak ere gazteei honakoa Euskaltzaindiaren ohorezko merezimendua jasotzean:

“Amaitzeko: Euskera aldezko nere biziko lanak poz handia eman izan dizkidate; Poz oien ondoren edo ondore, samiñ zitalak ere bai. Euskaltzaindiak gaur egin di-

gun omen au, gazteak zarrari egiten dion destaina gogoan degula, oi ez dan gauza da, gertatzen ez dana, eta au erderaz esaten duten bezela orain: "Porque la familia esta en crisis". Euskaltzaindiak gurekin gaur egun, egin duanak, asko esan nai du, eritzi orren aurka, ta euskalerrria goratzen du, gure artean oraindik ere, sendiko giro ederrak irauten duan agiria da, gaurko au; gurekin egin dezuten maitasun agiri au. Zuek zerate geroko zarrak, eta onen sari, gu gaur bezin zoriontsu izan zaitezteela, gure adiñera eltzen zeratenean. Auxe eskatzen diot gaur Jaungoikoari."⁷⁹



Mujikatarrak Arantzazun.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

Bai Etxanizek, bai Mujikak apostu egiten dute herritar xumeengandik gertu dauden piezak sortu eta zabaltzearen alde. Ez zaie hainbeste inporta Europa aldeko molde modernoekiko homologazioa lortzea. Beraien senak eramaten ditu herri kulturaren sakontzera eta tematzera. Biak dira katebegi *Ez Dok Amairuk* ordezkatzeko duen ildoarekiko. Ansak erakusten digunez (2019), kolektibo horrek tradizioa bere baitan itxi eta sedimentatu partez polise-miaz betetzen du. "No interesa crear un pastiche, copiar la imagen, representarla tal cual es, sino procurar la actualización de una experiencia". Hau da, lehen aber-tzaletasunak bere baitan bazuen (herri) **gintzaren** esperientziarekin jarraitzen da baina hark bilatzen zuen herri sustantibo hori gaingiduz, diskurtso inmanente eta

operanteak etenaraziz. Ansak dionari jarraituz fabulazio ariketari eutsiko dio belaunaldi berriak, "una forma de enunciación que gravita entre dos polos (el documento y la ficción) en una relación indirecta libre".

⁷⁹ Mujika, T. (1976). Euskera XXI. 158-159. Azpimarra gurea da.

Biek ala biek, Mujikak zein Etxanizek, beren ildoari eutsiko diote, 80. hamar-kadaren hasieran biak hil arte. 60. hamarkadan horrela zuzentzen zaio Debako gaztediari Etxaniz:

“Gaurko gazteak aur ziñatela, artean txiki, Deba’n igaro nituan urte modoxka bat. Artean euskera debar guzien aotan bizi zan. Euskaldun zan oso-osorik erri guzia. Aur eta gazte, neska ta mutil, gure izkera zarrean ari oi-ziran izketan. Urteak joan dira arrazkero, ta bitartean, negargarritzko gauza gertatu da Deba’n: gure Euskera gazteen aotik kendu digute. Gaur, banaka batzuek kendu ezkeru, Deba’ko gazteria erderaz itzeginaz bizi da. Beste zenbait errietan bezela, gure izkuntza aur eta gazteen artean illa dago. Gertaera ori, kanpoko jakintsuak digutenez, izan diteken negargarriena da, ez bakarrik euskaldunontzat, baita Europa guziarentzat ere. Euskera galduko balitz, Europa osoa ortik txirotuta, pobretuta geldituko litzake. Onela diote jakintsu oiek. Gaurko Deba’ko gazteriak, beraz, badu egiteko aundia: galdu duan euskera berriro piztea bere aotan. Gizaldi ontan ten dan izkuntza-lokarri ori berriro sortzea. Orra Deba’ko gazteak duten eginbear nagusia. Europa’ko kulturak eskatzen digu lan ori, ez bakarrik gure odolak.” (1960- zenbakitu gabekoa, azpimarrak gureak dira)

Debak euskararekin izan duen harremana argudiatzen hasten da eta argudioetako batek Teneren eta Markiegitarren izena dauka:

“Euskeraz, berriz, TENERen izena zenbait urtetan oso aitaturia izan genduen bai bertsoz eta bai izkera askatuan. Markiegi’tar anai apaizak ere, beren txuloari (LATSURREGI izenez), izena zabaldu zioten. Deba’ko leku zoragarri orrek badu naikoa eder gazteon buru-biotzak ernarazteko. Etxea da lenbizi ezagutu bear dezuena; gure errietako edestia (historia) papel zarretan gordea lotan degu. Kendu dezaiegun autsa kontu zar oiei, ta berritu gaitezen gaurko kultura~bidetan indartsu sartuaz. (...) Ta jakintsuak bidea erakutsita, gu ere bide zuzenean sartzen asiak gera. Euskalerrri’ko jende ikasia, euskera ikasten asi zaigu benetan. Donostia, Bilbo, Gazteiz eta Iruña’ko gazteak euskerari begira jarriak ditugu. Ta erri txikiagotan ere, esnatu da euskerakiko zaletasuna. (...) Deba’ko gazteriak, bada, auxe du bere egitekoa: euskal-eskola sortzea. Ezjakiñez galdu duan izkera berriro ikasi. Onek eman-go dio galdu duan nortasuna. Erri asko dira ortan sartuak diranak gure Gipuzko onetan Ernani, Beasain, Tolosa, Bergara, Ordizia ta abar eta abar euskal-eskolak irikita poliki asi dira gure izkera ikasten. Jakintsuak erakusten digun bidean sar bedi, beraz, len bailen Deba’ko gazteria ETXANIZ TAR NEMESI”

■ Tene belaunaldi arteko katebegi

Ikastola bat martxan jartzeko aldarria egiten zuen Etxanizek. 1962an jarri zen martxan Debako ikastola goiztiarra Oargi elkartearen eskutik Kontxita Azpeitia andereñoarekin eta elizaren babespean. 1965ean ikastolara bildu zen irakasleak (I9) kontatu zigun, bestalde, nola jotzen zuen Tenerengana sasoi hartan herrian entzuten ziren garaiko kanta modernoak euskaratzeko: *la yenca* (1964, Johnny and Charlie), *yellow submarine* (1966, The Beatles)... euskaraz ematen zizkion Tenek haurrei erakusteko; hain zuzen ere, Etxanizek berak hamarkada bat lehenago egindako jarduera bera.

Jende asko errezibitzen zuen Tenek denda ostean:

“Esku artian genuenaz kontu ematera joango giñen, seguru. Teneri zor zitzaion. Zerbait itxen bazenun euskarari buruz gure aurrekoa bera zan ta orduan ba eman iten zitzaion horren berri.

Galdera: Horrela tratatzen zenuten bera, aurrendari bezela?

Bai. Bai, pertsona izugarri errespetagarria eta bere historiarengatik eta gero bera ezaututa ja are ta gehiago.” (I3)

Antzerki taldeko zuzendariak joaten ziren aurrendariarengana kontu ematera. Eta ez ziren bakarrak:

“Galdera: Han jentia errezibitzen zun? Bai, juten zan

Galdera: Ta hor egosten ziran gauzak, ez?

Nik uste det baietz. Nik eztakit gehiegi baña nik uste det baietz.

Galdera: Susmoa hori da...ez zala bakarrik mugatzen testuak egin ta umiekin zera Ez, keba. Neri etzat iruitzen ez. Eta umiak...umiak ere oso ondo hartze zituen e. Bai, hori akordatze naiz hortaz. Horregatik in zitxun in zitxun kanta haiek, umiak sokasaltuan egiteko eta bai...” (I2)

Oargi taldeak ere jotzen zuen berarengana:

“Bai, Iñaki bai, Iñaki ibiltze zan hor...”

Galdera: Eta Tene Iñakirekin ibiliko zan...

Nik uste det baietz. Eta zeakin e bai, Iñaki Letekin e bai. Iñaki Lete gehio ibili zan gaueskoletako...

Galdera: euskalduntze-alfabetatzia...

Bai

Galdera: Ta Rosario Alberdi ere...

Bai, ta Rosario bera Oargin e bai. Ta gañera ez dakit bera etzan sekretaria. Ta Itziar ere. Itziar Aizpurua ere bai."

Ohartarazi behar dugu Oargi taldea izan zela EHko lehen euskal jaiak (1964, 1965, 1966) arrakasta handiz antolatu zituena. Bilboko eta Eibarko euskal giroarekin harremanetan Iñaki Iriondo-Zestero, Balbiñe Lete, Iñaki Elosua, Jose Mari Soto, Begoña Andonegi eta abarrek 50.000 lagun biltzeko gaitasuna izan zuten Debako euskal jaietan.



Euskal jaia Deban 1964-65.
[Argazkia: Allika]

Debako ikastola goiztiarraren (1962) sortze-lanetan ibili ziren pertsona berberak ziren. Eta baita euskalduntze-alfabetatze ekimenetan ere. Gure informataileek hainbat gauza kontatu dizkigute:

“Gu ikastolako sortzailiak izan ginen. Orduan instituzioak etzuten bultzatzen ta herri-ekima, herrixak...andereñuak duan eta herrixak bultzatutako zera zan. Hutsetik ertendako zera. Abertzaletasunak bultzatzen zuen ekimen guztietarako zera gogo hoixe Euskal Herriko izakeria bultzatzeko.” (15)

“Berak, nik baño gehixo berak Iñakin bidez, pentsatzen det nik Iñaki zala edo... Balbiñe edo...Nik baño nagusiauak nik uste det. Juten giñan beregana baño berak gero ematen zizkigun ba egiten zizkigun gauzatxuak ez? Eta esate zigun nola egin bihar gendun eta gauza hoiek baño nik ustet harremana zala ba bestiak zaukatena ta guri transmititzen zizkigutena, ez? Baña guk berekin harremana direktuki, bagendukagun, juten giñan hara. Hara jutia zan...” (I2)

“Karo, nik egia esanda, gauza asko ordun ez nekian nundik nora zijuan gauzia. Porque egin, egiten gendun MILA GAUZA (enfasia), ba bazkari bat Donostian en el Aurrerá, juntatze giñan han jentia, de todos los estilos, bueno de todos no, kolore batekuak baina todo era clandestino, dana zan klandestinua baño nik orduan enakixen oso zuzen nora ni Joan, bai zer nahi nuan

Galdera: baina pixkat euskaltasuna edo abertzaletasuna o...

Bai, bai, hori zan. Hombre, por supuesto.

Galdera: Baña zan mobimentu bat etzana lokala, zauan beste egitura bat etzauana oso garbi

Bai, etzana hemengua bakarrik. Eta gero, Oargi berak, Debakuak, ba antolatu zian MILA GAUZA...bertsolariak cada dos por tres, Eibarko frontoi Astelehenan, haura dana bete, bete, beteta...claro, dana zan, ta bertsolariak ixa beti zian berdinak Baxerri, Lopategi zea, Agirre, Lazkao txiki, beti zian berdinak ta haiek etzuten deus kobratzen. Bazkari bat Patxiñian, han goiko komedorian, eta horrelako gauzak egiten zian. Ta gero ba rifatzen zan, akordatzen naiz Eibarko Astelenan frontoian txokolate tableta bat, baño berezia Zaborrek eginda ta zan ba pues eso, berezia (eskuekin tamaiña handia erakusten du). Hori baño dirua ateatzeko ba nik ustet azkenian zala ba dana zan ba euskera, zan ba mogimendu abertzalea zan dana... Eskutik juntzian, dana zan mogimendu bat.” (I2)

“Etortze zitzagun Arregi o Alberdi izeneko bat eta ematen zigun clases sociales o esaten zana, nik erdirik ez nuan ulertzen...baña irakurtzen gendun dana ta bueno hurrengo asteako hura aztertuta eta haura zan medio clandestino...(...)

Ni nintzan peoi bat. Nik ez naukan formaziorik. Etxian entzundako gauzak neri kontzientzia bat eman zian. Ta ni holakoxe lekuetara hurbiltze nintzan. Ni beti nagoen prest lana egiteko ta zeon lan pila bat in gendun baño erabakiak ez nuan nik hartzen. Eta ni bezela beste batzuk ibili zianak hor. Askotan ez genekiun nundik nora zatorren. Bai zer nahi gendun baño...(...) Gu ez giñan sentitzen gai ere, erabakiak hartzeko.” (I2)

“Ta ba hortxe ibili giñan ta Tenek egite zigun ba hori, esan det lehen, egite gendun bakarrizketak, hor zerian zinian, bakarrizketak ba zeñeri ba aizua ba neri Manuel Lekuonak intzian bat eta bertan jata siku erori nitzan mariatuta ta (barrez) ta Iñaki Zesterok pentsatze zuan ba papelian jartze zuala” (I2)

Klandestinitatearen kulturaren bizi ziren belaunaldi haiek kultura eta politika, politika eta kultura, dena zegoen Frankismoaren aurka eta aberriaren alde.

“Pentsatu Frankismo garaian ezkutuka genbiltzala oaindik. Pentsa antzerkia itxeko eztaikit nungo bueltak sortuta ibiltzen giñela. Pentsatu ilegala zala oaindik. Orduan baimen bereziak behar tzian holako gauzak itxeko. Ta holako bat (Teneri buruz) nahi ta nabiez bildurrak jota zeon, nabiz ta gainditxu ta hemen bizi.” (I3)

“Hasiera baten 66, 67, 68, 69an 78ak arte, nik ezagutu nuana, militantzia etzan militantzia politikoa bakarrik zan militantzia era guztietakoa...Zan militantzia ba euskera bultzatzen zuana, zan gau eskola, zan dana jente berdina zan eta hor zeon, etzan, zan konpromiso oso bat.” (I4)

“En los años duros de liberación, había manifestaciones. Te hablo de hace 40 años. Tene estaba recluída en casa, en la calle Lersundi. Una vez la manifestación se paró delante de la tienda y cantaron el Eusko Gudariak. Tene salió al balcón. Lo hicieron como reconocimiento a ella. Era muy abertzale. Amaba el euskera. Era pragmática, era muy defensora de la estructura del euskera, no tanto del léxico. Era próxima a Itziar Labatai. La consideraba una patriota. Daba honor a lo que estaba haciendo. Era abertzale, independendista, inteligente, pero no se enrollaba. Más cultural. No se atascaba con la política.” (I6)

“Nahi genuin aipatu, denek euskera bultzatzeko gehienbat ta Tene zan orduan espillu, Debako espillu zan euskeriaren bultzatzaile bezela ta orduan. Zergatik gerra ondorenian eta euskara atzeraka-atzeraka zijuan, gazte guztiak, gure irakaskuntza guztia dana erderaz e!, eta gañera zigortu ere bai behin edo behin. Eta izugarrizko atzerakadia gaztien artean eta gu ba ibili giñan orduan bultzatzen.” (I5)

Eta 133. orrian irakurri dugun aipuak EAJ desagertu bat antzematen bazuen ere, gerraoste gorrian, militantzia politikoaren ondorioz erbesteratzeko premia izan zuenean aurreko exiliatuen laguntzaz berba egiten digu:

“Iparraldean etxea bilatzen lagundu ziguten gerra denporatik han bizi ziren batzuk. Los Kareaga, bilbotarrak. Alabetako bat hango batekin ezkondua zegoen. Orduan ez zen erraza etxea alokatzea, badakizu beldurra. Lenbizikuak giñan juten giñanak gerra ondorengiak. X-en (izen bat esan du) osaba errefuxiatua egon zen iparraldean gerra garaian. Labegeriren laguna zan. Asko lagundu ziguten.” (I2)

Alderdien arteko loturak nola belaunaldi ezberdinetan ere berdin, kasu batzuetan:

“Ta gero gure amak bizi guztian inkulkatu digu ta nik hartu detenian erabaki bat gauza bat egiteko o bestia egiteko o nik beti euki det etxeko laguntasuna porque eurak ere, babesa totala...” (I2)

Tenek euskaltzaleak ikusten zituen, ez alderdi honetako edo hartakoak. Debako ideologia aniztasunean euskaltzale edo herriaren alde lan egiten zuten askorekin izan zuen harremana:

“Galdera: Ta Tenek bazaukan harremana ezker abertzaleko jentiaikin?”

Itziarrekin asko zeukan. Auzokuak zian ta Itziarrekin bazakan harremana. Harek gauza gehio jakingo ditu nik baño. Baña ordun, ezker abertzalia...ez dakit nola esan...” (I2)

“Bera etzan aldatu, joe. Erabat EAJkua zan. Izugarrizko harreman estua zuen. Heldua zanean politikan etzan implikatu”. (I5)

Kontrara, euskara batuaren proiektuak sinbolizatu zuen belaunaldi arteko etena euskalgintzaren barruan. Altzibarrek Arrien eta Granja aipatuz dio Julene Azpeitia bere bizitza luzeko azken urteetan, kexatu egiten omen zela belaunaldi gazteek haren obra aintzat hartzen ez zutelako (Altzibar, 2021-213). Adibide moduan aipatzen du Azpeitiaren *Zuentzat* lana ez zutela ez Zeruko Argian ez Anaitasunan aipatu. Hori gertatu bide zen, bere iritziz, arazo politiko-sozialak kulturakoak baino larriagoak (...) zirelako edo, baita ere, urte haietan ikastoletan eta gizartean borroka ideologikoa zegoelako, eta Azpeitia joera tradizionalistan kokatzen zelako, hau da, kristau irakaskuntzaren zerbitzuan, gazte abertzale ezkertiarrek “atzerakoi”tzat zuten ildoan (2021-212). Bere iritziz idazle gazte gehienek ez zuten Azpeitiaren jokabidea osotasunean baliosten jakin.

Tenek ere argi zuen bere postura euskararen batasun-egitasmoaz eta bide lagun zuen Etxaniz bera ere. Etxaniz gipuzkera osatuaren aldekoa izan zen euskara batuaren proiektugintzan eta lagun handi zuen Manuel Lekuonaren defendatzaile Arantzazuko 68ko Biltzarrean, On Manuel Lekuona Euskal-tzaindiaren lehendakari-aulkitik kentzea onartu zenean (Sudupe, 1996). Gure informatzaileak gorde du bere gogoan Nemesio Etxanizen orduko aldartea H letra gora-behera:

“Ni gogoratzen naiz, Don Nemesiok izugarrizko zotina hartu zuan H-a sartu zutenian, ene... izugarrixa!” (I5)

“Hasten dianian Frantziskotarrak, 64ean esate baterako euskera batuaren gorabeherak ja ikusten ari gera Villasante eta, 53ko hamarkadan ai dia eta hori guztia aurrera dijua gero Mitxelena sartzen da hor eta hoiek danak. Eta Tenek bereari eusten dio (enfasia jartzen du). Tene dago esango genduke itsatsita, lotuta, hango Lagi Zarrari. Ta Lagi Zarra azken batean ba bihurtzen da ba Frankismoa bezela, zentzu onean diot, Frankismoak ez dauka mugitzerik, ezta? Inamovible esaten det nik ba bestea ere mugiezina. Etorkezuna ikusteko modua...eta gañera baditxu inguruan, bere jendea berarekin tratu euki debena eta gotortu egiten da, gotortu egiten da. Egongo balitz gaztelu baten bezela. (...) Hor Don Anesek ere jarraitzen du bere horretan, euskara batuaren kontra. Orduan nik uste det hor biak lotura bat izan zutela. Korronte bat egon zen euskara batuaren korronte horren alde eta gu oso lotuta gaude hainbat jendekin, nere aldetik, esan nahi det. Rikardo Arregi esate baterako oso guria da. Hementxe hil zen, istripu baten Astigarribixan. Jo, ze disgusto. Hori ikaragarria izan zen zeatik mutil bat zen aurrerakoia, baliente, jakinduriz betea zegoen, erreztasun haundia zeukan jendearekin egoteko, hitz egiteko, lider bat zen. Bere osaba Frantziskotarra. Kartzelatik atera eta gero juten giñan bere osaba bisitatzera eta nondik nora harremana? Ba erakundearekin. ETA da hor sartzen dena buru-belarri euskera kontuan ta batasunaren kontuan eta aurrerabideko kontuan. Eta euskera da, esate baterako, 67an bosgarren biltzarrean euskera da estrategiko (enfasia jartzen du) esaten du eta ardatz nagusia harremanetarako eta elkarbizitzarako eta esaten du beste zea baten, beste puntu baten aurrea herri gisa funtzionatzeko. Eta erabaki horrek hartzen dia 67an eta guk horren menpe, nahi det esan, horren barruan gaude”. (I7)

Gure azken aipu horretako informatzaile horrekin Tenek izandako harreman estuak erakusten digu, ordea, gaia ez zela soilik kulturala izan baizik eta po-

litikoa. Harreman estua zena etena bihurtuko da urteen buruan. Merezi du lekukotza honetan sakontzea:

“Kartzelatik atera eta lehenengo bisita Teneri egin nion. Idatzi zidan kartzelara ere bai, e? Nik ere bai beai eta juten naizenian Tene aurreneko gauza azterketa bezela... bueno lehenengo gauza ez dago ados nik hartutako bidiakin (ETAn militatzea) eta ez dago ados nik esaten deten batasunaren (euskara batuarena) gorabeherakin eta hori ba ja marxan dago eta gauza ja...eta bea ez dago ados. Eta orduan esaten diot “ba ez daukazu etorkizunik. Ta etorkizuna hau da”. Eta beak: “Hori (errieta eman ez esaten ditu hitzok) euskera galtzea da zeatik Deban hitz egiten dan euskera galdu egingo da eta ez dakit nungoa galdu egingo da”. Esan nion, “ez da galduko, hori aberastu egingo da eta gorabehera da herrialde guztiak bizi ahal izateko eta abertzaliak izateko hemen euskera bat behar degu, idazteko bada ere esaten nion” (ezezko imintzioak eginez). Eta hasarratuta bukatu genuen. Zeatik ez zidan sarrrerarik eman gehiago. (...) Nere abertzaletasuna onartzen zuen, nere abertzaletasuna. Baña ezkerreko hori eta euskara batua nik uste det danak batzen zitxula. Hor bukatu zen gure harremana eta gogoratzen naiz bikoteari esaten nion, negarrez esaten nion, bikotea kartzelatik atera zanian esaten zidan “juntzaitte beregana” eta esaten nion “baña ezin deu ezer hitzein” eta bikotea beti izan da oso abertzalia ta oso euskaltzalia eta Tene estimatzen zuan asko berak.” (I7)

Informatzaileak sakondu zuen gazte belaunaldi honekin Tenek izan zuen etenaren arrazoietan:

“Bueno, hasieran berak ez zekien ni hor (ETAn) nenbilenik, ez zekien. Gauza klandestinoak ez dia zehatzen baña esate baterako euskal jaiak egiten dianian ba esate baterako Tenek ez zuen parte hartu. Kurioso da, ni oain konturatzen naiz e? (...) Ba ez dakit, igual gaixo? Zeatik hor jendiakin Iñaki Zestero ta biok ibili giñan jendiakin eta herriz herri, urte osoan hona ekartzeko. Eta zan euskaltzaleen eta abertzaleen eguna prestatzea besterik ez. (...) Nik uste dut gazteekin falta zuela harremana. Teneri falta izan zitzaion etorkizuneko begirada luze hori. Ez egotea... Gauza bat da norbera egotea paper bat daukala pentsatzea eta paper hori betetzea baña etorkizunari begira utzi egin behar da gazteai hori batetik, eta beste alde batetik norberak ahal badu gazteekin bat egin, eztabaidatu, egon ba ez badago ados ba etorkizunai begira ba bueno baztatu egin behar eta ez dakit nik maila horretan bera baztertu zen edo baztertua gelditxu zen.” (I7)

Tenek batzuekin eta besteekin izandako harremanek susmoak ere piztu zituzten EAJko informantearengan:

“Gogoratzen dezu Tene?

Bai, hau ere hartu zebeu beste aldekuu dana e? Itziar eta

Galdera: Baña hau PNVkua zan ez?

Bai, baña beste aldekuu hartu zebeu. Baña beraurek segitzen zitxon. Nik pentsatzen baietz, hor baño buru hobia zakan da, oso buru onekua zan da. Hor bai sartu ziala hoixek, los de Ostolazas con ella.

Galdera: Ze sentidotan?

En el sentido que era haren liburugintzak, ta haren gauzek hoixek in zebeu...hari lagundu zitxoben, bai, bai. Ikastolak ez zuan zer ikusirik zera Mujikan gauzikin. Hoietxek sartu zien.

Ostolazako juntekokin eintzun, Ayuntamiento ein tzun harekin lan gehixo, gurekin baño. Ta ayuntamiento Olalde (EAko alkatea) ta lan gehixo intzebeu. Hoiek danak horkuak zien, de Ostolaza.

Hoixek sartu zien. Ja komunistak etzien izango (barrez) ...aurretik danak komunistik zien da, parreuria ematen dit (barrez). Hoixe lagundu ziotela. Dirua ere bazakebeu, aizu.” (I1)

Umorea ez dadila falta...

■ Gure hirurogeiak

Azken lanak Ostolaza fundazioarekin elkarlanean atera zituen. Deba aldizkarian argitaratu zituen lehen piezak gerraz geroztik. Bi lantxo atera zituen 1960an, aldizkariaren lehen bi aleetan. Ale berean Nemesio Etxanizek hartu zuen parte eta Debako gazteak euskara ikastera bultzatu zituen, gorago aipatu dugun legez. Kontua da, Teneren sinadura ageri dela beste era bateko pertsonen artean. Modu anakronikoan, nolabait.

Ostolaza Zabala anaiak negozio gizonak izan ziren. Dirua egin zuten atzerrian txapel dotoreen fabrika jarrita eta diru asko eskaini zioten jaioterriari. Hezkuntza

laikoa eta profesionala ardatz zuten bi ekimenetara errenditu zituzten ondasun horiek nagusiki. Lehen ekimena Jose Manuel anaiak jarri zuen abian 1928an. 11-12 urteko mutikoak prestatu zituzten enpresagintzan (preparación comercial deitzen zioten) Amerikara emigratzeko. Bi aldi eskaini ziren 1928-1932 eta 1932-1936 promozioak. EBEFO bezala ezagutzen ziren mutikoak Deban: Escuela Biblioteca Emigrante Fundación Ostolaza. Bigarren ekimena anaia Franciscok bideratu zuen 1959an bere anaia hil ondoren. Lanbide heziketa eskaintzen zuen eskola jarri zuten martxan eta elkarte moduan egituratu zen Jose Manuel anaiak hiltzean utzi zuen herentzia handia bertatik kudeatzeko.

Ostolaza anaiek ordezkutzen dute progresoaren ideianitsu sinisten duen be-launaldia. Hezkuntzari ematen dioten garrantzia progresoaren ideiarekin dator lotuta eta, era berean, laikoa eta errepublikazale den ideologia batetik eraikitzen da. Ostolazatarrak zigortuak izan ziren 1936an eta exiliora jo behar izan zuten. Bestalde, beraiek ordezkutzen dute modernitate deitu denaren habitusa, haien



Modernitate bakan bat erakusketaren afitxa. [Iturria: San Telmo museoa]

biak gazte hil ziren baina hirugarrenak zubi lana egin zuen lehen 1925-1936 bitartean abanguardiarren eskutik sortzen ari den gizarte berriaren eta 60. ha-markadatik aurrera sortuko denaren artean, *Gaur* artista taldea horren eragile dela esan genezake.

praktika kultural asko Debako udatiarrekin herrian orokortu zirenekin bat egiten dute: aisialdiaren kontzeptua, gorputzaren zaintza kirolaren bitartez eta moda bezalako fenomenoaren zabalkuntza.

Europa osoan zabaltzen ari zen modernitatearen euskal bertsioa Peio Agirrek (2016) ikertu zuen. Artearen sorkuntza gaitasunean jarri zuen arreta San Telmo museo-rako prestatu zuen erakusketan. Gizarte al-daketa hauek artearen bitartez nola sortzen diren eta artean nola gertatzen ziren iker-tu zituen. Hiru izen agertzen dira nabar-menduak egileen artean: Nikolas Lekuona, Narkis Balenziaga eta Jorge Oteiza. Lehen

Ostolazatarren ekimenen abaroan sortu zuen Jorge Oteizak 1969an Debako arte eskola esperimentalak. Teknika ezberdinen ikaskuntzatik abiatuta, praktikatik alegia, esperimentazioa sustatzen zuen eskola izan zen hau. Bauhaus eskola hartu zuten eredutzat ikas-irakas metodologia berri eta abangoardia pedagogikoa diseinatzeko. Ez dugu ahaztu behar Oteizak hezkuntzan zuen fedea bat egiten zuela Ostolazatarren asmo nagusiarekin.

Elisabet Ansa ikerlariak liburu bat atera berri du garai horretaz. 68ko askatasun praktikaren euskal bertsioa aztertzen du bertan eta Oteizaren inguruko kultura politikoa aletzen du, besteak beste, genero aldagaia erabilita analisi horretarako. Ansaren iritziz (2019) *Ez Dok Amairu* kolektiboak emakumez pentsatzen duenean imajinario tradizionalak birpentsatzeko estrategia gisa pentsatzen ditu. Alegia, emakume enajenatua, bazterrean dagoena baina aldi berean sublimatua gainditu egin nahi du ez soilik emakumearen aldeko neurri gisa, baizik eta euskaltasunaren inguruko sistema guztia desorekatzeko. Horrela agertuko dira idealak ez diren emakume adinduak, langileak e.a. Laboaren kantetan, adibidez.

Emakumearen leku fundatzailea eten egiten da eta horrekin batera euskal nazioaren kategoria sabindar tradizionalak. Esan liteke 68ko soinu-bandari ez zaiola interesatzen pasticheak sortzea, irudi idealizatuen kopiak egitea, irudi horiek diren bezala errepresentatzea, baizik eta esperientzia baten eguneratzea birsortzea. *Sentikariak* hori lirateke, beraz, performatiboak diren kultur praxiak, enuntziario leku berriak, euskal kulturzaletasunaren narratiba berriak eraikitzeke tresna. Hitza hartzen da, errepresentazio berriak eraikitzen dira, subjektibitate berriak sortzen dira eta imajinario nazionala Europako marko poskolonialean ainguratzen da.

Kultur eliteek erakusten zuten bideak bazuen isla herrietan. Debako tesuinguruan bada anekdota bat aipatzea merezi duena 1967an zegoen giroaren erakusgarri baita: Festa giroan dantzatzen den San Roke dantza autoktonoa mutilek dantzatu izan duten ezpatadantza da. Ba urte horretan he-



Emakumeak San Roke dantzan, 1967.

[Iturria: <https://dantzan.eus/>]

rriko neska talde bat animatu zen plaza hartu eta San Roke dantza mutilekin batera dantzatzera. Transgresio ariketa bat izan zen feminismotik antolatutako ekimen konziente eta iraunkor bat baino gehiago baina erakusten du kultur narratiba batekiko eten beharra. Emakumeen partehartzea, bestalde, 2013an normalizatu zen San Roke dantzan (Araolaza, 2019), 46 urte beranduago.

Urte horietan Tenek 80 urte inguru ditu. Bere ahotsa atzean geratua dago Euskal Herri mailan baina katebegi lanetan dabil plano lokalean. *Beste boixek hartu zeben* esaten zigun informatzaile batek lehenago. Gazteek lekua egin zioten Teneri beraien ekimenetan, nahiz eta hark ez zituen bere gaiak eta estiloa alboratu eta desadostasunak azaleratu zituen. Ondoren aztertuko ditugun lan batzuk argitaratu zituen; horietan generoareen gaiak eta herri kulturarekin loturiko kontuek zuten erdigunea. Ez dugu imajinatu nahi 1979an Euskaltzaindiak omentzen duenean zer sentituko zuen ikusita euskara batuaren proiektuarekin izan zuen desadostasuna. Ekitaldi hartan nortasunez hitz egiten du, autoritatez. Nor izatearen kontzientzia argia dauka.

Azpitarragarria da, era berean, Gabriel Aresti izan zela omenaldi hori sustatu zuena. Egin kontu soilik gizonen osatutako Pott bandako Arestiren jarraitzaileek ekingo diotela beranduago, 80. hamarkadan, *apaizen sotanak bandera piratak egiteko erabiltzeari*, alegia, Bilbo hiri postindustrial dekadentean hizkera literario berria sortu eta proletarioen ahotsetik kantatzeari. Nondik zetorren Arestiren idazleme andrazaharren aldeko sinpatia? Galtzaileen epika, apika?

7.1. 1954-1981 AZKEN LAN ARGITARATUEN AZTERKETA

Hauxe da Teneren azken aldi honetako argitalpenen ekoizpena:

LIBURU ZATIAK

«Muxika'tar Errobustene, «Tene» [Ama — Muxua — Ikazkin liluratua — Gogonegarra — Arno'ko Kurutza — Neskuts minduari]», in: Aita Onaindia (1954): *Milla euskal-olerki eder*. Karmeldar Idaztiak. Zornotza. 848-852.

«Sorgiñak Arranomendian», in: Askoren artean (1977): *Lekuona'tar Manuel jaunaren omenezko idazki-bilduma II*. Kardaberaz Bazkuna. Gasteiz. 163-164.

LIBURUAK

Cuadernos de vascuence hablado (Euzkel idaztiñoak). Cuaderno primero. Itxaropena. Zarautz. 1968. 20 or.

ALDIZKARIAK

Deva

Deva 1, 11 (1960) “Telex Markesa eta Bixente Pasio”

Deva 2, 22-24 (1960) “XX.garren Sandrokiak”

Zeruko Argia

«Aurten aurtengoa», 284. zk., 1968-08-11: 14.

«Olerti’ri», 297. zk., 1968-11-10: 2.

«Basarri’ri agiriko idaztia», 310. zk., 1969-02-09: 3.

«Txoro aizea», 336. zk., 1969-08-10: 17.

««Juantxo Txiki»», 345. zk., 1969-10-12: 11.

«Etxekoandrea... «mito» bat...?», 424. zk., 1971-04-25: 3.

«Aspaldiko auzia gaurkotzat», 430. zk., 1971-05-30: 3.

Karmel

«Neurekikoak», 1970/4. zk., 1970: 38.

Luzaro

“Berriro ere gabon”, 3. zk., 1969-12: 3.

“s.n.” 4. zk., 1970-01:17.

Diario Vasco, Euskeraz atala

«Berri onaren pozetan», 1973-02-11

«Emakume edaleak», 1973-03-04

«Kontu zaarrak», 1973-03-25

«Amatxorentzat ikastola..., bai; bai... ikastola», 1973-07-22

«Emakumeok asmo berritan», 1973-08-19

«Adurtzaleak dirala-ta», 1973-09-09

«Emakumeak, gizasemeak eta “moda”», 1973-11-04

«Jostunak», 1973-12-02

«Lengo gaiari jarraitzen», 1973-12-30

«Guraizak, jostorratza ta aria», 1974-02-03

«Orain, len, lenago», 1974-03-31

«Betaniako Maria», 1974-04-28

«Deba’n erori; Mutriku’n amildu», 1974-05-26

- «eguzkia apuko», 1974-06-16
 «Kezka larriak», 1974-07-07
 «Gure ikastola gaxuak», 1974-07-21
 «Agur Petrita», 1974-08-04
 «Euskera batua», 1974-08-18
 «Pozak eta kezak», 1974-09-01
 «Nuklear indar-etxea dala-ta», 1974-10-06
 «Ikastolak eta euskera “batua”», 1974-11-10
 «Etxekoandrea ta ni 1. Baratzuri xopa», 1975-01-12
 «Etxekoandrea ta ni 2. Lengoak maxiatzen», 1975-01-26
 «Etxekoandrea eta ni 2. Oraingoak maxiatzen», 1975-02-09
 «Etxekoandrea eta ni 2. Deban Errektoreri omenaldi», 1975-03-09
 «Julene Azpeitia», 1975-03-23
 «Etxekoandrea eta ni 4. Miriam», 1975-04-13
 «Etxekoandrea eta ni 5. Lotsadunen artera?», 1975-05-04
 «Etxekoandrea eta ni 6. Erabaki on bat», 1975-05-18
 «Etxekoandrea eta ni 6. Nere urteurrena», 1975-06-15
 «Etxekoandrea eta ni 7. Noizbaiten norbait!», 1975-06-29
 «Etxekoandrea eta ni 8. Ori zergatik? Baña zergatik?», 1975-07-13
 «Etxekoandrea eta ni 9. Etorkizunari begira», 1975-07-27
 «Etxekoandrea eta ni 10. Moda itzaren esanaia», 1975-08-17
 «Etxekoandrea eta ni 11. Txikikeria txikian gelditzen da», 1975-09-07
 «Etxekoandrea eta ni 12. Amaren itxumena», 1975-09-21
 «Etxekoandrea eta ni 13. Eskola txikia eta eskola aundia», 1975-10-05
 «Etxekoandrea eta ni 13. Erabili bearreko gaiak», 1975-11-16
 «Etxekoandrea eta ni 14. Gabon-Eguberri! Gabonzar-Urtuberri!», 1975-12-28
 «Etxekoandrea eta ni 15. Zarrak eta gazteak.», 1976-02-15
 «Etxekoandreak eta ni 16. Zarrak eta gazteak II», 1976-04-25
 «Etxekoandreak eta ni 17. Pozak eta pozik», 1976-06-20
 «Etxekoandreak eta ni 18. Eta udaran zer», 1976-07-04
 «Ikerri», 1976-07-25
 «Teneri», 1976-08-15
 «Fraile gazte batek», 1976-10-03
 «Etxekoandreak eta ni. EAB», 1976-12-26
 «Etxekoandreak eta ni 20. Gabon giroan kontu-kontari», 1977-01-09
 «J.M. Alegriari», 1977-08-28

Euskera

- «Tene Mujika andrearen hitzak», 21. zk., 1976: 158-159.
 ««Ama» olerkia», 26. zk., 1981,2: 669-670.

Euskerazaintza

«Argia'ren egutegia. 1936-2036», 6. zk., 1989: Barruko azala.

ITZULPENAK*Zeruko Argia*

Zorrilla, Jose: «Egaka ta igeska», 233. zk., 1967-08-13: 12.

Egan

Fagoaga, Isidoro de: «Jose Maria Iparragirre», 1976/1-6. zk., 1976: 71-92.

Bi bildumek irekitzen eta ixten dute lanen aldi hau: lehena Santi Onandiak egindako olerkien antologia da eta bigarrena Kardaberaz Elkartek Manuel Lekuonaren omenez ateratako idazki bilduma. Gaien aldetik jasotzen diren ordura arte jorratu dituenak: hurrekiko harreman errukitsua, maitasuna, jainkoa, askatasuna eta herria, amabirjinari zuzendutako otoitzak eta narrazio laburrak. Olerki ale benetan ederrak ditu garai honetan ere (ikus ondoren jaso dugun “Nirekikoak” izenekoa). Genero ikuspegitik Tenerena da emakume ahots bakanetako bat.

Uxue Alberdik (2019) argitaratutako saiakera interesgarrian deskribatzen dira emakumeen ahotsek publikoki lekua izateko aurkitzen dituzten patroiz edo mugatze-mekanismoak. Mekanismo horietako bat da emakume batzuk aukuratuak izatea gizonen ahotsen artean egoteko, gizonen kidetzat hartuak dira ez emakumetzat hartuak. Alberdik mekanismo horren aldaerak deskribatzen ditu bertsolaritzaren jarduna ardatz hartuta: feminitatea erantzten zaie, deserotizatu; beste emakumeen artetik apartak direla irudikatzen da eta, ondorioz, emakumeen saldo subordinatutik erreskatatzen dira; salbuespena eraikitzen da beste emakume guztiak gutxieteko, finean.

Bertsolaritzak eta literaturak edota prentsak zer ikusi gutxi daukate baina, agian, Teneren legitimazioaren atzean egon liteke horrelako zerbait. Ziur aski bere praktika sozial askok lotura estuagoa zuten lagun zituen elizgizonen bizimoduarekin. Bere familia bizitzak (haurrik gabe eta ekonomia familiar erdi mailakoak) aukera ematen zion irakurtzeko eta idazteko, harreman intelektuallak elikatzeke eta bere idazkera dotoreak ateak zabaldu zizkion edota, hobeto esateko, ateak zabaldu zizkieten gizonen horregatik. Elizgizon ikasien autori-

tatea darie bere hitzei. Tenek bat egiten du Lekuona, Arrinda edota Onandia bezalako belaunaldiaren ahotsarekin.

Sasoi honetako piezetan posizio argiak ditu hainbat gairen inguruan:

Soziolinguistikari buruzko gaietan, adibidez, anaia Joxe hil zenean 1969an *Basarrik* aipamena egin zion Anaitasuna aldizkarian. *Basarriren* emaztea, Maria Aginagalde itziartarra, Mardari auzoko *Usarroa* bere jaiotetxean izan zen auzo-eskolako maistra 1932tik 1936ra (Garmendia, 2004-780). *Basarri*-rekin ezkontzean Zarautza aldatu zen eta gerra garaian erbestera jo zuten senar-emazteek. Gerra garaian, Telesforo Monzonen bizkartzain izan zen *Basarri* Gobernazio kontseilaritzan, eta *Eguna* egunkariko kolaboratzaile aritu zen. Pentsatzekoa da Maria Aginagalde Teneren lagun izango zela, EAB tarteko, gerraurrean eta harreman hori sendotu egingo zela erbestean bi familien artean. Horrela ulertzen da *Basarrik* Joxe Mujikaren hilberria idaztea.

Tenek erantzun egin zion *Basarriri* eta irakurketa soziolinguistiko interesgarria partekatu zuen Zeruko Argian irakurleekin:⁸⁰

«Euskerea gaizkatu nai ba'degu, bearreko egin bear degu, ta bearreko, euskeldun gearanok zintzo-zintzo beti euskeraz itz egiñaz egingo degu». Emendik, bion artean jardun oi gendun {anaiaz ari da} zenbateraño sartu liteken euskera gizartean, eta zenbateraño bearreko egingo litzaken. Jaungoikoari eskerrak oraindik ere asko ta asko gera euskera dakigunak. Baña zoritxarrez baita, asko ta asko, geienok, errex-errex izketan alde bat utzitzen degunok. Aziera onak edo «edukazio» onak agintzen duala-ta, sei euskeldun euskeraz izketan dauden tokian erdaldun bat sartzen baldin ba da, bertatik beste seirak euskera utziko dute. Ez dute agitz au egingo katalundarrak. Ez orixe! aiek eultzei berenari. Gero esango dute, gaizki eziak dirala ori egiten dutelako, baña ori egiten dutelako guk baño obeto eultzitzen diote beren izkuntzari. Gu ordea obeto eziak ei gera. Alajaña! Irabazten degu ba zerbait! Edozein narraxek erresetua galdu digu. Ona emen gure aziera onaren ondorea. Bestetik, aundi usañeko tokietan, Zirkulo edo zerbait orrelako tokietan, ez dute euskeraz egingo, naiz eta an euskeldunak eta euskel-jakitun izenekoak bildu. Ez dizu aberats euskeldun batek Bankuko lexatilla edo takillan euskeraz egingo. Ez ba: leixatillakoak edo barruragokoak ez daki euskeraz da!

⁸⁰ Mujika, T. *Zeruko Argia* «Basarriri'ri agiriko idaztia», 310. zk., 1969-02-09: 3.

Ez inungo landola edo ofizinetan, ez denda aundietan, geu dirua ematera juan arren. Ez aien errua. Errua geurea da. Euskeraz itz-egitea galerazten digun eragozpenik ez degu; geu gera geu, erabiltzen ez degunak, eta... Euskalerrian euskerearen bearrik ez da; bizibidean sartu ta aurrera egiteko. ta an dijoaz gure gazteak Paris'a ta Londres'a, aien izkuntzak ikastera. Bear bearreko ei da ingeles jakitea, ta guraso zabarrak, beren alabatxo gazteak norengana bidaltzen dituzten ziur jakin gabe beren ondotik urruti, egundoko arrixkuetara botatzen dituzte; bañan beren ondoan, beren magalean ikasi lezaketen euzkera «zertako»? ez jakitea apaingarriago euren ustez. Ni ez naiz erderearen aurka, ez inungo izkuntzak ikastearen aurka, bai ordea geurearen alde. Eta geurea biziko baldin bada euskera dakigunok beti ta edonun zintzo erabilli bear degu batez ere dirua ematera guazen tokietan. Eta euskera bearreko egiten ba-degu bizibidea emen euskalerrian arkitu nai badegu ziur nago «habla en cristiano» jaurtitzen digutenak, aurrenak izango dira ikastera alegintzen. Eta ondo egina izango litzake. Bakoitzak bere buruari ezarri bear diogun bear-kuna da au, bakoitzak zintzotasunean bere buruari ezarri bear dion bear-kuna; ta bear-kuna duala ez dakienari irakatsi bear dion bear-kuna. Ai nork leuzkaken bi edo iru milloe peseta edo amar Banku baten baimentzat utzi ta Txina'ra edo Iparamerika'ra makiña edo edozer tresna euskeraz eskatzeko, billatuko lukete nork beren izkuntzara itzulua, diru aura berenganatzeko. Ludi au diruak darabil, eta dirua irabazteko gure izkuntza bearreko egiten ez degun bitartean larri ibilliko da gaxoa.”

Hitez hitz gaur ere sinatzeko modukoa den aipua inondik ere. Euskara beharrezko egitearen argudio soziolinguistikoa, katalandarren erdua sumisio linguistikoa, erdarekiko jarrerak, aberkide erdalzaleen kritika, esparru ekonomikoaren trakzio gaitasuna... Gaurko soziolinguistikan jorratzen diren gai ugari ageri dira Teneren prentsa-pieza honetan.

Genero gaitan, ordea, asko ari ziren gauzak aldatzen bere inguruan eta gai horrekiko bere ahotsa ez da hain argia baizik eta ñabarduraz betea. Merezi du horietan sakontzea.

1968an ikasketarik gabeko emakumeak zituen begiz jota. Gaztelaniaz argitaratu zuen lan bakanetako bat zuzendu zien euskaraz ez zekiten amei:

“Tus obligaciones de madre de familia impiden que puedas asistir a los cursos de enseñanza del euzkera que se dan en la ciudad o pueblo donde vives, y por otra parte, si

eres mujer que por circunstancias de la vida, tu instrucción escolar no pudo subir de la Primaria, es posible que no te sirvan las gramáticas de grado superior que se han publicado para el estudio de nuestro idioma, y tal vez, tampoco algunos de los Métodos un tanto demasiado compendiados que se nos van ofreciendo. He pensado mucho en esto, y por fin, he decidido ayudarte poniendo a tu alcance estas sencillas lecciones, cuyo léxico me ha inspirado el ambiente en que viven."⁸¹

Informatzaileetako bat (I9) bidelagun izan zuen langintza horretan: *"Liburuska hori ikastolan fotokopiatu eta banatu genuen inguruko amen artean. Ikasketarrik gabeko emakume asko zegoen Deban"*. Nolanahi ere, ikastolak abian direlarik ere amengau jartzen du erantzukizuna Mujikak. Berak argi dauka⁸²:

"Ikastoletan lan ederrenetakoa egiten da. Baña ikastolen lanak sendian bear du jarraipena, eta sendian dabill narraxka. Zer balio du gurasoak euskeldun izateak baldin senar-emazteak elkarrekin euskera erabiltzen ez badute?... Ikastolan dabilzkite umetxuai, bai, euskera egiten zaie, baña aundien artean erdera besterik ez. Eta ikastola utzitzen duten artekoa besterik ez dute an ikasi duten euskera.

Au ere milla ta millaka sendietan gertatzen ari dana da, «La niña va a la ikastola y ha aprendido muy bien el euskera». Baña ortik aurrera ezer ez."

Senar-emazteak aipatzen dituen arren, erantzukizun handiena emakumeengan lagatzen du:

"Ekin gogor bat bear da, batez ere emakume euskelduna euskelzaletzen. Ez dezala uste-izan umea ikastolara eramanakin bere bearkuna bete duanik. Berak bear du etxean euskera erabilli. Berak beardu euskera ganako zaletasun bizia beregan piztu. Berak bear du gure andereño zintzo oien lanari lagundu. «Mis niños van a la ikastola». Ez, ez da gutxi ez; baña-ez da naikoa. Ama euskelduna benetako euskelzale egiten gogor ekin bear da. Bestela... beste lan mota guziak alperrikakoak jasoko da ba, bai, baña idaztitegietako apalarik goituenara. Noizik beñ eskuetan artzen diran liburuak lo-egiten duten tokira."

⁸¹ Mujika, T. *Cuadernos de vascuence hablado (Euzkel idaztitiñoak). Cuaderno primero*. Itzaropena. Zarautz. 1968.

⁸² Mujika, T. *Zeruko Argia* «Txoro aizea», 336. zk., 1969-08-10: 17.

Lehenago ere aipatua dugu Teneren ahalegina ez dela hizkera jasoa sortzea edota beste hizkuntza batzuekin homologatzea, berak *euskera garbi, argi, ta errexa* sustatuko du; asmoa praktikoa da, sozio-linguistikoa.

Informatzaileetako batek horrela argudiatzen du Teneren postura:

“Horrek dauka zer ikusia Lagi Zabarrarekin. Zeren transmisioa, konturatzen bazera gure historia guztian, Euskal Herriaren historia guztian, hartzen badezu pintura aldetik, hartzen badezu musika aldetik, hartzen badezu idazle mailan, emakumea da euskera zaintzen duena, euskera transmititzen duena, berari uzten zaio hori. Zertako? Ba hain zuzen etxean dago, umeak zaintzen ditxu, umeak ekartzen ditxu eta umeak bezitzen ditxu ere. Eta maila horretan Lagi Zar hori eta transmisio hori emakumeei emate zaie. Gizonezkuak badaukate nahi dutena egitea, bai, kanpoko bizitza eta bere aisiarekin nahi dutena egitea baña emakumeak ez. Emakumea da hauxe (bi marra marratzen ditu eskuekin goitik beherako mugimenduak eginez), zuzena. Etxean geratzen dana eta etxean geratzen dan horrek egiten du transmisioa seme-alabekin eta euskera ez da galdu horregaitik ere. Nik zea hori daukat. Horregatik ez da galdu. Orain lan gehiago daukagu maila horretan zeren...eta, bestalde, euskara eta abertzaletasuna loturik jun da. Gaur egun ez dijoa loturik, ez derrigorrez. Badaude euskeraz hitz egiten dutenak ez dutenak zer ikusirik abertzaletasunarekin eta alderantziz abertzaleak ez dutenak euskaraz egiten eta gañera ikusten ez dutenak beharrik ere. Ordun maila horretan esaten det garai hartan emakumea zela, eta emakumea garai hartako emakume bezela ba txapela kentzekoa.” (I7)



Teneri Miren Itziar Deba izeneko umeak egindako marrazkia. [Tene Mujikaren artxibo personala. Argazkia: N. Goikoetxea]

Tenek bazekien genero binarismoa krisian sartzen ari zela garai horretan eta hala ere ez zuen bere diskurtsoa modalizatzen. Amen funtzio linguistikoa defendatzeko ez zion erreparorik jartzen neska gazteen “txoro aizea” kritikatzeari:

“Amasei urte kaskarin. Neska polita. Berrogeita amar abizen euskotar odolean, baña... euskera ez daki, Ezta jakin nai ere. Ez ote da gauz egokia euskeraz itz-egitea «minifalda» jantzi ezkeror? Batek ba-daki! (...) Millaka ta millaka Pilartxo ditugu gaur euskalerrian. Urte gutxi barru guraso egiñik izango diranak... A zer etorkizuna gure euskera gaxoarentzat!”

“zer onik atera dezakezute astean-astean ainbeste diru eramaten dizueten aldizkari txoro, aundikien arrokeriak, eta artisten eskontza austeak eta beste nabarmenkeriak besterik azaltzen ez dizkizuten irakurgai kaltegarri oiek? Zuen umeak dira geroko gizonak, geroko amak, geroko emakumeak. Mundu obeago bat egin nai bade-gu, gu, bakoitzagandik asi bear gera, bakoitzak bear du orretarako lan egin. Eta zer garrantzi aundiagoko lanik umeak ondo azi ta ezitzea baño?”⁸³

Edozein elizgizonen ahotan jar genezake aipua, ez du Tenek aldatzen ari den mentalitatea bere egiteko beharrik erakusten. Nagusikeria sumatzen dugu bere hitzetan eta kritika esplizitoa.

Bi urte beranduago, 1971n, feministek egin zuten *etxeakoandreak*en problema-tizazioa kritikatu zuen. Miren Jone Azurzak zuzentzen duen Zeruko Argian ageri da Teneren iritzia *etxeakoandreak*en ideiare kontrako iritzi feminista baten inguruan. Interesgarriak dira argudio eta kontrargudioak, egitzat jotzen baititu esan batzuk baina defendatu egiten du *etxeakoandreak*en ideia:

“Nola diteke, onein gogor baiespen au egin...? Toki onean utzitzen ditu idazle onek euskal-gizonezkoak! Gizajoak! non da zuen izen-ona senar bezela, euskal etxe-koandrea «mito» bat besterik ez bada?...”

...Gizonak, emakumeak bezela, gure izaeran baditugu bai, gure akatsak; baiña euskal-gizonezkoak, eta auetan ezkonduak, izango ditu izaeran akats batzuk edo besteak, baiña beti, emazteagan konfiantza edo uste-on osoa duena, eta bere irabaziak osorik ematen dakiena emazteari, sendia bear bezela jaso al dezan, eta ematen dion dirua zertan banatu duan konturik eskatu gube. Senarraren, semearen, edo anaiaren uste-on osoa duan emakumea, ez alda etxeakoandrea?... Menpeko gerala emakumeak?... Legez bai; langille arazoan, batzutan ere bai. Baiña au utzi alde batera, eta ezingo degu esan Etxekoandrea «mito» bat dala. Au ez, ez ta ez, Jaungoikoari eskerrak.

⁸³ Mujika, T. Zeruko Argia «Juantxo Txiki», 345. zk., 1969-10-12: 11.

Zenbait emaztek ez duala senarragandik on-uste ta opa-onik? Ez degu esango ezeztzik. Baiña zenbait emazterekin senarrak, sendian nagusitasun aundirik ere ez.

Gai onetzaz emakume artean azterpen bat egingo balitz, geien geienak erantzungo leuke, orretan bere senarra, bere semea, edo bere anaia ona dala.⁸⁴

Ezin zuen onartu nonbait familia egitura binarioan emakumeak zuen menpeko rola. Interesgarria da ikustea nola onartzen dituen emakumeen legezko menpekotasuna eta lan-munduan gertatzen zena, ez ordea familia egituran ematen zena. Luze joko luke azaltzea familia egiturek nola eutsi zioten herriari; Tenek erasotzat bizi zuen familia egiturari egiten zitzaion kritika feminismotik. Hala ere, honakoa esateko beharrean sentitu zen handik gutxira:

“Ez nuke nai, emakumearen gorapen edo «promozio» deritzagun orren aurka naitzela inork uste izaterik. Ez orixe. Baiña gaurko gazteriak uste du, emakumearen aldeko ekintza ontaz, leengoek ez zutela ametsik ere egin, eta gaxoak egundo itzik atera gabe, apal-apal jasan zutela gizonak ezarritako kate, edo bere menpeko izatea.”

Aipu horrek erakusten du, gure iritziz, kritikagarria iruditzen zaiona dela abertzaletasun proiektu fundantea zalantzan jartzen zuen ikuspegi feminista, ez hainbeste emakumeen aldeko borroka. Bera emakumeen alde zegoela defendatzeko sufragismoa hartu zuen hizpide⁸⁵:

“Au idaxten dedan onen gogoan ere, ez zuten iskanbilla ta zarata gutxi atera ingeles emakumeek «sufragista» izenez ezagutu genituenak. Legeak gizonetzkoak egiten ditu, ta beretzat egin ere. Emakumearentzat, gizonbidez linburtzea, ta bere edertasunari omen-egitea, bear duana dollorkeri gabe ematea, ta onbidez poz ematea. Baiña gizartean nagusi, beti bera.

«Sufragistentzat» ordea au ezer gutxi nunbait, eta emakumeari, emakume bezela bere balioa aintzat artu, ta zegokiona gizonetzkoiei bezela gizartean zegozkion eskubideak ematea.

⁸⁴ Mujika, T. *Zeruko Argia* «Etxekoandrea... “mito” bat...?», 424. zk., 1971-04-25: 3.

⁸⁵ Mujika, T. *Zeruko Argia* «Aspaldiko auzia gaurkotzat», 430. zk., 1971-05-30: 3.

Ez dakit orrela izango zan, baiña emakume ausartsu aiek, egunkari ta aldizkarietan gizonok parregarri azaltzen zituzten. Mari-mutil, zarkote, itxusi batzuk bezela erakusten zizkiguten. Ainbesteraño, emakume zatar baldar bat ikusten gendueanean emakumeak geuk ixekaz esan oi genduen: «Sufragista» dirudi. Auteskondeetan botoa emateko eskatuaz jeiki ziran onekin beren alderako beste zerbait geiago lortzeko itxaropenez. Baiña orain bezela leen ere, emakumeak, edertasunak ematen dion erakarpena maite. Ta idazle, gizon maltzurak, ain parregarri ipiñi zituzten, emakume, ausartsu aien aldera besteak etzuten nai-izan jo. Ta ezer gutxi lortu ta ixildu egin ziran.


Orain ordea, gizonetzkoa bera da emakumearen gorapen au altxatzen duena. Ez daukagu botoa eskatzen jeiki bearrik, eskubide ori aspalditik badegu-ta. Eskubide au degula zaartu geranok, ezer asko lortu degunik... ez det uste”.

Zer esan nahi du: aspalditik gatoz, gizonen jazarpena lehenago ere gertatu zen gu ere konbentzitzeraino, emakume haiek hain itsusi irudikatuta lortu zuten beste emakumeak haiekin bat ez egitea. Emakumeak ez dio uko egin nahi edertasunak ematen dion botereari. Etsi egin zuten, ezer gutxi lortu eta ixildu egin ziren. Lortu da botua baina ez da asko egin, gehiago dago egiteko.

Garaiak aldatzen ari zirenaren jakitun zen “*Ain urtetsu naizen onen iritziak zar usaia izango dutelakoan ez naiz ausartzen idaztera*”. Ez dirudi, ordea, amore emateko moduan zegoenik. Indarra dario bere ahotsari: *aspalditik gatoz, gehiago dago egiteko* izan zitekeen bere mezua. Gaurko feminismoan ere kosta egiten da aurrekoen aitzindaritzza aitortzea. Horren lekuko da Tene Mujika bera profeminista bezala ez hartzea. Bistan da erresistentziak dituela 60. hamarkadako canonarekiko baina bere egintzak ez aintzat hartzea feminismoaren polisemia ukatzea dakar, bereziki genero ikuspegia inperialismoaren kritikarekin txirikordatu nahi bada.

Ikerketa gehiago beharko genituzke, zalantzarik gabe, EABko emakumeen arteko harremanen inguruan, emakume idazleen arteko elkarlanaz. Gutasun argi bat darie Teneren hitzei. Zoritxarrez, ezer gutxi ikertu dira banakakoen lanak eta hutsaren hurrengo da azterketa konparatua. Uste dugu idazle hauek aldarrikatzen zuten ahizpatasun harremanen atzean egituratze benetan garrantzitsua egon zela. Sororidadea deitzen zaio gaur. Irekita geratzen zaigu ikerketa-eremua, beraz.


Adibide gisa, badakigu nola Julene Azpeitia, hala Balendiñe Albizu zumaia-
rrekin laguntasun handia izan zuen Tenek. Horren lekuko moduan dakartzagu
Balendiñek Caracasetik 1975ean bidalitako postala eta Enrique Eskauriatzari
Teneren koinata Felisak idatzitako argibidea:



Balendiñe Albizuk Caracasetik
bidalitako postala.

[Tene Mujikaren artxibo pertsonala.
Argazkia: C. Crespo]

Enrique Eskauriatzari
bidalitako oharra.
[Tene Mujikaren artxibo
pertsonala. Argazkia: C. Crespo]



Julene Azpeitiaren senarra, Enrique Eskauriatza Tejeiro bilbotarra, Deban hilobiratu zuten 1972ko maiatzaren 20an. Julenek eta biok Iturkale 4an zuten bigarren etxea eta bertan hil zen Eskauriatza. Tenek idatzi zuen haren hilberria (Altzibar, 2021-45). Julene Deban lurperatu omen zuten ere, senarraren ondoan, 1980ko otsailaren 5ean Bilboko bere etxean hil zenean, Tene hil baino urte eta erdi lehenago, hain zuzen ere. Bizialdi osoko harremanez ari gara.

Hori guztia gertatu aurretik, ordea, Tenek bere idazle-jardunaren azken ekinaldia jotzekoa zuen: 1973 eta 1977 artean 48 bat artikulua argitaratu zituen Diario Vasco egunkarian; artean 85-89 urte zituelarik. Erabat gaztelaniaz ziharduen egunkari horrek “Euzkel atala” argitaratzen zuen *eskola zaharreko* euskal idazleen lanak argitaratuta.

Azpitarragarria iruditzen zaigu 20. hamarkadan *Miren Itziar* gazte abertzaleari zuzendu bazion artikulua-sorta gogoangarria, 70. hamarkadan, 1975ean hasi eta 1976an bukatuta, beste hainbeste eskaini ziela etxeoandreei. *Etxekoandrea eta ni* izeneko sorta osatu zuen eta, horrenbestez, etxeoandreei zuzenduriko ahots autorizatuaren rola jokatu. Gogora dezagun nola ari zen kuestionatzen etxeoandreaken irudia emakume gazteen aldetik.

■ Azkenak

Ilobek horrela gogoratzen zuten izeko Robus:

NUESTRA IMAGEN DE IZEKO ROBUS

La imagen de Izeko Robus (así le llamábamos en familia), era la de una persona muy mayor, siempre, siempre en una salita escribiendo o leyendo al lado de una ventana, pues apenas veía, y con una lupa para poder ver las letras. Muy alta, delgada con un moñito, pero el pelo gris sin ser blanco. Vestida de oscuro con unas gafas de cristales de muchas, muchas dioptrías y unas manos con dedos muy largos y piel muy fina. Sumamente cariñosa y cuando entrábamos en la salita se ponía la mano en la parte de los ojos para vernos mejor.

Ella decía que se iba a morir con la pena de no saber cómo iba a evolucionar el mundo: la mujer, la política, los avances tecnológicos, etc, etc.



Tene iloba bat besoetan.

[Argazkia: Tene Mujikaren familiaren artxiboa]

Eta gogora ekartzen dituzte honako merezimenduak:

Valoramos muchísimo su aportación por varios motivos:

-Por su lucha a través de la escritura en pro de los derechos de las mujeres en una época en la que no era una inquietud muy usual, ni fácil.

-Por su afán de divulgar el euskera en una etapa en la que era una lengua castigada

-Por su ideología política que la hizo renunciar a una seguridad y comodidad familiar y exiliarse varios años

Hil aurretik, 1981eko irailaren 16an, *Egin* egunkarirako elkarrizketa bat egin zion Rafael Castellanos debataritako idazle madrildarrak, *Faletek* (1981):

En los últimos tiempos confesaba vivir como un personaje de García Márquez, y te contaba algo referido a los recuerdos que se transparentaban a través tuyo, y te daba un poco de escalofrío. Las bombas de Gernika, el instinto de los animales que cuando los aviones pasaban de vacío no se alborotaban y cuando llegaban de Gasteiz de repostar combustible y apocalipsis escondían, se erizaban, olfateando las bombas. La Tene, académica por libre, escritora en euskera arcaico —cómo exigirle otro— te describía mirando con sus ojos yertos, ya ciegos, cómo llegó al pueblo la columna de requetés, los teatros de retaguardia para distraer a la tropa y a los heridos, la extrañeza que causaba

en Deba una mujer que frecuentaba bibliotecas, la grotesca novela que muy bien pudo firmar Manzoni de unas señoritas que leían novelas rosas en la fundación Ostolaza, y que luego se confesaban de ello provocando una revolución en el clero. Con la Tene se podía charlar largo y tendido una mañana entera, en la cocina y sentirse rodeado de espectros retrospectivos acogidos a sus ojos sin luz. Ha fallecido sin haber podido en los últimos años, ni leer ni escribir, recorriendo su existencia desde el mirador a la alcoba, rodeada de espejos ancestrales y de amigos a quienes decía que lo importante es el euskera, y no el adjetivo que se le dé. Su más reciente rareza era asegurar que ya había cumplido los cien años, molestándose si se la contradecía. Ha ido a formar parte de su memoria al otro lado del cristal. Cien años de soledad desvanecidos.

† TENE MUGICA EGAÑA

(Académica de la Lengua Vasca)
(Miembro de Cardaverza)
(Expresidenta de Emakumes Abertzales)
(Escritora y poeta vasca)

Falleció en el día de ayer, a los 93 años de edad. Después de recibir los Santos Sacramentos y la Bendición Apostólica de Su Santidad.
— R. I. P. —

Su director espiritual, Mikel Egaña; hermana política, Felisa Soraza; sobrinos, Juan José Mugika Aramberría, Arantza y Nere Larrañaga Mugika y José Antonio Mugika Soraza; sobrinos políticos, Maruja Ibarra, Satur y José María Pagoaga Busto, y demás familiares.

Ruegan a sus amistades encomienden su alma a Dios y se sirvan asistir a los funerales que se celebrarán HOY, JUEVES, a las SIETE de la tarde, en la iglesia parroquial de NUESTRA SEÑORA DE LA ASUNCIÓN de esta villa, por lo que les quedarán muy agradecidos.
Deba, 17 de septiembre de 1981.

Domicilio: Calle Lertxundi, 15.

† TENE MUGICA EGAÑA

(Euskal olerkari ta idazle)
(Kardaberaz-Larra)
(Emakume Abertzale Zuzendari izana)
(Euskal olerkari ta idazle)

Atzo il zan 93 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena artu eodoren
— GOIAN BEGO —

Bere animaren zuzendaria, Urazandi'ko Mikel; ezkon-arreba, Sorazu'tar Felisa; ilobak, Mugika eta Aramberría'tar Juan Jose, Larrañaga eta Mugika'tar Arantza eta Nere eta Mugika eta Sorazu'tar Jose Antonio; ezkon ilobak, Ibarra'tar Maruja, Pagoaga eta Busto'tar Jose Maria eta beste sendial.

Aren animaren alde otoi bat eskätzen dizuete eta arren etorri zaitezela GAUR OSTEGUNA arratsaldeko ZAZPIRETAN, ERRI ONTAKO AZUNTZIOKO ANDRA MARIREN etia nagusian, egingo diran ilelara. Aldeaurrez, mila esker.

Deba'n 1981'ko irailaren 17'an.

Zuzenbidea: Lertxundi kalea 15'an.

Teneren eskela.

[Tene Mujikaren artxibo pertsonala.
Argazkia: N. Goikoetxea]

Nirekikoak (*Karmel*)

Itzali zaizkit beti-betiko
gau ozkarbian izarrak...
Ez ditut berriz nik ikusiko
euren dizdira ederrak!

Urrutirik ez; ingurua motz;
laño artean argia...
guzia nabar begien lausoz
ene Goiko Jaun aundia!

Aiendu zaizkit itxas-mugetan
ikusten nitun ontziak,
egun garbian euzki galdatan
dizt-dizt dagiten pitxiak.

Ikusi ezin an gallurreko
kurutzearen besoak,
igerri ezin ekaitz osteko
intzirkiaren margoak.

Itxas-mendarte batutxo baten
ni jaio nintzan txokoa,
illundua zait bere egalunen
orlegi iraunkor gozoa.

Enaratxuak non ote aurten
urteroko kabia?
Tellatupean? Ez det ikusten
maitien detan txoria!

Udaberrian ase oi nintzan
izadiaren ederrez,
oraindik dakust sarritan
oroimenaren indarrez.

Ikusten ditut, bai, eder dan beste
usaintzen dedan lorea,
ta magalean aspertu gabe
maitatzen dedan umea.

Pozik nintzake onenbestekin
ene Jaun eta Jabea!
baña naiz otoitz itxu ez nadin,
Zure naia da nerea.

TENE

8. ONDORIOAK

Emakumeen ahanztura euskal ikasketetan

Agerikoak iruditzen zaizkigu Tene Mujikaren merezimenduak: ikuspegi sozio-linguistikoa garatu zuen, euskararen gaitasun literarioa landu zuen, emakumeei euskararen sustapenean rol sozial batez apropiatzen lagundu zien, ekoizpen periodistiko oparoa utzi zuen, euskararen transmisioan katebegi garrantzitsua izan zen. Horiek guztiak baina ez dira nahikoa izan bere izena euskalarien genealogietan kontuan hartzeko. Gainera, nekez aitortu zaie gerraurreko emakume idazleei belaunaldi izaera, beraien taldetasuna eta artikulazioa ez da ikertu.

Oraindik orain argitaratu gabe ditugu emakume hauen guztien lanak. Sakabanutuak daude, gutxitxo ikertuak, desestimatuak. Kontraesanez betetako herri batean bizi gara: 80. hamarkadatik martxan dago Tene Mujika izeneko literatura saria (oraintsu ikerketa beka bihurtua) baina ez dugu haren lanak irakurtzeko aukera errazik. Argitaratu dira urtero saritutako lanak baina ez omendutako idazlearenak. Horregatik eskertu baino ezin dugu egin *Jakinek* eman digun aukera Mujikaren testu digitalizatu ia guztiak helarazita. Eskerrik asko Azkue liburutegiko Pruden Gartzinari ere horien arrastoan jartzeagatik.

Gure ikerketak, bestalde, ekarpen bat egin nahi izan du euskal ikasketetan generoaren gaia dela-eta azken urteetan ireki den debatean. Literaturan, bertso-laritzan, antzerkian, euskara teknikarien artean ezkuta ezina da debatea. Urte askoan ontzat eman da emakumeen ekarpenak bigarren mailakoak zirela, ez gizonenak bezain garrantzitsuak, ahots propioak inbisibilizatu egin ditugu, taldetasun modu batzuk desautorizatu eta emakumeen ekarpena funtzio subordinatuetara errenditu da sarri. Teneren kasuak, bere kontraesan guztiek, agerian uzten du gure iritziz ahanzturaren genealogia bat. Belaunaldi oso bate-na dena. Eta oraindik orain indarrean dagoena.

Emakume abertzale batzako en eragina oso handia izan zen, harreman sare handia osatu zuten, kultur canon bat eraiki zuten, aldizkari garrantzitsuetan hartu zuten parte, mobilizazio moduetan forma garaikideak izan zituzten. Jakina da JEL doktrinaren estatusunean aritu zirela baina ber gauza esan liteke gizon abertzaleen inguruan eta horien kasuan ez da hainbeste azpimarratu atzerakoikeria. Gerrak elkarlana eta emantzipazio-urratsak birrindu zituen. Baina etxeetan amek seme-alabak bidali zituzten eskola klandestinoetara, elizetara doktrina euskaraz ikastera, euskalari askoren amak EABkoak izan ziren, ikastolen ugalketa estuki lotzen zaio gerraurreko modu batzuei. Elizak hustu eta belaunaldi berria militarizatuagoa (eta maskulinizatuagoa) etorri zelarik emakume hauek lekuz kanpo geratu ziren. Belaunaldi bereko gizonengandik ez ezik hurrengo belaunaldiak ere inbisibilizatu egin zituen, ez ama bezala, bai eragile bezala. Interesgarria izango litzateke pentsatzea ze lotura duen horrek guztiak oraingo gazteen feminismoaren goraldiarekin.

Herriek ezkututzen duten unibertsoa

Herri txiki bateko gizartea, mikro-gizarte moduan ikus genezake lanean. Tene Mujika nor zen esateko lanak izango lituzkete gaurko debarrek. Are gehiago, abertzale diren pertsona askok ez dute ezagutu gerraurreko Teneren ibilbidea. Soilik azken Tene ezagutu dute. Izugarria da gerraren etena.

Eten horren bi aldeetara emakumeen lekukotza aurkitu dugu. Alabak bidaltzen zituzten Tenerengana nahiz eta ez zieten kasu askotan esaten zertan ibilia zen, beldurra badakizue...

Egin ditugun bederatzi elkarrizketa sakonetatik tiraka mundu bat azaldu liteke; euskal munduari eutsi zion mundu bat. Eskerrak baino ez ditugu elkarrizketatuentzat. Asko da kontatu digutena eta beste asko paperean jaso gabe geratu dena. Klandestinitatearen kulturak jarraipena duela konstatatu dut.

Nazio mailako erreferenteek herrietan dituzte sustraiak. Hor garatu dituzte ekarpenak egiteko estrategia zehatzak. Teneren belaunaldiaren kasuan azpimarragarriak dira elizgizonekiko harremanak erabili zituztela boteretzeko estrategia moduan, euskaldunen bizi-baldintzak klase sozialen, nazio proiektuen eta kultura patriarkalaren baitan gauzatu zituzten, familia izan zen euskalduntasunari

eusteko instituzio garrantzitsua eta euskarak ardaztu zuen politikoagoa zen eremuaren adjetibizazioa; sustantiboa politika zen, euskara haren euskarria.

Feminismoaren begiradak gerraurreko euskal emakumeekiko

Emakume abertzaleen inguruko ikerlanek kolektiboan jarri dute arreta. Ondorioak taldeko kideak kontuan hartuta atera dituzte, batz bestekoak azpimarratuta. Tesi nagusiak esango du emakume hauek komunitate abertzalearen ama sozialak zirela, amatasun ezaugarrietatik ekiten diotela funtzio publikoari eta otzantasanak definitzen dituela. Ugaldereen hitzetan (1993-17): “*De acuerdo con éste [sistema de relaciones de género] la dirección política, sindical y cultural estaba en manos de hombres. Las mujeres desempeñaban la función de madres de la comunidad, encargadas de transmitir y ser las guardianas de la raza, la cultura, las costumbres y la ideología nacionalista, y de elaborar un tejido afectivo que involucrara el marco de relaciones y actividades de todos sus miembros, uniéndolos por medio de un entramado emocional muy difícil de romper. Esta trama afectiva era insustituible como elemento de cohesión del colectivo nacionalista, y sin él es impensable la existencia de la Comunidad Nacionalista Vasca como tal.*” Emakume bakoitzak, ordea, ezkututzen ditu errealitate anitzak, ñabardurak, batz bestekoa zalantzan jartzeko moduko ebidentziak. Horietako bat da Tene Mujika, baina hor daude baita canonetik ateratzen diren *Onintze*, *Mirentxu*, *Hayde Agirre*, *Polixene Trabudua* eta *Julia Fernandez Zabaleta* ere (Bilbao *et al.*, 2012).

Teneri buruzko aipuetan azpimarratzen dira kontraesanak, ñabardurak e.a.; Urkizak, adibidez, kontraesan gisa ikusten ditu bi hauek: alde batetik emakumeek politikan ez dutela aritu behar dio Tenek baina emakumeen erakundetzea sustatuko du; bestetik, emakumeengan portaera kontserbadoreak bultzatu nahi ditu baina sufragismoaren alde agertzen da (Urkiza, 2013-12).

Nolabait tesi orokor uniformatzaileari ihes egiten dio bere jardunak. Gure ikerketan erakutsi dugu emakume abertzaleen inguruan defenditu diren tesi nagusien ertzak. Mujikaren ideien eta obren garapena aztertuta berariazko errelato bat gara genezake eta orduan osotasun batera ekartzen dira ideien eboluzioak talde irakurketei sakontasuna erantsiz.

Ildo beretik, EABren inguruko baieztapenen inguruan galdera berriak proposa litezke genealogia feministak osatze aldera. Esate baterako Retozalak (2012-104) komunitate femenino eta feministak ezberdintzen ditu: *“komunitate femenino terminoak emakume subjektuak biltzen dituen talde sozialari egiten dio erreferentzia eta komunitate feministak terminoak, aldiz, subjektu feministak biltzen dituen talde soziala identifikatzen du. Egia da emakumeen ikusgarritasuna izan dela eta dela mugimendu feministen lehen helburuetako bat; hartara, komunitate femeninoaren eraikuntza ere funtsezko izan da, sarritan, komunitate feminista osatzeko (...) komunitate femenino baten eraikuntzak ez du zertan beti komunitate feminista- ren eraikuntza helburu izan. Hain zuzen ere, horixe dugu EAB erakundearen kasua. Komunitate femeninoa osatzeko tresna ezinbesteko bihurtu zen, baina, ez zuen komunitate feminista osatzeko urratsik egin”*. Geuk ere protofeministatzat jo dugu Tene.

Baina horrek eta horrenbestez ez du esan nahi gutxietsi behar denik egungo feminismotik. Llonak esan bezala haien ekarpena testuinguru abertzaleak zedarritzen du. Gutxi interesatzen zaizkigu etiketak, garrantzitsua ikusten duguna da euskal errealitatearen irakurketa propioa egitea egungo feminismoak. Aspaldi ohartarazi ziguten *ismoen* arrisku epistemologikoez, izan liberalismoa, zientifismoa, sozialismoa, marxismoa [ala feminismoa] (Irigaray, 1979-299): *“el pueblo vasco carga sucesivamente o simultáneamente con el papel negativo de la función (...) Y así tenemos al país enfrentado internamente en el marco ideológico dominante y a tenor de las coordenadas marcadas por él”*. Gaude emakume abertzaleek feminismo liberal ezkertiar eta estatalaren papel negatiboa jokatu dutela, egitez eta ikerketen egitatez. Emakume bakoitzaren obrak argitaratzea eta ikerketa gehiago egitea aldarrikatu nahiko genuke horrenbestez.

Julene Azpeitiaren inguruan dio Jose Luis Lizundiak (1988-142): *“Emakume Abertzale Batzakoak zenez, hor ere bere burruka jokatzen zuen. Emakume konpromisoduna zen, oroz gain, eta garai haretan ez zen gutxi andere heldu batentzat. Emakume abertzale bezala ikusten zuen bere egitekoa, ez “feminista” gudu arlokoa, baina azkenean, planteamenduak planteamendu, hori ere biurtzen zen, ene irudiko, emakumearen “rol” delakoa, zeharo bestalderuntz ikusten bazuen ere, bera kokatuta zegoen ideologiaren filosofiaren eraginez.”* Horixe bera esan genezake Tene Mujikaren inguruan.

Ezin ditugu biktimatzat hartu. Ontzat eman zituzten patriarkatuaren hainbat alderdi, errekonozimendua eta eragiletza zituzten jokoan eta misio garran-

tzitsuagoa zen aberrigintza. Eskura izan zituzten errekurtoak erabili zituzten, agerikoak eta isilkakoak. Bigarren horiek iradokitzen saiatu gara ikerlan honetan.

Ikuspegi interseksioanalaz

Gureak egiten ditugu Altzibarren honako hitz hauek ere (2021-224): “*Esanguratsua da emakume abertzale idazleen artean toki nabarmena irabazia dutela Azpeitiak eta Tene Muxikak, hau da, euskarazko emakume idazleek, erdarazko idazleen gainetik, eta Euskal Herriko emakumeen mugimendua aztertu nahi duen edonork haien idazlan eta ekarpenak aintzat hartu beharko dituela*”. Paralelismoa eginez erantsiko genuke guk “*euskararen aldeko mugimendua aztertu nahi duen edonork haien idazlan eta ekarpenak aintzat hartu beharko dituela euskal gizartearen ikuspegi patriarkala gainditzeko zantzu interesgarriak eskaintzen dituztelako*”. Ez da hori oraindino egin.

Euskararen biziberritzean emakumeek izan duten paperari buruzko ikerketa da hau. Tene Mujikaren ekarpena aztertuz ulertu nahi izan dugu nola garatu den XX. mendeko euskalgintza ikuspegi interseksional batetik. Gaur egun erronka bihurtu zaigu aztertzea hizkuntza minorizatuen biziberritzean eragiten duten aldagai ezberdinen interseksioa nola gertatzen den. Desafio epistemologiko handiak dakarzki erronka horrek. Ikerlan honek ekarpena egin nahiko luke zentzu horretan, norabide horretan urrats bat egin.

Euskararen azterketan soziolinguistika klasikoa gainditzen duten ikuspegiak aberasten joan dira azken urteetan. Askok pentsatzen dugu euskararen biziberritzea ez dela soilik gai tekniko-zientifiko bat eta prozesu sozial konplexua zentzuz bete eta kritikoki aztertu behar dela. Ikerlan honek arakatu nahi du euskaltzaleen ildo estrategikoetan, beraien gogo eta itzaletan eta, finean, gaur egun ere bizirik dauden logika sozialen ulermenean. Gerraurreko euskaltasuna abertzaletasun kontserbadore kristauaren eskutik sortu zen, euskaltzale nagusiak gizonak izan ziren eta itzalean geratu ziren sistema sozio-ideologiko horretan berebiziko garrantzia izan zuten emakumeak. Tene Mujika bide urratzailea izan zen eta merezi du partehartze politikorako erabili zituen bide eta moduak aztertzea. Horrek eskatzen du agerikoak eta ezkutukoak diren zantzuei errepa-

ratzea, kategorizazio eta analisi-gai konplexuak maneiatzea eta, horrenbestez, ikuspegi multidiziplinarra erabiltzea. Horixe izan da gure apustua.

Teneren belaunaldiarentzat euskara nazio proiektu batekin lotuta zegoen. Hasieran aranismoaren unibertsoak irudikatutako funtzioak atxikitzen zitzaizkion euskal hizkuntzari, Aranaren garaian nagusi zen marko teorikoan funtsatuta. Ondoren, alderdi egiturak eraiki zituzten euskararen aldeko politika egiteko beti ere nazio proiektuaren sustrai legez hartuta berau. Gerra zibilak sustraiak moztu eta Teneren egitasmoa klandestino bihurtu zuen baina tokiko zirrikituak baliatu zituzten etxezulo, dendaoste eta elizetan euskarari eta herrigintzari eusteko. Nazio proiektua exilioan zegoen eta, lurra erabat ez erretzeko zeregina izan zen euskara bizirik mantentzea. Garai horretan ere euskara *bere buruaz beste* egin nahi ez zuen herrigintza bati lotuta irudikatzen zuten. Ondoren, Francoren erregimenaren nazioarteko homologazioarekin, exilioko legimititatearen eta alderdien interesen arteko tentsioekin eta nazioarteko marko teorikoen aldaketarekin, anakroniko bihurtzen hasi ziren belaunaldi berrientzat mende hasierako euskararen formulazioak. Kulturgintzatik egiten zen politikan zubigintzak eraiki zituzten aurreko belaunaldiarekiko bersinbolizatuz moduak baina herrigintzari atxikitako proiektua ahaztu gabe.

Besterik da erakunde eta alderdi politikoen bidea: belaunaldi arteko etenak izan ziren nagusi. Tene Mujika bezalako pertsona batentzat, zeinak gogoratu dezagun euskara eta herria bat eginda bizi zituen, ulertezina zen gazte belaunaldiak politikoki hartu zuen bidea eta soilik kultura ikuspegitik ematen zien oniritzia. Konponezina ondo jaso dugu Deba bezalako herri bateko protagonistengan. Konponezin hori sukalde askotan gertatu da. Herrigintza alderdi politikoen gaintetikako Politika bezala bizi zuen Tenek, gure ustez, duintasun ariketa bezala.

Zer pentsatuko ote luke Tenek gaurko euskararen egoeraz? Zer aitortuko lieke Etari, alderdi politikoei, zer kulturgileei? Zer gaitzetsiko? Zein framing one-tsiko luke? Ezin jakin. Dakiguna da iritzi osatu bat izan izango zukeela eta indarrez defendatuko zuela. Hori egin zuen bere bizitza luzean zehar.

Herriaren narriadurak min ematen zion eta ekin egin zion euskararen transmisioari, emakumeen aktibazioari, abertzaletasunaren zabalpenari. Sistema patriarkal batean jokatu zuen eta horretara moldatu zituen bere jokamoldeak.

Gaur defendaezinak diren modu biolentoak erabili zituen emakume gazteen aurka bere eginda apaiz askok erabili ohi zuten autoritate ahotsa. Sistema patriarkal berak ixilarazi du, ordea, bere eta beste emakume askoren ekarpena, lehen bezala orain. Ispilu gogorra izan liteke konstatazio hau berau euskaltzale askorentzat baina canonak oraintsu arte gizon aurpegia izan du. Gaur egun ere fakultateak emakumez bete badira ere, ageriko desorekak daude euskararen aldeko eta euskal kultur sistemako instituzioetan. Gizonek gizonak aukeratzen dituzte gehienetan kooptazio bidez baita gurean ere.

9. BIBLIOGRAFIA

- Agirre, D. (1963 [1804]). “Emakumea gizaldiko lorea omen da”. In Bizenta Mogel *Ipuin Onak*. Auspoa liburutegia 28. p. 25-31. Donostia: Auspoa.
- Agirre, P. (2012). Ikastolak Gipuzkoan, datutegia. Argitaratu gabeko materiala. In Aunamendi entziklopedia. Sareko kontsulta: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/itziarko-ama-ikastola-deba/ar-153973/>. (accessed 29 maiatza 2021).
- Agirre, P. (2016). *Modernitate bakan bat. 'Arte berria' Donostiaren inguruan 1925-1936/ Una modernidad singular. 'Arte nuevo' alrededor de San Sebastián 1925-1936*. Donostia: San Telmo museoa.
- Agirre, L. & Eskisabel, I. (2019). *Trikua esnatu da*. Zarautz: Susa.
- Aizpurua, E. (2020). *Bidasoan gora*. Donostia: Elkar.
- Alberdi, U. (2019). *Kontrako eztarritik*. Zarautz: Susa.
- Aldekoa, I. (2008). Euskal literaturaz hiru apunte solte. In *Jean Haritschelbar-i omenaldia* p. 1-15. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Altonaga, B. (2015). Mujeres viriles en el siglo XVIII. La construcción de la feminidad por el discurso foralista de Manuel de Larramendi. *Historia contemporánea*. (52). p. 9-42.
- Altuna, M. & Garai, J.R. (2019). *Memoria partekatu baterantz-Arrasate 1936-1956. Gerra, Erresistentzia eta Frankismoa*. Arrasate: Arrasateko Udala eta Intxorta 1937 kultur elkarte.
- Altzibar, X. (2021). *Askatasun eguzkia baino beharra. Julene Azpeitia Gomez (1888-1980) biografia eta obra*. Andoain: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
- Alvarez, A. (2005). Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. Dorrearen arrakalak agerian uzten. In *Jakin*. (148). p. 37-74.
- Alvarez, A. (2011). *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan*. Donostia: EHU. Hemendik jaso: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/7612/ALVAREZ%20URIA.pdf?sequence=9&isAllowed=y> (accessed 29 maiatza 2021).
- Anaut, D. (2013). *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Andoain: Euskal Memoria Fundazioa.
- Anderson, B. (2005). *Comunitats imaginades*. Barcelona: Afers.
- Ansa, E. (2019). *Mayo del 68 vasco. Oteiza y la cultura política de los sesenta*. Iruñea: Pamiela.

- Apodaka, E. (2015). *Identitatea, diferentzia, anomalia*. Iruñea: Pamiela.
- Arakistain, B. (1866). *Tradiciones Vasco-Cántabras*. Tolosa: Probintziako inprentan eskuz egina.
- Arana, S. (2015). Hendaiaiko hitzaldia. *Hermes*. (50). p. 64-70.
- Aranzadi, J. (1982). *Milenarismo vasco (Edad de Oro, etnia y nativismo)*. Madrid: Taurus.
- Araolaza, O. (2019). *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan*. EHU: Doktore tesia.
- Aresti, N. & Llonza, M. (2004). Símbolos para una época. Género, clase y nación en la obra de Aurelio Arteta. *Ondare*. (23). p. 485-500.
- Arizabaleta, I. (2019). *Deba 1936-1945. Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa gerra zibilean eta lehen frankismoan*. Deba: Debako udala.
- Asensi, M. (2007) Crítica, sabotaje y subalternidad. *Lectora*. (13). p. 133-153.
- Atxaga, B. (2020). “5.000 irakurle tinkorekin mundua mugituko genuke”. In *Argia astekaria* 2677, 2020ko otsailaren 16a. Hemendik jasoa: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2677/bernardo-atxaga> (accessed 29 maiatza 2021).
- Azurmendi, J. (1979a). *Arana Goiriren pentsamentu politikoa*. Donostia: Jakin.
- Azurmendi, J. (1979b). *PSOE eta euskal abertzaletasuna (1894-1934)*. Donostia: Hordago.
- Azurmendi, J. (1997). *Demokratak eta biolentoak*. Donostia: Elkar.
- Azurmendi, J. (1998). *Oraingo gazte eroak*. Luma liburuak.
- Azurmendi, J. (2016). *Gizabere kooperatiboaz*. Donostia: Jakin.
- Beard, M. (2017). *Women and Power: a Manifesto*. London: Profile Books.
- Berger, P. & Luckmann, T. (1968). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Bermúdez, S. eta Johnson R. (eds.). (2018). *A new History of Iberian Feminism*. Toronto: University of Toronto Press.
- Bilbao, B.; Ezkurdia, B.; Pérez, K.; Chueca, J. (2012). *Emakumea hitza eta bizitza*. Bilbo: EHU-BFA.
- Bock, G. (1993). “Pobreza femenina, derechos de las madres y estados del bienestar (1890-1950)”. In G. Duby & M. Perrot (Ed.) *Historia de las mujeres del siglo XX*. Madrid: Taurus.
- Bourdieu, P. (1996). *Raisons pratiques*. París: Seuil, coll. Points.
- Bourdieu, P. (2006). *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama.
- Burke, P. (2004). *¿Qué es la historia cultural?* Barcelona: Paidós.
- Castellanos, R. (1981) “Tene Mujika” *Egin*, urriaren 17. In Auñamendi Entziklopedia. Hemendik jasoa: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/mugica-egana-robustiana/ar-155464/> (accessed 29 maiatza 2021).
- Crespo, C. eta Ciordia, E. (2020). *Baginen. Euskal herriko historia emakumeen bitartez*. Iruñea: Txalaparta.

- De Pablo, S.; Mees, L. & Rodriguez Ranz J.A. (1999). *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalismo Vasco, I. 1895-1936*. Barcelona: Crítica.
- De Pablo, S.; Mees, L. & Rodriguez Ranz J.A. (2001). *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalismo Vasco, II. 1936-1979*. Barcelona: Crítica.
- De Paula Madrazo, F. (1848). *Una expedición a Guipúzcoa, en el verano de 1848*. Madrid: Imprenta de Don Gabriel Gil. [Consulta online no paginada: <http://www.ingeba.org/klasikoa/expedicion/libro5.htm>]. (accessed 29 maiatza 2021).
- Del Valle, T. (1997). El género en la construcción de la identidad nacionalista. *Ankulegi. Revista de Antropología social*. (1), p. 9.
- Del Valle, T. (zuz.) (1985). *Mujer vasca. Imagen y Realidad*. Barcelona: Anthropos.
- Dorronsoro, L. (2004). Tene Mujika (1888-1981). *Bidegileak*. (35). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Elorza, A. (1978). *Ideologías del nacionalismo vasco*. Donostia: Haranburu.
- Ereña, G. (2019). *Isidoro Fagoaga. El tenor olvidado*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. [Eranskinak hemendik jasoak: https://www.culturavarra.es/uploads/files/Apendice_Fagoaga.pdf].
- Etzaniz, N. (1960). Deba'ko gazteak eta euskera. *Deba*. (1). Zenbakitu gabea.
- Fairclough, N. (1992). *Discourse and Social Change*. Cambridge: Polity Press.
- Fontcuberta, J. (2010). *La cámara de Pandora: La fotografi@ después de la fotografía*. Barcelona: Editorial Gustavo Gili.
- Gabilondo, J. (2020). "Ebentoa vs Apokalipsia vs Matxinadak". Jakin jardunaldia *Pandemiak, distopiak eta mundo berriak. 2020-07-16*. Hemendik jasoak: <https://www.jakin.eus/bideoak/2020-pandemiak-distopiak-eta-mundu-berriak/joseba-gabilondo-ebentoa-vs-apokalipsia-vs-matxinadak-utopiarik-gabeko-politikaz/310?p=1>
- Garmendia, J. (2004). *La enseñanza rural en Gipuzkoa la labor de la diputación y los ayuntamientos: (1900-1950)*. Bilbao: EHU-UPV.
- Gartzia, P. (2002). *La España metafísica: lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936)*. Madrid: Universidad Autónoma.
- Granja, J.L. (1988). "Julene de Azpeitia. 1888-1980". In Askoren Artean *Julene Azpeitia. Ehun urte mugan*. p. 19-68. Zumaia: Zumaiaiko Udala.
- Goffman, E. (1959). *The Presentation of Self in Everyday Life*. University of Edinburgh Social Sciences Research Centre. Edinburgh: University of Edinburgh, Social Sciences Research Centre.
- Hernández, J.M. (1997). "Naciones, nacionalismos y ciudadanas, ¿de dónde?". In *KO-BIE (Serie Antropología Cultural)*. (8). p. 19-25. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia.
- Hernández, J.M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

- Irigaray, J.A. (1977). Aspectos de antropología socio-cultural en la evolución diacrónica del euskera. *Munibe*. (3-4). p. 275-302.
- Irujo, X. & Urrutia, I. (2014). *Historia jurídica de la lengua vasca (1789-2009)*. Bilbo: IVAP-HAEE/EHU.
- Iza, I. (2011). *El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010*. Bilbo: Euskaltzaindia, Jagon saila.
- Iztueta, P. (1981). Gerraostekoak: JAKINen historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara. *Jakin*. (21). p. 19-34.
- Jäger, S. (2001), "3. Discourse and knowledge: theoretical and methodological aspects of a critical discourse and dispositive analysis". In Meyer, M. and Wodak, R. (eds.) *Methods of Critical Discourse Analysis*, p. 32-62. Thousand Oaks, California (USA): SAGE.
- Jimenez, E. (2021). *Nikole bijotzekua*. Donostia: Elkar.
- Kintana, J. (2002). *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*. Bilbao: BBK Fundazioa & Euskaltzaindia.
- Larrañaga, P. (1978). *Emakume Abertzale Batza: la mujer en el nacionalismo vasco*. Donostia: Auñamendi.
- Larrinaga, A. (2006). *Kulturgintza esparruko eragileen tradizio intelektualak: kulturgi-leak gizarte mugimenduetan*. Bilbo: EHU-UPV.
- Larrinaga, A. (2018). Los movimientos sociales como contextos emocionales: El impulso emocional en el movimiento lingüístico vasco. *Athenea Digital*. (18-1). p. 319-347.
- Lizundia, J.L. (1988). "Julene Azpeitia, maistra, erakundezale, abertzale emakume". In Askoren Artean *Julene Azpeitia. Ehun urte muga*. p. 135-146. Zumaia: Zumaiako Udala.
- Llona, M. (2000). Polixene Trabudua, historia de vida de una dirigente del nacionalismo vasco en la Vizcaya de los años treinta. *Historia Contemporánea*. (21). p. 459-484.
- Llona, M. (2002). *Entre señorita y garçon*. *Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Málaga: Servicio de Publicaciones de la universidad de Málaga.
- Manterola, I. (2017). *Maite ditut maite. Transmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean*. Andoain: Edo!
- Nash, M. (1994). Experiencia y aprendizaje: la formación histórica de los feminismos en España. *Historia Social*. (20). p. 151-172.
- Offen, K. (1988). Defining Feminism. A Comparative Historical Approach. *Signs*. (14-1), p. 119-157.
- Olaziregi, M.J. (2003). "Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa". In *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jar-dunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II)*. Bilbo: Euskaltzaindia, Iker 14.

- Ortiz de Pinedo, A. (2018). Jean Etxepare eta Pío Baroja. *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*. (125), urtarrila-ekaina, p. 85-112.
- Otaegi, L. (1986). *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak*. Donostia: Erein.
- Oteiza, J. (2003). *Abora tengo que irme*. Iruñea: Txalaparta.
- Ramirez de Okariz, I. eta Goikoetxea, N. (2017). *Debako euskararen historia soziala*. Deba: Debako udala.
- Rekalde, I. (2012). “Emakume Abertzale Batza: bere ibilbidea aztergai”. In Bilbao *et al. Emakumea hitza eta bizitza*. Bilbo: EHU-BFA.
- Retolaza, I. (2012). “Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak”. In Bilbao *et al. Emakumea hitza eta bizitza*. Bilbo: EHU-BFA.
- Rubio, M. (2021). Pilare Baraiazarrari elkarrizketa. *Jakin*. (242), p. 11-68.
- Ruiz, N. (2011). *Las organizaciones juveniles del nacionalismo vasco. Política, cultura y ocio (1893-1923)*. EHU: Doktore tesia.
- Sagastizabal, M. eta Legarreta, M. (2016). “La “triple presencia-ausencia”: una propuesta para el estudio del trabajo doméstico-familiar, el trabajo remunerado y la participación sociopolítica”. In Papeles del Ceic. *International Journal on Collective Identity Research*. (2016/1).
- Said, E. (1990). *Orientalismo* [Orientalism (1978)]. San Lorenzo del Escorial: Ediciones Libertarias-Prodhufi.
- Sanchez Carrión, J.M. (1974). Bilingüismo, disglusia, contacto de lenguas. In *ASJU*. (8-1), p. 3-80.
- Sarrionandia, J. (2010). *Moroak gara behelaino artean*. Iruñea: Pamiela.
- Sudupe, P. (1996). *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*. Bilbo: BBK.
- Sudupe, P. (1997). Nemesio Etxaniz (1899-1982). *Bidegileak bilduma*. (8). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Taylor, C. (2006). *Fuentes del yo: la construcción de la identidad moderna* [“Sources of the Self: The Making of the Modern Identity” (1989)]. Barcelona: Paidós.
- Torrealday, J.M. (1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Tarttalo.
- Torrealday, J.M. (2018). *Asedio al euskera. Más allá del libro negro*. Donostia: Txertoa.
- Ugalde, M. (1974). *Hablando con los vascos*. Barcelona: Ariel.
- Ugalde, M.; Goñi, J.M.; Rodríguez, F.; Larrañaga, I. (1988). *Jose Ariztimuño Aitzol. Biografía y rasgos mayores de su obra. Biografía eta bere ekintzaren alderdi nagusiak*. Donostia: Erein.
- Ugalde, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco: Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*. Bilbao: Servicio de Publicaciones de la Universidad del País Vasco y Emakunde.
- Urkiza, A. (2013). Las mujeres en la inteligencia. *Hermes*. (44), p. 4-18.
- Urkizu, P. (2007). XX. mendeko euskal teatroaz ikuspegi orokorra. *Hegats*. (40), p. 55-77.

- Urquijo, J. (1919). Lengua internacional y lenguas nacionales: el euskera, lengua de civilización. *Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV)*. (10-2), p. 164-180.
- Van Dijk, T. (2000). *Ideology and discourse: A Multidisciplinary Introduction*. Thousand Oaks, California (USA): SAGE.
- Yuval-Davis, N. (1997). *Gender & Nation*. London: SAGE Publications.
- Zabaleta, M. (2014). De los Olaciregui a los Loidi: Una familia de Rentería entre dos exilios: 1834 y 1936. *Bilduma* 26, 55-180.
- Zalbide, M. (2015). XX. mendeko hizkuntza-plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan. *Hermes*. (50), p. 10-29.
- Znaniecki, F. (1944). *Las sociedades de la cultura nacional y sus relaciones*. Ciudad de México: Colegio de México.

10. ERANSKINAK

10.1. Tene Mujikaren lanak

LIBURUAK

- Antontxo (Gipuzkeraz). Umientzako ipuyak.* Euzko-Gastedija. Bilbo. 1914. 31 or.
- Koldobika ta Jon (gipuzkeraz). Umientzako ipuyak.* Euzko-Gastedija. Bilbo. 1914. 18 or.
- Zoriyonaren jauregiya (gipuzkeraz). Umientzako ipuyak.* Euzko-Gastedija. Bilbo. 1914. 22 or.
- Nekane edo Neskutzaren babesa (Umientzako ipuña, antzezki-eraz).* Jaungoiko-Zale. Zornotza. 1922. 16 or.
- Miren Itziar'i idazkiak eta olerkiak.* Jaungoiko-Zale. Zornotza. 1923. 126 or.
- Cuadernos de vascuence hablado (Euzkel idaztiñoak). Cuaderno primero.* Itxaropena. Zaurutz. 1968. 20 or.

LIBURU ZATIAK

- «Emakumeak eta Euskera», in: Askoren artean (1926): *Bigarren Euskalegunetako Itzal-diak Doneztebe-n. 1923-garren Iraillean ospatuak.* Gaubeka. Bermeo. 53-59.
- «Muxika'tar Errobustene, «Tene» [Ama — Muxua — Ikazkin liluratua — Gogonegarra — Arno'ko Kurutza — Neskuts minduari]», in: Aita Onaindia (1954): *Milla euskal-olerki eder.* Karmeldar Idaztiak. Zornotza. 848-852.
- «Sorgiñak Arranomendian», in: Askoren artean (1977): *Lekuona'tar Manuel jaunaren omenezko idazki-bilduma II.* Kardaberaz Bazkuna. Gasteiz. 163-164.

ARTIKULUAK

- Antzerti. Euskal antzertiaren illerokoa*
- «Gogo-Oñazeak. Iru ekitaldidun antzerkia», 34-35-36. zk., 1934-10/12: 1-72.
- «Gabon. Umientzat antzerkitxo», 46. zk., 1935-10: 1-13.

Argia

- «Mutil bat, eta beste bat», 99. zk., 1923-03-11: 1.
 «Neskamiak ala etxekoandriak?», 157. zk., 1924-04-20: 1.
 «Merkatu arratsaldea», 170. zk., 1924-07-20: 1.
 «Apaizaren eguna», 172. zk., 1924-08-03: 1.
 «Goizetik gabera», 175. zk., 1924-08-24: 1.
 «Orban gabeari», 190. zk., 1924-12-07: 3.
 «Erabakia», 195. zk., 1925-01-11: 1.
 «Leyotik», 232. zk., 1925-09-27: 1.
 «Andere ingoskiak», 714. zk., 1934-12-16: 1.
 «Andere ingoskikak», 716. zk., 1934-12-30: 9.
 «Andere ingoskiak. Nolakoak izan litezken», 718. zk., 1935-01-13: 1.
 «Andere ingoskiak. Nolakoak izan ditezken», 719. zk., 1935-01-20: 5.
 «Andere ingoskiak (amaitzeko)», 720. zk., 1935-01-27: 2.
 «Anderekikoak. Ekin batez oldozten», 721. zk., 1935-02-03: 2.
 «Anderekikoak. Asitzea bear-bearreko», 724. zk., 1935-02-24: 1.
 «Anderikoak. Gure arazoaz (Ira'ri)», 727. zk., 1935-03-17: 2.
 «Anderekikoak», 730. zk., 1935-04-07: 1.
 «Egunoroko ogia», 733. zk., 1935-04-28: 2.
 «E.A.B. dala-ta...», 735. zk., 1935-05-12: 1-2.

Argia'ren egutegia

- «Baselizako Ama Neketsua», 1926: 81-83.
 «Gure al aundia», 1931: 65-66.
 «Emakume-Bazkunak ¿zertako?», 1932: 107-108.
 «Arno'ko kurutza», 1935: 154-155.
 «1936-2036», 1936: 61.

Deva

- Deva 1, 11 (1960) «Telex Markesa eta Bixente Pasio»
 Deva 2, 22-24 (1960) «XX.garren Sandrokiak»

Diario Vasco, Euskeraz atala

- «Berri onaren pozetan», 1973-02-11
 «Emakume edaleak», 1973-03-04
 «Kontu zaarrak», 1973-03-25
 «Amatxorentzat ikastola..., bai; bai... ikastola», 1973-07-22
 «Emakumeok asmo berritan», 1973-08-19
 «Adurtzaleak dirala-ta», 1973-09-09
 «Emakumeak, gizasemeak eta "moda"», 1973-11-04
 «Jostunak», 1973-12-02

- «Lengo gaiari jarraitzen», 1973-12-30
 «Guraizak, jostorratza ta aria», 1974-02-03
 «Orain, len, lenago», 1974-03-31
 «Betaniako Maria», 1974-04-28
 «Deba'n erori; Mutriku'n amildu», 1974-05-26
 «eguzkia apuko», 1974-06-16
 «Kezka larriak», 1974-07-07
 «Gure ikastola gaxuak», 1974-07-21
 «Agur Petrita», 1974-08-04
 «Euskera batua», 1974-08-18
 «Pozak eta kezak», 1974-09-01
 «Nuklear indar-etxea dala-ta», 1974-10-06
 «Ikastolak eta euskera "batua"», 1974-11-10
 «Etxekoandrea ta ni 1. Baratzuri xopa», 1975-01-12
 «Etxekoandrea ta ni 2. Lengoak maxiatzen», 1975-01-26
 «Etxekoandrea eta ni 2. Oraingoak maxiatzen», 1975-02-09
 «Etxekoandrea eta ni 2. Deban Errektoreri omenaldi», 1975-03-09
 «Julene Azpeitia», 1975-03-23
 «Etxekoandrea eta ni 4. Miriam», 1975-04-13
 «Etxekoandrea eta ni 5. Lotsadunen artera?», 1975-05-04
 «Etxekoandrea eta ni 6. Erabaki on bat», 1975-05-18
 «Etxekoandrea eta ni 6. Nere urteurrena», 1975-06-15
 «Etxekoandrea eta ni 7. Noizbaiten norbait!», 1975-06-29
 «Etxekoandrea eta ni 8. Ori zergatik? Baña zergatik?», 1975-07-13
 «Etxekoandrea eta ni 9. Etorkizunari begira», 1975-07-27
 «Etxekoandrea eta ni 10. Moda itzaren esanaia», 1975-08-17
 «Etxekoandrea eta ni. 11. Txikikeria txikian gelditzen da», 1975-09-07
 «Etxekoandrea eta ni 12. Amaren itxumena», 1975-09-21
 «Etxekoandrea eta ni 13. Eskola txikia eta eskola aundia», 1975-10-05
 «Etxekoandrea eta ni 13. Erabili bearreko gaiak», 1975-11-16
 «Etxekoandrea eta ni 14. Gabon-Eguberri! Gabonzar-Urtuberri!», 1975-12-28
 «Etxekoandrea eta ni 15. Zarrak eta gazteak.», 1976-02-15
 «Etxekoandreak eta ni 16. Zarrak eta gazteak II», 1976-04-25
 «Etxekoandreak eta ni 17. Pozak eta pozik», 1976-06-20
 «Etxekoandreak eta ni 18. Eta udaran zer», 1976-07-04
 «Ikerri», 1976-07-25
 «Teneri», 1976-08-15
 «Fraile gazte batek», 1976-10-03
 «Etxekoandreak eta ni. EAB», 1976-12-26
 «Etxekoandreak eta ni 20. Gabon giroan kontu-kontari», 1977-01-09

«J.M. Alegriari», 1977-08-28

El Día

- «Euskal itxasaldeko zaindaria», 1930-06-15: 12.
 «Irugarrena ¿nor?», 1930-08-10: 12.
 «Iritzi berri gaiztoak», 1930-09-16: 12.
 «Berri on baten albistari», 1931-03-25: 8.
 «Itziar'ko bidezkundeatzaz», 1931-05-03: 10.
 «¿Bai ala ez? Neska-idazle batzarra», 1931-05-06: 8.
 «Bidezkunde ondoren», 1931-05-16: 8.
 «Usteaz bestera», 1931-05-26: 10.
 «Azkatasun zaleak», 1931-06-24: 14.
 «Tori nere iritzia», 1933-07-29: 10.
 «Poxpoliñak atzerritarren begietan», 1933-09-03: 6.
 «Prakak... prakadunak... praka gabeak», 1933-09-29: 10.
 «Las cejas de Marlene Dietrich y el euskera», 1935-02-05: 6.
 ««Mujer que sabe latín...»», 1935-02-17: 10.
 «Carmencita es ingeniero», 1935-03-03: 10.
 «La «Eva» de «Adán»», 1935-03-17: 12.
 «Jaungoikoa beti ematen», 1935-03-31: 6.
 «Bear-bearreko», 1935-05-18: 6.
 «¡Ernai, emakumak!», 1935-07-04: 7.
 «Aurkezpen eraz», 1935-09-12: 7.
 «Munita'tar Iñake», 1935-09-27: 7.
 «Seasken olertia», 1935-11-23: 7.
 «Donostiarra bidean», 1935-12-20: 7.
 «Iru erreginak», 1936-01-08: 6.
 «Lan eta lan beti», 1936-01-08: 6.

Euskal-Esnalea

«Gure aberatsak», 194. zk., 1920: 2.

Euskera

- «Tene Mujika andrearen hitzak», 21. zk., 1976: 158-159.
 ««Ama» olerkia», 26. zk., 1981,2: 669-670.

Euskerazaintza

«Argia'ren egutegia. 1936-2036», 6. zk., 1989: Barruko azala.

Euzkadi

«Aitona», 1.142. zk., 1916-03-25: 1.

- «Nere aitaren jayotetxeari», 1.144. zk., 1916-03-27: 8.
 «Iñude legorra», 1.155. zk., 1916-04-07: 8.
 «Atsekabea», 1.158. zk., 1916-04-10: 8.
 «¿Kirikiño, keneral errusitarra?», 1.176. zk., 1916-04-29: 1.
 «Nere albistariak», 1.178. zk., 1916-05-01: 1.
 «Aitona», 1.221. zk., 1916-06-14: 1.
 «Nere txoriakin», 1.373. zk., 1916-12-04: 1.
 «Aizkora-jokua», 1.509. zk., 1917-04-12: 1.
 «Agur Euzkadi!», 1.592. zk., 1917-04-23: 9.
 «Mariñel zarra», 1.724. zk., 1917-09-27: 1.
 «Aurtxuaren irriparria», 1.748. zk., 1917-10-21: 1.
 «¡Mendi maitiak! (Abestiya)», 1.893. zk., 1918-03-16: 1.
 «Gotzontzuaren musua», 1.955. zk., 1918-05-18: 1.
 «Sortzez Garbiari», 2.088. zk., 1918-12-08: 1.
 «Gogo-negarra», 2.171. zk., 1919-01-26: 1.
 «Biotza, maitakor (Gogarpena)», 2.185. zk., 1919-02-09: 1.
 «Goruntz begira», 2.225. zk., 1919-03-23: 1.
 «Neskutz minduari», 2.243. zk., 1919-04-11: 1.
 «Arrantzallaren abestia», 2.419. zk., 1919-10-08: 1.
 «Juan Zaigu...», 2.430. zk., 1919-10-19: 1.
 «Miren'i», 2.479. zk., 1919-12-08: 1.
 «Arrantzallaren otoa», 2.561. zk., 1920-03-06: 1.
 «Joseba Deunari», 2.572. zk., 1920-03-19: 1.
 «Nere leyotik», 2.740. zk., 1920-10-07: 1.
 «Iltegian», 2.762. zk., 1920-11-01: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.817. zk., 1921-01-16: 2.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.823. zk., 1921-01-23: 1.
 ««Arbil-Mendi»-ri», 1921-02-17: 1.
 «Emakumea eta aberria (1). Miren Itziarr'i idazkiak», 2.847. zk., 1921-02-22: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.852. zk., 1921-02-27: 1.
 ««Arbill-Mendi»-ri», 2.854. zk., 1921-03-02: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.858. zk., 1921-03-06: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.869. zk., 1921-03-20: 1.
 «Zertxobait «Asier»-ri», 2.871. zk., 1921-03-23: 1.
 «Emakumea eta Aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.874. zk., 1921-03-27: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.892. zk., 1921-04-17: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-04-24: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.905. zk., 1921-05-03: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.910. zk., 1921-05-08: 1.
 «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.821. zk., 1921-05-22: 1.

- «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.839. zk., 1921-06-12: 1.
- «Emakumea eta aberria», 2.845. zk., 1921-06-19: 1.
- «Emakumea eta aberrija. Miren Itziarr'i idazkijak», 2.851. zk., 1921-06-26: 1.
- «Miren Itziarr'i idazkiak», 2.857. zk., 1921-07-03: 1.
- «Emakumea eta aberria. «Agerre»-k, eta nik ere...», 2.861. zk., 1921-07-08: 1.
- «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.863. zk., 1921-07-10: 1.
- ««Akillako Morroya»-ri», 2.890. zk., 1921-08-12: 1.
- «Emakumea eta aberria. Miren Itziarr'i idazkiak», 2.898. zk., 1921-08-21: 1.
- «Osoro'tar Gotzon'i», 2.941. zk., 1921-10-14: 1.
- «¿Esango ote leuke?», 2.955. zk., 1921-10-30: 1.
- «Amonaren poza», 3.020. zk., 1922-01-15: 1.
- «Galdea eta erantzuna», 3.085. zk., 1922-09-27: 1.
- «Dantza nastua dala ta...», 3.112. zk., 1922-10-29: 1.
- «Eleizalde'ren osasun-aldez. Deba'tik», 3.136. zk., 1922-11-30: 1.
- «Miren'i», 3.143. zk., 1922-12-08: 1.
- «Uri zale bati», 3.204. zk., 1923-02-18: 1.
- «Olerki baten edestia», 3.216. zk., 1923-03-04: 5.
- «Mari-Txoroak», 3.221. zk., 1923-03-11: 5.
- «Gu ere bai», 3.224. zk., 1923-03-15: 5.
- «Besteak irakasleri», 3.230. zk., 1923-03-22: 5.
- «Aste Deuna eta Emakumea», 3.233. zk., 1923-03-25: 5.
- «Keska gezurtiak», 3.236. zk., 1923-03-29: 5.
- «Nori begitzen diegun», 3.238. zk., 1923-04-01: 5.
- «Ikerraldi bat», 3.247. zk., 1923-04-12: 5.
- «Janzkerak eta gu», 3.250. zk., 1923-04-15: 5.
- «Dantza lotua», 3.266. zk., 1923-05-04: 5.
- «Apainzalekeria», 3.268. zk., 1923-05-06: 5.
- «Egarri ese aziña...», 3.277. zk., 1923-05-17: 5.
- «Gizonezkoa emakumeakiko», 3.280. zk., 1923-05-20: 5.
- «Lengoan», 3.284. zk., 1923-05-25: 5.
- «Emakumeak bai, baña gizonak ere bai», 3.289. zk., 1923-05-31: 5.
- «Itz bi...», 3.294. zk., 1923-06-07: 5.
- «Apaizarena», 3.297. zk., 1923-06-10: 6.
- «Neskatxen aureskua», 3.306. zk., 1923-06-21: 5.
- «Ondarroatarrakin», 3.309. zk., 1923-06-24: 6.
- «Deun Jon Goiza», 3.312. zk., 1923-06-28: 6.
- «Gona luzeak», 3.315. zk., 1923-07-01: 5.
- «Emakumearen eskubideak», 3.321. zk., 1923-07-08: 6.
- «Gogo-negarra», 3.344. zk., 1923-08-04: 6.
- «Erdel-Idazlien zintzotasunik-eza», 3.345. zk., 1923-08-05: 6.

- «Anderakikoak. Gizasemeen lagunak», 5.757. zk., 1931-05-27: 5.
 «Euzko-langillemea», 6.048. zk., 1932-05-14: 1.
 ««Emakumeak» eta «Margaritak» edo euli gogaikarriak», 6.054. zk., 1932-05-21: 1.
 «Gaiztakeri eskutuak», 6.060. zk., 1932-05-28: 5.
 «Maitasun-ikastola», 6.066. zk., 1932-06-04: 5.
 «Emakume-idazkijak. Eskeñirik onena», 6.075. zk., 1932-06-15: 5.
 ««Gazigozoak»», 6.365. zk., 1933-05-03: 8.
 «Prakak... prakadunak... prakagabeak», 6.494. zk., 1933-09-30: 8.
 «Emakumak. Itziar'ko gure eguna», 7.118. zk., 1935-10-18: 10.

Euzkerea

- «Ikurrin gordea», 30. zk., 1931-06-15: 642-643.

Euzko-Deya

- «Gure artetik», 5. zk., 1921-10: 73-74.
 «Aberriaren udaberria», 6. zk., 1921-11: 87-88.
 «Gure artetik. Bakoitzak berak daki...», 11. zk., 1922-04: 63-65.
 «Mirentxo'ren burestuna», 16. zk., 1922-09: 136-138.
 «Maitale ituna», 22. zk., 1923-03: 41.
 «Arrantzaliaren otoya», 27. zk., 1923-08: 115-116.

Euzko-Deya. Jaungoikua eta Lagi-Zarra

- «Erti-gayak. Jauntxuaren morroyak», 4. zk., 1916-04-01: 6-7.
 «Nere maittia», 10. zk., 1916-07-01: 4.
 «Osagai ona», 11. zk., 1916-07-16: 8.
 «Aberkoyak», 12. zk., 1916-08-16: 7.
 «Itxaropena», 14. zk., 1916-09-01: 8.
 «¡Ene mendi maittiak!», 16. zk., 1916-10-01: 7.
 «Lo gozoa», 17. zk., 1916-11-01: 4-5.
 «¡Iraun beti!», 18. zk., 1916-11-16: 3.
 «Ordu larriyak», 20. zk., 1916-12-16: 9.
 «Josu aurrari», 21. zk., 1917-01-01: 3.
 «Maintoni'ri», 22. zk., 1917-01-16: 6.
 «Nai ta ezin», 23. zk., 1917-02-01: 5.
 «¡Ez txarra!...», 24. zk., 1917-02-16: 3.
 «¡Egabera gaxua!», 25. zk., 1917-03-01: 4.
 «Deun-Joseba'ren margerki baten aurrian», 26. zk., 1917-03-16: 3.
 «Lenbiziko arantzalilla», 28. zk., 1917-04-16: 6.
 «¡Arren, lore ederra!», 29. zk., 1917-05-01: 6.
 «¡Amarik ez!», 30. zk., 1917-05-16: 3.
 «Mendiyan illunabarra», 31. zk., 1917-06-01: 3.

- «Maitta zazu...», 32. zk., 1917-06-16: 3.
 «Biyotz-beraz», 33. zk., 1917-07-01: 6.
 «¡Bekaitz gaiztoa!», 39. zk., 1917-11-01: 5.
 «Elurtza (abestiya)», 43. zk., 1918-01-16: 5.
 «Zorgiñak», 45. zk., 1918-02-16: 4-5.
 «Berrerosliaren oñetan», 48. zk., 1918-04-01: 6.
 «Deun-Kepa eta auzokide biyak (ipuin zarra)», 51. zk., 1918-05-16: 5.
 «Ogena, ñorena (ipuya)», 55. zk., 1918-07-16: 4.
 «¡Enaratxua!», 58. zk., 1918-09-01: 3.
 «Ollanda ta pattia (ipuya)», 59. zk., 1918-09-16: 6.
 «Larrebeya (ipuya)», 60. zk., 1918-10-01: 5.
 «Astoa eta azeria (ipuya)», 61. zk., 1918-10-16: 4.
 «Kardantxoloa eta ormatxoria (ipuya)», 62. zk., 1918-11-01: 3.
 «Nola Sabin'i...?», 64. zk., 1918-12-01: 3.
 «Egiyaren bildur (ipuya)», 68. zk., 1919-02-01: 4.
 «Azken-agurra», 70. zk., 1919-03-01: 6.
 «Euzki-eguna», 72. zk., 1919-04-01: 3.
 «Amari», 79. zk., 1919-12-01: 5.
 «Bakaldunen bezuza», 81. zk., 1920-01-01: 2.

Gure Herria

«Ama», 9. zk., 1923: 576.

Jaungoiko-zale. Euzkeldunei-euskeraz

- «Orrilla», 121. zk., 1919: 75-76.
 «Otz», 124. zk., 1919: 96.
 «Amari», 125. zk., 1919: 107.
 «Basatxonua», 129-130. zk., 1919: 141.
 «Baserriko jauparia», 132. zk., 1919: 158.
 «Belen'en», 136. zk., 1919: 188.
 «Maitearen nekea», 143. zk., 1920: 56.
 «Nere maiteari», 148. zk., 1920: 98.
 «¡Poztu zaitez!», 160. zk., 1920: 193.
 «Eder-ederrenari», 232. zk., 1924-05-15: 85.
 «Zuri Miren», 265. zk., 1925: 237.
 «Ereserkia», 400. zk., 1931: 197.

Karmel

«Neurekikoak», 1970/4. zk., 1970: 38.

Zeruko Argia

- «Aurten aurtengoa», 284. zk., 1968-08-11: 14.
 «Olerti'ri», 297. zk., 1968-11-10: 2.
 «Basarriri'ri agiriko idaztia», 310. zk., 1969-02-09: 3.
 «Txoro aizea», 336. zk., 1969-08-10: 17.
 ««Juantxo Txiki»», 345. zk., 1969-10-12: 11.
 «Etxekoandrea... «mito» bat...?», 424. zk., 1971-04-25: 3.
 «Aspaldiko auzia gaurkotzat», 430. zk., 1971-05-30: 3.

ITZULPENAK

Egan

Fagoaga, Isidoro de: «Jose Maria Iparragirre», 1976/1-6. zk., 1976: 71-92.

El Día

«Deabrua ta bere adizkidea», 1935-12-20: 7.

Zeruko Argia

Zorrilla, Jose: «Egaka ta igeska», 233. zk., 1967-08-13: 12.

10.2. Informatzaileen profilak

1. Informatzailea (I1): Emakumea, 1931n jaioa Gipuzkoako herri euskaldun batean eta familia abertzale batean, ofizioz idazkaria, Debako ikastolarekin harreman handikoa. Gaztetan formazio sendoa izandakoa, besteak beste, atzerrian egonaldi luzeak egindakoa. 1962an iritsi zen Debara bizi izatera lan eta familia kontuak tarteko eta bertan ezkondu eta hazi zuen familia. Oargi taldearen bueltan ibilia, euskalduntze-alfabetatze dinamiketan eta ikastolan buru-belarri ibilitakoa. EAJko militantea eta ardura politikoak izandakoa udalean.

2. Informatzailea (I2): Emakumea, 1944an Deban jaioa giro euskalduneko familia batean, ofizioz bulegaria, Debako ikastolako gurasoa. 50. eta 60. hamarkadan euskal kulturako ekimenetan hartu zuen parte monologoak irakurriz eta antzerki laburrak eginez Oargi taldearekin. Garai horretatik aurrera izan zuen harremana Tene Mujikarekin. Hamarkada horietan bizi zen esnaera abertzalean hartu zuen parte bikotearekin batera. Iparraldean aterbetuak egon ziren biak bikotearen militantzia politikoaren ondorioz diktaduratik ihes egin behar izan zuelako. Familiako harremanak tarteko, lagun zuten Mixel Labegeriek

ezkundu zituen Kanboko herriko etxean. Haurra iparraldeko ikastola batean eskolaratu zuten. Frankismo ostean Debara itzulita bertan berregin zuen bizi-modua familiak.

3. Informatzailea (I3): Gizona, 1931n jaioa Gipuzkoako herri euskaldun batean eta familia abertzale batean, ofizioz irakaslea eta idazlea, Debako ikastolako gurasoa. Formazio handia jaso zuen seminarioan eta testuinguru horretan euskal eliza abertzaleko kide eta 50 zein 60. Hamarkadako giro intelektual abertzalea ongi ezagutu zuen. Apaizgoa utzita, 70. Hamarkadan ezker abertzaleko militantzian eraikitako harreman pertsonalak tarteko, Deban sortu zuen bere familia eta geroztik Deban bizi izan da. Harreman zuzena izan zuen Tene Mujikarekin biak sortzaile izanik elkarlanean aritu izan zirelako literatur genero ezberdinen bueltan. Debako eskola publikoaren euskalduntze-prozesuaren bultzatzaileetako bat izan zen. Ezker abertzaleko militantea.

4. Informatzailea (I4): Gizona, 1948an Itziarren jaioa, ofizioz lantegiko langilea eta irakaslea, Debako ikastolako gurasoa. Aita Ostolazatarren EBE-FO eskolan ikasle ibili zen 20. hamarkadan eta Mardari auzoko baserrietan irakasten aritu zen 40. hamarkadan. Informatzaileak harremana izan du Ostolaza fundazioarekin. Debako eskola publikoaren euskalduntze-prozesuaren bultzatzaileetako bat izan da 80. Hamarkadatik aurrera. 60. Hamarkadaren bukaeran ETAkide izan zen eta militantziaren ondorioz iparraldean bizi izan zen hainbat urtez bere familiarekin. Frankismo ostean Debara itzuli zen eta irakaskuntza arautuan eta herrigintzako proiektuetan ibili da geroztik.

5. Informatzailea (I5): Gizona, 1935ean Deban jaioa, baserritarra. Mujikatarren dendara egunero joaten zen haurtzaroan lehengaiak saldu eta eroatera. Baserriko lanak eta lantegikoak bateratu izan ditu eta baita kargu instituzionalak ere bai. EAJko gobernu-taldeko kide izan zen 80. hamarkadan independente moduan eta garai horretan martxan jarri zuten Tene Mujika literatur lehiaketa. 50. Hamarkadako giro sozialean eragile izan zen eta Oargiren bidez kultura eta politika abertzalea sustatzen aritu zen. Ikastolaren sortzaileetako bat izan zen. Gaur egun euskalgintzako eragilea da.

6. Informatzailea (I6): Gizona, 1946an jaioa, itsas gizona eta enpresaria, gurasoak merkatariak zituen. Haurtzaroa Madrilan igaro bazuen ere 14 urterekin, aitaren herrira, Debara etorri zen bizi izatera eta handik gutxira itsas-

ketak egin zituen. Tene Mujikaren etxeko ilobaren lagun pertsonala izan zen eta etxeko harremana izan zuen Mujikatarrekin. Debatik kanpo egin du bere bizitza, itsasoan eta atzerrian. Diasporako giro abertzaletan eragilea izan da zenbait urtez. Euskaraz zertxobait egiten du. Elkarrizketa hau gaztelaniaz egin dugu.

7. Informatzailea (I7): Emakumea, 1943an jaioa, lau senideko familia bateko alaba zaharrena, Herri Batasunako zuzendaritzako kidea eta politikari ezaguna. ETAko militantea izan zen eta Burgosko epaiketan zigortuetako bat izan zen. Tene Mujikaren euskarako ikasle izan zen umetan, haren antzerkitan eta errezitalditan parte hartu zuen eta harreman estua izan zuen Tene Mujikarekin urte luzetan harik eta 70. hamarkadan bien artean, arrazoi ideologikoak tarteko, etena izan zen arte. Debako euskalgintzan pertsona esanguratsua izan zen 60. hamarkadan euskal jaien antolaketan, gau eskoletan eta ikastolaren sorreran aritu baitzen.

8. Informatzailea (I8): Emakumea, 1934an jaioa, 5 senideko familia bateko alaba, kale-baserri batean sortua, Debako ikastolako andereñoa, katekista. *Zes-terokua* izeneko familia abertzalean hazia, herriko plazan baserriko produktuak saltzen zegoela eskaini omen zioten ikastolan ordezkapen bat egitea 1969an eta egun hartatik jubilatuta arte haur txikienen irakasle izan zen. Neska koxkorra zela 50. hamarkadan Tene Mujikaren gidaritzapean antzezlanak eta dantzak egin zituen.

9. Informatzailea (I9): Emakumea, 1944an jaioa, langile familia batean sortua izanagatik formazio jasoia izan zuen moja kongregazio elitista batek bekatuta lehenik eta Donostiako maistra eskolan diplomatua ondoren. 1965ean Debako ikastolako lehen irakasle tituluduna izan zen eta urte luzez ikastola beraren titularra. Ikastolaren lehen urteetan buru-belarri aritu zen lanean heziketa plangintza, ikasmaterialak zein legalizazio prozesuak bideratzen. Testuinguru honetan izan zuen harremana Tene Mujikarekin.


10.3. Tene Mujikaren artxibo pertsonalaren erregistroa

DOKUMENTAZIOAREN IBILBIDEAREN AZALPENA: Tene Mujikaren artxibo pertsonalaren berri izan genuen 2021eko azaroaren 4an Debako Udaleko kultur teknikari den Raimundo Amutxastegiren dei bati esker. Amutxastegiri Debako herritar batek, Roke Aldabaldetrekuk, esan zion bere anaia zenak, Patxi Aldabaldetrekuk, jaso zuela Tene Mujikaren artxiboa haren iloba zen Jose Antonio Mujikaren eskutik. Patxi Aldabaldetrekuren seme-alabekin jarri zen harremanetan Amaia Zinkunegi Debako udaleko euskara teknikaria eta horrela jakin genuen Iñigo Aldabaldetrekuk, Patxi Aldabaldetrekuren semeak, gordetzen zuela bere bulegoan artxibo pertsonala. Horrela, Iñigo Aldabaldetrekuren eskutik jaso genuen kutxa haundi bat 2021eko azaroaren 24an. Kutxako materialaren lehen ikuskapena egin zuen Nekane Goikoetxeak eta Cira Crespok egin ditu sailkatze eta erregistro-lanak. Lan horiei guztiei argazkia atera die. Lanak bukatuta Iñigo Aldabaldetrekuri itzuli zaio kutxa guztiz ordenatuta 2022ko urtarrilaren 23an. Iñigo Aldabaldetrekuk eskatu digu artxibo pertsonaleko lanak erabiltzerakoan *Patxi Aldabaldetrecu* artxibokoak direla aipatzeko aurrerantzean.

EDUKIARI BURUZ: Azterturiko datuen arabera, fondoak kronologia oso laburra daukala dirudi. Sorkuntza jarduerari begiratzen badiogu, behintzat, ekoizpen gehienak 70eko hamarkadakoak direla ikus daiteke.

1. Informazio-baliabideak: Erljio testuak ageri dira eta harpideturiko euskarazko zenbait aldizkari ere bai. Berak mekanografiatuta nahiz eskuz kopiaututako artikulua eta poemak aurki litezke. Oso litekeena da, formatua dela eta, beste autore batzuen testu mekanografiatu hauek Tenek argitaratu nahi zuen aldizkarirako izatea.
 - 1.1. Monografiak
 - 1.2. Prentsaokoak
 - 1.3. Berak kopiatuak
 - 1.3.1. Mekanografiatuak
 - 1.3.2. Eskuz
2. Jarduera pertsonala eta profesionala: Mediki-errezeta batzuk nahiz dendarekin zerikusia duten hainbat dokumentu.

- 2.1. Fakturak
- 2.2. Medikuairenak (errezetak, analisiak, etab)
- 2.3. Joste-lanak
3. Kanpo-harremanak: Atal honetako zatirik handiena hurrek egindako postalek eta gabonetako postalek osatzen dute.
 - 3.1. Korrespondentzia
 - 3.2. Gabon postalak
 - 3.3. Hurren postalak eta opariak
 - 3.4. Ekimen iragarki edo konbidapenak
 - 3.5. Hildako oroigarriak
4. Elkartegintza eta politika: Atal honetan, Tene, azkenera arte Debako kultur, politika eta gizarte bizitzan sartuta eta informatuta egon zela ikusiko dugu.
 - 4.1. Herriko elkarteak eta ikastola
 - 4.2. Politika
5. Sormen-jarduera: Hau da multzo garrantzitsuena. Katalogatzeko irizpidea formatua izan da. Hiru arlotan sailkatu dira: Mekanografiatuak, eskuz eginak eta argitaratuak.
 - 5.1. Mekanografiatuak
 - 5.2. Eskuz
 - 5.3. Argitaratuak
6. Objektu pertsonalak
 - 6.1. Idazteko materiala
 - 6.2. Gutunentzako materiala
 - 6.3. Objektu erlijiosoak
 - 6.4. Bestelakoak





1.

Tene Mujika *emakumea*

Nekane Goikoetxea



2.

Euskararen esanahia(k)

Onintza Legorburu





EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

ISBN: 978-84-457-3675-3



9 788445 736753